

Joxemari Iriondo

# Xalbadorren itzalean

Hamar urte



Joxemari Iriondo

# **Xalbadorren itzalean**

## **Hamar urte**

---

**Auspoa Liburutegia**  
**326**

IRIONDO, Joxemari (1938-)

Xalbadorren itzalean : hamar urte : Deiadarraren kronika / Joxemari Iriondo. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia/San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2013.

299 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 326)

Atarian: Deiadarra. - Aurkibidea

LG SS 1342-2013. - ISBN 978-84-7907-702-0

1. Xalbador (1920-1976). I. Deiadarra Elkartea. II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Juventud y Deporte. III. Izenburua. IV. Saila.

929 Xalbador

821.361-1"19"

821.361-1"20"



Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz

*Argazkiak:* 16) Xalbador etxolan (A. Zavala); 30) eta 38), egile ezezagunak. 216) Antonio Zavala (K. Loubet); 247) ezezaguna; 292) Basarri (PepeGil). Gainerakoak: JMI-Deiadarra.

*Idazketa, zuzenketa, edizio arduraduna:* J.M. Iriondo.

© Edizio honena: DEIADARRA

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea  
Gipuzkoako Foru Aldundia

400 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-702-0

Legezko Gordailua: SS-1342/2013

Fotokonposizioa: Imanol Tapia

Inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Joxemari Iriondo

# Xalbadorren itzalean

## Hamar urte

Deiadarraren kronika

DEIADARRA



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

Donostia/San Sebastián, 2013

## Atarikoa

---

Atarira irten eta etxeko sutondoa eskaintzen zuten berriketarako gure arbasoek, ahaide, adiskide edo lagunei ongi etorri egiteko, ospakizun edo bilera onez burutu zedin gero. Guk, sutondorik ezin eta kronika hauxe eskaini nahi dizugu gaur, urtez urte Urepelen gurekin elkartu izan zaren Xalbadorzale eta bertsozale lagun horri, gure bilerak ere onez ospatzen jarrai dezagun.

Atzo goizeko kontua dirudi, baina hamar urte haundi beteko ditu aurten Deiadarra taldeak Urepeleko bertsolari haundiaren ohorezko festa antolatzen urtero. Hamar urte eder Xalbadorren itzalean, beti ere maitasun eta begirune haundiz bertso festa eta bilera antolatzen ari garela, beste bertsolari eta bertsozalei diegun maitasun eta begirune berdinez.

### Lehengoen jarraitzaile

Hogeita hamazazpi urte beteko dira 2013ko azaroaren 7an Ferrando Aire Etxart *Xalbador* bertsolaria hil zela. Ezusteko galanta izan zen denontzat ere bere sorterriak eta Euskal Herriak maitasunez omendu zuen egunean –zenbat sufritu ote zuen poetaren bihotzak larrazkeneko egun hartan!–, eta geroztik inoiz hutsik egin gabe, urteoroz antolatu izan da haren omen eta ohorezko festa eta bertso jaialdia Urepelen, itzal eta miresmen haundia baitzuen hark bertsozale eta euskaltzaleen artean. Halaxe izaten jarraitzen du, eta aurrerantzean ere jarrai dezan nahi Deiadarra taldeak. Horretan ahalegintzeko sortu zen, inoren laguntasunik izango duen arte behintzat.

Heriotza hura izan zenetik urteroko bertso jaialdiaren antolatzaile ezberdinak izan dira hogeita hamazazpi urte honetan. Lehenengo hogeita bost urtetan Eskualtzaleen Biltzarrak, eta Joxe Mari Aranalde zenak hartu zuten bere gain antola-

ketaren zama, adiskide eta bertsozale askoren laguntasunez beti. Xalbadorren miresle, goresle eta maitalerik sutsuenak Urepelen bildu eta bertso jaialdi ederraz gozatuz. Gutxienez ere egun bateko bertso festa eta Xalbadorren maitasuna go-goratzea zuten helburu denek.

Hogeita bost urteko lanaz eta udazkeneroko zereginaz nekatu eta antolaketa-lanak eskuz aldatu nahi zituela adierazi zuen Aranaldek, ez zuela jarraituko aurrera ordura arte bezala. Eta holaxe sortu zen Deiadarra taldeari eman zion leku-koa, 2004ko urrian, aurrerantz ere ahal zuen arte laguntzen jarraituko zuela hitzemanaz.

Hola sortu zen lantaldea, Bethart familia, Joxe Mari Aranalde bera, Antonio Zavala, Joakin Berasategi, Joxemari Iriondo eta Urepele eta inguruko beste lagun batzuk elkartuta, errazago baita holako eginkizunei taldean eustea bakarka baino.

### **Nahiko sari**

Hasi eta utzi zuten arte hamaika gazi-gozo (laguntasun, oztopo eta zailtasun) izan zuten lehenengo antolatzaile haiek, eta izan du Deiadarra taldeak ere azkenengo hamar urte honetan urteroko festa antolatu eta onez burutu ahal izateko.

Baina harrotasunez esan eta aitortu nahi dugu etsai baino laguntzaile on gehiago izan dugula larrazkeneroko zereginak antolatzekoan. Eta laguntzaile horiei eskerrak, euskal festa polit bat osatu eta eskaini ahal izan diegula Urepeleko txoko honetan gurekin batera bildu nahi izan duten bertsozale eta euskaltzaleei, denok batean Xalbador goraldtu eta bertsozale-tasunari eustea beste helburu eta saririk gabe. Ez ote da gero nahiko sari holako ahalegin baten alde saiatzeko?

Behin honetara ezkerro, bidean izan dugun hainbat oztopo alde batera utzi eta, besteak beste, aipatu beharreko laguntzaile on asko izan dugula aitortu behar du talde honek, bi-

dezko dela uste baitugu esker oneko izatea bizitzan.

Bakarren bat ahaztuko dugu, baina gure laguntzailerik leialenei eskerrak eman behar dizkiegu:

- Urepeleko Herriko Etxeari,
- Euskaltzaindiari bere babesagatik,
- Bizkaiko Foru Aldundiari, beti harrera ona egin baitugu –hasieran Gipuzkoako Aldundiak ere bai, baina... –,
- Eusko Jaurlaritzari eman digun laguntasun eta babesagatik –P. Lopezen aldia izan ezik–,
- Aquitaine Conseil Regional,
- Pyrennes Atlantiques Conseil General –azkenengo urtean laguntasunik eman ezpadu ere–,
- Sendoa argitaletxeari,
- Euskadi irratitari, Arrate irratitari, Bizkaia irratitari, Iparraldeko irratiei...

Deiadarren laguntzaile onen sailean aipatu nahi ditugu Xendarineko ahizpak, Erramun Martikorena, Ondarroako emakume eta gizon jubilatua, Joxe Mari Egaña eta Mutrikuko herri kirol taldea, Xemein abesbatza (Markina-Bizkaia), Urepeleko besta komitea, Urepeleko eskola, Baigorriko ikastola, Aldudeko Oteitza eta Irulegiko Soroak taldea eta abar, beti inguruan izan baititugu zernahi lan egiteko prest. Auñamendi mendizale elkarte, Jon Beloki eta Patxi Lazcaray, Baigorriko Asteazkenekoak gizon abesbatza, Arrosako Txaranga Trikitilari taldea, Gasteizko Ander eta Imanol Zabaleta trikitilariak, Oiartzungo Zabaleta anaia-arrebak eta beste. Denei gure eskerrak.

Alabaina, guzti horien gainetik, udazkeneko asteburu hauetan urtero gurekin elkartu izan zareten euskaltzale/bertsozale/Xalbador zaleok eskertu behar zaituztegu bereziki, bestela alperrik ziren-eta gainerako laguntasun denak eta Deiadarra taldearen ahaleginak. Ezinbestekoa izan da zeuon izenik eman gabe baina urtez urte hementxe bildu zareten guztion eskuzabaltasuna, askotan eguraldi ona lagun, beste

askotan hotza eta euriarekin. Esango luteke zerbait Xalbadorren artzain etxola ospetsuak eta Urepeleko plazak hitz egin balezateke.

Ez gara hitz-jariotan urtuko, baina zinez eskertsu gagozkitzue denoi; eta aurrerantzean ere zuen laguntasuna beharreko izango dugula gogoratu nahi dizuegu, bestela nekez antolatu ahal izango luke-eta Deiadarrak holako festa xume eder bat Urepelen.

### **Aurrera begira**

Luzea dela dirudi urteak, baina laburra da oso eginkizun bat amaitu orduko hurrengo antolatzen hasi behar denean buru-bihotz, bakoitzak bere bizitzako eginkizunak tartean dituela.

Aurrera begiratu nahi du ordea Deiadarra taldeak berriro ere egunabarra etorriko den itzaropenez, beti aurrera egiteko. Lehenago esan bezala, 2004an hasi zen urteroko festa antolatzen, eta urtez urte Xalbadorren eguna antolatu eta haren lagun eta miresle euskaltzalei eta nonahiko bertsozaleei euskal festa egun atsegin bat eskaintzeko ahalegina egiten dihardugu, bestela nekez bizi lezakeen giroa emanaz bere nortasunari eutsi nahi dion baxter honi. Eta holaxe jarraituko dugu Xalbadorren heriotzako urtemugaren inguruan Urepelen elkar-tu nahi duenik legokeen arte, gure ondoren etor daitezkeen beste antolatzaileei geure laguntasuna emateko prest beti.

Egun jendetsu ala xumea izan, maitasunez antolatu eta ospatuko den egun bat izan dadin nahi du Deiadarrak, etengabe gogora ekarriz 2004ko hasierako lema eta helburu hura:

Deiadarra elkartearen helburua hau da labor erranda:

Gure nortasuna eta Xalbadorrek utzi daukun mezua bizirik atxikitzea nahi dugu iparraldeko eskualdunen artean. Xalbadorren *Ama Euskal Herria (Odolaren Mintzoa,*



205. orr.) bertsuetan oinarrituta sortu da elkartea, eta bere izena hortik datorkio zuzenean:

Baditaike seme hok noizbait orroitzea,  
ama, zu ganik izan dugula sortzea.  
Guhaurek bilaturik ehortzea,  
jasan beharra dugu gaztigu dorpea.

Hil hobi huntan noizbait norbait balabila  
zure izaitearen herrestoen bila,  
lurpetik entzunen du deiadar bipila:  
Hemen dago ama bat bere haurrek hila!

### **Hala ere**

Inork ez dezala pentsa ordea dena leuna eta gozoa izan denik urtez urteko bide honetan, nahiz eta hamar urtean etsai baino laguntzaile gehiago eta hobeak izan ditugun, aurrez esan dugunez. Horixe da egia.

Baina hau ere entzun behar izan dugu noizbait, norbaitek esana baitu lotsagabe asko, taldeak markatu beharra omen daukala lan honetan jarraitzeko laguntasun hoberik nahi badu, zurrumbilo honetako urak bere eihera/errotara eraman nahirik edo.

Esaten dakienak entzuten jakin behar du, entzuten duenak erantzuten bezalaxe –bertsolariak ere horixe egiten baitu: esan, entzun, erantzun–.

Gauza jakina da talde honek laguntasun premia izan duela hasi zenez geroztik, eta izango duela aurrerantzean ere, beste iturri ezkuturik ez du-eta behar dituen sosak biltzeko, arestian aipatu laguntasunak izan ezik.

Ez dugu pentsatzen, ordea, bestelako marka bereizirik beharko lukeenik, bere marka zeintsu den jakin nahi duenari garbi eta harro asko esango baitiogu nortzuk garen, eta zer-

tarako elkartu ginen egun batez Urepeleko Herriko Etxean, 2004ko iralean.

Deiadarra taldearen marka laburra bezain argia da, gizar-te honetan dena bereziki azpimarkatu behar bada ere. Lanak lan eta oztopoak oztopo, Xalbadorren itzalean eta berari begirunez ari gara hamar urtez. Bertsozaleak gara, euskaltzaleak, eta abertzalerik abertzaleena bezain abertzale. Xalbadorren eguna antolatu eta ospatzean, hego eta iparraldeko bertsolaritza eta bertsolariak ditugu gogoan, eta euskaltzaleak oro.

Taldearen markaren berri argiago eman beharko ote luke ba Deiadarrak beharrezko laguntzaile gehiago erakartzeko urteroko premietarako?

Horrela balitz, hori eskatzen dutenek har bezate gogoan, inork beste euskaltzale edo bertsolaririk omendu eta goraldtu nahi izan duenean, edo nahi lezakeenean, dezakeen laguntasuna edonori emateko prest aurkituko duela talde hau, Ahetzeko herriak Mattin omendu zuenean egin genuen bezalaxe, 2011ko uztailaren 10ean.

1967an Euskaltzaindiak antolatu zuen Bertsolarien Txapelketa nagusikoan, Donostian, hiru bertso eskatu zizkion gaiemaileak (Alfontso Irigoyen) Xalbadorri honela: "Beste hiru bertso kantatu behar dizkiotzu salatzaile bati"; eta Xalbadorrek jaulki hiru bertso:


Mingain gaiztoak gu hontaratzen  
gaitu nola edo hala,  
hioen mingainak arkitzen baitu  
beti lanpide zabala.  
Bazinakiten baserri baten  
prestu zintzo nindagoala,  
mín gaizto batek salatu omen du  
kontrabandan nandailala.

Anai-arrebok, gogoan hartu  
emango dedan bertsuian,  
egia zerbait izango baita  
arkitzen naizen kasuan.  
Lengo batean salatzaile hoi  
bide makurretik zuan;  
bere burua salbatzeko nau  
ni hor ezarri putzuan.

Zeruko santu guziak eni  
ari zaizkit errepikan,  
salatze horier eskula santan  
ez eiteko kasurikan.  
Hoiek bota nahi izanagatik  
egon gaitezen zutikan;  
hoien esanak ez du balio  
mundu huntako bizitzan.



**Xalbador  
eta bere ingurua**



Xalbador bere etxolan



Zanpantzarra, Donapaleuko yoaldunak, Urepele 2012

# Nor zen Xalbador

---

## ■ Sortetxea

Aski ezaguna da Xalbador bertsolaria lehendik ere; baina ez da gaizki etorriko bizpahiru xehetasun xume ematea Deiadarra taldearen hamargarren urteurreneko kronika honetan.

Urepeleko (Baxenafarroa) Xalbadorrenea basetxean jaio zen, 1920ko ekainaren 19an. Ferranddo Aire Etxart zen bere grazia, baina *Xalbador* goitizenez ezagutu zuen Euskal Herriak.

Zinez maite zuen sortetxea, eta harrotasunez aitortzen:

Oi gure etxe maitea,  
orroitzapenez betea,  
zorionaren atea!

Zure altzoan iragana dut sortzetik orai artea.

Izanagatik pobrea,  
bertzeak baino hobea  
ni sortu nintzan etxea.

Zutaz hainbertze entzuna,  
aunitzentzat ezaguna,  
o bizipide urruna!

Nik betidanik arbuiatu dut zure aberastasuna.

Hau da guk deraukaguna,  
zu baitan eskas duzuna:  
etxeko goxotasuna.

Ene haur onak, badakit  
luzaro gabe engoitik  
joanen naizela mundutik.

Arbasoen ganik ukan dohaina ez utz sekula eskutik,

aldegitean hemendik  
heier erraitea gatik:  
“Etxea han dago xutik!”.

Pertsu hauk bururatzean,  
azken finez orroitzean,  
emanen naiz otoitzean:  
“Etxea, noizbait utziko zaitut aunitz pena bihotzean;  
Jaunak zure babesean,  
nola bainintzan sortzean  
naukala heriotzean”.

(*Sortetxeari – Odolaren mintzoa, Xalbador*)

## ■ **Sorterria**

Bizialdi osoa Urepelen igaro eta bertantxe hil zen, 1976ko azaroaren 7ko omenaldi egunean, bere nongotasuna goraki aitortuta:

Nik zonbat pertsu alde ditudan ezarri,  
laster agertuko da aunitzen pozgarri.  
Kantatu izan diot Euskal Herriari,  
edo gure hizkuntza dohakabeari;  
gaur, Urepele, zuri hasten naiz kantari,  
zu baitan munduratu naizenaren sari.

Urepele, derautzut aitortu beharra  
ederrez etzarella munduan bakarra,  
bainan ala ere nik zu zaitut izarra.  
Galdezka hasten bazaut nehoiz kanpotarra  
nongo semea naizen edo nongotarra,  
goraki erraiten dut: Ni, urepeldarra!



Jainkoak berak daki ni ene bizitzan  
bertze zonbat herritan ibilia nizan.  
Beharrik, gogo huntan zu baitzinabiltzan,  
hor gaindi perekatu izan nauten gisan,  
engoitik bertze nonbait kokatua nintzan,  
maitasuna ez banu zu ganako izan.

Zure eremuetan dute ezarria  
gaurko bi Naparroen arteko harria.  
Etzare paperretan hanbat ekarria,  
bainan aitortu nahi balute egia,  
kondaira zaharretan zoin aipagarria,  
Roland hiltzen hauteman zinuen herria!

Ez garela betiko lege batek dio,  
gizonari Jainkoak manatzen baitio;  
hilkor sortu ginen ta zer erremedio!  
Nik, Urepele, zuri ertean adio,  
desiratuko dautzut aunitz amodio;  
arta hori uzten dut gazteen gomendio.

*(Urepele-Odolaren mintzoa, Xalbador)*

## ■ Eskola

Xalbadorren haurtzaro garaia, haren eskolatzea, bere euskaltzaletasuna. Oso haurra zela ohartu zen bere ama-hizkuntza euskara zela, “gure hizkuntza maitea”, berak kontatzen duen bezela<sup>1</sup>:

Eskolan eta katiximan bateantsu abiatu nintzan. Denbora hortan, eskolan errient euskaldun bat zen. Izenaz ez naiz orroitzen. Harekin oraino bazoan hainbatean, behar orduan

---

<sup>1</sup> *Odolaren mintzoa*, Sendoa 1976, Auspoa 2006

euskaraz mintzatzen baitzitzaukun. Etzitzautan hura hain arrotza iruditzen, eta erran dezaket laster ikasi nituela harekin ikasi beharrak.

Gero iragan nintzan ttipien eskolatik eskola haundiagoratu, eta katixima ttipitik katixima haundiratu, lehen komunio-nearen ondotik.

Hor jaun ertora ginuen erakasle... Hau ezagutu dutenek badakite zoin zen eginbidetsua eta bere ikasleentzat garratza. Bainan ni haren ganatu trankil joaiten nintzan, harek eman ikasgai zatiak osoki ikasten eta haren erakaspenak gogotik entzuten.

Eskola haundian, aldiz, erriente erdalduna ginuen, euskararen kontrakoa gaineratu, bertze aunitzen gisa. Haurrak elgarrekin euskaraz mintzo hauteman orduko gaztigatzen gintuen.

Zergatik nintzan, beraz, katiximatu gogotik joaiten eta eskolaratu bortxatu?

Nihaurek ere gero konprenitu nuen. Jaun ertoraren eta ene artean bazen gauza bat haren karguaren eta eginbidearen arteko korropiloa laxatzen zuena: hura zen gure hizkuntza maitea...

Hameka urte inguruan utzi nituen alde bat eskolako alkiak. Erriente gure etxean ibili zen aldi bat baino gehiagotan, ni ait'amen bidez berriz bildu beharrez, baizik ere ikasteko ahala banuela eta pena zela hain goizik eskola utzi nezan. Baina ene ait'amek etsitua zuten enekin eta ez ninduten gehiago bortxatu.

Gauza guti ikasirik gelditu nintzan, bainan etzaut behin ere damutu. Gaur ere nahiago dut, erdaldun jakintsun bat baino euskaldun ezjakin bat naizen. Irakurtzen doi doia ikasi nuen, bainan horri esker ikasten ahal izan dut munduko zerbait berri.

## ■ Bertsozaletasuna

Xalbadorren bertsozaletasuna goiztiarra zen nonbait. Beti maite izan zituen, euskal kantuen egile bertsolariak izango zirela pentsatzen baitzuen mutikotan. Baina berehala ohartu zen eginbide ezberdinak direla kantugintza eta bertsozintza:

Euskal kantuetarik pertsularietarat eta pertsularitzarat joan banaiz, nik orduan uste nuelakotz kantu guziak pertsulariek eginak zirela izan da. Aspaldi ikasi nuen, ordea, gure kantu eder guziak ez direla baitezpada pertsulariek eginak; bi gauza direla kantuen egitea eta plaza batean edo ostatu batean pertsuen emaita.

Halarik ere errexago da pertsulari batentzat kantu baten egitea, kantuak egin dezazken batentzat bat batean pertsuak emaita baino.

Behin hauteman nuen ene aita zena ene osaba batekin pertsularietaz mintzo. Zioten dohain berezi bat bazela horien baitan, eta horier entzuten zirela guk erabiltzen ez dugun hitz aunitz. Ageri zen aitak eta osabak ere miresten zutela pertsularigoa.

Aitaren aita ere aritzen omen zen zerbait pertsuka, baina ez dakit zer hainetako pertsularia zen. Ez hanbatekoa nehola ere, nehon ez denaz geroz aipu.

Urte batez, herriko festa bigarren egunean –agorrileko Andredena Mariz– bere betiko lagun Lorentzo Tolosarekin gaueko festara atera zela dio:

Bailea *Angelesainea* izeneko ostatuaren aintzinean egiten zen bigarren besta egunean.

Ez naiz orroitzen zertan pasatu ginuen denbora, dantzari beha edo. Orroitzen naizena da, ja etxolarat abian ginen mementoan, hauteman ginituela lau edo bortz gizon pertsuka ari ostatu hortako sukaldean. Lorentzo eta biak leihoaren kanpotik jarri gintzaizkioten beha.

Lehen aldia zen nik pertsulariak entzuten nituela; bainan etziren nik amensten nituen heitarik; ez beti ere, nik nazkien

kantuen egileen hainekoak. Harrapatua nintzan. Ez nituen dudarik gabe pertsularitzat hartu ere. Bertzenaz etzen pasatu zena pasatuko.

Tira ahala ari ziren, kasik aldiarik ezin hartuz, bainan ahal bezala; eta nik pentsatu nuen ene baitan:

–Horiek bezanbat nik ere egin nezakek.

Ixilduxe ziren batez, hor, kasik nihaurek nahi ez nuela, bota nioten bat leihotik barnerat. Denak eni begira jarri ziren, eta zakur batzu bezala oldartu zitzauzkitan. Etzitzaioten non-bait ongi joan gazte bat heien artean sartzea.

Zerbait gaizki egin banu bezala, ihes egin nuen mendi aldera, Lorentzo enekin neramala.

Hori izan zen ene lehen pertsua. Hamasei urte nituen. Zer pertsu eman nuen ez naiz orroitzen; ez orroitu nahi ere funtsean.

## ■ Bertsotan plazan

Hamasei urtetik hemeretzi artean bertsoa frango kantatu zuen bere lagunekin eta. Bakarrik zenean “alde guztietarat entseatzten” zen. Baina hemeretzi urte bete zituenean, bi gertakarik jo zuten kasik egun berean: Aita galdu zuen, eta guda hasi zen Frantzian, guda haundia.

Halarik ere, bazen nitaz zerbait fama hedaturik, eta gerla ondoan Ernandorena abiatu zenean hemen gaindi pertsulari bila, nitarat ere gidatu zen. Funtsean berak aski hitz egina du gauza hortaz. Donibane Lohizunen muntatu zuen xapelketa batetarat ereman ninduan.

Artean ez nuen egundaino plazan kantatu; bertsolari funtsezko haundirik ezagutu ere ez.

Aurrerantzean, Etxahun, Luhusoko Panpale, Aldudeko Harriet, “Premundo”, Bankako Iriarte, Zubikoa, Juan Joxe Eizmendi *Errexil*, eta, batez ere, Mattinekin Euskal Herri osoan kantatu zuen. Eta inork jakitekotan, ongi zekien bat bateko bertsogintza ez zela erreza:

Errexago baita, ordea, kontseilu emaita etsenplu emaita baino...

Gure Basarri haundiak berak iduri izaiten du ongi eta errexki egiten duela.

Ongi egiten duela egia da; bainan, hura kantuz ari deanean, haren gibelean dagoena ohartuko da hari ere gostatzen zaiola bere saillean eremaita. Eskuko erhiekin erabiltzen duen katzakak erakusten du hori.

Ostatuz ostatu edo herriz herri ibiltzen hasi bazen ere, bertsozaleen artean ezagutzera eman, Teodoro Hernandorena zizurkildar iheslariak eman zituen Xalbador eta iparraldeko bertsolari gehienak. Honela aitortzen du Xalbadorek berak:

Donibaneko egun hori enetzat munta haundikoa izan zen, eta ahalgerik gabe erran dezaket, gu, Mattin eta ni ere, Ernandorenari esker ezagutu gaituela Euskal Herri osoak; bai eta gehiago herrik ere, Parisen barna ibili izan baitgira jaun horrekin.

Hortik goitiko ene pertsutako ibilaldien eta gora beheren berri ez dakien euskaldun guti ditaike; alde guzietan ibilia bainaiz.

## ■ **Gizona fedetsua**

Ordura arte ez genuen asko ezagutzen gizon guztiz fedetsu haren barne-sentimenturik; baina bere *Odolaren mintzoa* goitik behera arretaz irakurri duen edonori barrena ukitu dio segurienik *Jainkoa eta ni* atalean egin aitormenak. Bera ere kezkatu zen han esanaz, "nehoiz erran eztudanak erraiten baitituz" aitortuz.

Izan ere, holako aitorkizunak jendearen aurrean egiteko ausardia eta adorea behar du plazagizonak, idatzi zituenak gero hortxe geldituko zirela gogoan.

Hiru-lau ahapaldi gogoratuko ditugu laburpen honetan, esanguratsuak direla ustez:

Fede haundiko burrason ganik sortu bainintzan mundura,  
Jainko legean hezi ninduten jitean adimendura;  
hain zen beroa denbor'hartako eliz gizonen kar hura,  
ziotelarik gaizki eginak zeramala infernura,  
muinetaraino sartu zitzautan Jaungoikoaren beldurra.

Entzuleeri behar diotet hau erran haste hastetik:  
errexenerat nintzan lerrakor gauza guzien gainetik;  
ahulezia ene nagusi izan da egundainotik;  
ukan aholku guzien eta Jainko bildurraren gatik,  
ez nau, ez, deusek nehoiz beiratu bekatoros izaitetik.

Orai ez dakit, Jauna, Zu edo ni aldatu ote naizen,  
etzira egun ene gogoan lengo itxuraz agertzen;  
gertatzen denaz, o Nagusia, kartsuki zaitut eskertzen,  
gure arteko hoztasun hartaz hasia nintzan aspertzen.  
Jainko maitea, ordu zen noizbait lagunak egin gintezen.

Zure laguna eginez geroz enetzat ez da nekerik,  
zure behako samurrak eman nau fidantziak beterik.  
Deusen galderik ez dautzut bada egiten ene baitatik,  
ez gaztigua urrun dezazun, ez eta sari eskerik;  
gaurkoz ez dautzut deusik eskatzen amodioaz bestetik.

*Jainkoa eta ni. Odolaren mintzoa, Xalbador  
Mendaro Txirristaka saria, 1974ko abendua*

## ■ Guk ezagutu ginuen Xalbador

Asko hitz egin dugu eta idatzi Xalbador bertsolariak. Eta aipe-  
manak ez dira honetan amaituko. Ez bitez amaitu.

Askotan galdetu izan digute ordea hauxe: Nolakoa zen guk  
ezagutu ginuen Xalbador bertsolaria eta pertsona?

Hamaikatxo bertso-jaialditan gaiak emateko aukera izan  
genuen. Baina urteak joan dira bertso-plazetako mikroetatik  
aldendu zela/ginela hura eta gu.

Alabaina begien aurre-aurrean dugu orain ere haren argazki eta irudia: Hortxe mikroaren aurrean xutik, aurkezleak gaia eman zai. Burua aurrerantz makurtu, begiak itsi edo lurrean itsatsi, eskuak atzean zamarrapean behatzak jostari, ezpainak estu, txistua irentsi eta eztarria garbituz aldian behin...

Berez aski teatrozkoa den gai-ematea pittin bat gozatzeko edo baliabideak behar eta, bertsolaria aurkeztu eta gaia ematean, irribarre batekin begietara begiratzeko ohitura genuen sarri, ahalik eta hurbiltasunik maitakorrena adierazi nahirik bertsolariari.

Gehienek onartzen zuten gaiemailearen jarrera hura; baina Xalbadorrek begiak lurrean itsasten zituen, bere barruari eta bihotzari so, ematen zitzaion gaira bilduz bete betean, begiradatik ihesi... Eta gaiemaile gizagaixoa kezkatu, emandako gaia ez ote zitzaion atsegina edo. Haren behako zorrotza arimaino sartzen zen.

Aurpegiko itxura, berriz, berdotz antza, umila, apala, eta trajikoa ere ezpainak zimurtu eta mikroa hurbiltzen hasten zenean, lanari erasotzeko prest.

Gizon serioa zen, ikaragarri serioa itxuraz.

Hala ere, areto edo jaialditako mikroetatik kanpora, alaia zen lagun artean. Lotsatia bai, ixila inoiz, ez berritsu amorratua beste zenbait bezala. Baina hau eta hori hasten zenean kontu kontari, guztiz eleketari atsegina zen, zer esan behar zuen ondo pentsatzen zuena, hitz-etorri ederrekoa, graziaz bete.

Lehenago ere inoiz esan eta idatzi izan dugu hau ere. Bagenekien gai alai, jostari eta irrigarriak estimatzen zituela Xalbadorrek, batez ere Mattinekin eztabaidan zenerako eta.

Bazkalondo/afalondo bateko lagun artean bertso eta ipuin kontari hastean, beste modu eta mundu batekoa zirudien. Beste Xalbador bat zen mikroaren aurrean zeraman tentsiorik

gabe lagun artean lasai zegoenean. Bazirudien bi Xalbador zirela, bata jende aurrean bertsotan, eta bestea lagun artean, edo ostatuan kontu kontari.

## ■ Gozatu eta sufritu

Beti pentsatu izan dugu bertsolariak gozatu ez ezik asko sufritzen duela bat batean bertsotan. Xalbadorrek bereziki sufritzen zuen ordea gaiari, doinuari, zer eta nola esanari begira, beti bertsoaren ederrarren bila. Bere hitzak dira ondorengoak:

Ba, nik ere egin dut bakarretan desafio ez nintzala gehiago joanen. Irabazirik etzen, eta orduko ibil moldea nolakoa zen, berriz, guhaurek otorik ez izanki eta! Eremaileak izaiten ziren batzuetan, baina ekarzalerik bakan.

Bainan etxaldeari egin kalteaz eta etxekoer pairarazteaz dut bakarrik damu; ez osagarriaren mendratzeaz, hoguei urtez laburtu banu ere ene bizia. Hola iduritzen zaut nik ere eman dutala ene bizirik puxka bat gure herri maitearentzat.

Iriarte ixildu zenetik, Mattin izan da ene ardureneko laguna, edo kontrarioa? Noiz nola! Badugu zonbait ibilaldi eginik elgarrekin, eta zonbat pertsu kantaturik ote? Ba ote da gu ezagutzen ez gaituen euskaldunik mugaz bi aldetan? Guti ba, hain segur.

Ez naiz ni beti errexki ari izana gure Mattinekin. Ez gi-nuen artzeko molde bera. Nik ez nuen balio irri egin arazteko, Hala beharrez entseatu banaiz ere, maiz gaizki heldu izan naiz. Mattinen harmarik hoberena, berriz, hori izan da beti.

Nihaurek ere irri egin izan dut frangotan, horren ateraldiak entzun eta. Ez, ordea, bertzeri irri egin araztea gatik, nihaur joiten ninduelarik...

Ez dakit baden ofizio errexik, baina etzaut iduri hau baino zailagoko aunitz baden munduan...

Batere ongi egitearen axolarik duenak, ordea –eta nork ez du?– herstura gogorrek pasatzen ditu, hainbertze jende zuk



zer aterako duzun beha dagoenean. Bertzela ere, entzulea gero eta eder goseago dela ageri da...

(*Odolaren mintzoa* - Sendoa-Xalbador).

## ■ Bertsolari kezkatia

Ederrak dira Xalbadorren bertsoaren neurria, doinua, erritma/erritmoa eta, batez ere, edukina. Amak haurra egiten bezala sufrituta egindako bertsoak ziren/dira hark egindakoak; baina amak haurraz bezala haren bertsoaz gozatzeko zoria izan ohi zuen/du gero bertsozaleak.

Basarri bertsolariagatik esaten duena erraz aplika diezaiokezu Xalbadorri ere:

Gure Basarri haundiak berak iduri izaiten du ongi eta errexki egiten duela. Ongi egiten duela egia da; baina, hura kantuz ari denean, haren gibelean dagoena ohartuko da hari ere gostatzen zaiola bere saillean eremaita. Eskuko erhiekin erabiltzen duen katzakak erakusten du hori...

Bada Xalbadorren euskara zaila dela esaten zuenik garai bateko bertsozaleen artean. Baina bai alderantzikoa esan izan duenik ere.

Lekuko bat eta bi baino gehiago ekarriko genituzke orrialde hauetara. Baina, besteak beste, Errezilgo Txillarramendi auzoan jaio eta Zarautzen bizi den Xegundo Etxeberrinari behin *Odolaren mintzoa* liburua opari eman genionekoa gogoratuko dugu laburki, ondo irakurri eta gero bera ere idaztera anima zedila eskatuz.

Liburua eman eta hilabete gutxira topo egin, eta galdetu genion:

- Zer, Xegundo, irakurri al dezu ba Xalbadorren liburu hori?
- Bai, irakurri diat.
- Eta zer iruditu zaizu?

Hitzetik hortzera erantzun zigun:

–Motell, motell, irakurtzen ere justu antzean, badakik, eta hasieran kostea zitzaidaan gogotik. Baina irakurri diat, bai; eta ez behin bakarrik, baizik askotan. Baiña irakurrialdi bakoi-tzean zerbait berria esaten zidak neri liburu horrek. Ederra dek liburua, bikaina... Baiña holako liburu bat irakurri ondo-ren, zer eskribitzen hastea nahi dek ni orain? Lotsa ematen zidak, motell!

Joxe Lizaso zenak, *Nere aldiko kronika* (Auspoa, 275) libu-rua prestatzen ari ginela, zera esan zigun Xalbadorren euska-rari buruz:

Xalbadorren euskera zailla dala esan oi da. Nik, beste munduko jakituririk izan gabe, aisa artzen nuen aren eus-kereta eta bertsoa. Sekula ez nuen izan arazo larririk orretan. Baztan eta Urepeleko euskera paretsukoak dira gauza asko-tan, eta bietara moldatu izan naiz ondo. Alde orretako euske-rra ederra eta aberatsa da bertsoan egiteko ere.

Bertsolari guztiz kezkatia zen Xalbador. Bertsoaren eduki-na, neurria, doinua eta bere hizkuntzari (euskara) buruz zuen jarraera gogoratu besterik ez dago:

Euskaltzale guziak ez badira ere pertsulari, hala izaiterat entseatzen garen guziak euskaltzale suhar izan garela lehen lehenik, garbi ikusten den gauza da. Ni ere ba segurki. Gai-nerat, nihaurek batere ez nakiela.

Bidenabar erran dezadan gure jaun ertora euskaltzale ona zela; katiximarekin batean entseatzen zen guri euska-raren ere erakusterat. Harek euskara garbia zuen maite, ez frantsesarekin nahasia. Eskualtzaleen Biltzarraren manuz frantsesaren euskararat itzularazten ere ari izan zauku.

Orroit naiz behin nik irabazi nuela lehen saria Urepelen. Hola ezarri zuen *Euskaldun*-ean gero ene adixkide izan behar zuen Elizalde *Zerbitzari* apez zenak, hura izaiten baitzen gure lantxoan jujari:

Airez aire,  
hi haiz lehen, Ferdinand Aire!

Haurtzarotik zuen euskararen kezka berezia, horixe baitzen bere ama-hizkuntza maitea eta bertsoarako arma.

Euskara herrikoa eta harrigarri dotorea erabili ohi zuela iruditu izan zaigu beti. Baxenafarrera ederragorik non aurki? Xalbadorren hiztegia guztiz aberatsa zen/da eta, batez ere, erabili ohi zituen esaldiak, aditz moduak eta aditzaldiak, baxenafarrera eta aditz trinkoa erabiltzeko zuen maisutasuna apartak zirela gaude, gutxitan entzun edo irakurri daitezkeen bezalakoak, seguruenik.

Maisua zen, maisu haundia hala ere. Eskolatik hasita, baina batez ere haren eskola bere kasako ahalegina izan zen, jaiotetxean, laborantza eta artzantzako bakartasunean bere hizkuntza lantzen ahalegin haundia egindakoaren eskola.

Kronika honetan *Xalbador bertso jartzaile* deitu sailean ikusiko duzunez, Bidasoako pausuz honuzkaldean euskara gipuzkoartua erabiltzen saiatzen zen, denek konpreni zezaten bere mezua. Horrela aitortzen zuen:

Beraz, ene baxenabartar euskaran idatzi dut gehiena –*Odolaren mintzoa*–ko idazkerari buruz ari da-. Xoilki, mugaz handiko anaieri bereziki mintzatu behar izan dutanean, entseatu naiz heienaren erabiltzerat, nahiz eta ez dutan heiek bezala mintzatzen naizelako ustekeriarik...

## ■ Bertsoari doinua neurritara

Beste edozein bertsolarik bezalaxe gai bakoitzari zegokian doinua neurritara ematen saiatu zen beti. Gai sakonetan, doinu sakonak, serioak; gai irrigarrietan, doinu alaiagoak, zortziko txikia eta holakoak.

Belarri zuzena zuen orohar. Eztarriz ere ondo moldatzen zen, zenbait bertsolariren gozotasunik ezpazuen ere kantatzerakoan –Basarri, Uztapide, Lizaso, Azpillaga, Mugartegi, Egileor, Lasarte...–. Ez zuen ere Ahetzeko Mattinen indarririk ahotsa gora-gora hartuta kantatzeko.

Inoiz ez genuen pentsatu, ordea, berak esaten duena irakurri arte, hain kezkatu zenik doinu kontuetan, itxuraz ondo betetzen baitzuen bertsolariaren doinu-neurria.

Zer eta nola esan, bertsoaren erritmak, erritmoa eta doinuen kontuan asko pentsatzen zuela jakinik ere, bistan da saio bakoitzean sufritzen zuela doinuarekin borrokan:

Etxahunekin ere kantatu izan dugu, batez ere Xuberoan ginabiltzalarik. Hau ez da, ordea, –berak aitortzen duen– hanbat trebe bat batean *berset* egiten. Bainan baditu eginak kantu xoragarriak. Musika ere berak egiten badaki, eta hortan bekaizti natzaio, Xuberoako *izarra* den horri.

Orai Mattinekin eta enekin maizenik dabilzan pertsulariak Xanpun eta Ezponda dira alde huntan. Nor nahi bezain trebeak eta dohatuak, parerik gabeko lagunak gainerat, nahiz enetzat ezagutzen ditudan pertsulari guziak hala diren. Ez dakit ni zer naizen heientzat (*Ene lagunak - Odolaren mintzoa*, Xalbador).



Xalbador; M. Labeguerie eta Mattin

## Anoetako istiluaz

---

Nola utzi aipatu gabe kronika honetan aspertzearaino marruskatu izan den Anoetako (Donostia) arratsalde hura? Gainera, garaia ere badela uste dugu istilu hartaz inoiz idatzi ez duguna esateko, behin honetara garen ezkeror.

Historia apur bat eginez, esagun hegoaldean egin ziren aurreko bertsolarien norgehiagokak bezala, Euskaltzaindiak antolatu zuela 1967ko txapelketa hura; eta azkenengo saioa, final haundia, ekainaren 11n egin zela, igande goiz eta arratsaldez.

Loiolako Herri irratiak zuzenean eman zuen saioa aurrekoak bezalaxe.

Ez zen erraza izaten garai hartako bertso jaialdiak irratiz zuzenean eman eta lanak nahi bezala burutzeko baimena izatea. Donostiako *Delegación de Información y Turismo*-ko ordezkariak eta Gipuzkoako gobernari zibilak mila oztopo jarri ohi ziguten hortarako ere. Inoiz eskatu izan zizkiguten gaiak eta bertsolariak kantatuko zituzten bertsoak ere, aldez aurretik zentsura egiteko, bertsolarien bat batekotasunaz ikasten asko kezkatu gabe. Horrelaxekoa zen franquismo garaiko agintarien harrokeria.

Ondo kostata, baina lortu genuen baimena 1967ko hartan ere, zalantza eta noraez askoren ostean.

Aurreko saioetan egindako lanaren arabera, Mattin, Lopategi, Gorrotxategi, Xalbador, Garmendia, Arozamena, Murgartegi eta Madariaga ziren bertsoan igande goizeko saioan; eta arratsalderako Lazkao Txiki, Lopategi, Gorrotxategi eta Xalbador hautatu zituen epaimahaiak.

Euskaltzaindiak antolatutako bertsolarien txapelketako legearen arabera, lau horietatik bat hautatu behar zen azkenik, aurreko txapeldunarekin (Uztapide) txapela joka zezan.

Zein hautatuko eta... Xalbador hautatu zuten –denak ez ziren bat etorri epaia ematean, aitortu zutenez–. Eta orduan sortu ziren iskanbilak.

## ■ Ezusteko galanta

Ordura arteko saio guztien ahogozoa nekez ahaztuko da, baina esan nahi dugu ere azkenengo larrialdi haren lekuko zuzenak izan ginenoi barrenak bapo sumindu zizkigula txistualdi ero hark. Eta eguneko giroa goitik behera lardastu zuela.

Txistualdiak iraun zuena osorik eman genien irratentzuleei, geure iritzia ematen ausartu gabe. Ez jakin lotsaz, nahigabez ala ahalgez/beldurrez, baina ez genion geure iritzirik erantsi nahi izan gertakari lotsagarri hari.

Ezusteko ikaragarria izan zen hura, inork ezpaitzuen pentsatzen halako zalaparta eta hasarrerik sor zitekeenik garai zail haietako bertsolarien txapelketa baten amaieran.

Gogoan genuen bi urte lehenago, 1965eko abuztuan, Ondarroan egin zen Bizkaiko Bertsolarien lehiaketako azkenengo saioan txapela Jon Lopategiri eman ziotela-eta sortu zen iskanbila eta hasarrea (ikus 1965eko iraileko Zeruko Argia)–. Baina Anoeta pilotalekukoa neurritz kanpokoa izan zen zentzu guztietan. Lotsagarria, itsusia, eroa, demasa, neurri guztien mugaz gainekoa.

Eta ondorio gogorak ekarri zituen gainera, etenaldi luzea sortu baitzuen txapelketak antolatzekeo. Euzkaltzaindia 1979an berriro hasi zen arteko etenaldia.

Ez dugu sinesten, ez dugu sinestu nahi Anoetako hartan protesta egin zuten bertsozaleak Xalbador bertsolariaren kontra zirenik. Baina badakigu bi joera nabarmendu zirela han han itsu-itsuan: Batetik, Lazkao Txikiren alde zegoen bertsozalearena zen, hain elkar maiteak ziren Xalbador/Lazkao Txikiren auzian goierritarraren alde zeudenena alegia. Eta

bestetik, Xalbadorren bertsogintza eta bertso moldeak piperrik ulertu ez zuen epaimahiaren kontra ziren askoren protesta.

Norbaitzuek gogoan izango dute epaimahaiko izan zen norbaitek esan zuela gero, Urepelen bertan, Xalbadorrek behar zukeela egun hartako txapeldun.

Dena dela, Xalbadorrek sufritu behar izan zuen Anoetako ilunabar hartako egoeraren latza eta jendearen hasarrea. Eta hori ikaragarri gogorra izan zen.

## ■ Gure jarrera

Urte asko joan da geroztik, baina urteak joan ahala, hartaz oroitu eta gure duda-muda eta larria areagotu eta gehitzen doala esango genuke. Arratsalde hartako larrialdia gogoratzean, behin eta berriz galdera eta zalantza berdinak ditozkigula:

Merezi al zuen bertsolariak halako zalaparta gaiztorik?

Nolaz ez genion eman hitza Xalbadorri, saioa irratiz eman, txapelketa amaitu eta halako zalaparta eta hasarrearen ostean?

Nolaz ez genion aukera bat eman bere hasarrea kontatu ziezaien irratentzuleari hantxe bertan, bero-beroan?

Nolatan ez genion eskatu bere iritzia hala iraundu/minduta sentitu zenari?

Baina... eta nahiko ote zuen gero zerbait esan Xalbadorrek egoera hartan?

Gai ote zen kazetari baten galdeei erantzuteko une ikaragarri larri hartan, barruan zerabilen zurrumbiloa kontatuz mikroaren aurrean?

Ezetz pentsatuko du Xalbador ezagutu zuen edonork, seguruenik.

Nolanahi ere, galdera hauek erantzun bakarra dute guretzat: Beldurra, izua, ikara, lotsa eta noraeza sentitu genuela

egoera hartan, eta ez ginela ausartu hartu mikroa eskuan eta bertsolariarengana hurbildu eta galdera bi egiten.

Gaur emango genuke edozer une hartako Xalbadorren sentimentuen berri zuzena izatearren, edo esan nahiko zukeena esateko aukera eman izatearren. Horrela bakarrik jakingo baikenuen erantzun nahiko zuen ala ez, eta zer esan nahiko zuen.

Kazetariaren eginkizuna horixe zen gainera, Xalbadorri hitz batzuk esanaraztea han gertatu zenaz. Baina inor ez betekizun hori gogorazteko ere inguruan, eta ezustekoetan adoretzu aurrera egiteko ofizio falta, agidanean. Izututa geunden denok, eta inork ez genuen egin egin beharko genukeenik. Hau pena ondorengo urteetan duguna!

Epaimahaiko norbaitengana ere ez ginen hurbildu, eta gertakari hartaz galdetu, ez baikenuen harreman haundi-rik, Antonio Zavala edo besteren bat kenduta. Eta hartantxe utzi genuen, suari egur gehiago bota gabe, edo beldur ikaraz, 1967ko Bertsolarien Txapelketa nagusiaren amaiera lotsagarri hartakoa.

Gero izan ziren bai suari egurra bota eta bazterrak erretzen saiatu zirenak, bertsoa eta bertsolaritza asko maite ez zuen prentsa erdaldunaz baliatuz, batez ere.

Joandako urak errotarik mugitzen ez ordea, eta uztagun hortantxe arratsalde/ilunabar triste hartako istiluaren historia tristea, Xalbadorrek berak eman zigun lezio ederra go-goan:

zuek ezpazerate kontentu  
errua ez daukat, ez, nik.  
Txistuak jo dituzue bainan  
maite zaituztet oraindik.



# Txapelketak, sariketak

---

## ■ 100.000 pezetako saria

1962an, 1965ean eta 1967an Euskaltzaindiak antolatu zituen Bertsolarien Txapelketa nagusi haietan emaitza ezberdinak izan zituen Xalbadorrek.

Lehenengo bietan arratsaldeko saioraino iritsi zen, azkenengo egunean; baina azkenean txapela jokatu gabe gelditu.

1965ean, Uztapide eta Lazkao Txiki pasatu ziren arratsaldeko azkenengo saioraino.

1967an, Uztapide eta Xalbador hautatu zituzten azkenean txapela elkarren artean jokatzeko. Eta halakoxe harrera egin zion Anoetan bilduta zegoen bertsozaleak erabaki hari.

Teodoro Hernandorenak, 1945etik aurrera, Iparraldean antolatu zituen beste lehiaketa haietan txapeldun edo bigarren izan zen Xalbador gehienetan, hala nola:

- 1948an, Xalbador txapeldun.
- 1949an, Basarri txapeldun, eta Xalbador bigarren.
- 1951n, Basarri txapeldun eta Xalbador bigarren.
- 1953an, Xalbador txapeldun.
- 1959an, Basarri lehenengo, eta Xalbador bigarren.
- 1960an, Xalbador txapeldun.

Lehenago esan bezala, Euskaltzaindiak bi-hiru urtez behin antolatu ohi zuen Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa nagusiak aldaketa gogorra izan zuen 1967ko norgehiagokaren azken zalapartatsua zela-eta.

Anoetako pilotalekuko hasarrearen ondoren, Txapelketa nagusi guztiak bertan behera moztuta gelditu ziren, 1979an Euskal Akademiak berriro lanari eraso zion arte.

Alabaina, beti izaten dira holakoetan zerbait egin nahi izaten duten "arrantzaleak"; eta 1968ko otsailaren 4an eta 11n egin

zen **100.000 pezetako sariketa** haundia holaxe etorri zen, Euskaltzaindiak antolatzen zituen lehiaketetara joaten ez ziren bertsolariei poza ematearren edo, bestek egiten ez zuena egiteko gai zirela erakusteko, edo auskalo zertarako.

Hamasei bertsolari hautatu zituzten antolatzaileek lehiaketa hartarako, bi taldetan banatuta:

–**A** taldea: Uztapide, Lasarte, Joxe Agirre, Xalbador, Lazkao Txiki, Azpillaga, Mugartegi eta Mattin.

–**B** taldea: Basarri, Arozamena, Lopategi, Joxe Lizaso, Mitxelena, Garmendia, Lazkano eta Xapun.

Otsailaren 4ko saioak goiz eta arratsaldean egin ziren, hila-ren hamaika goizerako zortzi onenak aukeratzeko.

Azkenengo saiorako honako hauexek hautatu zituen epaimahaiak: Arozamena, Lopategi, Basarri, Uztapide, Lasarte, Mitxelena, Mattin eta Xalbador.

Azkenengo egun hortako saioaren ondoren, honako epai hauxe eman zuten epaileek:

Basarrik, 602 puntu – 75.000 pezeta

Xalbadorrek, 598 puntu – 75.000 pezeta

Lasartek, 585 puntu: 50.000 pezeta.

1968ko sariketa hartako –ordu arteko saririk haundienak eman ziren– balditzetan esaten zenez, lehenengoa eta bigarrenaren artean hamar puntu baino alde gutxiago izatera, lehenengo bi sariak batu eta biren artean berdin berdinean banatu beharko ziren.

Eta, zer gertatuko eta, Basarrik 602 puntu lortu zituela; eta Xalbadorrek, 598 puntu.

Beraz, hamar puntu baino alde txikiagoa izan zen (lau puntu) bi lehenengoen artean. Eta bie hirurogeita hamabosna mila pezeta (75.000) eman zitzaizen, biak baitziren garaile aurrez esandako baldintzen arabera.

Iritzi eta esamesik asko izan zen orduan ere. Baina besteak utzi eta Joxe Lizaso zenak *Nere aldiko kronika – Joxe Lizaso* (Auspoa, 275) liburuan kontatu ziguna jaso nahi dugu hitzez hitz, adibidetzat:

Ara, egia esango dizut: Sariketa ark oso ao-gozo txarra utzi zidan neri, eta beste askori ere bai, seguruenik. Dana dala, orduko antolatzaileak berriz ere bilduarazi gintuzten Lasarte, Agirre, Lazkano eta neu. Gogoan daukat igande eguerdia zala, eta oso eguraldi txarra egiten zuela gaiñera.

Alaxe bildu eta izketan asi giñan, edo asi ziran. Eta asto zarrari bota zioten zamarik astunena Oñatibia eta konpainiak. Izketan asi eta, zapla!

–Dana zure goraberan dago, Joxe. Zu joaten bazera, beste aukerak ere joango dira. Zure goraberan dago, ikusten dezun bezela –esan zidan.

–Nere goraberan? Nik ez diot sekula iñori esan txapelketara joateko edo ez joatekorik, Manu. Eta orain ni al naiz errudun? Bakoitzak nai duena egin dezala, erabakiak artzeko ainbat bagera-ta –erantzun nion, asarre.

Bagenekien aurreko txapelketako emaitzak gogoan zituela jendeak, eta zenbait bertsoari satisfazio pittin bat eman nai ziotela, nola edo ala. Ori bidezkoa izango zan, bearbada. Nik eztet ezetzik esango.

Azkenengo urtetan txapelketara joaten etzan beste norbaiti ere aukera eman nai zioten, eta ori ere oso ondo zegoen. Baiña orrela ateratzen diran kontuak sekula ez dira nai bezela izaten azkenean. Nik pentsatzen nuen, esate baterako, Xalbador etzala atzean gelditzera etorriko, ark berea emango zuela beti bezela. Eta orixe etzuten ondo karkulatu izango. Gero, jakiña, Urepelekoa aurreko muturrean sartu zitzairen, gogoan edukiko dezun bezela. Arrapazak ura ankatik!

Apustuak, demak, txapelketak ondorio onak ekartzen ditu, baiña on ainbat txar ere bai, e? Eta bertsoa ez da beste munduko gauzarik aundiena, baiña bat batean egiten dezun bertso saioa nekez neurtuko dezu ondo bat batean. Mate-

matikan bi eta bi lau dira, baiña bertsotan eztago bi eta birik, eztago matematikarik. Len esan dizudan bezela, naikoa da epaimaiko norbaitek puntuazioa puztu edo ustea, beste guztien lanak ankaraz gora botatzeko. Eta onenean ere, zenbat buru, ainbat aburu izaten dira epaimaietan ere. Bitartean, zu monigote baten tankeran erabiliko zaituzte, danen aotan.

Esanak esan, txapelketak egingo dira berriz ere. Eta egin ditezela, gaiñera, nai dutenak joan ditezten. Ni ikustera joango naiz al dedan arte, len ere orixe egiten nuen-da...

Sariketa haren antolatzaileak ez ziren joan Anoetako txistu-tuen mina gozatzera Xalbadorri, beste norbait saritzera baik, Lizasoren hitzetan.



Xalbador eta Mattin

## Omenaldiak

---

Nori berea, eta Xalbadorri omen.

Bere bizialdian zehar omenaldi asko izan zuen, nahiz eta hemen bakarren bat edo beste gogoratuko dugun soilik. Donostiako Astorian egin zitzaiona lehenik, 1969ko azaroaren 21ean, 1967ko txapelketako arantzaren miztoa gozatuz.

Egun haundia huraxe, eta bertsolari asko bildu zen Xalbador agurtu eta goraltzera. Uztapide, Mitxelena, Lasarte, Arozamena, Lazkao Txiki, Mattin, Lazkano eta Gorrotxategi ziren eguneko bertso saioaren ardatz, maitasun eta miresmen giro hartan.

Bere *Odolaren mintzoa* liburuko *Gipuzkoa maitea* sailean eskertzen du Xalbadorrek Gipuzkoan eta Donostian egin zitzaion harrera ona:

O, Donostia eta zure ingurua,  
zu gabe zer zitaiken enetzat mundua?  
Iduri zaut artean nintzela galdua,  
eta zutan aurkitu neronen burua.

Eman zidaten jaso ahalako pena.  
Ahal bezain umilki artu nuen dena  
pentsatuz zitaikela egin zidatena  
amak haurrari egin oharrarazpena.

Gaur gutti orroitzen naiz gertakari hartaz,  
ez baitut Gipuzkoan maitalea eskas;  
probatzen ez duenak ez dezake ikas  
hor zenbat jendeak arta hartzen duten nitaz.

1976ko ekainaren 20an, Donibane Lohizunen omendu zuten berriro, ipar eta hegoa elkartuta. Zazpi bertsolarik kantatu zuten egun hartan: Mattin, Xanpun, Ezponda, Lazkano,

Mitxelena, Lopategi eta Azpillaga. Festaren azkenean Alkat eta Mendiburu ere igo ziren tauladura.

Bertsoz eta maitasunezko eguna izan zen hura ere, eta bertsozale asko bildu zen Lapurdiko huriburuan, batez ere Gipuzkoarrak.

Hernaniko mutiko batek kantatu zuen bertsoa ondo go-goan hartu zuen Xalbadorrek, guk bezalaxe:

Bertsolarien olerkari zu, Urepeleko Xalbador;  
gizon umila, kantari ona, ta beti euskaldun jator.  
Hernaniarrok aspaldi hontan bagenizun hainbat zor.  
Maitasunezko gure bihotza zuri eskaintzera nator.

Honako bertso honekin eskerrak eman zituen Xalbadorrek azkenean, burumakur eta eskertsu:

Ene izena egun gora badabila,  
zerengatik den ezin asmatuz nabila.  
Herri hunentzat nehoiz ez dut egin mila.  
Ene zerbitzua zen zerbitzu umila;  
ez nindabilan segur sari hauen bila.

## ■ **Eta herio gaiztoa**

Etorri zen gero etortzekoa, 1976ko azaroaren 7an. Etorri zen udazkeneko omen eta herio egun ikaragarri hura.

Bere bizitzako idazlanik ederrenaren aurkezpen eguna zen, *Odolaren mintzoa* (Auspoa, 1976) liburu ederraren aurkezpen eguna.

Sufritu zuen haur-minetan, baina gustura zen Xalbador egun hartan; eta urduri aldi berean. “Nehoiz esan eztudanak esan baititut”, aitortu zigun.

Ale bakar batzuk bakarrik eraman zituen Sendoa argitaletxeko Joakin Berasategik aurreko gauean Urepelera, besteak egiteke zeudela baina laster inprimatuko zituztela aginduz.

Halaxe, eguneko elizkizuna eta liburuaren aurkezpena, lagun arteko bazkari jendetsua eta arratsaldean pilotalekuan egin zen bertso jaialdiaren lekuko eta testigu izan ginen, eguneko saioak irratirako jaso nahita.

Nekez ahaztuko ditugu arratsalde hartako bertso saioaren azken aldean Xalbadorren hitzak: “Eniz ontsa, eniz ontsa!”. Eta ezkerparetako tranpaldotik jaitsi eta herioarekin borrokara joan zen herriko eskola etxera, gero jakin genuenez.

Nork pentsatu behar zuen Xalbadorrekin izango genituen azkenengo hitzak zirela haiek? Nork pentsatu behar zuen halakorik egun haundi hartan?

Bertso saioa jaso eta, bertsolari/olerkaria hil zela jakin gabe etxeruntz abiatu ginen, bestela traba gogorak izango genituen beldurrez bide bihurri hortan, han bildu zen hainbat bertsozale mugitzen hasten zenean.

Etxera bidean, berri tristea jaso genuen, ustegabe. Huraxe zen sinestu ezina eta huraxe zen bihotzondokoa! Baina, nola, jaialdia amaitzear zela berarekin hitz egin ez dugu ba? Nola hil behar zuen Xalbadorrek bertsozaleek bere jaioterrian omendu zuten egun eder hartan?

Etxera baino lehen irratira joan, handik eta hemendik xehetasunak bildu eta berri tristea eman genien entzuleei igande arrats ilun hartan. Luxio Gabiria bertso jartzaile zenak ere hala jaso izango zuen albistea, hola idatzi baitzuen 1976 -XI-13ko *Goiz-Argi* astekarian, zortzi ahapalditan:

Egun alaia goizetik baiña  
iluntzerako tristea.  
Guztia ola gertatu zala  
gogorra zan sinestea.  
Euskalerriko egaletara  
komeni zan iristea...  
Erri Irratiz zabaldu zuten  
Urepelgo albistea.

Astelehean, Xalbadorren liburuaren eta egilearen nortasunaren berri ematen saiatu ginen haizearen lau aldetara, igandeko bertso saioa eta bertsolari eta bertsozaleen iritziak bildu eta irratsaio berezia eginez.

Igande arratsa bezain tristea izan zen astelehena ere: Xalbadorren liburuaren aipemanak, bertsoak, esaldiak, elkarrizketak... Hark merezi adina aipamen eta gorantza eskaintzen saiatu ginen irratentzuleentzat.

## ■ Hileta hunkigarri hura!

Berriro itzuli ginen Urepelera, Xalbadorren hiletara joatea ezinbesteko baitzen guretzat. Harreman ona izan genuen, bertso jaialdietan gaiak ematen, inoiz elkarrizketatzen, elkar ikusitakoan patxaraz hitz eginez... Eta behartuta geunden hiletara joateko. Besteak beste, Urepeleko giroa jaso eta entzuleei eman behar genien; eta, batez ere, gure Xalbador maiteari azken agurra egin behar genion.

Udazkeneko arratsalde labur, heze eta iluna zen gogotik. Baina sekulako jendetza bildu zen Urepelen, elizan eta elizaren inguruan, barruan tokirik ez eta.

Goiko kasko batetik txalapartaren ttakun-ttakun, ttakun-ttakun, ttakun-ttakun hots pausatu eta tristea. Berehala ohartu ginen Usurbilgo Artze anaiak zirela txalapartari.

Ez zen igande goizeko irribarrerik, ez zen berriketarako gogorik jende artean. Bihotza hunkituta geunden denok, begietan gorde ezineko malkoak.

Ez zen erraza izan baina, bultza eta tira, jende artean ahal genuen bezala toki eginez aldare aurreraino hurbildu ginen, hitzaldi eta bertsoak jasotzeko, hori ere gure eginkizuna zen -eta ilunabar hartan.

Egunari halaxe zegokion eta, elizkizuna ondo prestatu zuten. Jendetza ikusgarria eliza betean. Prentsa, irratia eta te-



lebista, Euskaltzaindia, euskarazale, bertsolari, bertsozale...  
Euskal Herri osoa hantze bildu zen berriro.

Ez dakit zenbat apaiz aldare aurrean. Xalbadorren betiko lagunak tartean: Emile Larre, Piarres Laffite, Joxe Mari Aranalde, Antonio Zavala, Mikel Atxaga... Denen buru eta zuzendari, Bautista Baskanz jaun ertora.

Hitz-etorri ederreko gizona, sentimendu haundiz ondo prestatutako hitzaldia egin zuen, Xalbadorren pasarte sentikorrenak gogoratuz.

Hitzaldi haren laburpena lehendik ere jasota dago *Mattin eta Xalbador* (Auspoa 301) liburuan eta abar. Baina mereziko du zatixkaren batzuk berriro hemen gogoratzea, Deiadarra taldearen hamargarren urteko kronika honetan:

Haurrideak, arratsalde huntan bilduak gira Urepeleko elizan, nahigabetan direnei gure amodioaren erakusteko, ta ere parte hartzen dugula heien penetan. Erakusteko bizi huntako gorabeheretan bat egiten gaituzten lokarriak ez dituela heriotzak hausten; eta bildutasunean otoitz egiteko, Jainkoaren hitza entzuteko, Jesus Jaunaren sakrifizioan parte hartzeko.

Eta horiek guziak, sinesten dugulakotz Jainkoa orroitzen dela Xalbadorren bizian zer izan den eder, haundi eta goresgarri. Eta Hari galdatzeko bere ondoan har dezan...

Hemendik joan baino lehen, elgarrekin azken agur bat egingen diogu Xalbador gure haurrideari. On har dezala gure maitasuna, ezti gure bihotz mina, finka gure esperantza. Egun batez berriz aurkituko dugu Jainkoaren bozkarioan, Kristoren maitasunak gaitz guziak errautsirik, herioa ere oso ro garraituko duenean.

Gauden apur bat ixilik, gogoan ditugularik Xalbadorrekin iragan ditugun urteak. Nor izan den guretzat, nor den Jaungoikoarentzat.

Penetan da etxea, penetan auzoa;  
horiekin batean herri bat osoa.  
Gizon baten galtzea ez baita goxoa,  
guziz gizona baitzen zu bezalakoa.

Bai, penetan da etxea, penetan herria, penetan Eskual Herria. Igandean bozkarioak elgarretaratu gintuen bezala, egun saminak eta penak gaitu elgarretarutzen. Bai, Xalbador, bazinakien aspalditik zorion eta penak direla elgarrekin dagozinak. Erraiten zin aukun:

Gozatzen ginaudela emana zitzaukunaz,  
ez ginuen pentsatzen asko biharamunaz.  
Nor ez da urrikalduko guk pairatzen dugunaz?  
Galdu duguna gogoan gauaz eta egunaz!  
Hunela gabetzeko guharen ontasunaz,  
Jauna, dudatzen ari naiz zure zuzentasunaz.<sup>2</sup>

Bai, gure bihotzetan ere sortzen da holako oihua. Kasik dudarazten baitaiku Jainkoaren zuzentasuna. Izan ere, gozatzen ginaudela omenaldiaren ederra, bet betan jin baita bihotzetaratu pena eta mina.

Eta orai, Jainkoaren aintzinean agertu zirelarik, egin diozu zure aiterra, gizon guziek egin beharko dugun aiterra. Etzinen lotsa, bizi zinelarik, gizonen aintzinean egiteko, kantatu zinuelarik:

Entzuleeri behar diotet hau erran haste hastetik:  
errexenerat nintzan lerrakor gauza guzien gainetik;  
ahulezia ene nagusi izan da egundainotik,  
ukan aholku guzien eta Jainko beldurraren gatik,  
ez nau, ez, deusek nehoiz beiratu bekatoros izaitetik.<sup>3</sup>

Bainan zeruari so ezartzen zintuen fedea, ait'amen ganik ukan fedea:

Nik ere mundu hits hau utzi behaut laster;  
orai zeruari so ez naiteke asper.  
Aita, ez nau utziko Jaunak hortik bazter,  
zuk eni helarazi fedeari esker.<sup>4</sup>

---

<sup>2</sup> *Agertu orduko gorde iguzkia saileko bosgarren bertsoa.*

<sup>3</sup> *Jainkoa eta ni saileko bigarren bertsoa.*

<sup>4</sup> *Ene aita zenari saileko laugarren bertsoa.*

Eta fede hortan, Xalbador, bizi zinelarik, Jainko onari aitortu hau egin zinakon:

Zure laguna eginez geroz enetzat ez da nekerik,  
zure behako samurrak eman nau fidantziak beterik;  
deusen galderik ez dautzut bada egiten ene baitarik,  
ez gatzigua urrun dezazun, ez eta sari eskerik;  
gaurkotz ez dautzut deusik eskatzen amodioaz besterik.<sup>5</sup>

Amodio horri esker uste dugu eta fida gira kantatzen ari zirela Mixel zure lagunari, bizi zinelarik hitzeman zinozkan bertsuak:

Horra pertsu berriak zur'amodioan,  
moldatu ditut, Mixel, zu joan ondoan;  
oraino gehiago badituz gogoan,  
ekarriko duazkitzuz horraratekoan.<sup>6</sup>

Elizkizunaren ondoren, bost bertsolari hurbildu ziren aldarera beren alerik sentikorrenak jaulkitzeko Xalbadarren gorantz: Etxahun, Jon Lopategi, Joxe Lizaso, Lasarte eta Mattin. Horietatik Lopategiren bertsoa dakartzugu, irakurle:

Agur tristea egin ziguzun  
omenaldiko egunez,  
ta hona berriz inguratua  
gizon, andere ta umez.  
Bizkaiak ere ditu, Xalbador,  
zure zenbait azken amets,  
sortuko diren lore ederrakin  
gaur egiten dautzut promes.  
Urte guztitan etorriko naiz  
Urepelera erromes.

---

<sup>5</sup> *Jainkoa eta ni* saileko seigarren bertsoa

<sup>6</sup> *Mixel Manako* saileko hamargarren bertsoa.

Mattin zen Xalbadorren bertso lagunik hurbilena, ezbairik gabe; eta gizon txiki haundi hura ere hantxe Urepeleko eliz-kizunean. Eztarria erdi itota zuela kantatu zituen bertsoak maitasunez gorde genituen:

Hoinbertze ibiliak  
biak herriz herri,  
azken agurra egun  
in behar Xalbadorri.  
Jauna, zure aintzinian  
nihor ez da garbi;  
zerua ikus dezan  
egiozu argi.

Bazuen amodio,  
bazuen bertute,  
Jainkoaren legea  
nahiz ongi bete.  
Aingeruek arima  
ereman diote.  
Agur, lagun Xalbador,  
eta ikus arte.

Lapurtarren partetik  
azken adioa,  
hauxe kantatzen daiat  
tristerik gogoia.  
Jesukristo bezala  
mundutik bahoa  
ondokoeri utziz  
ebanjelioa<sup>7</sup>.

---

<sup>7</sup> Bertso hau buruan eraman zuen Mattinek, baina kantatu ezin eta gero grabatu genion.



Urteroko lore-eskaintza Xalbadorren hilobian



Euskaltzin burua eta J.J. Zearreta beren emazteekin

## ■ Hilerrian eta inguruan...

Elizkizuna amaitu, eta elizatik irteeran eskubialdera dagoen hilerrian sekulako jendetza bildu zen Xalbadorri azken agurra egiteko. Hilerrri inguruan bildu ginen, ez baitzegoen denak barrura sartzeko tokirik inola. Eta ixiltasun hartan malko saminak ezkutatu ezinik ginen denok.

Jendetzaren tartean bertsolari batzuen izenak jaso genituen: Mattin, Xanpun, Ezponda, Arrosagaray, Mendiburu, Basarri, Enbeitatarrak, Agirre, Amuriza, Muniategi, Azpillaga, Lazkano, Lazkao Txiki, Larrañaga, Egileor, Arozamena, Koxme Lizaso, Sebastian Lizaso, Etxeberria, Arregi, Mugartegi... Eta zenbait kantari: Manex Pagola, Gexan Lantziri, Mikel La-boa...

Ilunabar triste hartan zer ikusiko/jasoko genbiltzen bitartean, euri langarra Urepeleko zero ilunetik, eta goiko mendi-kaskotik txalapartaren erritmo pausatu eta tristea...

Gero dena ixildu zen, eta Urepele inguruak ilunabarrak hartu zituen, goibeltasun osoan bilduz. Eta bakoitzak geren etxerako bidea hartu genuen, ikaragarri triste, goibel, nahigabetuta.

Bihotzaren muinean sartuta gelditu zitzaigun illunabar hura. Urepelek ez baitzuen aurreko igandeko poztasun eta alaitasunik. Hutsune ikaragarria egin zen denon jaun eta jabe.

## Bizpahiru iritzi Xalbadorri buruz

---

Ez gara ibiliko hamar urtetako kronika gehiegi luzatzen. Baina Xalbadorri buruzko bizpahiru iritzi jaso nahi genituzke gutxienik hemen.

Irakurle horrek ikusiko duzunez, aurtengo Xalbadorren egunean, Xalbador ez ezik Iñaki Eizmendi *Basarri* ere gogoratu nahi izan du Deiadarra taldeak, bere jaiotzako mendeurrenean (Errezil, 1913-XI-27).

Eta Xalbadorri buruzko bere iritzia jaso nahi dugu, 1965eko txapelketa amaitu eta laster idatzi zuena gogoratuz.

Honelaxe zioen Basarrik (*Zeruko Argia*, 1965.01.24):

### ■ Basarri

Egundo gure denboran kristauaren aotik entzun ditugun bertsorik onenak txapelketa egunean Xalbadorrek Anoetan kantatutakoak izan ziran, emazte zanaren soñekoari kantatzeko agindu ziotenean jaulki zituanak.

Xalbadorri Gipuzkoan bear bezela ulertuko balitzaio, oso goietan izango litzake bere izena. Erdika jasotzen dira ark esandakoak, zorigaitzez.

Soñekoari kantatutakoak liburuan azaltzen diranean, ondo ausnartu. Geldiro, patxaran. Dudako itz bat aurkitzen dezute-nean, dakien bati galdetu zer esan nai duan. Orduan jabetuko zerate Xalbadorren bertsoetan zer giar eta mami dagoan. *Auspoa* sortan agertuko dira, noski, aurtengo txapelketakoak.

Zenbaiten bertsoak zerbait badala ematen du entzuten zauden bitartean. Gero, ura bera paperera aldatutakoan, ariña ta muin gutxikoa aurkitzen dezu.

Xalbadorrekin alderantziz gertatzen da; zearo batekoz bestera. Paperean ikusten da ark kantatutakoen balioa zenbateraiñokoa dan.

Bertsolari aundietan aundia da Xalbador. Irudimen berezia du berekin. Biotzondoan taupada aundiak ematen daki.

Senti bezela nai du Basarrik  
guzia garbiro aitor.  
Bertso bi ezin molda ditezke  
zuk orduan bezin jator.  
Irakurri ta ausnartu ondo,  
eztia pranko badator.  
Zu aundietan aundia zera,  
lagun zar maite Xalbador.

Bertsoaren balioa ta meritua itz gutxitan eta neurri txikitant asko esatean dago.

Zenbait sermoilarik ordu erdi batean esaten duana, beste zenbaitek bost minutuan esaten du. Ondotxo obeto ta doto-reago gainera.

Idatzietan ere berdin gertatzen da. Bukatu eziñeko lan luzetan batzuk agertzen dutena, dozena bat lerro edo erreilletan agertzen dituzte beste batzuk.

Ezta begiratu bear batek zenbat puntuko bertsoa kantatu duan, puntu oietan zer esan duan eta nola esan duan baizik.

Bilintzek *Domingo kanpaiña*-ri kantatu zion artan bost puntu erabilli zituan. Andik gorako danak alperrikakoak ziran, esateko guztiak esanak zeuden-eta.

Xalbadorrek lau puntuko bi bertsotan ustu zuan barren-go ontzi dana. Andik aurrerako puntuak edertu baiño itsusitu geiago egingo zituzten ahapaldi zoragarri aiek.

Eztakienik iñor balego  
orra garbi erakutsi.  
Bide zuzena artu al bada  
ta okerrekoa utzi.  
Bertsolariak goiko maillara  
nai baldin badu iritsi,  
itz gutxirekin esan asko ta  
ez itz askorekin gutxi.



## ■ Joxe Mari Aranalde

Xalbador zaleetan Xalbador zaleena Joxe Mari Aranalde izango zen, ezbairik gabe. Plazer haundiz eta gustura aitortzen zuen ohore hori Gazteluko kabaileroak berak ere.

Hitzaldietan, lagun arteko bileretan eta abar, Aranaldek askotan hitz egin ohi zuen Xalbadorrez. Eta, batez ere, asko idatzi zuen. *Auspoa* sailean bertan baditu bi-hiru liburu eder Xalbador gai hartuta eginak: *Xalbador pertsularia* (*Auspoa*, 240), eta *Xalbadorren barrua* (*Auspoa*, 274).

Liburuok eskuratzea zail samarra izango du irakurleak, aspalditxo agortu baitziren. Baina Internet-en aurkituko ditu oso-osorik, nahi badu behintzat, Euskaltzaindia nahiz KM kulturuneko web orrialdeetan.

Xalbadorren bertsogintza aztertu nahi izan zuen Aranaldek *Xalbador pertsularia* liburuan, eta dio:

Liburu honek Xalbador zenaren bertsogintza aztertzen du. Izan ere, ez al zuen horrelakorik merezi bertsolarietan olerkarienak, eta olerkarietan bertsolarienak? Baina, horretaz gain, urepeldarraren bizitzaren argibide asko aurkituko ditu orri hauetan irakurleak. Bai eta haren barruko izkutuen berri jakingarri asko ere.

Egilearen bi alderdi azpimarratzen ditu bereziki: Xalbador zale haundia zela batetik eta, aldi berean, haren adiskide mina ere.

Auskalo zenbat bider irakurri eta hausnartu zituen haren bertsoak ikasleentzat eginkizunak prestatzeko, igandetako sermoia antolatzeko, haren hitzak, haren gauzak esateko modua, Urepeleko adiskide bertsolariaren kezkarik barrukoenak aztertuz aldi berean.

Harri eta zur egon izan gara ordea inoiz Aranalde eta Xalbadorrez gogoratzean. Izan ere, Xalbadorrekin izan zuen hainbat harremanen berri kontatzen hasi izan balitz, bazeukakeen ba hartxek zer kontatu, zer esan eta zer idatzi! Zenbat bertso

saiotan, eta zenbat aldiz eman ote zizkion ahal zuen gairik egokienak bertsoan ederki egin zezan?

Areago: zenbat bider eramán ote zuen bertso saioaren ondoren bere etxera lotara, afalondoko lagun artean berandu egin zitziola-eta gero gau ilunean Urepeleraino joateko, batez ere negu-garaian?

Bestalde, zenbat aldiz joan ote zen Aranalde Urepelekoaren baserrira, inoiz bera bakarrik, edota Antonio Zavala eta Bordarirekin? Zenbat aldiz, udaberrian belar lanak egitera, edo udazkenean garotakoak egiten laguntzera Xalbadorri, Mikel Atxaga, Jesus Mari Mujika eta beste lankide hartuta? Edo eta, Lizeoko ikasleak laguntzaile hartuta...

Bazekakeen ba gure Aranalde maiteak hamaika idazlan eta kronika eder idazteko gaia eskuen artean, Xalbadorrez gogoetak egiten hasten zelarik.

Baina, seguruenik ere, inork ahotan hartu eta erabiltzerik nahi ez zuen gaiak ziren horiek, berak eta bere inguruko lagun-  
nik leialenek bakarrik jakin zezazketen kontuak inola ere.

Ondo zekien maitasunez egiten direnak maitetasunez gorde behar direla, eta hortan ere zintzo eta leiala izan Gaztelukoa.

Xalbadorrek ere bazituen nonbait inork jakin eta eskuar-  
tean kutsatzerik nahi ez zuen "baxterrak" bere bizitzan, honela baitio Aranaldek bere lehenengo liburuan, *Gizonaz beste zerbait* atalean:

Nik Xalbador gizonaz ez nekien deusik bertsolari-  
z liluratu ninduean. Eta "hameka" urteko haurraz guti-  
ago. Baina gertakizun hori irakurri nuenean, haren giza-  
tasunaz garrantzizko zerbait ikasten nuela iruditu zitzaidan. Orain ere hala dirudit. Eta guri, zuri eta neri, irakurle, bertsolaria bada ere interesatzen zaiguna, gizona ezagutzea ere ez dagokeela alpe-  
rrik uste dut...

Gu ere, geure ustez, baginen norbait eta zerbait etxe har-  
tan; baina ez gintezkeen sar Xalbadorrek beretzat zeukan

lekuan. Debekatua geneukan haren sailetan ibiltzea. Biziro eskurakoi ez zen “hameka” urtetako haur hura, guztiz bere eskurakoi agertzen zaigu gizonetan ere.

Askatasun zale zen, eta askatasun emaile. Etxean ez ezik, mendian ere errespetatzen du askatasuna. *Artzaintza* izeneko bertso-sailean, ardiaren udako ibilera esatean, honela kantatzen du artzain askatasunzaleak:

Udak ardia derama  
libro oihanean barna;  
orduak ez naiz ni jauna,  
libertatea Jainkoak baitu  
denen gogoan emana,  
uzten diotet baimena.  
Nola dezaket kondena  
nihaurek maite detana?

Uztagun honetan Joxe Mari Aranalde eta Xalbadorren istorioa. Ez dugu agortuko iturri oparo horren jariorik; eta jo beza lehen aipatu ditugun liburuetara gehiago nahi duenak, gaurko kronika osabetetzeko.

## ■ Xabier Lete

Xabier Letek zuen Xalbadorrekiko mirespena ez daiteke *Nun hago Urepeleko artzaina?* kantu eder hartara mugatu. Ez, Xalbadorren bertso asko kantatu zuen oiartzuarrak (ikus 2011ko urriaren 8-9ko Xalbadorren egunean Xabier Leteri eskainitako orrialdeak). Horrez gainera, kantaldi oso bat eskaini zion Urepelen bertan Xalbadorren bertsoak oinarri hartuta.

Behin Irulegi irratian egindako elkarrizketa hartan Letek esandakoetatik zati txiki bat gogoratuko dugu hemen, Xalbador hizpide zuela:

Bertsolarien artean, edo koblakarrietan oso gutxi dira poetak. Baina Xalbador poeta zen, bere sormena oso poetikoa ze-

lako. Batetik hori, eta bertzetik bere izate pertsonala niretzat oso misteriotsua zen.

Nik egin nuen kantua jendeak hartzen du halako himno bat bezala, edo halako goraipe bat bezala. Kanta horretan dago Xalbadorrek iradokitzen zidana, bere izatean bazegoela halako bikoiztasun bat.

Alde batetik, izan zitekeen munduko pertsonarik goxoena, eta solasean argia. Ezagutu dutenek esan izan dute tratuan ere hala zela. Baina bestetik, bazuela barne bat, barne izate bat nahiko urratua eta nahiko bihurria. Eta gainera, berak esaten du bere bertsoetako batean, *Jainkoa eta ni* deitzen den konposizio batean, bera oso gaztetatik izan zela beti bekatoros, eta bizitu zuela bere bekatari eta gisa txarrekoa izatearen kontzientzia hori modu zoragarri batean. Eta horrek kulpagarri egiten zuela bere burua Jainkoaren aurrean, azkenik egun batean bakea egin zuen arte Jainkoarekin.

Horregatik, nik uste dut Xalbador gizon interesgarria zela oso, zeren, barne atormentatu bat izanik, eta, beharbada, jendeak uste duena baino zailagoa, gero, batez ere bere kantatzeko maneran eta bere poetikan, oso gizon aberatsa eta interesgarria izan zelako...

## Xalbador bertsotan

---

Egia da plazan edo aretoan gaia eman eta bat-bateko bertsoak eskatzen zitzaizkionean, mila itzuli-mitzuli ematen ziola hark gaiari, burua eta bihotz-errotaren galbahe estuan alea iragazi eta bertsoari zukurik onena ateratzen saiatzeko. Ondo kostata egiten zuen bertsoa hartzek, baina ongi tolestu eta ondo landuta beti ere. Zilegi da bakoitzak bere iritzia izatea hartaz edo hontaz ari garelarik. Xalbadorren bertsogintza aipatzean ere holaxe gertatzen da.

Ez dakigu horretaraino joango ginakeenik inoiz, baina lehen ere aipatu dugun Joxe Lizasoren *Nere aldiko kronika* (*Auspoa*, 275) liburua prestatzen ari ginela, bere iritzia eskatu genion asko maite eta estimatzen zuen lagunari buruz, eta hark esan:

Xalbador aipatu dizut, eta zerbait geiago ere esango nizuke. Fernando bertsolari aundia eta arritzekoa zan. Eta aunditasun ori edonork aitortzen du orain, baiña bestelakorik ere izan zan plazaz plaza zebillen garaian. Eztet uste bertsozale askok aren euskera, aren esateko modua eta abar ondo konprenditu zituenik. Txistu jo zioten artakoa aipatzen da beti, baiña beste txapelketako juradutan ibilli zan askok ere etzion justizirik egin. Bestela, eman zioten baiño sari oberik emango zioten, seguruenik.

Ala ere, Xalbador bat-bateko bertsotan baiño geiago zan bertsoak idazten, nere iritziz. Gauza asko esaten du bere bertsoan. Eztakit ura bezelako bertso-jartzaillerik besterik izan danik emen. Oraintxe ere *Odolaren mintzoa* irakurtzen asi eta arrituta egoten naiz. Eta irakurtzen dedan bakoitzean beti zerbait berria arkitzen det gaiñera. Ori da euskera eta ori aberastasuna, ori!

Gogoratu beste bertsolari azpeitiar batek, 2012ko abenduaren 15ean hil zen Joxe Agirre *Oranda* bertsolari xuxena zenak, nola definitu zuen Xalbador behin bertso batean:

Bertsolaria zinen punta-puntakua,  
arinkeri gutxiko sentimentukua.  
Zuzenbidea zendun beti gogokua.  
Entzun, artzain haundia Urepelekua:  
zeruan gorde zazu guretzat lekua.

Pentsa dezagun aurreko abenduaren hamabostaz geroz elkarrekin izango direla nonbaitean biak, beste hainbat bertsolarirekin festa eder bat antolatuz inguruko bertsozaleen artean.

## ■ **Xalbador bakarka**

Ezertan bazen bakarkako gaietan maisu haundia zen Xalbador, eta bat-bateko bertso saioetan bezala erakusten du hori bere idatzietan.

Hala ere, aipamen labur honetan, lekuko batzuk jaso nahi ditugu irakurleak goza dezan haren bertsozaintzaz, gozagarriak dira-eta, ezbairik gabe.

Bertsolari ona izateko zeintzu dira doharik beharrezkoenak?

Galde horixe egin izan genion inoiz Xalbadorri gaia ematean.

Euskaltzaindiak antolatu zuen 1965eko Bertsolarien Txapelketa nagusikoan ere horixe galdetu zion Alfontso Irigoyen gaiemaileak (Donostia, 1965.I.1 – *Auspoa* 43, 54 or.), eta hark honela erantzun:

Ni erantzuten zuri, Alfontxo, orai bainago hasia,  
Jainkoak eni ere eman daut bertsolarizko grazia.  
Gauza bat bada denen aurrean hortako premi hartzia:  
Segurtasuna bere buruaz, ta gainera ausartzia.

Bertze bat ere erranen nuke banerauka ahalmenik,  
ote da hemen nik baino hobeki gauza hori dakienik?  
Bertsolariak umila izan behar bailuke maizenik,  
eta bertzeri hahalaz ez esan entzun nahi eztuenik.

Nik bertsulari ederra franko denboran badut entzuna,  
eta beti nik bilatu izan dut heiekin alkartasuna.  
Bertsolari bat ezpada ere indarrez handi ta una,  
ez bedi izan, Jainkoaz otoi, bere eletan lizuna.

1967ko ekainaren 1 Iko Bertsolarien Txapelketa nagusikoan,  
IRRIA gaia eman zion, eta hark erantzun (*Auspoa* 67, 99 or.):

Gure izakera gordetzen dugu gizasemek gehienetan,  
arrazoirikan ez izanda're iduri dugu penetan.  
Oi, irria, zu bizi huntako beharra zira benetan.  
Sort dakigula maiz irri hori beti gure ezpainetan.

Irria beti ez ditaikela bihotz barnetikan egin.  
Gogorik ez baldin bada ere hori egin daike berdin.  
Nahiz irria gezurra izan ta berari eman min,  
bederen beti eginen dauzu bere inguruan atsegin.

Egun berean, Anoetan bildu ziren bertsozaleen txistuak entzun eta sufritu ondoren, "Zergatik haurrak jaiotzen direnean nigar egiten dute?" gaia eman zioten (*Auspoa* 67, 107 or):

Haur maite horrek berak zer daki, ez baiterauka indarra.  
Aingerutxo maite horrek beti dauka lagundu beharra.  
Bertzerik ezer ez daki eta berak lehenengo nigarra.  
Maiteak ez derauka pasturik mundo huntako hondarra.

Inoiz nigarrez haurtxo txiki bat albotikan dut hauteman,  
aitak entzun ez zezan gero du amak gelarat ereman.  
Oi, haur maitea, hasi parrez zu, ez ba nigarrari eman,  
nahiz ezjakinean zaudela zu nigarraren erresuman.

Haurtxoak sortu den ordurako heltzen dio nigarrari,  
bera pozetan balin bada're lanbide horri da ari,  
zeren Yainkoak bere jaiotzan errana dio haurrari  
gure mundo hau tristea dela, benetako nigargarri.

1967ko txapelketan azkenengo gaia izan zen hau: “Eta azkenik, Xalbador, hiru bertso ohiari, ohatzeari bota behar dizkiozu” (*Auspoa* 67, 119 or):

Ohea bezain zer baliatzen ote da gure bizitzan?  
Leku pausakor hobeagorik nehon ez ditaike izan.  
Handik kanpora ertetzen gira eginbeharren peskisan.  
Astia izanez, goizean ere gehiago egonen nintzan.

Ohe maitea, zurekin badut nik egundainoko hartze,  
nahiz artetan emaiten duzun kolpeño bat edo bertze.  
Bizitze onik zu gabe ez da, hortaz beti dut aditze.  
Ez zeradea zuhaur izan zu maitasunaren ohantze?

Ohe gaizoa, zu maitagarri, zutaz ez nitaike ixil.  
Zugaz behartu gabe egun bat munduan ez daike ibil.  
Denak horrarat datoz azkenian, izanikan ere abil.  
Zutan sortu ta zutan haziak, zutan behar dugu guk hil.

1971ko uztailaren 25ean Errenteriako plazan egindako saiotik ondorengo bertsoak. Mikel Ugaldetik jarri zion gaia barkarka kanta zezan: Arantza artean aurkitzen den loretxoari bertsuak.

Zuek arantza deitzen dezute, ta guk aldiz elorria.  
Zeruak eder egin zun baina dena traba da jarria.  
Lurretetik duzun indar on horrek aurkitzen badu berria,  
loretxo horren antzean dago gaur gure Euskal Herria.

Lehen askotan entzun izan dut, berriz egiten naiz jabe,  
gure Jainkoa gauzak egiten beti izan dela trebe.  
Nonbait tontor bat ikusten bada azpian badauka labe,  
eta lorerik nehoiz eztugu ikusten arantzik gabe.



Lore gaizoak bere usaina nola dezake zabaldu,  
berez hain pulit izanagatik arantzak estaltzen badu?  
Jaungoikoari guk eskatzeko haxe dezagun har kargu:  
arantza horiek gutxi ditzala, eta lorea ugaldtu.

Saio hau ere bakarka egina da, Zepai bertsolariaren ome-  
nez egindako jaialdi batean, Tolosako Iparragirre aretoan.  
Gaia: Bere lagunek hola eskatu eta mendiko pakea utzi eta  
behera datorren artzaia. Gaia bera, eta bakarka egin beharra  
ere, bi abantaila onak ziren Xalbadorrentzat.

Artzai maitea, sinetsi duzu harro batzuer entzuna:  
“Utz mendia ta zatoz gugana” da hek erran derautzuna.  
Eztakizu, ez, gizarajoa, horrekin egin duzuna,  
mundu txar bati sartu baitzira utzirik askatasuna.

Uste zinuen kaletarrekin zinitaizkela abildu;  
zure ametsak kale txar hortan laster ditaizke amildu,  
lehengo zure izaitetarik horrek baitzaitu bipildu.  
Menditik urrundu zira bainan ez zerueta hurbildu.

Zure kaltetan erabili du ongi norbaitek mingaina,  
eta gero zuk bildu beharko zure lurrian hark erraina.  
Kalean uros etzaitezke izan, harek esan zuen baina,  
mendi gainean izaiten baita Jainko Jaunaren dohaina.

*Zeruko Argia* astekariaren alde antolatu zen jaialdia Do-  
nostian, 1972ko apirilaren 30ean. Bakarka gai haxe eman  
genion Xalbadorri: Zergatik maite duzu geroz gehiago zahartu  
den zure emaztea?

Andrea ez dut nik hartu geroko menturan;  
neguaz pentsatu gabe maitatu dut udan.  
Bainan oraintxe jartzen ari naiz ni dudan  
gero ta maiteago zergatik zaitudan.

Zure egina nauzu muina ta hezurra,  
hola pasako zela banuen beldurra.  
Oraino're zurekin ni beti gostura,  
zutan ikusi nuena ez baitzen gezurra.

Iguzki egina da zure zaren itzala,  
luzaro elkarrekin gaitetze axola!  
Ikusten dut beti ta hobe zoazala,  
armairu xokoan den arnoa bezala.

Lehenengo aldiz "aita" esan zion haurrari kantatzeko eskatu zion Joxe Mari Aranaldek, 1973ko otsailean, Añorgan egindako jaialdi batean.

Nonbait ni presatua nintzan, ta ezkondu hain goiz goiza.  
Hogoi eta bi urte inguruan izan zen gure ezkontza.  
"Aita" esanaz goizik entzun nun umearen abo hotsa.  
Ordun bezain alai nik eztut nehoiz eduki bihotza.

Bai, benetan izen ederra, "aita" da gizon ezitia.  
Haur ttipiak hasarre hartan zer erten dun badakia?  
Baina haurrari aitagaitzeko emain bere berokia,  
nahi nuke aita izan dadien haurrarentzat egokia.

Lehen aldikotz "aita" entzutiak atsegin asko emaiten.  
Gaztea, zuri mintzoko naiz zu ere hortara zaiten.  
"Aita" izenak gizonari du balio aunitz emaiten,  
ta gero saia izen horren ondo zuzena eremaiten.

## ■ **Xalbador ofiziotan**

Binaka edo "ofiziotan" egindako saio bate do beste.

Heletan, 1964ko maiatzaren 17an, Mitxel Labegerie izan zen bertso jaialdiaren aurkezpena egin eta bertsoari gaiak ematen. Mattin eta Xalbadorri haxe jarri zien: Duela bortz

urte izugarrizko gudua egin zenuten plaza huntan. Xalbador Urepeleko kontseilari hautatua izan zen, eta Mattin, Ahetzekotik kanpo gelditu. Heldu den urteko hauteskundeetan presentatuko ote da Mattin berriro?

Mattin Orai kondu zaharrean ezarria naute;  
nik gelditu nahi dut hortatikan aparte  
Presentatzeko ez dut ideiarik bate,  
lehen frogatu baitut ez nautela maite.

Xalbador Etsitua dagola aitortu du orai,  
kargu hortarako gaur ez omen dela gai.  
Ez du indarrik eta ez du ainbat kurai;  
badaki herritarrek hau ez dutela nahi.

Mattin Gauzaren esplikatzeko ari naiz kantari,  
ta erran behar dautzuet Heletan denari:  
Ni ez nitake fida emazte hoieri,  
hoiek boza emate'ute gizon politeri.

Xalbador Bozetan galdu bainan etzen hau kaskatu  
behin hutsegitea etzela bekatu.  
Bere andriak ere egin zion afrontu:  
hau senar izan baina bertzentzat bozkatu.

Mattin Batzuek atsegin ta bertzeak penetan,  
gora-beherak hola badira benetan.  
Nola duzuen jaun mera karlosa Heletan,  
hoi nahi duena frango bada hemen andretan.

Xalbador Lehenik ez daiteke bozarik atera,  
ni triste izan naike, Mattin alegera;  
jende frango joanik gure bozkatzera,  
zu triste gelditu ta ni hortxe aurrera.

- Mattin Xalbador, etzaitela hortakotz kaskatu;  
zure bertsua etzaut batere gustatu.  
Zu kontseiluko zauzte herrian onartu,  
alta eztute denak zuretzat bozkatu.
- Xalbador Zu lagunen gaizkitzen beti zira trebe;  
nik neure arrazoina hor diat halere.  
Nire alderdi dena polit ez badare,  
zuk bi dohain hoitarik eztuzu batere.
- Mattin Bere ustez ari da neri atakatzen,  
nik ere hasi bea'ut honen esplikatzen.  
Xalbador kontseiluko aixe pasatu zen,  
denak beretzat zitun, kontrarioik etzen.
- Xalbador Mattinek Xalbadorri hori erran dio,  
kasik esplikatzea ezpaitu balio.  
Norbaitek eman beza xuri emendio,  
aski azkarrarentzat nor da kontrario?
- Mattin Urepele herria ezpaita pobrea,  
kontseilukoik etzaiken hau baino hobea.  
Hor ere egiten du bakotxak berea.  
Herriak egin dio etxera bidea.
- Xalbador Hori pasatu zela badu zonbait urte,  
gauzaren iragaitiak balioko luke.  
Mattin gizagaizoa, zu bozaren eske!  
Txipia ziralakotz baztertu zaituzte.

## ■ Uztaritze, 1964

Uztaritzeko Hiribehereko plazan jasotako bertsoak, 1964ko urriaren 10ean. Aurkezle eta gaiemaile Etxezuri jauna.

Gai hauxe eman zien Mattin eta Xalbadorri: Herriko bozketak, hauteskundeak dira. Mattin hau Xalbador lagunarengana doa bozka eske; baina Xalbadorrek beste bati hitza eman dio. Mattin hasita.

Mattin Xalbador, ezagutzen baitzaitut nik ontsa,  
galda bat egiteko egun ez naiz lotsa.  
Probatu nahi nuke gaur zure bihotza,  
ia emanen dautazun igandean boza.

Xalbabor Aitortu behar dautzut tronpatzen girela,  
bertze bati lehenago egina dut ela,  
orai ez naike joan nehondik gibela.  
Nik ez nakien, Mattin, listako zinela.

Mattin Xalbador, hartu zazu hortan deskantsua.  
Lehen ere gertatu da holako kasua.  
Lehengo hitza ez da gero ezin ukatua,  
errozu laundu bea'uzula lehenik auzua.

Xalbador Gauza horren erraitiak ematen daut lotsak,  
galduko zauzkitala ardi ta bildotsak.  
Ez nau, Mattin, ni hortara laguntzen bihotzak.  
Ez dezake on ekar gaizki eman bozak.

Mattin Hau konprenitu beha'uzu, ez bait zira gazte,  
karkulan hasi zaite igande ta aste.  
Lagun urrungo hoiek tronpatuko zauzte,  
ta gero nerena jin laguntasun eske.

Xalbador Ainitz enganamendu bada mundu huntan;  
erran nahia daukat mihiaren puntan.  
Ez dakit zer demontre irabazten dutan  
baldin sartzen bazeraut auzoa kargutan

Mattin: Badakizu nola den munduko bizia:  
auzotik urrunera da diferentzia.  
Baldin gertatzen bazaut kargutan sartzia,  
segur goratuko dut kartier guztia.

Xalbador Mattin, ezarri dautazu zuk gogoia beltza,  
auzoa zaitut eta etzaitut arrotza.  
Bainan zuk beranduxko agertua hortza,  
lehen hitz emanari emanen diot boza.

Mattin Hortan etzaibiltza gero, lagun, zuzenian.  
Nik ere erran behar dautzut orai azkenian:  
Kontzientzia baduzu hurrenen gainian,  
askoz lehen joanen zira zerbait behau'zunian.

## ■ Donostia, 1965

Hain estimatua zuen Joxemiel Lazkao Txikirekin ofizioan jarri zuten, 1965eko urtarrilaren 1ean, Donostian. Alfontso Irigoien gaiemaile: Lazkao Txiki izango da baso-zaintzailea, mendiko guarda; Xalbador, berriz, guardaren baimenik gabe arbolak botatzen ari den baserritarra. (*Auspoa*, 43, 50 or.)

Lazkao Tx O, mendizale nere laguna,  
etzera portatzen jator,  
zeure kasako libertadea  
ekarri dezu derrior.  
Ez al dakizu egun guztian  
baso zai naguela or?  
Permiso gabe egurrak mozten  
zertan zabilta, Xalbador?

Xabador Permisioa eskatu nizun,  
orroit dut nik egun hura,  
baina zuhauren aldetik beti  
baitzabiltza zu ardura...  
Ene galdea entzun eta zuk  
zimurto duzu sudurra.  
Nik familia berotzekotan  
nunbaitit beha'ut egurra.

Lazkao Tx Lagun Xalbador, nere (i) esanez  
arren, etzaitez atzendu;  
baimenik gabe dabillen batek  
nunai ere ondatzen du.  
Nik pobre bati ez nioke nai  
etxeko ogirik kendu,  
oinbat fabore egingo nizun  
eskatu balbin bazendu.

Xalbador Eskatu nizun nola hortan zuk  
baiteraukazu almena,  
bainan zuk ere ez duzu egiten  
manatua zautzun dena.  
Eta gero hor zerbitzatu  
beharretan ez daguena,  
batere beharrik eztaukanari  
emaiten diozu baimena.

Lazkao Tx Baiña, Xalbador, etzaitezela  
litzarkerietan ari,  
neri ogia kentzeko bide  
txar bat nola dezun ori.  
Pentsatu zazu, ortik ez daukat  
ez premiyo ta ez sari,  
eta debalde gero egurra  
orrela dabillenari.

Xalbador Biguintasunik ez duela dakit  
guarda jaun hunen bihotzak,  
gero bazterretik izitzen  
gaituela hunen bozak.  
Ni bezala miserableai  
zendako erakutsi hortzak?  
Egurrik eiten ezpadugu guk  
denak hilen gaitu hotzak.

Arratsalde hartako saioan berriro ere elkarrekin jarri zitu-  
tuzten Xalbador eta Lazkao Txiki. Gaia: Biok langileak zerate,  
eta Alemaniara joateko atera zaizue kontratu on bat, hemen  
baino bost aldiz gehiago irabaziz. Xalbador, zu Alemaniara  
zoaz; baina, Lazkao Txiki, zuk nahiago duzu hementxe segitu  
gutxiago irabazita ere. (*Auspoa*, 43, 86 or.)

Xalbador Oi, Joxe Migel, entzun nezazu,  
estura haunditan nago.  
Holakorikan gerta ezpalitz  
askozaz nuen nahiago.  
Alemanira lan egitera  
orai baitut joan-gogo.  
Irabaziak han omen daude  
bortz alditan haundiago.

Lazkao Tx Nere laguna, ibili zaitetz  
anaikiro eta legez;  
irabazien ots berri oiek  
zabaldtu ziraden aurrez.  
Ez al zerade eskarmentatu  
zu urrutiko intxaurrez?  
Joan bitartean amalau dira,  
ta joandakoan baterez.



Xalbador Proba txiki bat eginbidez nik  
ikusiko dut mundua;  
nik deraukatan esperantza ez da  
oraino ere galdua.  
Egon zaitea lasai zu, otoi,  
ez dut galduko burua.  
Eskual Herrian baliatuko dut  
han irabazi dirua.

Lazkao Tx Zeure gogoia orrela bada,  
o nere laguna, segi,  
baiña an diran esperantzakin  
etzaitez poztu geiegi.  
Euskalerrriak beronek dauka  
landutzen oinbeste premi.  
Ementxe ere izango dezu  
zuretzako ainbat ogi.

Xalbador Aldatu behar halarik ere  
hasiz geroztikan lurrez,  
hemendik goiti abiatuko  
naiz harara buruz urez...  
Zer nahi duzu? Ni ere gose  
gizon-galgarri den urrez,  
ta nihaur ere hementxe nago  
harek galtzeko beldurrez.

Lazkao Tx Ikusten dezu Alemanitik  
dagon diru-etorria;  
beraz oinbeste gustatzen zaizu  
zillarria eta urria?  
Erdiarekin bertan segitu  
ez al zenduke obia?  
Zure izardia an ixurtzea  
ez al da penagarria?



Xendarineko ahizpak



Larraineko (Xiberoa) dantzariak

# Xalbador bertso jartzailea

---

## ■ Maisu haundia

Maisua zen Xalbador bertso jartzaile ofizioan, maisu zuzena eta aberatsa. Baina bere buruarekin borroka bizian zen beti. Bertso jartzaileei buruz ari dela zera dio:

Nik hauer, aholku bat emaitokotan, hau erran nezeieke: ez ditzen beti ar alegiazko gai batzuetaz; behar luteke ere ari beren biziko gertakari eta sendimentuetaz; ez dezatela ere nehoi deusik har; egiten dituztenenak izan ditela osoki heienak, behar den denbora hartuko badute ere hortako.

Hor ez da denbora izartua, eta norbaitek gostuko pertsu alde bat irakurtzen badu, ez du galde eginen zonbat denboraz eginak diren, baizik nork eginak diren.

Berriro ere Joxe Lizaso zenarekin *Nere aldiko kronika (Auspoa, 275)* liburua prestatzen ari ginela, hain estimatu eta maitea zuen Xalbadorrez galdetu genionekoa gogoratu nahi dugu, bat bateko bertsolari bezala hura zer iruditzen zitzaion galde-tuz:

Ala ere, Xalbador bat-bateko bertsotan baiño geiago zan bertsoak idazten, nere iritziz. Gauza asko esaten du ark bere bertsoan. Eztakit ura bezelako bertso-jartzaillerik besterik izan danik emen. Oraintxe ere *Odolaren mintzoa* irakurtzen asi eta arrituta egoten naiz. Eta irakurtzen dedan bakoitzean beti zerbait berria esaten dit neri.

Urteak dira bertsoa erraz samar egiten al zuen galdetu geniola Xalbadorri, irratirako egindako elkarrizketa batean; eta zorrotz erantzun zigun:

Ez, nekez hasten naiz, eta nekez egiten ditut pertsuak. Gustuko gaia dutanean, behin hasiz gero, ez dut izaten pakerik, eta ezin utzi bukatu arte. Bainan, hastea gostatzen zait ikaragarri” (Elk. Donostian, 1976).

Eta guk sinestu ez zuela erraz egiten hark bertsoa. Ez idatzizkoa, ez bat-batekoa.

Gaia inork eman edo berak aukeratzen zuelarik, ez zuen nahiko bertsoa egitea zirt-zart batean. Gai bat eskuartean zuelarik, ikaragarri behartzen zuen bere burua bertsoa txukun tolestu eta kantatzeko.

Bertsoa idazten zuenean, berriz, asmatu/idatzi ahala, behin eta berriz pentsatzen zuen, goitik behera orraztu eta zuzenduz idatzitako guztia, udazkeneko sagar helduari ahalik eta zukurik haundiena ateratzeko. Hitz bakoitza, aditz-modu eta aditzaldi bakoitza, dena lantzen zuen zurginik trebeenak zura lantzen duen bezala.

Ez zuen zenbaitek bezain bertso erraza, ez. Asko pentsatu behar izaten zuen –gehiegi ere askotan–, eta ondo sufrituta egiten zuen bertsoa, amak umea bezala, haur-minetan. Gogor kostata, baina fruitu ederra emanez, sufrimentua eta poza elkarrekin nahastuz azkenean. Ez dago Xalbadorren bertsoa entzun edo, batez ere, behin eta berriz irakurri besterik.

Xalbadorren bertsoa, bertso erraza baino gehiago bertso landua da. Zerbaitegatik esaten du Joxe Mari Aranaldek “bertsolarietan olerkariena, eta olerkarietan bertsolariena” zela Urepeleko artzaina.

## ■ **Xenpelar saria, solasean**

Lau bat bider irabazi zuen Xalbadorrek Donostiako Turismo eta Ekintzetxeak (C.A.T.) urteoro antolatu ohi zuen *Xenpelar saria* bertso paper sariketa, nahiz eta hegoaldeko bertsozaleak izan ohi ziren epaile norgehiagoka hartan.

Merezi duela uste dugu bertso sail haietako bakoitza behin eta berriz gogoratzea kronikaldi honetan, lehendik argitara emanak badira ere Xalbadorren liburuetan.

Hauetxek dira, hurrenez hurren, *Xepelar saria* lehiaketa hartan saritutakoak:

- 1972: *Sortetxeari*
- 1973: *Mendian galdu direnei*
- 1975: *Ortizirale Saindu bateko gogoetak eta otoitza*
- 1976: *Ene ama zenari*

1974ko hutsartea ageri da zerrenda honetan, urte hartan *Mendaro Txirristaka* sariketara (Mendaro-Gipuzkoa) bidali baitzituen *Jainkoa eta ni* bertso ederrak, eta lehenengo saria eman han ere.

1975ean beste sari bat irabazi zuen: Gipuzkoako Pilota Elkarteak antolatu zuena, alegia, *Pilota, euskal jokoa* deitu bertso sail eder baten bidez.

Goiago esan bezala, bertso hauek lehenago ere jasota daude *Odolaren mintzoa* liburuaren argitalpen ezberdinetan. Baina zergatik ez Deiadarraren hamargarren urteurreneko kronika honetan berriro gogora ekarri?

Aurrez, 1976ko *Xenpelar saria* jaso eta bertso saio bat egitera Donostira joan zen batean, irailaren 13an, egin genuen solasaldi/elkarrizketa gogoratu nahi dizugu irakurle horri. Loiolako Herri irratian larunbat arratsero egin ohi zen *Beti Jai* irratsaiorako egin genuen elkarrizketa da; baina garai hartan irratic eman eta gehiago beste inon argitara eman gabea.

Ez da berriketaldi luzea, baina bai gogoan izatekoa, Ure-peleko artzaina ordurako bere osasunaz kezkatu zebilela ohar zaitez. Begi bateko operazioa egin berri zuen garai hartan; eta horretaz ere erantzun zigun, galdetu ala:

-Zorionak lehenik, Xalbador. Zenbagarrena duzu aurtengo *Xenpelar* sari hau?

-Uste dut orai lau urte azaldu nintzela lehenbizikotz *Xenpelar sariketara*; eta geroz urte batez ez nituen bidali izango pertsuak (1974); baina gainerakoak irabazi izango ditut orai arte.

Hona bidali ez nituen urte hartan igorri nituen beste sariketeta batetara, herriz ez naiz gogoratzen... A, bai, Mendarora igorri nituen, *Mendaro Txirristaka* sariketara, eta irabazi nuen han ere *Jainkoa eta ni* bertso paperaren bidez.

–Gogoan daukat Gipuzkoako Pilota Elkartearen berrogei-ta hamargarren urteurreneko saria ere zeuk irabazi zenuela, *Pilota, euskal jokoa* izeneko bertso sorta ederrarekin. Bilintx sariketara ez al duzu bidali inoiz bertsorik?

–Bai, baditut bidaliak, bai.

–Zuk bertso landua, ondo pentsatutako bertsoa idazten duzu. Erraz egiten al duzu bertso idatzia, erraz idazten al duzu bertsoa?

–Ez; nekez hasten naiz, eta nekez egiten tut pertsuak. Gustoko gaia dutanean, behin hasiz gero, ez dut izaten pakerik bukatu gabe. Eta asko sofritzen dut, askotan nahi nukeen doinurik ez tut asmatzen ahal-eta. Izigarritzko lanak emaiten dauzkit gehienetan erran nahi nituzkenekin aire bat ongi joan arazteak. Nihaurek musika egiten jakin izan banu, engoitik banuen kantu gehiago eginik, eta hain segur ederragoak.

–Gaia aldatuz, gaur egun bertsozale askok galdetzen du zure osasunaz, Xalbador. Zertan da zure bista hori, zertan da zure osasuna?

–Bakizu, bista ezbehar hartan galdu nuen gehiena. Esku-biko begitik eztut ezer ikusten oraingotz. Baina erran dautate jarriko didatela lentila edo holako zerbait, eta harekin hobeto ikusiko dutala.

Baina ez dakit ba... Motorra ahuldua duen kotxe zahar-rari faroletan gastu handia egiteak balio duen edo... ez dakit. Bihotzetik ere hola, begitik operatu nindutenean, aurretik egin zidaten azterketan aurkitu zuten zerbait, eta oso preokupatuak ziren midikuak, operazioa ere atzeratu behar zela-ta hori konpondu arte.

Gero begiak ere presa zuela, eta nolazpait moldatu ziren, eta ez nintzen hil behintzat.

Eta gero begitik operatutakoan berriz izan nituen holako eztaikit ba nik, ahulezia edo munta txar batzuk, guk erraiten dugun bezala. Eta orduan berriz heldu zidaten midikuek eta

esan bihotza nahiko gaizki neukala, eta haien arabera, “retresis mamitral” frantsesez, hori zain estura edo holako zerbait zela, eta operatu beharko nuela lehenbailehen. Baina ni etxera joan nintzen, berriz hiru aste inguruan Bordelera joateko manuairekin. Heiek hala nahi zuten, orduan hobeto ikusteko ta...

Bertze espezialista batengana jo nuen nere midikuakilan akortean, eta hark tratamendu bat egin zautan, baina etzen nonbait hobetzen nere bihotzeko zera hoi, edo eztakit; ta bidali ninduten Bordeleko beste ospitale batetarat, hobeto aztertzerara. Eta uste nuen, ta heiek ere hola uste zuten, operatu behar izain nuela.

Baina gero bihotzeraino sartu sonda batzuk eta ibili zizkidaten, eta erran zautaten lehendik erran zuten hura etzela. Eta utzi naute, eta hola hola jarraitu beharko dut, neure kardiologoa eta horiekin heien erranak egin eta. Zerbait badaukat eta ez dakit zer, baina hobetuz beintzat ez doa, eta ez dakit. Hortan naiz.

–Beharbada, gaitzaldi txar honek bertsoak idazteko aukera eman izango dizu, eta zure bertso liburua aurreratzeke on daiteke hori?

–Bertso liburua... Nik neure lana bukatua dut iadanik. Bukatu nuen Bordeleko bi egonaldien artean. Falta zena orduan egin nuen. Begitik operatuta etorri, eta berriz bihotzarendako joan artean bukatu nuen nik ene lana. Orain uste`ut azalduko den laster.

–Zenbat bertso dituzu frogatan dagoen zure liburu berri hortan?

–Ez dakit ba, ez dut kondatu zenbat bertso diren. Gehiena bertsoz osatua da liburua; gero prosaz ere egin behar izan dut zerbait, erran beharrak banitun eta bertsoan erraz adieraz ez daitezkeenak eta...

Behintzat zerbait moduz betea da ene liburua, eta egin nituen bertsorik gehienak hor etorriko dire, hor azalduko dire.

–Aizu, ta bat-bateko bertsolari batek zer sentimendu ditu bere liburu bat argitaratzean?

–Hara, eztakit. Bat-bateko bertsolaria deitzen nauzu zuk, baina ez dakit, nik uste hobea naizela bertsoak idatziz egiteko, nahiz eta huntan ere asko sofritzen dutan.

Baina, edozein moduz ere, liburu baten ateratzea lana ere badata, orai lana bukatua dut, baina badakizu, lotsa bat bezala emaiten dit neure..., ni jendearen aurrian hola azaltzia, askok ezagutzen ez nauten bezala azaltzen bainaiz neure liburu hortan. Akats asko, eta nere aitortza asko egiten dut liburuan, eta ez dakit, beldur bezala naiz liburu horren jendeari emaiten. Eztakit asmatu dutan ala ez.

–Kezkati zaude, beraz?

–Bai, guziz kezkatua nago. Nire lehenengo liburua da, inoiz erran eztudan gauza asko erraiten dut, eta... bakizu.

–Noizko plazaratuko da liburua?

–Uste'ut azaro aldeko edo omenaldi bat egin behar didatela neure herrian da, hango Eskualtzaleen Biltzarrak hala eraturik, eta gure herriko agintariekin da batean, ordurako nahi litzake behintzat liburua kanpoan izaitea.

–Zure liburugintza hori eta horrenbestez amaituko al da?

–Nik osasuna baldin badut, uste dut jarraituko dutala. Orai ezer gutxi egiten dut hori bukatuz geroztik. Uste nuen liburu hori egin ondoan pakea izango nuela, baina eztut pakerik senditzen, eta jarraitu beharra izango dut osasunak laguntzen banau.

–*Xenpelar saria* irabazi duzu behin eta berriz. Zorionak, Xalbador. Hala ere, nahiko nuke, ba, nik gure entzuleentzat zure bertso hoiek kanta ditzatzun...

– Denak nahi'tuzu?

–Bai, denak, hasi eta amaitu.



## ■ Ene ama zenari

1976ko Xenpelar saria

Ama, nola zure belaunetan nindadukazun denboran,  
utz nezazu zure bularrean burua pausa dezadan,  
ene bihotzak zer sendi duen nahi baiterautzut erran  
zure ezpain sakratuetarik ikasi nuen mintzairan.

Ene deia amodioaren bitartez zinuen entzun,  
eta gero oinazen erdian mundurat eman ninduzun.  
biziaren grazia lehenik, gero hoinbertze maitasun,  
berant jakin dut, ama maitea, zendako eman dautazun.

Orroit naiz, inozent bat bertzerik ez nintzaneko bizitzan,  
ama, zer artak ta pilpirak nitaz zinituen izan;  
kartsuki miresten ninduzula zeruk aingeruen gisan,  
ez aingeru bat nintzelakoan, bainan zurea bainintzan.

Geroxago, gaizkirako grinak ni baitan piztearekin  
zure oharrarazpen zorrotzak etzitzazkidan atsegin;  
ene adimendu errebelak ez baitzuen nahi jakin  
amodioz nahi zinuela nitarik gizon bat egin.

Alabainan ez nuen nik hanbat konprenitzen gizongoan,  
are gutiago zuk enetzat zinuen amodioan.  
Atsegingarriena nondik zen, handik nahi nuen joan,  
ene nahia bete zedien baizik ez nuen gogoan.

Errexki konprenitu dut, ene burrasogoko bizian,  
ama, zer pairarazi dautzudan ezagutza eskasian.  
Kezka hori ene lagun duket ene bizitza guzian,  
hoinbertze damutzen zautan hutsik ez baitut kontzientzian.

Ama maitea, nondik zatorren zure maitasun garbia  
kreatzea zer den ikastea egin zitzautan argia.  
Geroztik betikotz xukatzea izan da ene lehia  
ene gatik ixuri nigarrak busti zuten aurpegia.

Adiarazi zerautenean odolak bere mintzoa,  
berriz gogoratu zitzerautan, o ama, zure altzoa;  
bai ta zure bularretik hartu esne on haren gozoa,  
orduz geroztik zurea naukan ene izaite osoa.

Ama, gero zerurako deia zitzauzunean etorri,  
bizirik zirauten izaitetan bilatu nuen sokorri.  
Bainan gure Jainkoak ahalik ez dio eman nehoi  
estaltzeko amaren galtzeak egiten duen huts hori.

Munduko amarik hoberenak, Jesusena ez izanik,  
ez du ekarri sekula hutsik egin ez duen gizonik;  
ez ni ere, bainan ene hutsak ene gain hartzen ditut nik.  
Aldiz, ama, zuri bihurtzen dut ni baitan bada deus onik.

Ama, noizbait ibili banaiz zu nahigabetzeko moduan,  
ene hobenez penitentzia egin nahi dut munduan.  
Jaunak zure gai kausi nezala heriotzeko orduan,  
itzal gabeko ama semegoz goza gaitezen zeruan.

## ■ Sortetxeari

Xenpelar saria, 1972

Oi gure etxe maitea,  
orroitzapenez betea,  
zorianaren atea!

Zure altzoan iragana dut sortzetik orai artea.  
Izanagatik pobrea,  
bertzeak baino hobea  
ni sortu nintzan etxea.

Amak munduratekoan,  
etxea, zure xokoan  
hartu ninduen besoan.

Geroztik hunat eduki nauzu zure geriza goxoan.  
Nabilalarik kanpoan  
ez naiz sosegu osoan,  
beti etxea gogoan.

Dudalarik zerbait pena,  
zu zaitut lagun lehena,  
ihes leku hoberena.

Zure alderat inguratzen naiz ahalik eta maizena.  
Munduko leku maitena,  
zuri zor dautzut naizena:  
izana eta izena.

Asbasoen eskutik jina,  
o egoitza atsegina,  
ez dakit zure adina.

Heiek lurpean estali ziren zutan utzirik arima.  
Hain amultsuki egina,  
heientzat zer bihotz mina  
zutaz gabetzen bagina!

Etzetik hoinbertze gazte  
kanporat zorion eske  
zoraturik bazoazte;  
bizimoduak behartuz edo etxea ez aski maite?  
Gure faltaz balezate  
arrotzek etxe hau bete,  
hobendun haundi gintaizkie.

Zutaz hainbertze entzuna,  
aunitzentzat ezaguna,  
o bizipide urruna!  
Nik betidanik arbuiatu dut zure aberastasuna.  
Hau da guk deraukaguna  
zu baitan eskas duzuna:  
etxeko goxotasuna.

Ene haur onak, badakit  
luzaro gabe engoitik  
joanen naizela mundutik.  
Arbason ganik ukan dohaina ez utz sekula eskutik  
aldegitean hemendik  
heier erraitea gatik:  
“Etxea han dago xutik!”.

Pertsu hauk bururatzean,  
azken finez orroitzean,  
emanen naiz otoitzean:  
“Etxea, noizbait utziko zaitut aunitz pena bihotzean;  
Jaunak, zure babesean,  
nola bainintzan sortzean,  
naukala heriotzean”.

## ■ **Mendian galdu direnei**<sup>8</sup>

Xenpelar saria, 1973

Ezpeletako mendietan hatzeman zituzten Frantziarat lanketa zatozin hiru gizon beltzen gorputzak. Hotzak eta goseak hilak zituela ezagutua izan zen

Gertakari horrek gogoetak egin arazi zauzkitan eta pertsuak ezarri nituen hortaz.

Gauza triste bat publikatzeko kantatzerat naiz abian;  
horra zer berri zabaldu zaukun berriki Euskal Herrian.  
Laguntza faltak berekin duen pairamenaren erdian  
hiru gizonek beren bizia galdu dutela mendian.

Etziren gure arrazakoak mendian galdu zirenak,  
Jainko Jaunaren bixtan ordea anaiak gerade denak.  
Kolorez beltzak izana gatik, heiek ere ama banak  
bertzek bezala sofriturikan mundu huntara emanak.

Afrikatikan hunat zatozin eginik bide luzea,  
ezin jasana zuketen nunbait herriko ezin bertzea.  
Beren bizia hobetu nahiz gosez ta hotzez hiltzea;  
bas'ihiziek gorenaz dute holako heriotzea.

Diru zuteno laguntzaileak bazituzten ene ustez,  
bainan zonbaiten karitatea egiten da diru hutsez.  
Hartarik kanpo axola guti bertzen arima gorputzez;  
gauza horrek nau orroitz arazten Judasez eta Jesusez.

Ezin bertzea berekin dauka betitik herri pobreak,  
hango jendea tirriatzen du bizi modu bat hobek.  
Haren ondotik zabiltzalarik hil dira dohakabeak...  
Ai, Ezpeletan aurten nolako primaderako loreak!

---

<sup>8</sup> Bertso hauek ere Loiolako Herri irratirako grabatu genituen, *Beti Jai* irratsaioan emateko.

Bas'ihiziak gerizatzeko badute lege bipilik;  
heietan zonbait ihiztatzeko ez du gizonak pegilik,  
eta jendeak norbaiten faltaz mendian goseak hilik...  
Lege horien sustatzaileak gelditu dira ixilik.

Boteretsuak ilargiraino igan zauzkigun orduan,  
nehoiz bezenbat injustizia ikusten degu munduan.  
Batzuk dirutan emokatuak, gako guziak eskuan,  
eta bertzeak ogia galdez, biziaren irriskuan.

Derua deno gure nagusi, ikusiren da holako:  
aberatsentzat atekak zabal, hertsu pobrearendako.  
Iduritzen zaut, gizona bada erreprotxurik gabeko,  
bidea libro behar lukela nahi lekurat joaiteko.

Arrotz horiek horrela hiltzen ikusiz gure artean,  
nola eduki ginezake guk kontzientzia bakean?  
Orroit gaitezen atsalde batez Galbarioko gainean  
gu guzientzat hil izan zela Jesus gurutze batean.

Jesus maitea, otoitzez nago gurutzearen oinetan,  
ixuri duzun odol saindua ez dadila debaldetan.  
Gure lurrean hil zure haurrak harzkitzu, otoi, besotan,  
arraza berex eta mugarik ez den erresuma hortan!

## ■ Ortzirale saindu batetako gogoetak eta otoitza

Xenpelar saria, 1975

Jesus, kurutzeaz kargaturik zamatzaten egun huntan,  
gogoz izan naiz zure ondotik Galbarioaren puntan.  
Han ene buruari behatuz, hara zer ikusi dutan:  
zu itzatzeko burdin zorrotzak naramatzala eskutan.

Aitortzen dut nor zaitudan, bainan aitormen xoila bakarrik,  
zure aski maitatzeko ez du ene bihotzak indarririk;  
bekatuari estekatua naukate hainbat lotgarrik,  
deus egin gabe zu beiratzeko kurutze dorpe hortarik.

Sortzetikako jaidura txarra da ene hutsen iturri;  
Jainko Semea zarenaz geroz baitakizu denen berri,  
gizoner gorde izan dut, bainan nola gordeko dut zuri  
ardurenik zer izaiten duen ene gogoak hazkurri?

Zure Aitaren eskuetatik badut kargu bat ukana:  
bertutearen predikatzea gizonen artean barna.  
Alegiazko kartsutasunez egiten dut ene lana,  
bainan Zu eta ene burua ezin dezazket engana.

Bake hitza ene ezpainetan nork ez ote du entzuna?  
Bainan barnetik etzaut ixiltzen hisiaren oihartzuna.  
Nekeak utzi bertzerendako, enetzat errextasun.  
Horra hor ene karitatea, horra ene maitasuna.

Norbait ikusten badut ni baino dohatsuago bi mailez,  
gizarteari oihuz ari naiz zuzentasunaren galdez.  
Aldiz, ene bihotzak funtsezko urrikalmendurikan ez,  
nik jakinean pairamenetan bizi diren dohakabez.

Ixildu dut zure borregoer elgar zagutzen dugula:  
horra naizen dohakabe hunen bertutearen ahula!  
Badakit Jondoni Petrik ere lan bera egin zautzula,  
bainan nik haren urriki minik ez dut senditu sekula.

Hau da sinismenaren argia ahulezian urtzea!  
O, Jesus ona, ilunbe hunen iraupenaren luzea!  
Noiz onartu behar derautazu ene soinean hartzea  
zur'eskuinean izatu zuten ohoinaren kurutzeta?

Jauna, suntsi dezazun ni baitan, egiten dautzut galdea,  
hoinbertze bere gostuko sugai erretzen duen labea.  
Bihotz berri bat eman zaidazu, o zero lurren jabea,  
ene jaidura gaixtoek egin karramiskarik gabea!



Herri-kirolak normahirentzat



## ■ Pilota, euskal jokoak

Gipuzkoako Pilota Elkartearen saria, 1975

Pertsuak ezartzeko ari zauzkit denak  
euskaldun kirola bat gorets lirokenak;  
bihotza gauza batez hartua duenak  
errex eginen ditu haren goresmenak.

Nola Euskal Herriko bertze mutikoak,  
tirriatu izan nau pilota jokoak;  
ahalak ez ordea nik hortarakoak,  
bertze zerbaitetarako nindaukan Jainkoak.

Pilotako jeinuak eskastu bazauzkit,  
biotza ta begiak Jaunak eman dauzkit;  
euskalduna delakotz, edo nik ez dakit,  
etzaut bertze joko bat hori bezain pollit.

Kirola hau jokutzen da maiz egun argiz,  
oneski beztiturik, errespetu haundiz;  
arrotzak dabilzkio berendako nahiz,  
pare gabea baita ederrez ta garbiz.

Pilota, zure bidez, orok euskaldunak  
bagarelako famak dituzte entzunak;  
zuk eginak gaituzu denen ezagunak.  
Asko zor dautzu zuri gure nortasunak.

Zabaldu bazaituzte hemendik mundura,  
muga gabea bada zure hedadura,  
eskerrak ez daizkela erraiten mentura  
zu etzarella gure iturriko ura.

Joko huntan lau molde dezazkegu ikus:  
esku larruz, xixteraz, palaz edo eskuz.  
Iduriz bereziak jokatzeko moduz,  
bainan denak arima ber beraren gorputz.

Beha pilota bati jo ta jo bi talde,  
denak beren nortasun osoaren jabe,  
gorputzaren nekeaz arduratu gabe,  
pilota daukatela otoitzaren pare.

Plaza ixilik dago, iduri eliza,  
beharien begiak pilotak dabilta.  
Jainkoak hango deiak baiezza balitza,  
talderik ahulenak luke azken hitza.

Neska gaztea ere hor dago behari,  
pilota gora bezain bihotza jauzlari,  
esku zarten artetik otoizka Jaunari,  
garaitza eman dezon haren maiteari.

Nork daki zonbat gogo han ote dabiltzan  
gure pilotarien so baten peskizan?  
Mutil dohatu hoiek hartzen diren gisan,  
nork ez luke nahiko pilotari izan?

Bainan zer da boza hau? Zer entzuten duk nik?  
Deiadar bat bezala heldu urrundarik,  
gure gazteriar pilotak erranik:  
"Ez nezazula berex euskararen ganik!".

Kirola ta hizkuntza, horra hor bi gauza  
luza dezaketenak herriaren hatsa.  
Baldin ez bazerauku erdalduntzen plaza,  
salbaturen garela baduk esperantza.

Gauza ezaguna da bizian iraupen  
kirolak herri bati diola emaiten.  
Pilota maiteari leial egon gaiten  
hark lagunt gaitzan gero euskaldun irauten.

**Xalbadorren itzalean.  
Hamar urte**



## Xalbadorren eguna 2004

---

Lehenengo hogeita bost urtean Eskualtzaleen Biltzarra, Xalbadorren lagunak, eta, batez ere, Xalbador zaleetan Xalbador zaleena zen Joxe Mari Aranalde arduratu ziren udazkeneroko omenaldia prestatu, egunerako behar ziren bertsolariak aukeratu, aurkeztu, gaiak eman eta gainerako antolamenduak bere bizkar hartuta.

Urteetan egindako lan horren zorra goraki aitortu zuen Deiadarra taldeak 2004ko iraileko jaiak antolatzen hasi zenean.

Xalbadorren heriotzako 25. urteurrena bete zenean, antolaketa lanak hartantxe utzi nahi zituela adierazi zuen Joxe Mari Aranaldek, aspertuxea zegoela-eta urtero halako lanak bere gain hartu eta noraezean ibiltzen, askotan esker txarrez gainera.

2004ko irailean bilera antolatu zuen Urepeleko gazte talde batek Herriko Etxean, eta han bildu ziren, Bethartarrek eskatuta, Urepeleko alkate andrea, Joxe Mari Aranalde, Antonio Zavala, Joakin Berasategi eta Joxemari Iriondo, azarorako antolatu nahi zuten Xalbadorren eguna prestatu beharrez denon artean. Geure laguntasun osoa eskaini nahi izan genion talde hari inolako baldintzarik gabe.

Besteak beste, ordurako agortuta zegoen *Odolaren mintzoa* liburuarren laugarren argitalpena (Xalbadorren - *Auspoa*, 290) prestatzen ari zela, eta hitzeman zuen Antonio Zavalak prest zegoela hurrengo azaroaren 7an Urepelen egingo zen Xalbadorren egunean aurkezpena egiteko berriro, haren omeneko festan.

Joxe Mari Aranalde eta ordura arteko antolatzaileen oinordekotza bere gain hartu eta 2004ko azaroaren 7an egin zen jaialdian egin zuen bere aurkezpena eta plazaratzea Deiadarra taldeak, zertara zetorren argi esanez:

Gure nortasuna eta izaitea galtzen ari baita hemen, geure gain hartu nahi izan dugu egun hunen antolatzea, ahal den neurrian geure nortasuna eta sustraiak indarberritzen ahalegintzeko. Guk, Xalbadorrek utzi daukun ondareari eusten eta ahal den neurrian zabaltzen saiatu nahi dugu. Bestalde, bere bertsuetan oinarrituta sortu da taldea.

Baditaike seme hok noizbait orroitzea,  
ama, zu ganik izan dugula sortzea;  
guhaurek bilaturik zure ehortzea,  
jasan behar dugu gaztigu dorpea.

Hil hobi huntan noizbait norbait balabila,  
zure izaitearen herrestoen bila,  
lurpetik entzunen du deiadar bipila:  
Hemen dago ama bat bere haurrek hila!

## ■ Egitasmoa

–Goizean 10:30etako mezarekin hasi zen ospakizuna. Ondoren, *Odolaren mintzoa* (Xalbador, *Auspoa* 290) liburuaren laugarren argitalpenaren aurkezpena egin zuen A. Zavalak, hirugarrena zela esan bazuen ere.

–13:30etan lagun arteko bazkaria herriko ezkerparetan (pilotalekuan) egin zen, orduz gero urtero egiten den bezala, Aldudeko Magali Zubillagaren kantuz alaitu eta gozatuz bazkal garaia.

–Bazkalondoan honako bertsolariok kantatu zuten: Oihane Enbeita, Sustrai Colina, Fermin Mihura eta Jean Louis Lakak. Azkenik, herriko plazan erromeria eginez amaitu zen eguna, gero urtero egiten jarraitu den bezala.

Jendearen aldetik erantzun ona izan zuen Deiadarra taldearen lehenengo deialdiak, eta hasitako bidean aurrera egiteko erabakia hartu zuen, euskara eta Xalbador maite zuen jende asko zegoela-eta halako jaialdien gosez.

## ■ Aurkezpen hitzaldia

Meza ondoren eguneko egitarauaren aurkezpena egin zuen Michel Ernaga, gaur egun Urepeleko auzapez denak, Antonio Zavala eta Joxe Mari Aranalde goralduz bereziki:

Baina beste gauza bat ere ardietsi dute: eman diote Xalbadorren obrari aski argitasun, explikazione eta behar diren gehigarriak. Ots, eman diote testuinguru bat, eta horrela obra hori arras literarioa bilakatu da, ots, maila guzietan preziatua. Eskoletan irakurria, kolegiotan landua eta aztertua, eta denbora berean plazetan kantatua.

Eta gaur, Xalbadorren egun hau izan dadila nolazpait Xalbador lagundu dutenen omenaldia. Erran nahi baita guzientz gainetik bi gizon bertszuzale suharrena.

Ostion aipatzen nuen nolazpait Xalbadorren idazkariak izan direla, eta horiek ditugu, eta hemen ditugu egun, Jose Maria Aranalde eta Antonio Zavala.

Jose Maria Aranalde.

Xalbador aipatzean ezin da bazterrerat utz gizon hunek egin duen lan baliosa. Xalbador bere gorputz-muinetan dauka. Xalbador bera ezagutu zuen, mintzatu zuen, segitu zuen etxean, lanean, familian, plazetan. Ots, garrantu zion eta beti garrantzen dio. Eta hiru liburu argitaratu ditu Xalbadorrez, nik ezagunak ditudanak. Hasteko, bat 1998an *Xalbador* izenburuarekin; hori haurreri eta gazteeri dagokiena. Geroxago urte baten buruan, 1999an, beti Jose Mari Aranaldek, agertu du *Xalbador pertsularia* beste liburu bat. Eta hirugarren bat, 2001ean, *Xalbadorren barrua*.

Eskerrak zor diozkagu egin duen lan jarraikiaren eta beti egiten ari den lan jarraikiaz.

Antonio Zavala

Bigarren pertsona egun goraiatu behar duguna da Antonio Zavala, Antonio Zavala euskaltzaina, Antonio Zavala bertszularitza errotik ezagutzen duen gizona, jakintza haundiko pertsona. Herri literatura eta bertszularitzaren ikertzaile famatua. Berrehun eta larogei bat liburuz goiti badu argi-

taraturik –ikusten duzue gizona ez dagola geldirik–. Donostiako San Inazio ikastetxean bizi da, eta honen eskutik egin da, *Auspoa* bilduman, *Odolaren mintzoa* liburua, eta presiski oraintxe laster Antonio Zavalak aurkeztuko dauku liburu honen hirugarren argitaraldia.

Eskerrak beraz zuer bier, urepeldar guzien partez. Gaur egun eta Euskal Herri guzian, eta berdin kanpoan, Urepele aipatzean Xalbador da gogoan. Xalbador omentzean gure herria da aipatzen, gure herria eta, funtsean, Baigorriko ibar guzia, eta horrek pozten gaitu, eta hori guzia nolazpait zuer bier esker da horrela.

Beste aipamen bat ere nahi nuke egin, eta denek hemen ezagutu dugun artzain batena. Etzen Xalbador bezala urepeldarra sortzez, baina urepeldar bilakatu zen halabeharrez. Eta hemen hogoita sei urte iragan ditu gure artean. Harek ere miresten zuen Xalbador.

Bat zen gogo sakoneko gizona, Xalbador, eta bertzea izpiritua haundikoa. Ots, biak ziren bat bestearen miresle. Biek dute maitatu herri hau; eta bat goraiatzean, ezin dut gaur hemen baztertu, eta gogoan daukat, eta behar bada pentsatu duzue mintzo naizela Jean Baptiste Baskansez, aita Baskansez, Urepeleko erretor zenaz.

Bi gizon, bi artzain aundi. Biak zenduak, bat Urepeleko lurrian dagoena, bertzea han bere sorlekuko Garaziko lurrian, duela zazpi hilabete ehortzia.

Dudarik gabe, biak daude momentu huntan gurekin. Aita Baskansek eliza huntan berean, eta mintzo naizen toki huntarik beretik hitzaldi eta erakaspen ederrik badauku emanik.

Azkenean, burutzeko, eta enuke sobera luze izan nahi, bainan adiskide batek erraiten zautan ez nuela Xalbadorrez hitzaldi bat egiten ahal Xalbadorren bertsu batzu aipatu gabe. Eta egia erran, ez da gauza errexa, hain da Xalbadorren obra bere osotasunean hartu beharrekoa, eta gauza batzuen bereixtea ez da hain aise.

Ororen buru erran nezake gai bat badela arras ongi tratatzen edo jorratzen duena urepeldar pertsulariak. Eta hori da



maitasunaren gaia. Denek ezagutzen ditugu hemen *Esperantzarik gabeko amodioa* eta holako bertsu eder batzu, eta zerbait hautatu behar eta aipa nezake *Amentsa* izenburuarekin *Odolaren mintzoan* agertzen den bertsu andana.

Ez dauzkizuet denak irakurriko, hamar bertsu badira, bainan har nezake guzien buruan bertsu bat, eta hori azkena da. Bertsu horretan Xalbadorren poesia guzia hortxe dirdiran dagoela iruditu luke. Xalbadorren bihotza da mintzo, eta Xalbadorren odola baino gehiago bihotza dugu entzuten, bihotz dardaratua, bihotz inarrosia, Emil Larrek *Odolaren mintzoan* zion bezala.

Ze gertatzen da? Xalbador lo dago, eta aments gaixto batek hartu du: baratze batean da, eta han bi gazte maitemindirik ikusten ditu. Eta Xalbadorri sekulako kezka eta durduzak agertzen zaizkio. Haize basaren zirimolak lehio-ateak jotzen dituen bezala, Xalbadorren izpiritua, Xalbadorren bihotza berdin joa da. Bainan, bertsuak iraganez bezala azkenean haren gogo lasaitzen da, emeki-emeki goxatzen da. Eta hara zer erraiten duen azken bertsuari:

Burua gordez han hasi nintzan berriz Jaunari lo galdez,  
bainan amentsa nuen bilatzen, ez nindabilan logalez;  
amodioa gaur egun ere hoin sendo bada ahalez,  
bihotzez bihotz mundu guzia kurri dezala hegalez,  
tristura eta herra lur pean sartu dituen haren ahalgez  
sar dituen haren ahalgez.

Telebistako lehioan agertzen denari begira gaur egun us-te'ut ez den gomendio ederragorik egiten ahal.

Beraz, nik huntan bururatzen dut ene hitzaldia, eta orai datorrela Antonio Zavala.

## ■ **Odolaren mintzoa. Aurkezpena**

1976ko azaroan argitaratu zen Xalbadorren *Odolaren mintzoa* lehenengo aldiz (*Auspoa* sail berezia, 1976). Baina aspaldi agortuta zegoen hura, eta *Auspoa* sailaren sortzaile eta bihotz-arima izan zen Antonio Zavalak egun honetarako prestatu zuen edizio berria –edizio osatu eta zuzendua–; baina ez hirugarren argitalpena, laugarrena baizik, Joakin Berasategik (Sendoa argitaletxea) esan zuenez, lehenengoa, inork uste ez bezalako salmenta izan eta berehala agortu egin baitzen, eta bigarrena egin behar izan zuten presaka. Gehiena saldutako bertso liburua izan zen garai hartan *Odolaren mintzoa*, Manuel Uztapideren *Lengo egunak gogoan* delakoarekin batera.

Ondoren irakurri dezakezun Antonio Zavalaren hitzaldi hau *Auspoaren auspoa IV* (*Auspoa* 300) liburuaren 243-258 orrialdeetan jasota dago, “**Xalbadorren Odolaren mintzoa liburuaren irugarren argitalpena, Donostian, 2004-X-14an, Urepelen 2004-XI-7an**” izenburuz.

Halaxe ere, Xalbadorren eguneko festaren kronika egitean, ezinbesteko iruditu zaigu Xalbador zaleei gogoraztea berriro.

Ni gaur onera *Odolaren mintzoa* liburuaren irugarren argitalpena agertzeri etorri banaiz, arrazoi bakarra dago: Xalbadoreren sekretariotza nik egin nuela, lan ori norbaitek egin bear zuen eta.

Ez naiz, beraz, liburuaren merituak adierazten asiko. Ori beste edozeiñek egin dezala. Baiña liburua gauzatu arteko bidea luzea izan zan, urte pare bat iraun zuena. Bideetan, ordea, zer kontaturik asko gertatzen da. Izan bedi, bada, nere gaurko jarduna liburuaren historia egitea.

Nik Xalbador 1960ko abenduaren 8an ezagutu nuen, Donostian egun artan egin zan Bertsolari txapelketan. Baita Matin ere. Biek Bidasoaz iparraldeko bertsolarien izenean kantatu zuten. Urrengo txapelketetan ere bikote ori etorriko zan. Olatzetan, elkarri eskua ematen genion, baiña orixe bakarrik.

Orduko epaimaikoak, Antonio Arrue, Fernando Artola *Bordari*, Juan San Martin, Juan Mari Lekuona, Emile Larre, zuen aurrean dagoen au eta abar izaten giñan; eta gure komentarioetan danok ao batez ontara etortzen giñan: bertsolari aietan oso onak bazirala: Basarri, Uztapide, Lazkao txiki, Mattin eta abar. Baiña zerbait merezia zuena Xalbador zala; ura, bertsolariak gaiñera, poeta ere bazala.

Bitartean, Urepele erria ez nuen ezagutzen. Esango di-zuet nola iritsi nintzan. Orreagatik oiñez irten erta Lindux-ko kaskora igo nintzan. An guardia zibil batzuk zeuden. Zer genbiltzan galdetu ziguten, eta Elizondorako asmoan giñala. Joateko, bada, baiña mugarik pasa gabe, gaiñez gain. Ori bideia ikaragarri luzatzea da. Ala ere, abiatu giñan armadunek nai bezela. Baiña andik laster, bistatik galdutakoan, korrika beeko zulora jetxi giñan.

An ordea jendarme-bikote batekin topo egin genduan. Aiek ere ea zer genbiltzan. Guk berdin erantzun: Elizondorako asmoan giñala. Etziguten eragozpenik jarri, eta segi.

Ondoren, gizon talde bat bidean. Aien artean, Zubikoa bertsolaria. Ezagunak giñanez, agur egin genion elkarri. Bai Zubikoak Xalbadorri abisua eman ere, ni andik igaroa nintzala. Urepelera baiño leen, bero zanez, erre kara sartu giñan. Bai aguro atera ere, uraren otzak izututa. Erri onek gezurrezko izena du, beraz: *Ur-epel* ez, *Ur-otza* bear zuan. Elizaren paretik pasa giñan, Aldudera segi. Berdaitzeko lepora igo eta Elizondora jetxi. Gaztetako astakeri bat izan zan ura; baiña orduko sasoi a baneuka...

Xalbadorrenera 1967ko ekainean iritsi nintzan leenengo aldiz. Illaren 1 In txapelketa izana zan, eta Xalbador bigarren gelditua, Uztapideren ondotik. Ni, bertsoak paperatu ondoren, kantatu zuten bertsolari guztiengana joan nintzan, beraien bertsoak zuzen kopiatuak zeuden esan zezaten. Mugaz egoaldekoena egin nuen; baiña Mattin eta Xalbadorrenera nola egin?

Garai artan bazan Donostian jaun bat, Patxi Mujika, bertso-saioak grabatzen zituana. Berak eramango ninduala esan zidan. Ala, jai goiz batez Urepelera iritsi giñan, eta kotxetik ir-

ten. Meza ondoa zan. Gure aurrean beste kotxe txiki bat ikusi genduan, abiatu eta bereala gelditu zana. Andik nor irtengo, eta Xalbador bera.

–Retrobisoretik ikusi zaituztet –esan zigun.

Aren atzetik joateko. Joan eta etxera iritsi giñan. Bertan bazkaldu genduan. Ondoren, magnetofonoa martxan jarri eta txapelketa guzia entzun genduan. Asi bezin laster, Xalbadorrekin onela esan zuen:

–Pertsu hauk entzutearekin aunitz gostua izanen du ene lagun Pedro Tolosak.

Telefonoz edo ez dakit nola, abisua eman zion. Bereala etorri zan, eta bai gogoz bertsoak entzun ere.

Xalbador txapelketa artan ondo kantatua zan. Bearbada, txapela ere berak merezi zuan. Ala, bere bertsoen entzule bihurtuta, gustora zegoen gizona, eta bitan edo irutan aopetik onela esaten entzun nion:

–Ontsa kantatu duk, Ferranddo, ontsa!

Alako batez, gazte taldetxo bat sartu zan etxean. Etxeko ezagunak ziran, eta Adi menditik zetozen. Aiek ere bertsoak entzun nai. Gorrotxategik gai bat au izan zuen: “Gona motxak dituen neskatxa bati iru bertso”. Eta bertso bat onela bukatu zuen: “... zuk diximulo galantarekin iztarrak erakustia”. Mendizale aietan neska bat bazan, Xalbadorren alboan exerita, eta onek orduan onela esan zuen:

–Onek ere politak ditu, baina ez ditu erakusten.

Danok parrez eta neska gajoa gorri-gorri egiña.

Jendeak txistuak jo zituen unera iritsi giñan. Serio entzun genituan, eta Leoniri begiak busti zitzaizkion. Patxi Mujika jaunak etzuen txistuen denboran grabaketarik gelditu, eta, ala, denbora neurtu aal izan genduan: bost minutu eta erdi. Ura ere etzan broma: Xalbador eta Uztapide zutik jende aurrean, txistuen indarrez pelotalekuko ormak ere ia-ia dar-dar egiten zutela.

Txapelketa guztia entzun ondoren, Mujikak beste lan bati ekin zion. Garai bateko bertso zaarrak kanta arazi eta danak

grabatu. Mattinen etxera joan giñanean ere berdin egin zuen. Bai Xalbadorrek eta bai Mattinek asko kantatu zuten. Naiago nuke grabazio ura neure eskuetan banu.

Bertan apaldu genduan. Ia gaberdia zan abiatu giñanean. Ni loak menderatzen ninduan. Baiña Mujika arek abail bizian zeraman kotxea. Bazterra jo ez genduanean, kontentu.

Andik laster, urtero bertsolari bati omenaldeia egiteko oitura sortu zan Donostian. Aurrena, Uztapide; urrengoa nor izango jendeak esango zuen, bertsolariaren izena sarrera-papertxoan idatzirik. Xalbador izan zan aukeratua. Jendeak, izan ere, txistuen itsuskeria gogoan zeukan. Gorrotxategik esan zuana: “Astoriako pekatariak barkazio eske gatoz”.

Nik aurretik zera pentsatu nuan: ederra litzakeala omen-dutako bertsolarien liburu bat egun artarako argitaratzea. Xalbadorrena prestatzen asia nintzan, bada. Aal nituen bertso guziak bildu nituen, aldizkarietatik eta abar. Ondoren, aotik ahora kantatutako bertso batzuk.

Mordoa bildutakoan, Xalbadorrena joan nintzan. Ni txofer berria nintzan. Bidelaguna, Jose Mari Satrustegi izan nuen. Luzaiden apaiz egon zanetik ezagutzen zuen berak Xalbador. Bertsoak irakurri, eta Xalbadorrek esandako zuzenketak sartu genituan.

Baiña liburu guzien azken buruaustea bataioa da. Liburuari izena jartzea, alegia. Satrustegik orduan aurrea artu eta onela esan zidan:

–Nik esango dizut: *Ezin bertzean*.

Etzan nere gustokoa izan, liburu beartuta bezela egiña zala esan naiko ote zuen beldurrez. Baiña lagun askoren iritzian, bestela ere artu diteke: egokiera artan besterik ezin egin zitekeala, alegia. Zalantzan gelditzen dan esanaia du, beraz, izenburu orrek.

Dana dala, liburu txiki orrekin urrats aundi bat eman genduan: Xalbador liburugintzari lotu. *Ezin bertzean* izan zan, etzan *Odolaren mintzoa* aterako sekula.

Xalbadorren liburu ura beraren omenaldirako osatu zan bezala, berdin egin genduan Lasarte, Mattin, Basarri, Enbeita eta Arozamenarekin ere.

Mattinen liburuan Xalbadorrek eta biak kantatutako bertso batzuk baziran, eta oiek urepeldarrari erakustera abiatu nintzan abenduko igande batez. Euri otza ari zuen. Baigorri eta Banka bitartean bazan orduan bide-ertzean iturri bat. Kotxea aren parean gelditu eta puska otz batzuk jan nituen. Etzan entzuten erreka aundituaren otsa baizik. Mendiak lainoapean zeuden, azpitik elurra ageri zutela.

Xalbadorrenera angoak bazkaldu berrian iritsi nintzan; eta, ea bazkalduta nintzan. Nik baietz. Gaztanbera eta kafe beroa eman zidaten, eta ni pozik. Bear ziran bertsoak Xalbadorri erakutsi eta onek ontzat eman zituen; eta ni, egitekoa eginda, etxera.

Urrena Xalbador eta biak Gipuzkoan elkartu giñanean, berak onela esan zidan:

–Zuk lehengoan gure etxetik alde egindakoan, kontuak egin genituen, Donostiatik noiz aterea izango ziñan eta gure etxera noiz iritsia, eta zera ikusten genduen: zuk egun hartan etzinuela nehon ere bazkaldu.

–Bazkaldu nuen, bada, alako tokitan, etxetik ekarritako puskak janda.

Eta berak:

–Ala izango da. Baina orai badakigu etzirela gizon *bizkar-kina*.

Itz ori ez degu guk erabiltzen. Eta esanaia Xalbadorrek berak agertu zidan: besteren bizkarretik bizi ez dana, erde-razko parasittoa ez dana. Ala, egun artan asko irabazi nuen Xalbadorren iritzian.

Ainbat liburu plazaratu ondoren, bistan zegoen orduko bertsolariekin liburu ederrik egin zitekeala. Ala, asmo berria artu genduan Joakin Berasategi adiskideak eta beste zenbait lagunek: liburu aundi dotore batzuk argitara ematea, bertsolari onenen emaitzekin.

*Auspoa* sail berdearen liburuak orrela etorri ziran: Uztapideren autobiografia, *Lengo egunak gogoan*, prosazkoa bi tomo edo aletan, eta *Sasoia joanda gero* bertso-liburua. Manuel Lasarteren *Gordean neuzkanak* bertso-liburua; Jose Ramon Erauskin Txirritaren illobaren *Aien garaia*, prosazkoa. Eta seigarrena, Xalbadorren bertso-liburua.

Ia ogeita amar urte dira sail berde ori atera zala; eta orain, urteek ematen duten ikuspegiarekin, zera ikusten det: liburu oiek bi bide berri zabaldu zizkiotela gure erri-literaturari.

Batetik, *Odolaren mintzoa*-k bertsoa eta olerkia elkarrekin besotik elduta ibil litezkeala erakusi zuen. Leen bagenekien ori, baiña ukatzen zuenik ere bazan artean, eta liburu orrek denak ixilarazi zituela uste det. Gai ontaz aunitz itz egin ditekete.

Bestetik, Uztapideren autobiografiak bide berria ireki zion erri-prosari. Prosa onek, leendik zetorrena izanik ere, indar berria artu zuen orduan liburuetan. Ortarako asko lagundu zuen Txirritaren illobaren *Aien garaia* liburuak ere. Geroztik dozenaka dira gure erriak prosaz osatu dituen aleak.

Sei liburu eta lau egile, sekretariotza neretzat gelditzen zala.

Baiña leen urratsa bertsolari oien baiezkua lortzea zan. Ortarako, sari ederra gaingitu zitzaien. Lujozko liburuak egitea ere orregatik pentsatu zan, bertsolarietara zerekin saritu ateratzearen.

Xalbadorrek ere baiezkua eman zuen. Liburugintzarako gogoan leendik ere bazuela esango nuke.

Arekikoa egiteko, irukote polita bildu giñan: Fernando Artoia *Bordari*, Joxe Mari Aranalde eta izketan ari dan au.

Bordari eta Xalbador lagun miñak ziran, biak Fernando ziranez. Ara iritsi eta beste danak eskua ematen genio nango nagusiari; baiña Bordari eta biak elkar besarkatu egiten zuten, indarrez gaiñera.

Joxe Mari Aranalde ere Xalbadorren lagun miña zan. Onek aren etxean izaten zuen ostatu Gipuzkoara etortzen zanean.

Ortaz gaiñera, Aranalde au apaiz egin zan, baina enbajadore izateko jaioa zala esango nuke.

Ni, berriz, erderaz esaten danez, *currante* bat izateko jaioa naiz, eta orduan ere orrela izan nintzan.

Batzuetan, irurok joaten giñan. Donostian Aranalde artu eta Ondarribira, Bordariren billa. Ura taldeko Errege Magoa zan, eta ardo, gozoki, arrai eta abarrez kotxea betetzen zigun, danak ere Urepelen uzteko.

Ondarribitik irtetzean, Guadalupeko Amari kantari asten giñan: “Jaungoikoak salba zaitzala, Ama Birjiña maitea...”. Xalbadorrean ongi artuak izaten giñan, eta bertan ederki bazkaldu.

Bazkaltzen asi aurretik Xalbadorrek onela esaten zuen, serio-serio:

–Orai, apezetan apezenak mahaina bedeinka dezala.

Taldean bi apaiz giñan, Aranalde eta biok. Baiña ori etzuen guregatik esaten, Bordarirengatik baizik. Au, izan ere, ezagutu zutenek dakitenez, fede aundiko gizona zan, eta bere sinesmena jende aurrean aitortzeko batere lotsarik etzuen. Ala, gure ondarribitarrak ondo asko zekien Xalbadorren enbidoa norentzat zijoan, eta kantuan onela asten zan:

–*Benedicite.*

Eta Aranalde eta biok:

–*Benedicite.*

Eta Bordarik:

–*Opera omnia in te sperant, Domine...*

Eta abar.

Zera zan ori. Garai batean fraileek otordua asi aurretik errezatzen zuten bedeinkazioa, Bordarik gerra denboran Be-lokeko beneditarrei entzunda ikasi zuena.

Egun ederra an pasa eta gauerako nor bere etxera biltzen giñan. Ni, berriz, Xalbadorren iru bat bertso-sail berrirekin etortzen nintzan, aren liburua aurrera zijoala eta gustora. Biaramonean sail aiek makinaz pasa eta komeni zan karpe-



tan gorde. Baiña beti kopia bat Xalbadorri korreoz (postaz) bialtzen nion.

Batean, bazkalondoan iritsi giñan. Atarian gelditu eta iñor ageri ez. Etxe barrutik ere etzan txintik entzuten. Denbora puska bat orrela pasa ondoren, Aranalderi zer bururatu zitzaion? Atea zabaldu eta barrura sartzea. Legegizon batek erderazko "allanamiento de morada" izan zala esango zukean. Bordari eta biok kanpoan zai gelditu giñan. Andik laster, Aranalde berriro azaldu zan, irriparez onela esanez:

–Biak ere emen daude, baiña gaxorik eta oean. Gela onunzko aldetik daukate eta ez dute ezer entzun.

Pasa giñan sukaldera. Xalbador bereala an zan. Leoni, berriz, oean gelditu zan, guregana ezin etorri eta inbiri ederra paseaz. Dana dala, Bordari laster oartu zan egun artan tristura zala nagusi etxe artan. Eta zer egin zuen? Bera gazte denboran antzerkilari izana zan, eta zaartuta ere teatro pixka bat aldizka egitea gustatzen zitzaion. Ala, komeriak egiten as izan.

Oietako bat, bein eta bitan ikusi izan niona: arropak pixka bat aldrebestu, illea eskuarekin naastu eta mozkor kanta au kantatu:

Katuak ñau,  
xakurrak yau.  
Arnoak onela ezarri nau...

Berak zekizkien lumero asko egin zituen egun artan. Baiña bai etxe triste ura erromeri-giroan jarri ere.

Orain, era ortan joaten giñan aldi aiek gogoratuta, zera ikusten det: gu iruron artean Xalbador beartu bezela egin genduala liburua egitera; gizarajoa orduantxe arkitu zala benetakako *Ezin bertzean* (Xalbador, *Auspoa* 85, 1969).

Beste batzuetanm Bordari eta biok joaten giñan. Batean, bueltan ia Ondarribin giñala, milla pezetakoa atera eta artze-ko eta artze-ko asi zitzaidan, nik kotxearen gastuak nituela-ta. Nik ezetz eta ezetz. Iñork etzuen amore ematen, eta orduan arek:

–Artu, nere izenean meza bat emateko.

Nik orduan ezin ezetz esan eta artu nion. Baiña ori, ikusten dezutenez, gauza santuekin txantaje egitea zan, eta nere artean onela esan nuen:

–Au ez da bada orrela geldituko.

Zer egin nuen? Orduan Naparroan, Xabierren bizi nintzan. Garrafoi bat ardo erosi, ta urrena Gipuzkoara joandakoan, aren etxetik ere pasa nintzan, bera bertan etzegoala, eta sukaldean utzi nion, onela zion paper batekin: “Zuk eskatutako meza eman det; eta auxe da binajeratik sobratu dan ardoa”.

Urrena elkar ikusi genduenean, urrutitik jotzeko keifua egin zidan. Gero, ondoratu eta onela esan zidan:

–Zu Naparroan gaiztotzen ari zera, gaiztotzen!

Aranalderekin joan nintzan batean, Olandoiko kapera-raiño igo giñan. Beste batean, Xalbadorrenean izketan ari giñala, Leonik onela esan zuen:

–Nik ere bertsoak eman bearko ditut, bada.

Ori entzunik, Aranaldekarteratik milla pezetakoa atera eta onela esan zion:

–Au zuretzat, bertsoak jartzen badituzu.

Urrena Xalbador Gipuzkoan ikusi nuen, bera bertsoetara joanda, noski; eta onela galdetu nion:

–Leonik bertsorik jarri al du?

–Bai, bai. Egin du.

–Eta onak al dira?

–Akats bakarra dute.

–Zer akats?

–Ez duela nehorik sinestuko berak bakarrik eman dituenik.

Urrena Aranalde eta biak joan giñanean, Leoniren bertsoen kontua atera genduan. Ea, bada, erakutsiko zizkigun. Eta idatzi gabe, buruan zituala esan zigun. Orduan nik mag-

netofonoa atera, maai gaiñean jarri eta an grabatzeko esan genion. Gu aurrean giñala ezin egingo zuela erantzun zigun. Atera giñan, bada, kanpora. Berak kantatu eta ondoren entzun genituan. Bertso ederrak ziran; Xalbadorrek zion akats bakarra zutenak. Ondoren, Aranaldekartera atera, milla pezetakoa artu eta Leoniri eskeiñi zion. Onek orduan ezetz eta ezetz; ura, berriz, baietz eta baietz. Denbora luzean orrela. Bitartean, Xalbador eta biok parrez. Auzia zertan gelditu zan ez dakit.

Baiña bakarrik ere joaten nintzan. Goizean goiz irten, arakoan an edo emen gelditu eta mendi batera igo: Urtsuia, Jarrara, Baigura, Iparla, Artzamendi... Beerakoan, erreka batean garbitu eta arropa txukuna jantzi. Ederrena, Beorlegiko ton-tor txorrotxa izan nuen. Azaroa zan eta gauean elurra egiña. Baiña oskarbi goizean. Txuri-txuri an agertzen ziran, zeru urdiñaren azpian, Baztan aldetik asi eta Paberaiño Pirineo gailur guztiak. Gero, handik jetxi eta Xalbadorrenera.

Emen ongi artzen ninduten. Ona bein batez zer bazkari egin genduan: aurrena, zopa: Kintoako amorraiak etxeko txingarrarekin; basurde-gibela, eta ondoren basurdea etxeko ganbaran zintzilik ikusi odol-ustutzen eta; urrena, arkumea, eta etxeko gasna eta gaztanbera.

Xalbadorreneko otordu aietan, ondo jaten ez ezik, elkarriketan ere saio ederrik asko egiten genduan. Makiña bat gertakari gogoangarri berritzen zan. Damu det orain aiek ez idatzia. Baiña ura joanda gero presa egitea alperrik. Ona Xalbadorrek bein batez kontatua, orain gogoratzen zaidanez:

Alemanek Frantzia menderatu zuten garaia zan. Xalbador, beraz, ogei bat urteko mutil gaztea. Batean soldadu alemán batek zera esan omen zuen tabernan edo ez dakit nun: egun batzuetarako bere errira zijoala eta etxerako ontzi edo garrafoi bat zeramala. Ez dakit zer izkuntzatan itz egingo zuen, Xalbadorrek ulertu aal izateko. Gure Ferranddok eta bere lagun batek zer pentsatu dute? Alemanaren ontzia artu, ustu eta urez bete. Xalbadorrek onela bukatu zuen bere kontraera:

–Urrikitu zitzautan gero hori egina. Aleman mutil hura bere etxera joan, ardo ontzia ireki eta an zer izanen eta ura! Hori etzaio nehorri egin behar!

Etsai bati egindako biurrieriaz damutzen dana, ez det uste biotz txarrekoa dala iñork esango duenik.

Sarri askotan bezela, Xalbador Donostiara etorri zan bein batez bertotara. Gai bat onela jarri zion Iriondok: “Zergatik maite duzu zahartu den zure emaztea?”

Xalbadorrek iru bertso eder kantatu zituen. *Odolaren mintzoa* liburuan sartu genituan. Nik saioa grabatu nuen eta bukaeran onela galdetu nion berari:

–Iru bertso oiek, bertso onak dira ta, nai al dezu Leoniri igortzea?

Eta berak:

–Bai, bialdu.

Ala, paper batean kopiatu eta Leoniren izenean bialdu nituan. Urrena Xalbador eta biok elkartu giñanean, nik galdetu eta onela erantzun zidan:

–Zuk bialdutako bertsoak jin ziren. Nik hartu nituen, eta honela erran nion Leoniri: Hau zuretzat da. Hartu, irakurri zituen, gorri-gorri jarri eta muxu bat eman zautan.

Beste batean, Errenteriako familia batekin joan nintzan, Boni Otegi zana eta etxekeekin. Maiatza zan. Xalbadorrenean sartu, angoak agurtu eta gora joan giñan bazkaltzera, Xalbadorren artzain etxola aldera. Etorri berriak sagardoa ere ekarri zuten, bertako nagusia edari orren zalea zan eta ea bera ere gurekin etorriko zan.

Etzuen bi aldiz esan bearrik izan. Gure atzetik igoko zala bada. Bai alaxe egin ere, Leoni bere emaztea eta Helen alaba lagun zituala. Baiña ez eskutsik, gaztanbera eta mami egin berriarekin baizik. Artatik janaldi on bat egin genduan danok ere. Bai Xalbadorrek sagardoa gustora edan ere. Jan-edan oiek onak dira maiatzeko arratsalde batez pago baten itzalean jateko.

Bazkalondoan, Errenteriako familia orretako gazteak jositzen asi ziran. Ni ere bai tartean aldizka sartu, eta alako batean, Xalbadorrek serio-serio onela esan zidan:

–Antonio, andrea ontsa eramaten ez dakit jakingo zenuen, baina haurrak eramaten badakizu.

Aranalde, beste batean, Bordari eta ni gabe joan zan Xalbadorrenera, baiña ez bakarrik. Mutil talde bat berekin eramaten zuen.

Zer dala-ta?

Xalbadorrek seme zaarrena Ameriketara zuen, bestea kanpoan lanean, ekaina etorri eta belarrak egiteko besaindarririk ez. Zer pentsatu du Aranalde? Berak Santo Tomas Lizeoan lana egiten zuen, eta ango ikastaroa bukatu bezin laster, mutil mordua bat artu eta Xalbadorrenera joan. Belar lana bereala egin omen zuten aldi artan.

Liburua aurrera zijoan. Iraillaren egun batez, bertsoen aire edo doiñuak magnetofonoz grabatu nizkion. Eta orrekin liburua bukatua zala esan nionean, etzan asarre gure nagusia. Baiña ona zer esan zidan:

–Beldur pixka bat badiot liburu orri, bertan aitorten asko egin dut-eta.

Egun aietako batean, liburuak argazki edo potretak bear zituela eta an ibilli nintzan nere makinarekin Xalbadorre-neko inguruak erretratatzan. Izterbegi tontorreraño ere igo nintzan, an Frantzia eta Espaiñaiko mugarri bat badago-eta. Baiña andik jetxitakoan, zera ikusi nuen: makina pelikularik gabe zegoela. Xalbadorrean nere utsunea aitortu nuenean, ango parrak eta adarjotzeak! Urrengo egun batean berriro igo bear izan nuen.

Baiña liburua azarorako nai genduan, Xalbadorrek omenaldia orduan izango zuen-eta. Presaka ibilli bearra zegoen beraz.

Inprentatik leen eta bigarren probak etorritakoan, aiek aztertzen batzuetan iru lagun izan giñan: Xalbador, Aranalde eta neu. Beste batzuetan, Xalbador eta neu. Eta azkenekotan, neu bakarrik.

Batean, Xalbador eta biok ari giñan, Santo Tomas Lizeoko txoko batean. Izenburuaren kezka genduan. Ortarako, itz-joko politak testuaren barrutik azaltzen dira zenbait liburutan.

Orregatik, begia erne genduan bear genduana andik aterako ote zan. Orri batean *Barnean nuen uretik, Herria gogoan* eta beste izenburugai batzuk idatzita genituan, liburutik artuta.

Alako batean, nere begiek liburuan iru bat aldiz azaltzen dan esaldia jo zuten: *Odolaren mintzoa*. Eta Xalbadorri onela esan nion:

–Emen degu izenburua: *Odolaren mintzoa*.

Bera, orduan, arrituaren jestuak egiten asi zan, onela ziola:

–Ni ez, eta zu oartu zira bada!

Bere buruarekin asarre (kexu) jarri zan, eta nik bitartean parrari ezin eutsi.

Ordurako, Xalbador eta biok naiko lagun miñak egiñak giñan. Arrera ona egin ez ezik, bitan edo besoa bizkar gaiñean jarri zidan. Euskaldun batek egiteko adiskidetasun-agiri aundia da ori, eta are geiago Xalbador zanak egiteko.

Baiña esaera da presakako lanak ezagun izaten dirala. Ala, Xalbadorren liburua etzan okerrik gabe agertu. Oietako batzuk, guk aalegiña egiñagatik iges egin zigutenak dira; besteak, guk ikusi, nola bear zuen inprentakoei adierazi eta auek gaizki ulertuak.

Mota ontako okerrik badago *Auspoa*-ren liburu zaarretan; gure abisua inprentan gaizki artua, alegia. Nik neure liburu-rik irakurtzen ez baidet, berandu oartu nintzan ortaz. Orain, berriz, azken zuzenketa ondo sartua dan begiratu gabe ez naiz geldituko.

Ala, omenaldi eguna, azillaren 7<sup>a</sup> eldu zan. Bezpera arratsaldean Bordari eta biok Urepelera joan giñan. Xalbadorre-neko nagusiari zera esan genion: guk libururik ez genduala; Joakin Berasategik gauerako ekarriko zuela; baiña ale batzuk bakarrik, besteak egin gabe zeudela-eta.

Bearbada Lazkao Txiki ere etorriko zala, eta Xalbador pozik, biak oso elkar maiteak ziran-eta.

Afari denboran, kotxe-otsa. Leiotik begiratu eta argi txuriak zituen. Beste aldekoa, beraz. Eta guk nai genduana: Berasategi bere andrearekin. Sukaldean an agertu zan, lau bat liburu eskuetan zituela.

Afaltzen bukatu genduan. Etorri berriak ez dakit afalduta etorri ziran. Dana dala, ondoren bai aiek eta bai gu, kanpora joan giñan lotara, aiek ez dakit nora, baina gu Urepeleko ostatu batera.

Eskerrak atera giñan. Guk aldegin ondoan, Xalbadorrek liburuia eskuan artu eta irakurtzen asi baitzan. Bere begi txorrotzek oker batzuk ikusi zituzten, eta orduan nigatik epelak esan omen zituan.

Biamamonean goiz ederra zabaldu zuen. Leenik, meza nagusia. Baskans erretorea jauna meza-emale, beste batzuk laguntzaille. Xalbador aldarearen eskuinera zan, eta ni andik Jauna ematen asitakoan, bera ere urbildu zan. Ala, nik eman nion Jauna azkenengo aldiz.

Urrena, bazkaria. Mattin eta biak elkarrekin ziran, umore ederrez gaiñera.

Jendeak liburuaren galdea egiten zuen, beste astebete bearko zuela erantzuten genion.

Bertsoak arratsaldean, eta andik aurrerakoa danok ere badakizute. Xalbador, ondoeza egin eta atera egin zala. Inor gutxi oartu zan. Saioa bukatu ondoren asi zan inork espero etzuen berri txarra zabaltzen.

Lagun talde bat Xalbadorrenera igo giñan. Gorputza be-reala ekarri zuten. Gela batean sartu zuten. Medikua ere etorri zan, eta atea itxi eta an asi zan gorputza jende aurrerako prestatzen, alboan laguntzaille bat zuela: Joxe Mari Aranalde.

Lagunak ni bertan gelditzeko eskatu zidaten, gaua gorputzaren ondoan pasatzeko. Iru lagun izan giñan ortan: Pedro Tolosa, Xalbadorren lagun miña; Bernard Bethart, laster bere erraiña izango zanaren anaia; eta irugarrena, ni.

Gau luzea izan zan, gorputza aurrean zala eta ixil-ixillik. Noizbeinka, aopetik itz batzuk egiten genizkion elkarri. Batean onela esan zidan Pedro Tolosak:

–Etxe hontakoak oso buru argikoak izan dira beti. Elgarrekin eskolan ibiliak gira; eta zera ematen zuen: hauek etzi-

tuztela lezioneak ikasten, lehendik zekitena oroitu edo gogoratu baizik.

Ondoren, psikologi liburu batean orixe bera irakurri nuen: badirala buruak ikasi ez baiña gauzak oroitu egiten dituztela diruditenak.

Pedro Tolosa ori Xalbadorren alboan zan, onek azken arnasa eman zuenean; eta nik galdetu nion:

–Eta au zein unetan il da?

–Zuek Gernikako arbola kantatzen ari zinezteza.

Eguna argitu zuen, eta bertako erretore Baskans jaunak, goizeko zazpi t'erdietan ematen zuen meza. Egun artan iru lagun izan giñan: Ezkurrako frantziskotar bat, aita Santos, eta neu. Uraxe izan zan Xalbadorren animaren alde eman zan leen meza. Eta ondoren, Baskans jaunak bere etxera eraman ninduan, ango oe baten lo pixka bat egin nezan.

Gero, Xalbadorrenera atzera igo eta ordurako an zan il-dakoaren ondoan elizako gurutzea. Urepeleko etxe guztietatik jendea etortzen asi zan. Denak opari bana zekarten, etxeari laguntzeko, eta sukaldeko maaian uzten zuten. Andik gorputza zegoen gelara sartzen ziran, otoitz egitera. Gizatasunez eta dotoretasunez jantzitako oitura ederra.

Asteazkenean, illeta. Euskal bazter guztietatik jendea. Baskans jaunak sermoi ederra egiña zuen igandean, omenaldi-egunean; orduan egin zuena ere bikaiña zan.

Liburua etorri zanean, barra-barra saltzen asi zan. Bate-tik, dan bezelakoa dalako; bestetik, iñork nai etzuen propaganda izan zuelako. Lau milla ale egin zirala uste det. Askogure erri txiki ontan zabaltzeko. Andik urteetara, 1986an, liburua agortua zala eta berriz plazaratu bearko zala.

Ango eta emengo lagun batzuek Makaian bildu giñan. Eta zera erabaki zan: liburua leen bezelaxe kaleratzea, bi milla ale egiñaz. Alkarrekin apaldu genduan. Andik atera, iraila zan eta nik Ibañetatik pasa bear. Geratu eta ordu laurdentxo bat bertan egin nuen. Gauerdia zan, illargi betea eta izarrak zeruan. Etzan ezer entzuten, mendi-ganaduen joale-otsa izan ezin.



Orain illabete batzuk, berriz, Berasategik abisua pasa zizun: “*Odolaren mintzoa* berriz argitaratzera dijoa”. Aldi ontan ere billera bat egin eta berriz argitaratzea erabaki zan, baiña neurri txikiagoan, erabilgarriagoa eta merkeagoa, alegia; eta *Auspoa* saillean eta arreta bizia jarriz okerrak zuzentzeko.

Orrela egin da. Baiña *Odolaren mintzoa* liburuan ez dau-den Xalbadorren beste zenbait bertso erantsiz. Irugarren argitalpena da, beraz, baiña geitu eta zuzendua.

Orixe da orain aurrean daukazutena. Milla ale atera dira. Baiña denboraren buruan berriro argitaratu bear bada, oraingo sistema berriekin laster eta errez egin diteke. Orrekin gauza bat seguratu da: Xalbadorren *Odolaren mintzoa* beti izango dala euskaldunen eskuetan.

Bukatzeko, lerro auek idazterakoan buruan erabili de-dan burutazio bat adieraziko det. Euskal Erriak bertsolari on asko izan du. Adibidez, Bilintx, Xenpelar, Pedro Mari Otaño eta Xalbador. Bilintx, berrogeita zazpi urterekin il zan; Xenpelar, ogeita amalaurekin; Otaño, berrogeita amabostekin; eta Xalbador, berrogeita amaseirekin. Danak gazterik, beraz, buru-lanerako sasoi betean zirala.

Xalbadorrek ere bazuen gogoia liburugintzan jarraitzeko. Neri bein onela esan zidan:

–Lan huntan hasiak garenez geroz, jarraituko dut. Baina hurrengo liburua prosaz egin nahi nuke.

Ni poztu nintzan ori entzuteaz. Eta liburuaren atarian ere olako zerbait idatzita dauka berak. Ura, izan ere, bertsolari eta olerkari izateaz gain, prosista ederra ere bazan, bere liburuaren aurreko orrialdeetan erakusten duenez. Jainkoak denbora eta osasuna eman izan balio, ai zer nolako liburuak utziko zizkigun!

Nik esateko guziak esan ditudala uste det. Neri sekretariotza egitea egokitu zitzaidan. Ori dala-ta, arrotasun pixka bat sentitzen det barruan. Denbora berean, nik gauza asko ikasi nuen, eta ordu zoriontsu asko pasa ere bai. Ori dana Xalbador zanari zor diot. Milla esker berari.

Eta besterik ez.

## ■ Bazkalondoko bertso batzuk

2004ko bazkalondo hartako bertso saioa Fermin Mihura, Jean Louis Laka, Oihane Enbeita eta Sustrai Colinak egin zuten, Xalbadorren heriotzako hogeita zortzigarren urteurrenean. Magali Zubillaga kantari eta bertsozalea izan zen gaiemaile.

Mihura eta Lakaren lehenengo bertsoak:

Mihura Berotasuna hemen sendi da,  
ez gaude gehiago hotzez.  
Sabela era goxoan jarri,  
ez gaude gehiago gosez.  
Goazen beraz orai lasaiki  
gu izpirituzko gauzez,  
nahiz odola ez mintzatuko  
ari nahi dugu bihotzez.

Laka Arratsaldeon, jaun andereak;  
barne huntan zoin den epel,  
nahiz kanpoan haizea hotza  
eta zerua hain goibel.  
Nahiz Xalbador bezain ederki  
kantatzera ez gaizken hel,  
bazkalondo bat nehondik ere  
ezin daike izan motel.

Mihura Guziz gainetik gogoan dugu  
Xalbador eta pertsua;  
harek poesiz, bai eta fedez  
botatzen zuen mezua.  
Gaur ezagun da haren miresle  
dugula herri osua,  
eta guretzat ere daukagu  
eredu eta maisua.

- Laka Xalbadorrekin ez naiz mintzatu,  
nehoiz ez nuen agurtu,  
bainan Baigorriin saio batean  
gazte nintzala ezagutu.  
Han bildua zen jende guzia  
pertsuz hark zuen harrotu.  
Joan izana saio hartarat  
ez baitzitzautan damutu.
- Mihura Xalbador jauna ta Mattinekin  
ari ziren borondatez,  
hainbeste mozkin biltzen zutela  
hain paregabeko artez.  
Omenaldi hau ere segiko  
dela luzaz gure ustez.  
Aranaldek du aipatu egin  
behar dela bostehun urtez.
- Laka: Gaur hogoita zortzi urteko egun  
hura ez dut ahantzia.  
Goizetik haste ezin kokatuz  
bildu zen jende guzia;  
ta arratsean arpegietan  
nabari zen tristezia,  
omenaldian bertsulariak  
galdu baitzuen bizia.
- Mihura Bizia galdu planta horretan  
orok dakigun bezala,  
bainan gora zen gelditu gero  
delako gizon apala.  
Aipamen hori egin ditalke  
luze bezainbat zabala.  
Baina goretsi behar hortako  
Aranalde ta Zavala.

- Laka Bi gizon hauek badute segur  
afera hortan pizua;  
haueri esker sortu zitzaikun  
guri pertsutako sua,  
ta geroxago ongi ulertu  
Xalbador zenain mezua.  
Haren zalea bilakatu naiz  
neu ere itsu-itsua.
- Mihura Xalbador zale ainitz dugula  
hemen ta nunahi suma;  
Euskal Herria harentzat ere,  
ai, zinezko erresuma!  
Eta bihotzez goratzen zuen,  
nundikan ez maitasuna...  
Gure herri hunek aurki dezala  
hark desiatu osasuna.
- Laka Hi ere, Fermin, hain bertsulari  
jartzeko estakuruan,  
odolaren mintzoa huela  
dena hartua buruan.  
Nik den dena ez baina zatiak  
hortxe dizkiat goguan.  
Gainerakoa behar guziez  
kausitzen diat liburuan.
- Mihura Liburuan duk hik kausituko  
bertsolarien eztena,  
eta norbaitek ez balaki hau  
horixe dela gaur pena.  
Ezen hain gora joana zauku  
Xalbador horren izena,  
ta Urepelek hari zor dio  
segurki bere omena.

Laka Urepeldarra zuan Xalbador,  
hori ez duk ez berria.  
Haren pertsu sail aberats hura  
zoin den, ba, maitagarria!  
Hari esker guk errexkiago  
maitatzen Euskal Herria.  
Eta han agertzen duk Urepele  
dela artzainen herria.

Oihane Enbeita eta Sustrai Colinaren agurra:

Oihane Ur epel, ur hotz sentitzen eban  
bere Euskal Herri maitea.  
Joan egin zan baina emen dago,  
ze txikia den tartea.  
Beran deiadar bihurtu gera  
eten ez dadin katea.  
Ez da zuzena bere bizia  
galdu ebala esatea,  
ez baita berdin bere bizia  
galtzea edo emotea  
ez baita berdin bere bizia  
galtzea edo emotea.

Sustrai Ezer baino len, arratsaldeon,  
trankil trankil, lasai lasai.  
Hoita zortzi urte da, Xalbador zen  
bere omenaldian zai;  
baina kolpetik gaizki sentitu  
ta gero, ai, ai, ai!,  
inor etzegon umore betez,  
inor etzegoen alai.  
Badaezpadare argi uzten dut:  
omenaldirik ez dut nahi  
badaezpadare argi uzten dut:  
omenaldirik ez dut ahi.

Oihane eta Sustrai ofiziotan jarri zituen gaiemaileak.

Gaia: Bikotea zarete, eta etxeko lanak bion artean egiten dituzue gehienetan; baina bada gauza bat beti Oihanek egin behar izaten duena: komuna zuk garbitu behar izaten duzu beti, Oihane.

Sustrai Ohitura bat omen da  
zure kaltekoa,  
komuna beti berak  
fin garbitzekoa.  
Nik arrazoi on bat dut  
nolabaitekoa.  
Soroan egiten dut  
nik egitekoa.  
Lara, lara, lara lai  
nik egitekoa.

Oihane Eztozu «nik zikintzen»  
ez daustazu esango,  
usaia kanpokoia  
beti ez da izango.  
«Soroan egitten dot»,  
arrazoia sendo.  
Soroan eitten dozu  
eta oso ondo.  
Lara, lara, lara lai  
eta oso ondo.

Sustrai Beraz ez nauzu gizon  
normaltzat ikusten  
beti aritzen bainaiz  
asmoak zapuzten.  
Soroan egiten dut  
kirtenari eusten,  
baina gutxinez ez dut  
txipristinik uzten.  
Lara, lara, lara lai  
txipristinik uzten.

Oihane Bai, burua daukozu  
txoriez tarteka,  
tripristinez zeuk utzi  
ohi dozu beteta.  
Ez dozu zeuk ikusten  
eindakoan buelta,  
bueltatzerakoan neuk  
garbitu dot-eta.  
Lara, lara, lara lai  
garbitu dot-eta.

Sustrai Ikus itzazu nire  
lanaren emaitzak,  
nahiz ta izan litezken  
nahiko sineskaitzak.  
Oihanean eginik,  
pixa ahalegin gaitzak.  
Horregatikan daude  
holako zuhaitzak.  
Larai larai lara lai,  
holako zuhaitzak.

Oihane Kuerda emon ezker  
hasten da harrotzen,  
ikasi behar dozu  
eta ez zabiz zuzen.  
Hartu egizu lixiba  
eta hasi garbitzen.  
Ia ikasten dozun  
belauniko jartzen.  
Larai larai lara lai  
belauniko jartzen.

Sustrai Paperez beterikan  
aurre ta atzea,  
buruan izaten dut  
nahikoa haizea.  
Belauniko jartzea  
ez al da trantzea?  
Eliz kontua baita  
belaunikatzea.  
Lara, lara, lara lai  
belaunikatzea.

Oihane Eliz kontua dala  
atzetik kejatu.  
Zuk hartu eizu lixiba,  
garbitzen probatu.  
Bide batez Jainkoai  
laguntza eskatu,  
ezingo nauzu-eta  
barriz engainatu.  
Lara, lara, lara lai  
barriz engainatu.



Sustrai Zure esana etzait  
suertatu arraro.  
Honetatik ezin naiz  
itxuraz igaro.  
Jaunai laguntza eska  
beharrean nago.  
Lagundu beharko dit  
denetan badago.  
Lara, lara, lara lai  
denetan badago.

Oihane Bueno, tratua eittera  
heldu azkenean.  
Zeozer egingo dogu  
hiruron artean.  
Bitartean Oihane  
itxita bakean,  
garbitu, ni zai nago  
hango arbolapean.  
Lara, lara, lara lai  
hango arbolapean.



J.M. Iriondo, Emile Larre eta Luis Eizmendi, Urepele 2011

# Xalbadoren eguna 2005

## Xalbador eta mendia

---

Deiadarra taldeak bigarren urtea zuen, Xalbador hil eta gero hogeita bost urtez lanean saiatu ondoren Joxe Mari Aranaldek eta lagun talde batek urteroko jaialdia antolatzeari utzi ondoren.

Aurrekoan bezalaxe, egun bakarreko festa egin zen 2005ean, "Xalbador eta mendia" goiburu hartuta.

Egun hartako argazki eta bertso batzuk baditugu eskuartean, nahiz eta denak jaso/grabatzeko aukerarik ez zuten izan Bethart aita-alabek, edota haiei laguntzen ahalegindu ziren beste hiru-lau lagunek, antolaketa-lan dena beren bizkar hartuta baitzuten. Besteak beste, horixe da talde txikia izatearen malura eta gaitza.

Igande hartako lagun arteko bazkariaren ondoren, taldearen sortzaile, bihotz eta arima izan den Itxaro Bethartek egingdako sarrerakoa jaso ahal izan genuen, hitzez hitz honainoxe ekarri ahal izateko gaur:

Arratsalde on, eta ongi etorri Urepelerat, eta bazkariak on dakizuela.

Zuek ongi dakizuenez, orai urtebete, 2004ko urriaren 1ean, sortu zen Deiadarra elkarte, urteorok Xalbadorren eguna antolatzeko asmoz, aintzineko urteetan egin izan den bezala. Izan ere, ez ginuen nahi, neholako moduz, Xalbador zenak utzi zaukun ondare ederra (euskara eta bere pertsuak) galzitezen egun batez.

Piskana piskana gure nortasuna eta izaitea gal ditiakela pentsatuta, buru-bihotz lotu gintzaizkion egun hunen antolatzeari, 1976ko azaroaren 7an, hemen bere soterrian hil zen Urepeleko artzainaren gorazarrez, haren pentsamendua oinarritzat hartuta, eta Euskal Herriko xoko guztietako Xalbadorren maitaleak gonbidatuz.

Bide batez, guk askorik pentsatzen ez baginuen ere, Xalbadorren maitale eta miresle handia izan zena, eta urte askotan egun hau antolatu izan zuena, aurreko irailaren 24an zendu zen Joxe Mari Aranalde adiskide maitea ere omendu nahi dugu gaur, Xalbador zaleok horrenbeste zor badiogu-eta.

Lehenengo urtean hementxe izan zen gurekin, eta aurten ere etortzekotan zen. Baina heriotza gaiztoak aurrea hartu dio oraingoan, gaizoari! Goian izan dadila, Xalbador eta hil diren pertsulari guztiekin batean.

2005eko Xalbadorren eguna goizean goiz hasi dugu gaur, Auñamendi mendizale elkarteak antolatu duen mendi ibilaldi batekin. Badakit zuetako asko mendian izan zaretela. Eskerrik asko.

Gero, hamar t'erdietan meza ukan dugu Urepeleko elizan, Xalbador eta Joxe Mari Aranalde gogoratuz, biak ere sinesmen handikoak baitziren, eta heiekin batera hil diran beste pertsulari eta pertsuzaleak ere gogoan.

Hortxe duzue, baitere, Jon Beloki zarauztarra eta Patxi Lazaray argazkilarien laguntasunez antolatu dugun argazki erakusketa ederra, Fernanddo Aire *Xalbador* handiaren ohoretan. Milesker eman nahi diozkatet Auñamendi elkar-tekoei, eta Jon Belokiri eta Patxi Lazaray-ri beren laguntasunagatik.

Halaber, eskerrak eman nahi dauzkiet Baigorriko *Astezkenekoak* gizon abesbatzari eta Arrosako Txaranga trikitilari taldeari, laguntasun ona eman daukute-eta gaur Xalbadorren eguna ongi antola genezan.

Baita ere, eskerrik asko aunitz Urepeleko Herriko Etxeari, Eusko Jaurlaritzari, Euskadi Irratiari eta hemen bildu zareten denoi. Mila esker, esker mila!

### **Pertsulariak**

Orai pertsularien txanda izango da, pertsuzaleen eguna baita batez ere gaurkoa. Lehenengo, Gillen Iribarren eta Mizel Mateo gazteen txanda izanen da. Eta bi gazte hauek gai

librean ariko dira, nahi duten adina pertsu botatzea libro dutelarik.

Gero, Andoni Egaña, egungo pertsularien xapelduna, eta Maialen Lujanbioren txanda izanen da. Hementxe izanen dugu Xabier Amuriza ere, Xalbador eta Joxe Mari Aranalderen lagun handia. Esker mila zuri ere, Xabier.

Pertsu saio huntarako gaiak gaur Urepelerat etortzerik ukan ez duen Joxemari Iriondok prestatu eta bidali dauzki-gu, Joxe Mari Aranalderekin batera prestatzekotan bazen ere gai hauek. Eta berak esan daukun bezala emango dauzkiegu pertsularieri, hitzez-hitz.

Milesker Joxemari Iriondori, eta hurrengo urtean etorriko zarela eman daukuzun hitza ondo gogoan hartu dugula erraiten dautzut. Goraintzi.

Egun, beharbada, bere lagun Xalbador maitearekin zerruan solasean ariko den Joxe Mari Aranaldi musu handi bat igorri nahi diogu Urepeletik, bihotzez hala ere. Eta mila eta milaka esker, Joxe Mari, Urepele eta Deiadarra taldearen izenean, eman daukuzun hitza ondo gogoan hartu dugu, urteetan zehar, zure/gure Xalbador maitea goretsiz etengabe.

Sarrerakoaren ostean, Itxaro Bethartek mikroa eskaini zien Gilen Iribarren eta Mizel Mateori, bertso bina-iruna bota zezaten.

G. Iribarren *Anai-arrebak, ez, otoi, pentsa  
neure gustura nagonik...*  
Baina pertsutan aritu behar  
batzueri hitzemanik.  
Zuek kontentzen entseatzeko  
bai Mizelek eta bai nik,  
erdoila kendu beharko dugu  
taula gainean egonik.

- Mizel Mateo Bertsoa Xalbador eta euskara bere hiru zurkaitzak dira. Bertso egun baten muntatzea Aranaldereen desira. Txalo bero bat merexi duela egun bederen argi da, pixka bat bera delako hemen urtero biltzen baigira.
- G. Iribarren Hainbeste urte pasatu eta bertsoa beti gogora, bertsolariek botatzen dute ahal bezala kanpora. Xalbador baino bertsolaririk noizbait hobe egongo da. Bertsolaritza etxeratu da Xalbadorrena ondora.
- M. Mateo Xalbadorrek betetzen baitzuen gizon onaren papera, segur mundu huntan ez direla beste bi bera bezela. “Bertsolaritza fini da hemen” erran zuen behin honela. Egund bilduak gira hemen gu errana faltsua zela.
- G. Iribarren Nahiz batzuentzat Aranaldereen bideak ez duen inportik, gazte batzuek segitzen dute hark sortu zuen hildotik. Aupa Xalbador eta besteak!, erraiten dut nik gogotik. Gizonki jin zen mundura eta gizonki joan zan hementik.

M. Mateo Xalbador hemen ta Xalbador han,  
entzuten dugu ardura,  
bere istorio hauek denak  
eskutaturik gustura.  
Egun zahar, gazte eta nini  
ezkerparetan sartu da...  
Xalbadorren istorio hori  
leienda bilakatu da.

Xalbador eta Aranalde ez ezik, handik laster egiteko zen Euskal Herriko Bertsolarien Txalpelketa ere gogoan izan zuten bertsolariek, nork bere kezka eta gogoetak jendeari adieraziz.

2005eko bazkalondoko saio hartatik honako bertso hauek jaso ditugu gure irakurlearentzat, Xabier Amuriza hasita:

Amuriza Bi izen haundi ditugularik  
gaur parez pare jarririk,  
huna ni hemen egun xume bat  
pasatzera etorririk.  
Azkenik nekez pasatuko dut  
holako egun haundirik,  
Xalbador eta Aranaldekin  
deus ere ez baitzen ttipirik,  
deus ere ez baitzen ttipirik.

Maialen Iraganetik egiten dute  
bi argazkiok dizdira,  
eta lagunek gaur egunera  
berrekartzea desira.  
Bostehun bat lagun hemen bagaude  
iraganari begira,  
bostehun bat lagun hemen bagaude,  
etorkizuna hori da,  
etorkizuna hori da.

Egaña    Beti bezela batu zaizkigu  
            Urepel eta udazken,  
            kolore ainitz errepideko  
            ixkiña denak babesten.  
            Saiatu gera aldez aurretik  
            kolore hoiek ikusten,  
            baina holako jendetzarikan  
            ez genuen aurrikusten,  
            ez genuen aurrikusten.

Amuriza    Guregatikan etzen izango,  
            hemen hartu dute elkar.  
            Xalbador eta Aranaldena,  
            meritua horrek dakar.  
            Maiz pasatzen da Donosti, Iruña,  
            Baiona ta Bilbon zehar,  
            euskal zentroa aurkitutzeko  
            bazterrera etorri behar,  
            bazterrera etorri behar.

Maialen    Gaurkoz bai behintzat zentru zentrua  
            bertatik mintzo da ozen.  
            Begira nola mendebaldetik  
            auto ilarak datozen.  
            Eskerrik badan motibo on bat,  
            ta Urepelen hain zuzen,  
            hegoaldeko egoztristak  
            piska bat mugi gaitezen,  
            piska bat mugi gaitezen.



Egaña Egia da bai, egozentrismo,  
nork ez du falta indarrik?  
Batzuk gunean gabiltza beti,  
batzuk baztertu xamarrik.  
Egun hau geure egin behar degu,  
ez dago esan beharrik,  
eta ahal dela ez bedi izan  
folklore egun bakarrik,  
folklore egun bakarrik.

Amuriza Bi hauentzako txapelketa ere  
nola ez dagon aparte,  
duela zenbait urteko kontu  
hura berriz gerta daike.  
Xalbadorreri gerta zaiona,  
entzulea, oroit zaite.  
Gaur ez duzue txisturik joko,  
beraz etzaituztet maite,  
beraz etzaituztet maite.

Maialen Behin Xalbadorrek pasa zuena  
gerokoentzat eredu.  
Bertsozaleek zenbat hasarre,  
epaileek zenbat ernegu!  
Ez gera horren bikainak gu ta  
denaren premiz gaude gu.  
Merezi gabe txalo jota`re  
guk maiteko zaituztegu,  
guk maiteko zaituztegu.

Egaña Ai, Xalbador ze bertsolari zen  
hartu dezagun kontuan,  
behin Donostian barru barrutik  
aritu baitzen kantuan.  
Txistuka ari ziren guztiak  
han txaloka segituan,  
bi minutuan bertso batean  
denak aldatu zituan,  
denak aldatu zituan.

Amuriza Aldatzea da nunbait erreza  
kristau ebanjelioa,  
baina Xalbador harek bazeukan  
berebaitan jenioa.  
Nahiago nuke neuk izan banu  
egiteko balioa,  
txistuak entzun ondoren harek  
han egin zuen saioa,  
han egin zuen saioa.

Maialen Txistu gordinen ondorenean  
aritu al zen hain aisa?  
Gu ez geunden ta sinestu behar  
hemen entzundako hitza.  
Txapelketa hartan txistu artean  
Xabier epaile gisa...  
Nik enuke nahi, ai, Amuriza  
aurten epaile balitza,  
aurten epaile balitza.

Egaña Amuriza hau epaile gisa,  
Maialen, etzazu erre.  
Batzutan, iso! egingo baitu,  
komeni zaiola, arre!  
Ai, Xalbadorrek beiratzan dio,  
hona bere gorazarre.  
Argazkietan zeharka eta  
hil ondoren aurrez aurre,  
hil ondoren aurrez aurre.

Amuriza Hemen bizian bildu behar da  
haizetan doan orbela,  
ta zu, Maialen, nik hartzen zaitut  
aurten hautagai horrela.  
Nik zuri txistu jo behar dizut  
lehen Xalbadorri bezala,  
ea amorruek jota Andoniri  
kentzen diozun txapela,  
kentzen diozun txapela.

Maialen Ia Andonik bere txapela  
izan lezaken galzori.  
Gerta liteke, baina akaso  
utzi behar gaitu grogi.  
Publiko artetik entzuten badet  
txistu hotsen bat edo bi  
pentsatuko det: Oin ere ari da  
Amuriza alu hori,  
Amuriza alu hori.

Egaña   Maialen ta ni joango gera  
hurrengo txapelan bila,  
eta Amurizak txistua joaz  
jarri nahi du iskanbila.  
Hau apaitzako ikasia zen,  
txintxoia gendun mutilla.  
Beraz seguru gaur Amurizak  
txistu jotzen ez dakila,  
txistu jotzen ez dakila.

Amuriza   Ara, Andoni, ez nazak jarri  
txistulari baten pare.  
Ze txistu klase dagon aspaldi  
gaituk jakintzaren jabe.  
Aurten aluak izateko ere  
aurrez prestatuak gaude.  
Alukeria izatekotan  
behingoz neska baten alde,  
behingoz neska baten alde.

Maialen   Ez pentsa, poza ere hartzen det  
halakorik esatean.  
Neskaren alde jarriko dala  
Xabier halakon batean.  
Ta txistu hotsik irtetze ez bada  
bere hortz hoiien tartean,  
honen bizarra ezautuko da  
hamar milaren artean,  
hamar milaren artean.

Egaña Behin behar eta jende aurrean  
Xabier jarri bilusik;  
berak esan du Maialen honek  
gailendu ezker, pozik.  
Barka, Xabier, iritzi horrekin  
ni ere bat nator kasik.  
Baina ez neska delako soilik,  
hobea delako baizik,  
hobea delako baizik.

Amuriza Egañak beti berea baitu  
diplomazi ugaria.  
Ara, Andoni, hautsi zitekek  
urte honetan haria.  
Galtzaile baintz ator nigana,  
izan zak erabakia,  
esplikatuko diat nola den  
txapelaren nostalgia,  
txapelaren nostalgia.

Maialen Amurizaren ibilbidea  
oparoa ta luzea.  
Andonik bertsoz edertu ditu  
auzoa eta etxea.  
Behingoz nik ere kantatuko det  
diplomatiko antzea.  
Nere txapelik onena hau da,  
bi mitokin kantatzea,  
bi mitokin kantatzea.

Egaña Nik Amuriza ezagutu nun  
garaile eta freskuran,  
baina txapela galdu egin zuen  
larogeita seiko gudan.  
Berrogeita lau urte zeuzkan ta  
orduz geroztik tristuran.  
Badaezpadare ez duk esango  
nik zenbat urte ditudan,  
nik zenbat urte ditudan.

Amuriza Ez du esan, baina ulertu dugu,  
esan nahi zuen zaharra.  
Edo zaharra etzun nahi esan,  
baina zahartu samarra.  
Ara, Maialen, kontuz zu ere,  
airean dabil pindarra.  
Aurten igual gertatuko da  
txapelduna bizkaitarra,  
txapelduna bizkaitarra.

Maialen Bizkaitarrena, lapurtarrena,  
gertatu liteke dena.  
Bertsolari onak aunitz badira  
bai Gipuzkoan barrena.  
Aurten norena ez dakit baina  
seguruan norbaitena,  
ta hurrengoan gure aurretik  
jardun diren bi hoiena,  
jardun diren bi hoiena.

Egaña Iparraldera txapela heldu,  
amets bat bete betea.  
Gerta liteke amets haundi hau  
sustraiturik egotea.  
Zailla da oso bizkaitarren bat  
txapelduna izatea.  
Ta ez kexatu, lortu duzue  
finala eramatea,  
finala eramatea.

Amuriza Nobedadea haundia aurten,  
berria baita trantzea,  
nun dagoen BEC euskaldunentzat,  
hori baita arantzea.  
Hasitakoan mapa bilatzen  
behar da ondo bilatzea.  
Ez bekizue gertatu gero  
Trebiñora azaltzea,  
Trebiñora azaltzea.

Maialen Aldatu dela finala tokiz  
ta askok, akabo, akabo!  
Gure burutan distantziaren  
alperkeri asko dago.  
Baina denak bat baldin bagera  
hain zaila ez da izango.  
Mapa tolestu ta gertu daude  
Urepel ta Barakaldo,  
Urepel ta Barakaldo.

Egaña Beraz komeni egingo zaigu  
Barakaldora joatia.  
Bertso honekin emango diot  
oraingoz errematia.  
Gaiak jarrita dauzkazu eta  
zatoz, Itxaro maitia.  
Pazientzi haundiz azaldu duzu  
izenaren zergatia,  
izenaren zergatia.

Berrero hiru bertsolariak jarri zituen lanean Itxarok gai honi buruz: Maialen eta Andoni, Urepeleko bi xahar dira; Amuriza, Urepeleko gazte bat. Hiruok Urepeleko plazako aulki batean exeririk zaudete.

Amuriza Hauek pasatu dute  
munduan denbora,  
eztira nekez biltzen  
elkarren ondora.  
Gazte baten galdera  
heldu da gogora:  
Errazue, herri hau  
noiz bukatuko da,  
errazue, herri hau  
noiz bukatuko da?

Maialen Plazako aulki baten  
biok bare bare,  
arratsaldero gisan  
eserita gaude.  
Herriak bukatzea  
ote du ba lege?  
Hemen segiko degu  
bukatuta ere,  
hemen segiko degu  
bukatuta ere.



Andoni Autoak herrian ta  
berdin belazean;  
batzuk geratzen dira,  
besteak pasean.  
Herria bete zaigu  
zabal ta luzean,  
baiña ze bakardade  
astelehen goizean,  
baina ze bakardade  
astelehen goizean!

Amuriza Astelehenez gorantza  
beha edo begira,  
elkar entendituko  
balute sikira.  
Gazteentzat herrian  
gaur toki gutti da,  
zaharrak ere luzean  
bizitzen baitira,  
zaharrak ere luzean  
bizitzen baitira.

Maialen Dena zaharren kulpa  
ez da ba izango?  
Guk bizi nai genduke  
are luzeago.  
Gazteak urrun doaz  
gero ta gehiago;  
lekua egitea  
zuen esku dago,  
lekua egitea  
zuen esku dago.

Andoni Gazte hori ez al da  
harro hitz egina?  
Nabarmendu nahi nuke  
bere hutsegina.  
Luze bizi gerala  
bera imajina.  
Luzaro eta tente  
ez dugu berdina,  
luzaro eta tente,  
ez dugu berdina.

Amuriza Adinez berdin eta  
gaur eleka alaiz,  
zuek ere gazteak  
aspaldiko garaiz.  
Ni ere zahartuko naiz,  
hori da berez gaitz.  
Lasai joan zintezke,  
hemen gelditzen naiz,  
lasai joan zintezke,  
hemen gelditzen naiz.

Maialen Gure gaztearoan  
ekin eta ekin,  
izerdi franko bota  
dugu elgarrekin,  
ta esperantza gutxi  
gaurko gazteekin.  
Hemen geratu ez baizik  
hemen zerbait egin,  
hemen geratu ez baizik  
hemen zerbait egin.

Andoni Gure garaian bazen  
hainbat zapi mota,  
gaur egun hori ere  
darabilgu jota.  
Gazteei zaharrena  
etzaie inporta.  
Gaur dena klinex baita,  
ibili ta bota,  
gaur dena klinex baita,  
ibili ta bota.

Amuriza Klinexa da inbentu  
moderno samarra,  
hori ez baitzenuten  
ezautu beharra.  
Izan zineten gazte,  
zenuten pindarra.  
Zer kontatu duena  
hura ezta zaharra,  
zer kontatu duena  
hura ezta zaharra.

Maialen Orain etzera mintzo  
horren parregarri,  
entzun da jaso dezu  
zaharragoen berri.  
Lan egin eta gero  
aulki hontan jarri.  
Ondorengoei eman  
Urepelen berri,  
ondorengoei eman  
Urepelen berri.

Andoni Hala egin zazue,  
gazteak, mesedez.  
Gure zeregin oro  
bukatu da berez.  
Ez geneukan txanponik,  
etziteken aurrez.  
Zer kontatu badugu,  
zer zenbaturik ez,  
zer kontatu badugu,  
zer zenbaturik ez.

Xabier eta Maialen: Maitemindutako bikotea zarete; ez-kontzako gauean, lau izarreko hotel batean zaudete. Lo egiteko garaia etorri, eta... Xabierrek seko lo hartu du. Maialenek lorik ezin hartu berriz, Xabierren zurrungak direla-eta.

Maialen Gizona zurrungaka  
tira eta tira,  
eta ni aspertuta  
ondotik begira.  
Zaharrak gustatzearen  
problema hori da,  
problema hori da.

Amuriza Gauza bat pentsatu dut  
ohiratuz batean.  
Probatu nahi zintudan  
zurrungen artean,  
nola jasaiten nauzun  
berrogei urtean,  
berrogei urtean.

Maialen Gau xelebrea ta  
narratsa gurea.  
Bizkarrez jartzen bada  
hauxe da urdea!  
Ta aurpegiz jartzen bada  
berriz azkurea,  
berriz azkurea,

Amuriza Hotel haundian gaude  
etxetik kanpoan,  
eta loak hartu nau  
izarren kuartoan.  
Izango duzu lana  
atzartutakoan,  
atzartutakoan.

Maialen Lau izarreko hotela,  
prezios ez xea.  
Gaua iritxi, zurrunga  
putza ta haizea...  
Imajinatzen nuen  
horrelakoxea,  
horrelakoxea.

Amuriza Jeloskorra bainaiz ni  
sortzetik bederen.  
Diximuluan hemen  
lokartu nahi nuen,  
beste norbaitengana  
ea joaten zaren,  
ea joaten zaren.

Maialen Ni beste batengana  
joatea, auskalo!  
Neronen buruari  
igual erregalo.  
Beti diximuluan  
ta gero beti lo,  
ta gero beti lo.

Amuriza Nola lokartu naizen,  
nun zauden badakit.  
Aizu, Maialen maite,  
nagoen bordatik,  
atzar nazazu, otoi,  
amets gaitz hontatik  
amets gaitz hontatik.

Maialen Lo egiten dakien  
gauza beharrean,  
zurrungaka mugituz  
eta marmarrean.  
Hara bi amets gaizto  
ohe bakarrean,  
ohe bakarrean.

Amuriza Maialen, adin ona  
nola daukazun zuk,  
egin ditut hainbeste  
zurrunga edo zurrut  
gainetik pasatzean,  
baina igartzen zaitut,  
baina igartzen zaitut.

# **Xalbadoren eguna 2006**

## **Xalbador eta Mattin**

---

Hirugarren urtea, aurreko bi urtetako esperientziaren ondoren. Aurrera jarraitzeko adorez beteta zegoen Deiadarra taldea, betiko lema buruan.

Urte honetako laguntzaile, Urepeleko Herriko Etxea, Aquitene Conseil Regional, PYRENNES ATLANTIQUES Conseil General, EUSKO JAURLARITZA, Euskaltzaindia, Auñamendi mendizale elkarte, Euskadi Irratia eta SENDOA argitaletxea izan ziren.

Horiez gainera, Urepeleko besta komitea, Urepeleko eskola, Baigorriko ikastola, Xemeingo (Bizkaia) abesbatza, Aldudeko Oteiza eta Irulegiko Soroak taldea ere laguntzaile. Bazurudien Deiadarraren laguntzaile taldea haunditzen hasi zela.

Hirugarren urterako antolatutako egitasmoa:

Aurreko urtean "Xalbador eta mendia" lema izan zen; 2006an, "Xalbador eta Mattin". Izan ere, Xalbadorren heriotzako 30. urteurrena bete baitzen, eta Ahetzeko Mattinen heriotzako 25. urteurrena, aurreko udan.

### **■ Egitasmoa**

Urriak 21, larunbata:

17:00etan: Haurren txokoa. Xalbador eta Mattin aztertu ziren haurrekin solasean.

19:00 - 20:30 artean: Taloak herriko plazan.

20:30etan: Peruketak musika taldearen saioa.

21:00etan: Benito Lertxundiren kantaldia.

Urriak 22, igandea:

7:00etan: Plazatik abiatuta goiz guziko mendi ibilaldia, Auñamendi mendizale elkarteak antolatuta.

- 11:00etan: Hamaiketakoa mendi gailurrean. Nahi zuten mendizale guztiek kultur lehiaketan parte hartzeko aukera izan zuten, eta sari bereziak eman ziren.
- 10:30etan: meza Urepeleko elizan, Xalbador eta Mattin gogoratu.
- 11:30etan: *Mattin eta Xalbador* liburuaren aurkezpena Antonio Zavala eta Joxemari Iriondok, herriko elizan. Aldi berean, Mattin eta Xalbadorren argazki erakusketa goiz osoan.
- 14:00etan: Kantu bazkaria, Xendarineko ahizpak, Bai-gorriko Asteazkenekoak eta Xemeingo (Bizkaia) abesbatzak alaituta.
- 16:00etan: Xalbador eta Mattini buruzko bideoa erakustea.
- 17:00etan: Bertso saioa, Jon Azpillaga, Xebastian Liza-so eta Andoni Egañarekin. Gaiak, Joxemari Iriondo. Arrosako Txarangak egun osoa alaitu zuen musikaz.

## ■ ***Mattin eta Xalbador*. Aurkezpena**

Antonio Zavala erdi gaixorik zela eta, Joxemari Iriondok bakarrik egin zuen egun honetarako espreski prestatu zen *Mattin eta Xalbador* liburuaren (Auspoa, 301) aurkezpena, honako hitzaldi labur honen bidez, Urepeleko elizan:

Egun on

Deiadarra elkartek urteorok antolatu ohi duen egun eder honetarako, Mattin eta Xalbador biak batera oroitu eta omentzeko aukeratu den egun honetarako alegia, biei eskainitako liburu bat agindu zuen Antonio Zavalak bere *Auspoa* sailean. Erdizka bagatoz ere, sail honetako 301 liburua hementxe daukazuela esanez hasiko naitzaizue.

Erdizka gatozela esan dut. Izan ere, gaur hemen behar zukeen Antonio Zavalak ezpaitu etortzerik izan, azkenengo egun hauetan erdi-merdi dabil-eta osasunez, *herpes* minbera



gaizto batekin. Hark utzitako hutsarte galanta betetzea dago-  
kit neri, hala-hola.

Saiatuko naiz gutxienez ere. Bitartean, azkar bizkortu da-  
dila opa diogu Antoniori, *Auspoa* sailak eta guk denok behar  
-beharreko dugu-eta haren gidaritzaz.

*Mattin eta Xalbador* liburua bion artean egin dugu. Eta  
niretzat esperientzia ikusgarri ederra izan da holako talde-  
lan bat Zavalaren gidaritzaz baliatuta egitea, han eta hemen,  
egunkari eta aldizkari zokoetan begiratu eta nonahi barrea-  
tuta dauden bertso sailak bilduz.

Egia esan, gauza erraza izan da *Mattin eta Xalbador* ber-  
tsolariei eskainitako liburu mardul hau zuen aurrera ekar-  
tzea.

Dena dela, ez zaituztet aspertu nahi aurkezpen luzeegia  
eginez, gero liburua eskuartean hartzean laster ohartuko bai-  
tzerate nondik nora eta nola osatu dugun.

Hori bai, liburu berri honez gainera, aspalditxoan agortu-  
ta zegoen *Odolaren mintzoa* (*Xalbador, Auspoa* 290) liburua-  
ren edizio berriarekin batera dakartzuegula esan nahi dizuet.  
Eta hori ere albiste haundia da, noski, Urepeleko artzain eta  
bertsolari haundiaren maitaleentzat. Laugarren edo bosga-  
rren argitalpena da oraingoa, pentsa. Seguruenik ere, orain  
arte gehien zabaldu den bertso liburua *Xalbadorren* hau.

### **Liburuaren edukinaz**

*Mattin eta Xalbador* liburu berri honen edukinaz zer esango  
dizuet? Labur baina argi esana dago liburuaren aurkezpen  
edo aintzin solasean liburu nola egin den, eta zergatik izen-  
datu den horrela:

- a) Liburuaren bost zatitatik lehenengoari *Mattin eta Xal-  
bador elkarrekin* izena eman diogu; eta biek batek bes-  
teari kantatutako bertsoetatik mordoska ederra auke-  
ratu dugu:

Gaia norberak aukeratzia ez baita errexia,

ene laguna, pentsatzen ai naiz, baina ez naiteke presa.

Bainan nik gaia hauxe banuke mementu huntan bientza:  
iduri dugu hemen gaudela monagilo ta apeza

(Mattinek Donostian, 1971-III-19an)

- b) Liburuaren bigarren atalean, *Mattin bakarka* deituan, alegia, Ahetzekoak han eta hemen bakarka kantatutako bertso asko bildu dugu. Gehienak bertso saioetatik hartuak dira, eta beste asko aldizkarietatik eta abar hartuak.
- c) Hirugarren atalean gauza beretsua egin dugu Xalbadorren bertsoekin. Bi sail hauetan bagenuen liburu bat eta gehiago osatzeko hainbat gai, baina ez dugu nahi izan gehiegi luzatu. Hurrengo batean egingo, agian. Mattinen *Mattin bertsolaria*, (Auspoa 298 – 2006), Xalbadarren *Odolaren mintzoa* (Auspoa 290 – 2006) liburuetan ere aukera bikaina geneukan. Baina bego honetan zati hau.
- d) Liburuaren laugarren zatian, *Mattinen omenez* deituan, Ahetzeko bertsolaria goralduz Bidasoaren alde bieta-ko bertsolari eta bertso jartzaileek eman duten zenbait sorta paratu dugu, *Herria*, *Zeruko Argia*, *La Voz de España*, *Diario Vasco* eta beste aldizkari, egunkari eta liburuetatik jasota. Basarri, Uztapide, Panpili, Arrosagaray, Alkhat, Mendibouru, Paulo Zubiarrain *Hernani Txikia*, Pello Esnal, Nikolas Zendoia, Jean Louis Davant eta beste bertsolari edo bertso jartzaile asko ageri dira sail honetan, ikusiko duzuenez. Hala ere, bat baino gehiago gelditu zaigu kanpoan, denak emateko nahi adina toki ez genuelako.
- e) Bosgarren atalean, berriz, *Xalbadarren omenez* deitu dugun honetan alegia, berdintsu egin dugu, lehen aipatu ditudan aldizkari eta egunkarietatik jasoz Xalbadarren omenez idatzi diren asko.

Azkenengo bi atal horiek argi eta garbi erakusten digute bi bertsolari hauek zenbateraino istimatuak eta maiteak izan diren iparraldean nahiz hegoaldean, hego eta iparraldeko bertso jartzaile horiek gogotik saiatu baitziren bere garaian Urepele eta Ahetzeko bertsolarien merituak eta maitasunak goraldtu eta aipatzen.

## Zergatik elkarrekin

Deiadarra taldeak aurtengo jaia adierazteko egin zuen prentsaurrekoan aipatu zen *Mattin eta Xalbador* liburuaren, edo liburu berri baten proposamena. Eta kazetariren batek galdera horixe egin zuen: Zergatik Mattin eta Xalbador biak elkarrekin?

Erantzuna erraza izan zen, oso erraza. Mattin eta Xalbador bereizi ezinak ziren gutako askorentzat. Iparraldeko saioetan hala gertatzen zen, baina hegoaldean gutxitan ikusiko zenuten bietako bat bakarrik. Beti elkarrekin joaten ziren bertsotara. Hogei eta ez dakit zenbat urtean bertsolariei gaiak ematen ibili nintzen, eta ez dut gogoratzen jaialdi bakar bat ere bietako bat bakarrik ikusi nuenik hegoaldean. Biak gonbidatzen zituzten mugaz hangoekin batera jaialdia osatzeko. Izan ere, elkar osatzen baitzuten Mattin eta Xalbadorek, urte honen barruan argitara emango den *Xanpun bertsularia* (*Auspoa* 302) liburuan Urruñakoak ederki asko esaten duen bezala:

Biek elgar osatuz, horiek bikotx handia egiten zuten. Bikotxa oso-oso zen: Bi baina biak bat. Iparraldeko bertsularitza osatu dutenak, zinez. Xalbador bera oso-oso zen barkarka; baina Mattin bat aldemenean zuelarik, gai serio sak izanda ere, seriotasun puska ttipi bat kentzen zion Mattinek, ordainez berotasuna emanez. Mattin eta Xalbador, enetzat, azala eta mamia bezala zirela nago, bata bestearen osagarri onak, bata bezain premiazkoa bertzea.

Badakienak badaki, eta arrazoi zuen Xanpunek: elkar osatzen zuten, elkar edertzen.

Bertsozaleen memoria kolektiboan, Mattin, nagusiki arraierian ari zen artista zen. Irudia ere halakoxea zuen hark: Gizon ttipia itxuraz, moxkotea, txapela haundia buruan eta irri gozo erdi maltzur gaiztakeriarik gabea ezpainenetan, txiste bat kondatzeko beti prest. Mikrora hurbildu eta edozein gai ematen zeniolarik ere, entzuleari irribarrea sorrazten zion hark.

Xalbador, berriz, seriosa zen, irribarre nekez egiten duen horietakoa, bekozko beltza eta begirada zorrotza. Sakona oso,

eta bazuen halako ironia puntu berezi bat, entzulearen arre-  
ta bereganatuz gaia jasotzen zuen orduko.

Alabaina, askok besterik uste izan badu ere, sakontasuna  
eta umorea biak uztartzen eta erabiltzen zituen Xalbadorrek.  
Pasadizoak eta txisteak kondatzen hasten zenean, barre eragi-  
narazten maisua zen, nahiz eta berak ez zuen barrerik egingo.

Bestalde, bi bertsolari hauek izan ziren Bidasoaz hegoal-  
deko eta iparraldeko bertsolaritzan zubia egin eta mugak zati  
bi egiten duen lurralde bateko enbaxadore leial eta maitatu.  
Iparraldetik hegoaldera eta hegoaldetik iparralderako bidea  
sarri egiten zuten, mugako traba guztiak gaindituz. Otañoren  
bertsoak aipatzen duen “Zazpi aizparen gai dan oyala ebaki-  
rik erditik...”.

Joxe Mari Aranalde zenak esan ohi zuen, eta idatzi ere bai  
maitasun eta mirespen haundiz: “Xalbador eta Mattin, Eus-  
kal Herriko don Kixote eta Santxo Pantza dira”.

Bai, halaxe ziren, agian. Eta berak ere ondo ohartuta zeu-  
den bakoitzat antzeztu behar zuen paperaz, gosea bera baino  
ere listoago ziren-eta. Mattinek garbi esan zuen:

Biak bertsutan ibili gira aspaldi Eskual Herrian;  
hemendik kanpo ere gu biak izanak Kalifornian.  
Hau beti gizon seriosago, ni berriz arrailarian.  
Besta batean bikote ona biek egiten ginian.

Ni beti trankil ibiltzen nintzen hunekilan nintzenian,  
hauxe bainuen nere gidari beti edo gehienian.  
Eta bidetik pixka bat kanpo ziharkatzen naizenian,  
hunek ezarri izatu bainau beti bide zuzenian.

Batzutan ere ikusten zuten gu ziharkatzen ginela,  
ta zonbeit aldiz unek erran nau: “Debru mutiko ergela!”  
Ez pentsa gero karraixurikan ni baitan utzi duela;  
neronek ere ikusten nuen arrazoina bazuela.

Akabatzeko, agur goxo bat ene lagun Xalbadorri,  
ta ber-denboran otoitz umil bat zeruko Jainko Jaunari:  
Arimendako leku ttipi bat gorde gaitzala bieri,  
zeruan ere has gaiten biak bertsutan euskalduneri.

(Lagunari agur – Mattin, Auspoa 298)

Egia da, oker edo zuzen, irri egiteko gaiak beti Mattini ematen genizkiola gure garaiko gaijartzaileok (Lazkao Txikiri bezalaxe). Eta Xalbadorri, aldiz, ustez gai serio eta sakonak beti. Eta bietan erratzen genuen. Mattini ikaragarri gustatzen baitzitzaizkion gai serioak, eta Xalbadorri gai irrigarriak ere bai. Baina nola-halako prototipoak egiten genituen, errazkerira jota, seguruenik.

Lehenago esan dizuedan bezala, hogeitaz gehiago urtean ezagutu nituen Mattin eta Xalbador bertsoan, edo ni gaiak ematen eta haiek bertsoan. Eta, lehen ere inoiz esana dudanez, Mattin da bertso saio batean nik negar egiten ikusi izan dudana bertsolari bakarra, Añorgako (Gipuzkoa) saio hartan, Joxe Mari Aranaldek gai hauxe jarrita: “Zuek ez dakit dakizuten, baina nik bai. Mattinek seme bat du, eta seme hori Parisa joan zaio; lan beharrez edo behintzat etxetik Parisa joan da. Eta nik nahi nuke Mattinek seme horri hiru bertso kantatzea”.

Gaur aurkezten dugun liburu honetan hementxe dituzue orduko bertsoak; baita *Mattin nigarrez ikusi dut* izenez Xalbadorrek hurrengo egunean jarritakoak ere.

Mattinek bezalaxe, oso gaizki pasatu genuen une hura Añorgan bertsoak entzuten/jasotzen geundenok. Xalbadorrek berak ere gaizki pasatu zuela kontatzen du. Egun historikoa izan zen 1976ko otsaileko hura gure garaiko bertsozaleentzat. Esate bateko, Xalbadorrek honela idatzi zuen:

Ni gibelean nintzan; ez nuen Mattinen aurpegia ikusten. Bainan ohartu nintzan etzezakela kanta; uste nuen zintzurreen zuela zombait traba... Ba, egiaz traba bazuen: bihotza eta zintzurra hestutzen ziozkan gainditu zitzaion nigarrak (*Odolaren mintzoa* - Auspoa 1976).

Beste arrazoi asko eman daiteke Mattin eta Xalbador biak elkarrekin ekartzeko gaur *Auspoa* liburu honetan Urepelera. Deiadarra taldeak bazekien hori ondo, eta biak batera goraldtu eta omendu nahi izan ditu gaur hemen.

Besteak beste, hurrengo azaroaren 7an beteko dira hogeita hamar urte Xalbador haundia hementxe bere jaioterrian hil zela, *Odolaren mintzoa* bere liburu berria aurkeztu zen egunean. Eta Mattinen heriotzako hogeita bost urte lehengo uztailaren 22an bete ziren, hain justu.

*Auspoa* sailean argitara emanda zeuden Mattin eta bere emaztearen idatzi denak bildu eta liburu bat (*Auspoa* 298) argitara eman zuen Antonio Zavalak egun hartarako. Aldez aurretik, Mattinen semea eta Txomin Ezpondarekin bildu ginen Moulilienian, 2006ko urtarrilean, bertsozaleak gonbidatu eta jaialdi eder bat egiteko, ongi merezi zuela-eta Mattinek.

### **Mattin eta Xalbador**

Bati baino gehiagori sortu zaio galdera hori ere: Zergatik *Mattin eta Xalbador*, eta ez alderantziz?

Galdera honen erantzuna liburuaren hitzaurrean aurkituko du irakurleak. Arrazoi ximple eta erraza da horretarako ere, inork ez dezala pentsa bestelakorik. Mattin jarri dugu lehenik, zaharragoa zelako, noski, 1916ko San Martin egunez (1916-11-11) Ahetzen jaio baitzen. Xalbador, berriz, 1920ko ekainaren 19an jaio zen, hementxe, Urepelen.

Horixe eta ez besterik izan da lehenengo Mattin eta gero Xalbador jartzeko arrazoia.

### **Noiz eta nola osatutako bikotea**

Hegoaldetik Iparraldera ihesi etorri baino lehen, 1933an, Donostian hasitako lanari jarraituz, Teodoro Godofredo Hernandorenak deskubritu zituen Xalbador eta Mattin bertsolariak, 1945ean gutxi gorabehera.

1935eko Bertso gudua antolatu zutenean, Donostiako Euzko Gaztedia elkarteko partaide zen Hernandorena, eta alde honetan ere bertsolaritza indartu nahi zuen, Donibane

Lohizunen, 1946ko irailaren 22an, iparraldeko hamasei bertsolari nor baino nor elkarren lehian jarrita.

Hernandorenak kontatu ohi zuenez, inork ez zuen istimatzten bertsolaritza alde hauetan. Eta hark, hegoaldeetik ihesi etorri eta elkartu zituen Iratiko basoen lanean ari zen Ximun Ibarra (badaezpada ere Zubikoa izengoitiarekin, iheslaria zen -eta), Felix Iriarte, Etxahun Iruri, Hendaiako Meltxor, mugako soldaduskatik ihesi etorri zen Juan Joxe Eizmendi *Errezil* errezildarra, Intzabi, Hazparneko Iriarte eta Xetre, Azpeitiko Goikoetxea *Akotei* (hau ere iheslaria), Aintziart, Suheskungo Larramendi, Arrangoitzeko Gariador, Amikuzeko Etxexuri eta abar. Eta horien artean, bi izar haundi: Urepeleko Xalbador eta Ahetzeko Mattin, baxenarpartarra lehenengoa eta Lapurdikoa bigarrena.

Mattin eta Xalbador uretan aparra bezala igo ziren iparraldeko lehenengo txapelketa haien ondoren. Xalbadorrek berak idatzia da honakoa:

Halarik ere, bazen nitaz zerbait fama hedaturik eta, gerla ondoan, Hernandorena abiatu zenean hemen gaindi pertsulari bila, nitarat ere gidatu zen. Funtsean, berak aski hitz egin du gauza hortaz. Donibane Lohizunen muntatu zen xapelketa batetarat ereman ninduen.

Artean ez nuen egundaino plazan kantatu; pertsulari funtsezko haundirik ezagutu ere ez... (*Odolaren mintzoa*, Auspoa 1976).

### **Oztopoak**

Hala ere, ez zen erraza izango Mattin eta Xalbadorrentzat Gipuzkoara, Nafarroara, Bizkaira eta abar mugitzea, batez ere Urepeleko mendi zoko honetan bizi zen Xalbadorrentzat.

Denborarekin auto bana erosi zuten, ordea, eta Urruñan toki jakin batean elkartu eta handik biak batera joaten ziren batera eta bestera. Gero, bertso saioaren ondoren itzultzean, hantxe agurtzen zuten elkar, eta bakoitza bere etxera –pentsa Urruñatik Urepelera nolako bide saila gelditzen zitzaion Ferranddori, gehienetan gauez itzultzen zirela kontuan izanik–.

Holaxe osatutako bikotxa zen hura, artista haundien konpainia txikia. Askotan egon izan naiz pentsatzen haien joan-etorriak nolakoak izango ziren, batez ere negu garaian.

### **Emandako hitza beteta**

Baina amaitu behar dut berriketaldia, denok asperrazi baino lehen.

Mattin zenarekin bete zuen Ahetzerako emandako hitza Antonio Zavalak. Eta orain berdintsu egin dugu, 2007ko Xalbador eta Mattinen ohorezko asteburu honetarako emandako aginduarekin.

Hementxe duzue gaurdanik han-hemengo iturrietan tragoska eder asko eginez osatu dugun *Mattin eta Xalbador* liburua (*Auspoa* 301).

Lehen aipatu ditudan astekari-egunkarietan eta liburuetan, edo gure artxiboko zintetan sakabanatuta aurkitu ditugun alerik onenak jasotzen ahalegindu gera Antonio Zavala eta biok. Eta ziur gera, liburua eskuetan hartu eta goitik behera irakurri/kantatzean, guk bilketan gozatu dugun adinaxe gozatuko duzuela gutxienez ere.

Maitasun haundiz eta begirunez egin dugu lan hau dena, Xalbador eta Mattini maitasun eta begirune osoa izan baitiegu betidanik. Zavalak beste batean esan zuen bezala, *Tempus edax rerum* esaten omen zuten antzinako erromarrek, denborak jaten duela dena, alegia. Baina bi izen horiek elkarri ondo lotu eta denbora luzean iraungo dutela sinesten dugu gure artean, hitz egin eta idatzita gelditzen baitira.

Eskerrak eman nahi dizkiogu azkenik aurkezpen hau egiteko aukera eman digun Deiadarra taldeari, pazientzia galantarekin zuzenketak egiten lagundu digun Emile Larre jaun ertora euskaltzain maiteari, eta Gipuzkoako Foru aldundiko Koldo Mitxelena Kulturuneari. Eta azkenik, *Mattin eta Xalbador* liburu hau gustura irakurri edo kantatuko duzuenoi.

Milaka esker denoi.

Joxemari Iriondo  
Urepelen, 2006ko Xalbadorren eguna



## ■ Bazkalondoko bertso batzuk

Urtero bezala, igande bazkalondoan bertsolariak izan ziren 2006ko Xalbadorren egun honetan ere. Jon Azpillaga, Andoni Egaña eta Xebastian Lizaso bertsoetan.

Orduko saioaren laburpen gisan honako bertsoak gogoratuko ditugu hemen.

Gaia: Azpillaga kexu da, Egaña eta Lizaso ezpainetatik pururik kendu gabe ari direla bazkalondo guztian...

Azpillaga Hona etorri eta  
puruu piztiak,  
pena ematen digu  
horrela ikustiak.  
Tragatzen badituzte  
suen ke guztiak.  
Umeik ez du egingo  
zuen emaztiak,  
umeik ez du egingo  
hauen emaztiak.

Egaña Sermoia saltzen dabil  
bai egun ta bai gau,  
beldurtu ere egin naiz,  
hauxe, andreak, uau!  
Orain ume kontuak  
kolpetik hasi, rau!  
Hau Fraga Iribarnen  
tia monja da hau,  
hau Fraga Iribarnen  
tia monja da hau.

Xebastian Sor Joana, etzazula  
hemen jo adarririk,  
gezurrezko arrazoiak  
ezpaitu indarririk.  
Umeak sortzeko ez da  
kearen beharrik.  
Behin'e ez dira sortzen  
keakin bakarrik,  
behin'e ezta sortzen  
keakin bakarrik.

Azpillaga Beti ibili gera  
jaten ta edaten,  
ta nere lagun hauei  
ondo erakusten.  
Erretzea ez da, ez,  
hain ona izaten,  
ta formaldu zaitezte  
halakoren baten,  
ta formaldu zaitezte  
halakoren baten.

Egaña Formal hitza enuen  
zugandik itxaro.  
Egia esango dut,  
ta, Joana, akabo!  
Erretzen zuelako  
damu zen lenago,  
ta orain utzia  
damututa dago,  
ta orain utzia  
damututa dago.

Xebastian Erretzen hasi ginen,  
erretzen jarraitu,  
nola keak oraindik  
ez gaitun gogoitu.  
Lehen norbaitek esana  
nahi nuke goratu:  
Atxukarrak eta palak  
mudatuko gaitu,  
atxukarrak eta palak  
mudatuko gaitu.

Puntuka egin zuten saio labur bat hirurok, gai baten jirabiran: Urepela etorri eta, larunbat arratsean parranda egin dute Egañak eta Lizasok, Benito Lertxundiren kantaldia entzuteko aitzakiaz. Alderantziz, Azpillaga oiloak bezala garaiz joan zen lotara bart, eta gaur fresko fresko etorri da bertsotan egiteko.

Azpillaga Atzo etorri eta hemen gaur goizean.  
Egaña Baraua egin det nik denbora luzean.  
Lizaso Azpillaga ohera aitonen antzean.  
Azpillaga Maitasunik ez dago zuen bihotzean.

Egaña Maitasunak askotan kalteak baditu.  
Lizaso Eta amets txarrakin kalte hoiek gehitu.  
Azpillaga Benito Lertxundirik etzenduten aitu.  
Egaña Kolorea etzaizu askorik gorritu.

Xebastian Gauean ibiliak gu kantu kantari.  
Azpillaga Gero zer izango da zuentzako sari?  
Egaña Zuk txalo pillla bat jo nonbait Benitori...  
Xebastian Ta guk babesia eman geure buruari.

Azpillaga Geroztik egin dute hainbat bertso kanta.  
Egaña Txarrak izan direla gezurra galanta.  
Xebastian Gainera guri etzaigu umorerik falta.  
Azpillaga Zuek badaukazute ganbeluen planta.

Egaña Baina gure fama hau aparte ezin laga.  
Xebastian Zuk ere hobe zenduke hori beharbada.  
Azpillaga Behar ez dan lekuan jo dute aldaba.  
Egaña Planta bakarrik ez da, ganberro galanta.

Xebastian Holako famarikan ez zaigu faltako.  
Azpilla Gaur egin leiken gauzarik ez utzi biharko.  
Egaña Hiru-lau txanpain litro Lizasorentzako.  
Xebastian Gu ganberroak gera geuk nahi degulako.

Azpillaga Baina gauza hoiek dira zeuentzat kaltian.  
Egaña Berdin ibili zera ahal dezun artian.  
Xebastian Orain gurekin kezka ohera joatian.  
Azpillaga Formalduko zerate halakon batian.

Egaña Parrandakoa gendun bi gazteok egina.  
Xebastian Eta hirugarrenak nahi eta ezina.  
Azpillaga Benito Lertxundi zan zuentzat adina.  
Egaña Hobe zendun gurekin geratu bazina.

Xebastian Lo egin eta hauek esplikazioak!  
Azpillaga Pentsa zer gizon diran nere sozioak.  
Egaña Gure dantza ta buila, gure sesioak...  
Xebastian Zuretzat aski dira errosarioak.

Azpillaga Zuek hola ikusita ematen dit pena.  
Egaña Ederki jardun ginen herrian barrena.  
Xebastian Penaz ez dakit baina inbiriz zaudena.  
Azpillaga Zuekin gaurkoa det parrandan azkena.

Egaña Eta horregatikan ote daukazu min?  
Xebastian Bihar zer pasako den gaur ezin da jakin.  
Azpillaga Gertatzen dan gauza da, egin nahi ta ezin.  
Egaña Beharbada laster da Lizaso zurekin.

Xebastian Laster beraz horrekin eta egon trankil.  
Azpillaga Horrela segi baino ia hobe det hil.  
Egaña Egañak esan ditu egiak borobil.  
Xebastian Ez da goiz oheratuko nerekin badabil.

Azpillaga Etzazutela jarri holako nasterik.  
Egaña Lizasok ez omen du zaharraren usterik.  
Xebastian Nik egin nahi nizuke lagundu besterik.  
Azpillaga Ez nuen uste zuek hola ikusterik.

Egaña Lizasoren azkena parrandatan aurten.  
Xebastian Hurrengo urtean ere probatu jarduten.  
Azpillaga Formalduko al zerate halakoren baten.  
Egaña Bertsolaia ez dala formala izaten.

Xebastian “Formalduko al zerate”, hirutan gauz bera.  
Azpillaga Horretarako hemen dezute aukera.  
Egaña Bere maldiziorik haundina hauxe da.  
Xebastian Ez gera formalduko, ixilduko gera.

Bazkalondoko saioaren azkenean, Xalbador eta Mattin, eta oraintxe hamar hilabete pasatxo hil zen Joxe Mari Aranalde laguna goralduz egin zuten azkenengo agurra hiru bertso-lariek, bina bertsoan:

Lizaso   Joan ziraden gure artetik  
baina ez ditugu aztu nahi.  
Hirutatik bi baserritarrak,  
hirutatik biak artzai.  
Hirugarrena ere egon zan  
inoiz baserriaren zai.  
Bertsogintzan ta bertso inguruan  
zutenak hainbeste dohai,  
bizi zirela gurekin ziren  
hilda gerora ere bai,  
bizi zirela gurekin ziren  
hilda gero ere bai.

Egaña   Xalbador eta Mattinentzako  
gure gorespen eta omen.  
Aranalderen falta benetan  
sumatu liteke hemen.  
Baina aurrera hasiak gaude,  
hasiak gaude nabarmen.  
Esan liteke gaur Urepelen  
lortu dira bi garaipen.  
Handik honuntza muga hautsi da  
ta katerik ez da eten,  
handik honuntza muga hautsi da  
ta katerik ez da eten.

Azpillaga Mattin Ahetzen, Xalbador hemen  
orain ere indarrarian.  
Egin zutena aurkitzen gera  
gora jaso beharrian.  
Gauzak aitortu beharra dago  
jende onaren aurrian,  
Xalbador zalako gure Urepele  
famoso Euskal Herrian.  
Monumentu bat merezi luke  
plazaren erdi erdian,  
monumento bat merezi luke  
plazaren erdi erdian.

Xebastian Bi bertsolari haundiak ziren,  
bestea bertso-gidari,  
bertsozaleai emandakoak  
atsegin ta poz ugari.  
Gaur ez ditugu gure artean  
nahiz ari beai kantari.  
Gure esker ona izan dezaten  
egindako lanen sari.  
Adio Mattin, agur Fernando,  
eta agur Joxe Mari,  
adio Mattin, agur Fernando,  
eta agur Joxe Mari.

Egaña Bati galdetu: Nundikan zatoz?  
ta erantzuna: Ispaster.  
Bidarraikoak, gasteiztarrak...  
Zenbat txoko, zenbat bazter!  
Eguna emen konpartitza  
denontzako zenbat plazer!  
Abesten dugun Euskal herria  
etorkizunean laster.  
Ez dakit hauxe izango dugun  
baina antzeko zedozer,  
ez dakit hauxe izango dugun  
baina antzeko zedozer.

Azpillaga    Pozez beterik aurkitutzen naiz  
                  gaur zuen aldamenian;  
                  ni Urepelen sarri izan naiz  
                  denbora asko joanian,  
                  ta gero ere jarraitu nai det  
                  nik zuekin armonian.  
                  Gora Xalbador eta Mattini!  
                  Agur zuei azkenian.  
                  Berriro ere etorriko naiz  
                  deitzen didazutenian,  
                  berriro ere etorriko naiz  
                  deitzen didazutenian.



J.M. Iriondo, Azpillaga, A. Egaña eta X Lizaso



# Xalbadoren eguna 2007

## Xalbador eta diaspora

---

2007ko festa, “Xalbador eta Diaspora” gaiari lotuta egin zen, Xalbador zenak biziki maite eta bizi izan zuen gaia baitzen hori, diasporaren gaindi ibilia zelarik, Ameriketara artzain joan ziren bere ahaideak eta, batez ere, bere semea bisitatuz.

Hortarako, besteak beste, lagunarteko bazkari eta bertso saio ederra egin ziren Urepeleko ezkerparetan (pilotalekuan), aurrekoetan bezala.

Deiadarra elkartearen helburuak aurrekoetan bezala izan ziren:

Gure nortasuna eta Xalbadorrek utzi daukun mezua bizirik atxikitzea nahi ditugu. Deiadarra elkarteak *Ama Euskal Herria (Odolaren Mintzoa, 205. orria)* bertsuetan oinarritzen da, eta elkartearen izena hortik dator:

Baditaike seme hok noizbait orroitzea,  
ama, zu ganik izan dugula sortzea;  
guhaurek bilaturik zure ehortzea,  
jasan behar dugu gaztigu dorpea.

Hil hobi huntan noizbait norbait balabila,  
zure izaitearen herrestoen bila,  
lurpetik entzunen du deiadar bipila:  
Hemen dago ama bat bere haurrek hila!

## ■ Egitasmoa

Urriak 13, larunbata:

–Gauoko hamarretatik aurrera lagun arteko afaria, Urepeleko istorio eta kontu/kantu zaharrak entzunez, herriko jatetxe batean.

Urriak 14, igandea

- 10:30etan: Meza herriko elizan, Fernando Aire *Xalbador* gogoratu.
- 10:30etan: Mendi ibilaldiaren hasiera, besteak beste, Xalbadorrenea eta artzain etxola bisitatu.
- 11:30etan: Hitzaldia “Xalbador eta Diaspora” gaiaz, Jose Mallea (Renoko Unibertsitateko Liburutegiko arduraduna, eta antropologoa), Johny Kurutxet (San Frantzisko – EB), Jesus Goñi (Oronoz-Nafarroan jaio eta Reno-Nevadan bizi dena), Joseba Etxarri (Diaspora gaietan ikasia), Benoit Etcheverry (Diaspora gaietan ikasia eta Eusko Sareko langilea) eta Mikel Berekoetxea (Gorriti-Nafarroan jaio eta Chino-Kalifornian bizi dena) mahai baten inguruan direla.  
Aurkezle eta zuzendari, Xabier Euzkitze, ETBko aurkezle ezaguna.
- 13:30etan: Festa herriko plazan, Baigorriko Arrola dantza taldea eta trikitixarekin.
- 14:00etan: Herri bazkaria, Xendarineko ahizpak eta Aire ahizpak kantari zirela.
- 15:30etan: Potxin eta Patxin pailazoak, Haurren txokoa. Aldi berean Xalbadorri buruzko argazki erakusketa zabalik izan zen Urepeleko eskoletan.
- 15:30etan, bertsolariak: Johny Gurutxet, Jesus Goñi, Andoni Egaña, eta Sustrai Colina (Txomin Garmendiak hutsegin zuen). Gaiemaile, Joxemari Iriondo.
- 17:00etan: Sariak ematea Bertsopaper lehiaketan garaile izan zirenei.
- 17:00etatik aurrera: Erromeria trikitixarekin.

Oharra: Urte honetako laguntzaile, besteak beste, honakoak izan ziren: Urepeleko Herriko Etxea, Eusko Jaurlaritzako kultura saila, Office de la Langue Basque, Urepeleko eskola, Euskadi Irratia eta Sendoa argitaletxea.

## ■ Bazkalondoko bertso batzuk

Bazkalondo hartako bertso saioa Ameriketara bizi diren Johny Gurutxet eta Jesus Goñik, eta Andoni Egaña eta Sustrai Colinak egin zuten. Txomin Garmendia ere Urepeleko joatekotan zen, baina ez zuen joaterik izan, gaixo baitzegoen.

Egaña eta Sustrairen gaia: Urepeleko elizan sartu eta, al-kandora beltzarekin ikusi baitu Egaña, konfesatzera datorrela esanez hor hurbildu zaio Sustrai:

Sustrai Ene apaiza, zugana nator,  
baina etzaitetz harritu,  
atzo gauean maitemindu naiz  
eta hargatik larritu.  
Txunditu nauen bezala enau  
beste inorek txunditu.  
Ordea, neskak senar bat eta  
bi seme-alaba ditu.

Egaña Esatera ere ausartu zaigu,  
ene Jesus, baldinbaite!  
Gaur eguneko gazte jendeak  
horrenbeste disparate.  
Nik aholku bat emango dizut,  
aizazu, eliztar maite:  
Andre ezkondu horrengandikan  
urruti ibili zaite.

- Sustrai Ordea, nere bizilegea  
beti izan da carpe diem<sup>9</sup>,  
eta neskaren bi begi beltxei  
zorion printza zerien.  
Apaiz batena omen zen bera,  
hala esan zidan nabarmen;  
baina oraindik eztaukat garbi  
alaba edo iloba den.
- Egaña Hauxe da tipo inoxentea,  
hauxe da tipo txepela!  
Igual gehiegi luzatua du  
konfiantzaren kordela.  
Umil ta xuri urreratu da  
apaizangana bezela,  
baina azkenean konturatu da  
aitangana zetorrela.
- Sustrai Egia esan bizitzak eman  
ditzake ezuste batzuk.  
Eliz atari hontan sartu naiz  
nora ez betean arrunt,  
ta zorionan giltza nun zegon  
garbi esan didazu zuk.  
Penitentzirik eztut eraman  
eta aita atxeman dut.
- Egaña Hara, zein umil sartu zaigun hau  
Urepeleko elizan.  
Era hontako egun politik  
asko enuen bizitzan.  
Lenengo aldiz hasi behar dut  
oraintxe gurasogintzan.  
Nik alkandora beltza dut baina  
apaiz enaiz inoiz izan.

---

<sup>9</sup> Baliatu eguna

1960an, Nafarroako Bertsolarien Txapelketan erabili eta handik urte askora Zestean bertsolariei berririo jarritako gaia da oraingoa: Urteak etorri eta urteak joan, euskaldunok geren artean konpondu ezinik bizi gera beti.

Gaur zuei ere, Sustrai eta Andoni, gai berdina damaizuet. Zer deritzozute?

Sustrai Bildu gintezke euskaran bueltan  
Bianan edo Senperen.  
Xalbadorrek'e bildu gaitzake  
gaur bezela Urepelen,  
motibo eta arrazoi asko  
ikusten baitira hemen.  
Populuari zer esan behar  
galdetu duzu nabarmen,  
bainan lehenik jakin behar da  
populu bakar bat garen,  
populu bakar bat garen.

Egaña Populu hitza modan egon zen  
baina herriak apustua  
irabazi zun izanagatik  
gogorra eta estua.  
Zer ote degu bertsolarien  
elkartzegune prestua?  
Bizimodu bat apal, xumea,  
ahoz ahoko freskua.  
Bizimodu bat umil umila  
lapitz ta paperezkua,  
lapitz ta paperezkua.

Sustrai Andoni, igual izan zindezke  
arkitekto bat galanta,  
ta bi bertsotan ein zenezake  
etxe, herri honen planta.  
Dena eztela horren errex  
jakin behar zenuke alta.  
Eztira aski atrebentzia  
ta bi umiltasun tanta.  
Paper ta lapitz asko daukagu,  
idazteko mahaia falta,  
idazteko mahaia falta.

Egaña Gakoarekin bapo jo dezu,  
Colina, bejondeizula!  
Herri honetan zer gertatzen den  
ez al liteke kalkula?  
Kanpokaldetik beti egurra,  
barrukaldetikan burla.  
Halare guk geuk izan ezker  
proiektu argi mardula,  
seguru nago lapitz ta paper  
a mahai izango degula,  
ta mahai izango degula.

Sustrai Igual, Andoni, izango zara  
azti ta ezti ilustr  
baina kontua horrela denik  
nik gaur egun ez dut uste.  
Inperioek kate motzean  
estu hartzen baigaituzte,  
ta martxa hontan horrela joan  
litezke berrogei urte,  
proiektu on bat duen jendea  
kartzelan sartzen badute,  
kartzelan sartzen badute.

Egaña    Sustraik esana egibidea  
izan liteke zeharo.  
Zubirik ezak behartu gaitu,  
ibairik ezin igaro.  
Martxa honetan etorkizunik  
ezin liteke itxaro.  
Paper ta lapitz, edota mahaiak  
behin betirako akabo.  
Denon artean ez baldin bada  
proiekturikan eztago,  
proiekturikan eztago.

Egaña eta Colinak egindako azkenengo agurra:

Egaña    Pozik bilduak Urepelera,  
iluntzerako bueltan etxera.  
Eskerrik asko, entzule fina,  
beti bezelaxe atsegina.  
Ta orain larri,  
gure agurra bikote horri<sup>10</sup>.  
Ondo joan eta  
laster etorri.

Sustrai    Ezaguna eguna,  
ordua, lekua.  
Euskal Herri erdia  
bertan elkartua.  
Diasporaren zati bat  
da bertaratua,  
bazen zer jan, zer edan  
ta zer kantatua.  
Ez al da hori gure  
herri-proiektua?

---

<sup>10</sup> Ameriketatik etorritako bertsolariei

## ■ Bertsopaper lehiaketa

Esan bezala, diaspora izan zen 2007ko Xalbadorren eguneko lema; eta bertsopaper lehiaketa ere antolatu zuen Deiadarrak, bi mailatan banatuta: Helduentzat eta gaztetxoentzat, honako baldintza hauen arabera:

### **Haurrentzat bertso lehiaketa**

2007ko Xalbadorren Eguna dela-eta, bertso idatzi lehiaketa antolatu du Deiadarra taldeak, nahi duten haur guztientzat, honako baldintza hauen arabera:

Partehartzaileak, 16 urte arteko nahi duten neska mutil guztiak.

Bakoitzaren lana:

Gutxienez ere lau bertso, eta gehienez zortzi idatzi beharko dituzte.

Gaia: bakoitzak nahi duen gaiaz idatz dezake, beti ere Xalbador gogoan.

Bertso berriak bakarrik onartuko dira lehiaketa honetan.

Sari berezi bat izanen da baxenafarreraz egindako bertso sailik onenarentzat.

Partehartzaile bakoitzak bertso sorta bakarra igorri dezake.

Lanak igortzeko epea eta baldintzak:

Lanak igortzeko azkenengo eguna, 2007ko irailaren 28<sup>a</sup> izanen da.

Bertso sorta ezizenez sinatu beharko da, beste sobre itxi batean egilearen izen-deiturak eta helbidea igorritz, kanpotik ezizena bakarrik ezarrita.

Lanaren hiru kopia igorri beharko dira.

Lanak nora igorri:

Deiadarra elkarte

Mendi Xola etxea

Okoze auzoa

64430 – Baigorri – Naxenafarroa



Sariak

Lehenengoarentzat, 100€ eta opariak  
Bigarrenarentzat, 80€ eta opariak  
Hirugarrentzat opari berezia.

Sarien ematea:

2007ko Xalbadorren egunez egingen da sari banaketa.

Epaiketa:

Epaimahaiaren erabakiak aldaezinak izanen dira, bere hartan onartuz.

Epaimahaiak hala erabaki ezkeru, aipamen berezia egin ahal izango du, edo sariak banatu gabe utzi, mailarik ikusiko ez balu.

Urepelen, 2007ko apirilean

### **Helduentzat bertso lehiaketa**

2007ko Xalbadorren eguna dela-eta, bertso idatzien lehiaketa antolatu du Deiadarra elkarteak, nahi duten bertso jartzaile guztientzat, honako baldintza hauen arabera:

Partehartzaileak: 16 urtetik gorako nahi duen edonor izan daiteke.

Bertso jartzaile bakoitzaren zeregina: Gutxienez ere sei bertso, eta gehienez zortzi idatzi beharko dira.

Gaia: Euskaldunak munduan.

Bertso berriak bakarrik onartuko dira lehiaketa huntan.

Sari berezi bat izanen da baxenafarreraz egindako bertso sailik onenarentzat.

Partehartzaile bakoitzak bertso sorta bakarra igorri dezake.

Lanak igortzeko epe eta baldintzak:

Lanak igortzeko azkenengo eguna, 2007ko irailaren 28<sup>a</sup> izanen da.

Bertso sorta ezizenez sinatu beharko da, beste sobre itxi batean egilearen izen-deiturak eta helbidea sartuz, kanpotik ezizena bakarrik jarrita.

Lanaren hiru kopia igorri beharko dira.

Lanak nora igorri:

Deiadarra elkarte

Mendi Xola etxea

Okoze auzoa

64430 – Baigorri – Naxenafarroa

Sariak

Lehenengoarentzat, 300€

Bigarrenarentzat, 150€

Hirugarrentzat opari berezia.

Sari ematea. 2007ko Xalbadorren egunean egingen da sari banaketa.

Epaiketa

Epaimahaiaren erabakiak aldaezinak izanen dira, bere hartan onartuz.

Epaimahaiak hala erabaki ezker, aipamen berezia egin ahal izango du, edo sariak banatu gabe utzi, idazlanetan behar adinako mailarik ikusiko ez balu.

Urepelen, 2007ko apirilean

## ■ Helduen mailan sarituak

### **Euskaldunak munduan**

Egilea, Irungo Aitor Errazkin Bizente *Zapaburu*  
Doinua: Hamalau heriotzena

Milaka urte dira, ehunka dozena,  
euskaldunik mundu zahar honetan badena.  
Ez hainbeste ordea ausartu ginena  
lehenik asmoz eta itsasoz hurrena,  
gure mundua utziz munduan barrena.

Ternua urrunean zer atarramendu,  
balea erraldoiei arpoiak zuzendu.  
Antzina itsasoak gintuen mantendu,  
ta gaur egun gezurra dela ematen du,  
ezin diogulako deus gehiago kendu.

Kolonizatzaileen botere gerizan,  
beste mundu batean egin ohi zen ehizan:  
oinak lur arrotzean, burua elizan.  
Jakin genuen ere ankerrenen gisan  
indigenekin nola basatiak izan.

Gerraren arra sartu zen gero herrira;  
jende asko bidali zuen deserrira.  
Hala ere, gehiengo handi baten jira  
izan zen itzulbide gabeko tokira:  
gaur irauli nahi ez den lurraren azpira.

Laguntza behar izan dugun urteetan  
aurkitu izan dugu toki urrunetan:  
Europako herritan, zein Ameriketean.  
Itzuliko al dugu mesedea bueltan,  
mundua ate joka daukagun honetan?

Euskaldunok munduan zehar bat eginez,  
euskal diaspora bat osatu da zinez;  
hala ere ez soilik kanporako grinez  
baizik herriminari gain hartu ezinez,  
baita ere autatu ezinaren minez.

Euskal Herrirantz soak badatoz kanpotik.  
Euskal Etxeetatik, ziegako leihotik...  
Zain herriko herra noiz ebaki errotik;  
baina orroak datoz orroen ondotik,  
ta pakerik ez zaigu irteten ahotik.

Euskal Herritik ez dut sarri egin alde,  
baina munduan toki ederrak badaude.  
Ta nongotarra naizen egitean galde,  
nik harro egingo dut naizenaren alde,  
baina nondik natorren ezkutatu gabe.

## **Euskaldunak munduan**

Egilea: Nikolas Zendoia, Zarautz  
Doinua: Lagundurikan danoi

Karta bat uxatu zan  
Baxenafarretik,  
euskaraz idatzia  
artzaien lurretik,  
euskal iparrorratza  
zuela aurretik,  
itzulmen-elbidea  
Urepel beretik...  
Erantzun zezatela  
mundu zabaletik.

Australiatik dator  
leen erantzuna:  
Melbourne aldean dan  
talde ezaguna,  
eraikuntza-lanetan  
beteaz eguna,  
ta basa-mutillekin  
maiz bertso-jarduna.  
An ere badutela  
mundu euskalduna.

Erresuma Batutik  
ere albisteak  
badatozkigu eta  
ez dira tristeak.  
Euskal ostatuetan  
dabiltzan gazteak  
Baxenafar aldeko  
karta iristeak  
zenbat poztu dituen  
lan du sinisteak.

Norabideetako  
bat Ameriketa,  
Txile aldetik ere  
badatoz bi letra.  
Aspaldi joandako  
Tomas eta Petra,  
Iriondotarrak'e  
bertan dira eta.  
Euskaldunen munduan  
euskal berriketa.

Ta Argentinan berriz  
bertako panpetan,  
zenbat euskaldun diran  
ainbeste urtetan,  
Pedro Mari Otaño  
dagoen lurretan,  
bai Santa Rosan eta  
Buenos Aires bertan.  
Emengo abizenak  
leku geienetan.

Macachinen daukaten  
Euskal Etxe artan,  
irakurriko zuten  
zer zioen kartan.  
Urtemugaren berri  
zijoanez bertan,  
badakit, bai, zer amets  
egin duten bart an:  
gu bezela daudela  
Xalbadorren faltan.

Ara berriz Txinatik  
neskatxa Ainarak:  
eraman dietela  
mezua enarak.  
“Hemen ere lekua  
badauka euskarak.  
Sentitzen ditut zuen  
bihotzen taupadak.  
Zoriontzen zaituztet,  
baxenafartarrak”.

Mezua uxatua  
zanez urrutira,  
erantzunak lurralde  
askotatik dira.  
Ai, goi-airetik ere  
iritsi balira!  
Karta gaixoa ezin  
joan illargira.  
Galdera bakarra da:  
Xalbador nun zira?

Baxenafarreraz idatzitako bertso paperik onenaren saria  
Jean-Louis Lakak jaso zuen ondorengo bertso hauekin:

### **Euskaldunak munduan**

Egilea: Laka *Mendia*

Doinua: Mutil kokkor bat itsu aurreko

Euskalduna da bere herritik atera izan betitik.  
Haurride oro ezin gelditu bizitzeko baserritik.  
Ogibidea atxemaitera Baztan edo Baigorritik.  
Amariketara bazoatzila zoinek ez daki engoitik?  
Han fama ona zuten, artzaintzan ongi aritzea gatik.

Ameriketan egon ondoren batzu dira herriratu.  
Han irabazi diruarekin etxalde ainitz altxatu.  
Bertze zonbaitzu laketu eta han bertan familiatu.  
Urrunduaren herri minetan behar da entelegatu.  
Hangoen artean euskal ohiturak zer gisaz diren hedatu.

Nahiz itsasoz euskaldun ainitz ez den urrun ibilia,  
arrantzaleek maiz egin dute munduaren itzulia,  
leihorrekoek jasta ginezan itsasoko igalia.  
Soberan arrain biltzeko modu bat da gaur erabilia.  
Arrantzaleek dirauten arte janari onaz balia!

Eskolatzeko, konbertitzeko Afrikar bizi lagunak,  
ehunka joan dira herritik misionest euskaldunak.  
Asia ere lagundua du Frantses-en saildutasunak,  
eta India zerbitzatu du Armand David ezagunak.  
Gaur ere deitzen ditu munduak gutarteko jakintsunak.

Azken mendetan joan baitziran kanpora euskaldun aski,  
heiek ibili ziren lekutan aztarnak han daude naski.  
Batzu xumeki bizi baziren, bakar zonbait aberaski.  
Han kokatuak aldebat hunat egun ez datoz errexki.  
Doi bat herri-min ukanik ere ez baitira sendi gaizki.



Jende langile, leial, segurtzat euskalduna hartua da,  
ukana baitu gaitasun hoién erakusteko parada.  
Abertzaletaz entzun dítaike berdín zónbait eztabada;  
bainan kantari ta pilotari agertzen bada plazara,  
atzeritarrak gogotik joko díó txalo zaparrada.

Industria ez dute arrotza Bizkaiak ta Gipuzkoak.  
Koperatiba ezagutuak díra Arrasatekoak.  
Hendaian egin mubleak saltzen dítu Europan SOKOA-k.  
Euskal Herriko ekoizpen frango díra ospe handikoak.  
Lana aurkitzen du herritarrak edo berdín kanpokoak.

Euskal Herrian izanik ere beti ainitz behar ordu.  
Jende batzuei laket zaiote kurritzea munduz mundu.  
Damu da bainan askotxo díra Euskal Herritik urrundu.  
Huna deiadar hau heiendako: Diruz bederen lagundu,  
gure herri au kanpotiarrer ez dadín zatika saldu.

Gaztetxoen mailako saria, gai librean, Irungo Irazustabarrena Garmendiak jaso zuen, honako bertso hauekin.

### **Bertsoak**

Egilea: Irazustabarrena Garmendia  
Doinua: Uso zuri bat inguratu zait

Zeozer jaso duenak nola  
duen beti zeozer zor,  
oroitzapenen gerora joan  
ta gure zai zaudena hor,  
umiltasunez zureganaino  
esateko asmoz nator,  
zure ametsak egji bihurtu  
ote ditugun, Xalbador.

Euskara zure kezka iturri  
horretaz zenuen kanta,  
eta bidea egiten ari  
gera hemen tipi-tapa.  
Nahiz eta oso gogorra egiten  
den igotzea aldapa,  
gorputza dago osasuntsua  
eta bihotza taupaka.

Zure etxea zinez gustoko,  
zenuen horren maitea,  
oroitzapenez josia dagon  
zorianaren atea.  
Bere altzoan iragan zenun  
sortzetikan hil artea.  
Gazteak ere maiteko luke  
edukiz gero berea.



M. Lujanbio eta X. Lizaso Urepelen



Loidisaletxe II, U. Alberdi eta X Lizaso

Mendian galdu ziraden hiru  
afrikar haien harira  
heriotzaren zitara etorri  
Ezpeletako mendira.  
Oraindik ere han bizi dira  
Europa aldera begira,  
eta mendira iritsi gabe  
bidean itotzen dira.

Zure gogoan zuri ta beltzak  
lagun moduan geundeke,  
baina diruak ta botereak  
beste zerbait esan dute.  
Horrexegatik zure ametsa  
oraingoz ezin da bete,  
ametsak egi bihurtzea nola  
ez dagoen oso merke.

Nahiz ta askotan ibili naizen  
nola esan jakin ezinik,  
bertso honekin amaitu eta  
ixildu beharko det nik.  
Urepeleko artzaina, jaso  
besarkada bat hemendik.  
Agur, Xalbador, beste bat arte.  
Maite zaitugu oraindik.

## ■ Xalbadorren eguna 2007. Kronika

Euskaltzaindiko Web orrian

Urriaren 13an hasi eta 14an amaitu, Xalbadorren eguna 2007 haundikiro ospatu dute Urepelen aurten ere. Eguraldiak bikain lagundu du: zerua oskarbi, eta hegohaizea firi-firi igande eguerdian. Larunbat arratsean eta igande goizean, ihintza eta hotza.

Larunbata, urriak 13: Urepeleko kontu/kantu zaharrak

Larunbat gauean, lagun arteko afaria egin zen, Urepeleko kontu zaharrak entzun eta jasotzeko asmoz. Hala ere, zenbait arazo izan zen bilkura honetan. Batetik, jate txean nahiko tokirik ez, eskatu bezala aurrez izena eman gabeko jende asko bildu zelako. Afaria berandu hasi zen, eta zerbitzen nagi eta motel ibili ziren jetetxeoak.

Bestetik, Urepeleko kontu zaharrak kontatzeko garaian, Ugutz Robles-Arangizen ipuinak bakarrik entzun ahal izan ziren, Urepelekoak ez baitziren ausartu beren kontu zaharrak esaten. Hurrengo baterako beste moduz egin beharko da antolaketa. Esate baterako, kontalariak denak mahai batean eseriarazi, eta alde zurretik kontalariekin gidoi zehatz bat egin eta bakoitzari aurrez bere zeregina izendatu eta mugatuz.

Urriak 14, igandea

Aurreko urtean baino jende gutxi xixago aurten, agian. 10:30etan meza izan zen herriko elizan, bertako apaiza meza-emaile zela. Nahiko trakets, baina, Xalbador aipatu zuen, eta hor nonbait.

Meza ostean, Xalbadorren hilobia bisitatu genuen mezetan bildu ginenok, Aranalderen koinata Lourdesek lore sorta bat eskainiz Ferranddori. Azkenean, Agur jaunak kantatu genuen denok.

Ordu berean (10:30etan), “ibilaldi txikia” hasi zuten zenbaitzuek Xalbadorrenea ingurua bisitatuz

11:30etan, herriko eskolan, “Diaspora eta Xalbador” gaiari buruz egin zen mahaingurua, ondo. Xabier Euzkitze ian zen moderatzaile, eta Joxe Mallea (Renoko Euskal Bibliotekako arduraduna, antropologoa), Benoit Etcheverry (Eusko Sare), Jesus Goñi (Reno-Nevadako bertsularia), Joseba Etxarri (Diasporari buruz aditua), eta Migel Berekoetxea (nafartarra, Rino-Californian urteetan bizi izana) hizlari. Aretoa jendez gainezka.

13:00etan, AUSPOA liburuen aurkezpena egin zen plazan. Xalbador eta Mattin, Jean Arrosagaray, Xanpun eta Jean Pierre Mendibururen liburuak aurkeztu ziren. Eta Ernest Alkatena inprimategian gelditu zela esan. Nolanahi ere, Xalbadorren eguna, Xalbadorri eta haren inguru osoari eskaini nahi izaten dio Deiadarra elkarteak, esan zutenez.

Ondoren, Baigorriko Arrola dantzarien saio ederra. Dantzariak, bikain; eta ikusleek ere halaxe uste izan zuten, txalo gogotik jo baitzieten.

13:45eta, lagun arteko bazkaria herriko pilotalekuan. Giro ona, eta bazkaria ere ondo. Aurreko urtean baino jende gutxiago, baina gutxi eta onak hobe dira, noski, asko eta txarrak baino.

Bazkari garaian Baigorriko Asteazkenekoak bostekoak, Xendarineko ahizpek eta Aire ahizpek (Mixel Xalbadorren alabak) kantatu zuten. Bai ederki kantatu ere! Xendarinekoak eta Airetarrak gehiago erabili behar lirake egun honetan, beharbada.

15:40an bertsolarien saioa pilotalekuan bertan, jendeak kafea hartzen zuen bitartean. Andoni Egaña, Sustrai Colina, Jesus Goñi eta Manuel Basabe (bi azkenengo hauek Iparra-merikan bizi direnak). Alde handi samarra dago, nolanahi ere, lehenengo bien eta amerikarren artean. Hala ere, bertso

saioa ongi bete zutela esan daiteke. Bertsozaleek erruz gozatu zuten.

Azkenik, 17:00etan, Xalbadorren omenez egin zen bertso-paper sariketako kontu eman zen, eta irabazleen izenak jakinarazi jendeari, helduen mailan lehenik eta gaztetxoek mailan ondoren.

Emile Larre, Pello Esnal eta Joxemari Iriondo izan ziren epaimahaiko lehiaketa honetan. Erabakia:

Helduen mailan:

1. Euskaldunak munduan zehar. Doinua: hamalau heriotzena. Egilea: Irungo Aitor Errazkin Bizente (Zapaburu).
2. Euskaldunak munduan: Karta bat. Doinua: Lagundurikan denoi. Egilea: Nikolas Zendoia, Zarautz
3. Baxenafarroako euskalkian, onena, Euskaldunak munduan. Egilea: Jean-Louis Laka (Mendia).

Gaztetxoek mailan:

1. Zeozer jaso duenak. Doinua: Uso zuri bat inguratu zait. Egilea: Irungo Irazustabarrena Garmendia (NI).

Baxenafarreraz ez zen saririk izan gaztetxoek mailan, jaso ziren bertso denak euskara batuan eginda heldu baitziren.

17:15etan, azkenik, erronomia hasi zen lehenengo pilotalekuan eta gero herriko plazan, Gasteizko Zabaleta anaiak trikitilari zirela. Batzuek dantzan eta besteak kontu kontari, horrelaxe amaitu zen aurtengo "Xalbador eta diáspora" festa ederra.

Orohar, igandekoa oso ondo bete zen inpresioa daukagu, halako igandekak halakoxe erantzuna merezi zuen-eta. Larunbatekoa ondo betetzen saiatu beharko du Deiadarrak ondorengo urteetan, nahiz eta igandeko festa den garrantzitsua, ez bairik gabe.

Bezperako bilera/afaria talde txikiagoan egitea komeniga-

rri litzateke, agian, Urepeleko kontu zaharrak ondo jasotzea garrantzitsua baita. Eta Xalbadorren babesean egiten bada, harik eta hobe.



# Xalbadoren eguna 2008

## Xalbador eta lehengo Urepele

---

Urte hontako Xalbadorren eguna urriaren 25 eta 26rako antolatatu zen, "Xalbador eta lehengo Urepele" gogoratuz. Xalbador eta euskararen maitale direnei, eta bertso/kantuzale guztiei dei egin zitzaien egun horietan Urepelera bildu eta elkarrekin goza zenezaten.

### ■ Xalbador eta lehengo Urepele

Xalbadorrek hain maite zituen gaietan oinarrituta egin ohi da Xalbadorren Eguna urteoroz. Aurtengoa, "Xalbador eta garai bateko Urepele" gaiaren ingurumarian egin zen, lehengo kontu zaharrak berritu, Urepele inguruak eta haren artzain etxola bixitatu, eta Urepeleko argazki zahar ederrak erakutsiz nahi zuten guztiei.

Bertsoz eta euskaraz goitik behera jantzitako eguna gozatzeko aukera izan zuten Xalbador maite izan dutenek, hark maitasunez goraldtu zuen bere sorterria gogoan:

Zure eremuetan dute ezarria  
gaurko bi Naparroen arteko harria.  
Etzare paperetan hanbat ekarria,  
bainan aitortu nahi balute egia,  
kondaira zaharretan zoin aipagarria  
Roland hiltzen hauteman zinuen herria!

Beha zure mendi ta oihan ederreri:  
zure ur garbietan arrainak igeri.  
Entzun xoriak kantuz goiz ala astiri,  
erakutsi beharrez kantatzen bertzeri.  
Ez dela harritzeko errex da ageri,  
pertsutako gogo sortzen bazaut neri.

(Urepele, Xalbador - Auspoa, 93 or)

## ■ Egitasmoa

Urriak 25, larunbata:

–Ilunabarrean, Peio eta Pantxoaren kantaldia herriko pilotalekuan.

Iparraldeko kantu zaharrak eta Xalbadorren bertsoak nahastu eta kantatu zituzten Peiok eta Pantxoak bi ordu inguru iraun zuen jaialdian.

Urriak 26, igandea:

–Goizean goiz Xalbadorren etxolara ibilaldia eginez hasi zen eguna, ohitura denez urteroko festa honetan.

–10:30etan: Meza, Xalbador eta hildako lagunak gogoan.

Ondoren, Xalbadorren hilobira bisitaldia, eta lore eskaintza.

Eguerdian, herri hirolak, plazan: Mutriku eta Bankako taldeak nor baino nor, indarra eta maitasuna bihotzetan.

13:30etan: Lagun arteko bazkaria.

Bazkari garaian, Erramun Martikorena eta Xendarineko ahizpak kantari. Eta bazkalondoan, bertsolariak: Andoni Egaña, Txomin Ezponda, Uxue Alberdi eta Jon Enbeita. Gaie-maila, Joxemari Iriondo.

Aldi berean, Haurren txokoa antolatu zen neskato eta mutikoentzat.

Eguna amaitzeko, trikitixarekin erromeria, festa luzatu nahi zutenentzat, hurrengo urtera arte agur esan aurrez.

Deiadarra elkarteko lagunek atsegin haundiz hartu zuten jendea berriz ere Xalbador haundiarekin denok batera kanta genezan ozenki:

Gazte maitea, zutaz nago gogoetan;  
otoi, entzun nezazu guzien onetan.  
Norbait baldin bazaude gaurko denboretan,  
orroit Urepeleri zarela zorretan.  
Euskaldun ager zaite ele ta obretan  
gure sort herri maite hunen ohoretan.

Bai, euskaldunak izan obra eta ele,  
herriko aferetan ez izan logale.  
Izan zaite arbola fruitu ekarle,  
herria beti bizi denaren seinale,  
gero're izan dadin hitz hauen erraile:  
Gora urepeldarrak! Gora Urepele!

*Urepele - Odolaren mintzoa*

## ■ Bazkalondoko bertso batzuk

Urepelen pilotalekuko bazkalondoetan giro berezia izan ohi da urtero Xalbadorren egunean, eta holaxe izan zen urte honetan ere.

Erramun Martikorenak, Xendarineko ahizpek eta Jean-Louis Lakak Xalbadorren bertso asko gogoratu izan dute, eta aurten ere holaxe egin zuten jendea bazkaltzen ari zen bi-tartean. Gero, lauretan hasita, bertso saioa, egitarauak agintzen zuenez: Txomin Ezponda, Jon Enbeita, Uxue Alberdi eta Andoni Egaña. Aurkezpena egin eta gaiak eman, Joxe Mari Iriondok.

Bertso saioaren zati bat eskaini nahita, ondoren datozen hauek jaso ditugu 2008ko jaialdiaren kronika osabetetzeko.

Ezponda Agurtu nahi dut Urepele ta  
agur entzule maitea.  
Gogoain alde egin dut egun  
herri huntarat jitea.  
Pena zitaken holako egun  
eder bat hutsegitea.  
Nere plazerra izan liteke  
zuer plazer egitea  
nere plazerra izan liteke  
zuer plazer egitea.

Enbeita Xalbador eta Mattin atzean,  
biek buruan txapela.  
Ni ziur nago ispirituan  
gure artean direla.  
Heurak gogoan etorri gera  
haurrak etxera bezela.  
Eskertzen dugu, ene Urepel,  
eman diguzun epela,  
eskertzen dugu, ene Urepel,  
eman diguzun epela.

Egaña Agur, Xalbador, eta agur, Mattin;  
ez daukagu giro txarra.  
Gaur Urepelen suma daiteke  
euskal senaren azkarra.  
Beste jende bat hurbildu zaigu  
etxeko ta kanpotarra.  
Ketxua, Aimara ta gainerako  
daukat agurtu beharra.  
Zenbat kultura, zenbat hizkuntza:  
sentimentu bat bakarra,  
sentimentu bat bakarra.

Uxue Arratsaldeon guzti guztioi,  
bildu da jende anitza.  
Xalbador dugu motibo eta  
ezta motibo murrizta.  
Memoriaren hari muturrei  
tiratuaz bagabiltza,  
oroitzapenak luzatuko du  
joan zirenen bizitza.

Jakina denez, “Xalbador eta orain ehun urteko Urepele”  
urte honetako gaia. Txomin Ezponda eta Jon Enbeita:

Ezponda Duela mendeko istorioa  
azaldu behar gogora.  
Geroztik hunat pasatu zauku  
izugarritzko denbora.  
Kanbiamena asko izan da  
ordukotikan gaurkora,  
baina gaur ere naski ez gera  
uste degun bezain gora.

Enbeita Hegoaldetik nola azaldu  
iparraldeko bizitza?  
Eta “Urepel orain ehun urte”  
nahiko lanbidetzat gaitza.  
Xalbador oindik sortu gabea,  
odolik ote zen mintza?  
Argi dagona, beraiei eskerrak  
gaur giro huntan gabiltza.

Ezponda Orduan nola bizi zen hemen  
ez da errexasmatzen,  
baina ondoko urte batzuek  
ondo ditut ezagutzen.  
Gaur gauden baino askoz ere, ba,  
jendea hurbilago zen.  
Elgar maitatzen bazakiten ta  
baitare ondo laguntzen.

Enbeita Begiak itxi eta hasi naiz  
amesten garai haietan.  
Gaur hainbesteko aukerarik ez,  
baina poza biotzetan.  
Gaztainak eta taloak janez,  
artzaiak mendi-maldetan;  
eta euskara ederra dantzan  
etxe eta karriketetan.

Ezponda Duela mende bat epe hoi ezta  
guretzat ere laburra,  
ta Urepele dugu Xalbador  
sortu izan duen lurra.  
Dagon lekurat igor dezagun  
guk bihotzeko agurra;  
ta beste Xalbador sor dezakenik  
hori ez dugu segurra.

Enbeita Orain ehun urte errana daukat  
euskara zela nagusi.  
Oraindik ere artzaintza eta  
euskara da hemen bizi.  
Giro honetan beste Xalbador  
bizitzen daiteke hasi.  
Hemendik beste ehun bat urtera  
hala nahi zaitut ikusi.

Andoni Egaña eta Uxue Alberdi: Beste ehun urte barru nola izango dela uste duzue Urepele?

Egaña Urepele zer izan liteken hemendik urte askora?  
Igual mugarik ezta izango hemendik Elizondora.  
Akaso tren bat Larrunen gisa mendi hegaletan gora...  
Baina apaiza, seguru nago, oraingoa izango da,  
baina apaiza, seguru nago, oraingoa izango da.

Uxue Etorkizunaz hizketan hasiz maiz jartzen gera penetan, baina pozteko arrazoi franko izan liteke benetan.  
Jada begia jarrita daukat bertsolari txapelketan, ta emakumeak egon litezke omenduen paretetan,  
ta emakumeak egon litezke omenduen paretetan.

Egaña Urepele zer ehun urte barru? Irudimena mugitu.  
Baietz orduan herri sarreran pizzeria bat aurkitu, eta elizan gibel aldean hiru-lau Mcdonalds bitu.  
Ta Xalbadorrek berpiztu eta bertsoak jarriko ditu, ta Xalbadorrek berpiztu eta bertsoak jarriko ditu.

Uxue Nahiago nuke, nahiago nuke  
hala egingo baluke.  
Zerutik jaitsi ta txarrak jarri  
behar ditunik ez uste.  
Hemen jendeak gure aldean  
badu hamaika bertute.  
Ehun urte barru ere guk baino  
hobeto abestuko dute,  
ehun urte barru ere guk baino  
hobeto abestuko dute.

Egaña Ai, Urepele herri polita,  
horren berde, orren txiki...  
Beste ehun urtez orain daukazun  
neurri ber-bera atxiki.  
Adi ibili, zuen herri hau  
zuzen zazute egoki.  
Bihur liteke Paris aldeko  
aberatsen udatoki,  
bihur liteke Paris aldeko  
aberatsen udatoki.

Uxue Ez litzateke hain arraroa  
ikusiz duen disdira,  
baina berriro ere jarri naiz  
ehun urtera begira.  
Garai horretan egun honetan  
berriro biltzen badira,  
gero Zarautza joango dira  
Egañan omenaldira,  
gero Zarautza joango dira  
Egañan omenaldira.



Bertsolariei gaiak emateko moda sortu zen ezkerro, edo-zer gai eman izan zaie, fikziorik xelebreenak eginez sarritan. Ondorio baikorretan pentsatuz ematen dira, ordea, holakoak. Eta holako zerbait egin zen 2008ko Xalbadorren egun arratsalde hortan ere:

Andoni eta Uxueren txanda. Gaur goizean, bazentozten biok autoan hor Baigorri aldean onuntz patxaran, eta halako batean Andonik: –Aizan Uxue, gelditu adi hementxe baxter batean, gauza bat esan behar dinat-eta. Beste inork ez zekin oraindik, baina zera esan nahi dinat... Alegia, zera... “armairutik” irtetzea erabaki dedala, munduan denetarik zagon-eta... Xebastian neuk esango zionat, baina gainerakoei esaien... Uxue, ezusteko haundia izan al da zuretzat Andoniren erabakia?

Uxue Bazuen nahiko zalantza honek  
niri zerbait esateko.  
Duda ta muda hor ibili da  
beldur haundi bat tarteko.  
Azkenerako esan dit eta  
horrela askoz hobeto.  
Txikiegia da armairua  
norbait bertan kabitzekeo.

Andoni Orain arteko egoera zen  
erosoa ta zabala,  
familiar eta lagunei  
esan bear nola-hala.  
Pentsa, Uxue, bertsolaritzan  
ere mugarria dala,  
historiako lendabiziko  
txapeldun homosexuala.

- Uxue Egon, agian, egongo ziren,  
baina hartaino ez, apika;  
etorkizuna aldatu behar  
genuke, baina zatika.  
Erabakia erabaki da,  
nago ondo iritzita.  
Mundua bihur liteke armairu  
gezur batean bizita.
- Andoni Ain xuxen ere gaurko bidaiari  
zu zauzkat aldamenean,  
ta armairutik ateratzera  
ausartu naiz azkenean.  
Erabakian berri eman zuk  
sektorerik gaztenean.  
Xebastian neuk esango diot  
atrebitzen naizenean.
- Uxue Akabo beraz gezur guztiak,  
akabo autokontrola.  
Askatu zazu zeure burua,  
askatu zazu odola.  
Eta nahiz eta zuk hala uste  
bakarra etzera inola.  
Esan didate Xebastian ere  
irtetekotan dagola.
- Andoni Jesus, Maria eta Jose, ai!  
Ia egin det aitaren...  
Azkenerako sekretu denak  
bistatu zaizkigu hemen.  
Xebastian ere armairutikan  
urteteko asmoz omen.  
Orain badakit azken urtetan  
zergatikan argaldu den.

Uxue Egaña, zuk zeuk esan zenuen:  
Patua beti da patu.  
Orain garaia iritsi da ta  
etzazu disimulatu.  
Hainbeste urte kotxe berean,  
badezue nahiko tratatu.  
Etzazu esan orain artean  
etzeratela liatu.

Egaña Bertsota joan ta lotan geratu  
ez degu egiña usu.  
Nik bertsoatik eztut lapurtu  
ez laztan eta ez muxu.  
Homosexuala deklaratzan naiz,  
baina ez oraintxe, aizu.  
Aparkaleku txiki bat da hor,  
azken aukera hau dezu.

Ondo bizitzea omen da zerua. Uste al duzu erraza dela  
ondo bizitzea gaur egunean, Ezponda?

Ez gaude ondo, ez, Iriondo,  
erraten duten bezala.  
Iduri luke egun batzue  
gu trabeska gabiltzala.  
Baina halare itxaropena  
guk hain daukagu zabala,  
ta uste dugu beti besteak  
hobekiago daudela.

Lur maite huntan ikusten dugu  
bada tonto eta abil;  
gure tartean berean naski  
orotarikan badabil  
Beti urruti bilatzen dugu  
askotan dagona hurbil.  
Ongi bizi nahi balin bada  
ez da gazterik behar hil.

Zahartzen eta aztoratzen ari omen haiz, Enbeita. Garai ba-  
tean kantatzeari utzi eta bertsoan hasi hintzan. Orain, berriz,  
bertsoa utzi eta kantatzen hasi omen haiz.

Umetan hasi nintzan bertsoan,  
gaztetan hartu kitarra;  
gero kantua ala bertsoa  
nuen hautatu beharra.  
Armarioan gordeta izan dut  
urtetan ahaztu samarra;  
berriro notak astintzen hasi  
eta berbiztu zait arra,  
sekula santan ez baita itzaltzen  
gustoko grinaren garra,  
gustuko grinaren garra.

Bihotzez gazte baina adinak  
jotzen digu eraso.  
Une babakoitza gozatzea da  
eman nahi nuken pauso.  
Orain bertsoa utziko dudan  
galdera daukat jaso.  
Arnasa bezain beharrezko dut  
bertsoen laztan gozoa.  
Saiatuko naiz biak buztartzen,  
kantua eta bertsoa,  
kantua eta bertsoa.

# Xalbadoren eguna 2009

## Xalbador eta Antonio Zavala

---

Urte honetako festa Xalbador eta Antonio Zavala zenaren omenez antolatu nahi izan zuen Deiadarrak, urtearen hasieran hil baitzen A. Zavala, Xalbadorren akuilari eta laguntzailerik onena.

Xalbadorren Eguna festa, urriaren 10 eta 11n egin zen, honako egitarau honen arabera:

### ■ Egitasmoa

Larunbata, urriak 10

Goierriko (Gipuzkoa) gazte talde baten poesia errezitala, Xalbadorren idatziak oinarri hartuta. Tartean, Xendarineko ahizpak eta Erramun Martikorena kantari.

Ondoren lagun arteko afaria, Ondarroako jubilatutaldeen prestatuta.

Igandea, urriak 11

9:30etan: Mendi ibilaldiaren hasiera, Urepeleko plazatik gora.

10:30etan: Meza, Xalbador, Antonio Zavala, Aranalde eta beste bertsolari eta bertsozale hildakoak go-goan.

Meza amaitzean, Xalbadorren hilobian lore eskaintza.

Ondoren, Xalbador eta Antonio Zavalaren elkar-loturaz hitzaldia, Joxemari Iriondok.

Herri kirolak herriko plazan: Mutriku eta Donazaharreko taldeak nor baino nor.

Aldi berean, Xalbador eta Mattin, eta Urepeleko argazki zaharren erakusketa.

13:30etan: Lagun arteko bazkaria; tartean Xendarineko ahizpak eta Laka kantari.

15:30etan bertsolariak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Xebastian Lizaso eta Amets Arzallus. Gaiemai-  
le, Joxemari Iriondo.

Aldi berean, Haurren txokoa, neska mutiko ttipientzat.

Eguna amaitzeko erromeria, Gasteizko Zabaleta anaiak trikitilariekin.

Xalbador eta Antonio Zavalaren elkar-loturaz hizaldia Joxemari Iriondok:

Egun on

Biak ala biak genituen maite, eta maite ditugu. Xalbador eta Antonio Zavala, maisu eta izar gidariak izan baitira guretzat beti bakoitza bere sailean, eta biak batera askotan. Horregatik aurtengo Xalbadorren egunarekin Antonio Zavala goraldtu eta omendu behar zuela erabaki zuen Deiadarrak, besteetan Joxe Mari Aranalde, Mattin eta abar aipatu izan diren bezala.

Aurtengo Xalbadorren eguna, Xalbador eta Antonio Zavalaren ohorez egin behar zela erabakita gero, bilera batean norbaitek galdetu zuen: Zer ikusirik dute, ordea, Antonio Zavalak eta Xalbadorrek biak bateratzeko egun honetan?

Erantzun erraza hunek ere.

Euskaltzaindiak antolatu ohi zituen Bertsolarien Txapelketa nagusiak zirela-eta ezagutu zuen Antoniok Xalbador, 1960ko abenduaren 18an, epaimahaiko izan baitzen. Urte hartako txapelketako azken eguneko bertsoak argitara eman zituen Zavalak, Itxaropena argitaletxean, artean *Auspoa* saila sortzeko zeukalarik.

Handik aurrerako historiaren laburpena hau da:

–1962-XII-30ean egin zen Bertsolarien Txapelketako finala, azkenengo saio nagusia. Antonio Zavala epaimahaiko izan zen, Antonio Arrue, Koldo Mitxelena, Fernando Artola *Borda-*

ri, Joan Mari Lekuona, Martzel Andrinua, Antonio Valverde *Aialde*, Pedro Diez de Ulzurrun, Joan San Martin, Emile Larre eta Piarres Lafittekin batera. Txapelketa hartako bertsoak argitara eman zituen A. Zavalak (ikus *Auspoa*, 22, 1962)

-1965-01-01ean amaitu zen hurrengo txapelketa nagusia. Eta han ere epaimahaiko Antonio Zavala, Emile Larre, Mitxel Itzaina, Pedro Diez de Ulzurrun, Jose M<sup>a</sup> Satrustegi, Martzel Andrinua, Joan Mari Lekuona, Gabriel Aresti, Antonio Arrue, Joan San Martin eta Bordarirekin batera. Orduko bertsoak ere argitara eman zituen A. Zavalak (ikus *Auspoa* 43, 1965).

-1967-VI-11n amaitu zen hurrengo txapelketan nagusian -Anoetako txistuak izan ziren egunekoak-. Antonio Zavala berriro ere epaimahaiko izan zen. Eta orduko bertsoak ere argitara eman zituen (*Auspoa* 67, 1967).

Gero, etenaldi luze baten ondoren, 1979an eta 1982an Bertsolarien Txapelketa nagusia antolatu zuen berriro Euskaltzaindiak. Eta berriz ere epaimahaian izan zen Antonio Zavala.

Beraz, bertsolaritzarekin eta Xalbadorrekin harremana eta lotura izateko aukera ona izan zuen tolosarrak.

### **Nola heldu zen Urepelera**

1960ko abenduaren 18an Donostian egin zen bertsolarien txapelketa hartan ikusi/ezagutu zuen lehenengo aldiz Xalbador bertsolaria Zavalak. Baita Mattin ere.

Orduko epaimahaikoak, Antonio Zavala, Antonio Arrue, Fernando Bordari, Joan San Martin, Joan Mari Lekuona eta Emile Larre izan ziren. Ez dakit besterik bazen, ez baitut datu zehatzik aurkitu ahal izan.

Nola heldu zen A. Zavala Urepelera, eta Xalbadorrenera? Noiz eta nola hasi ziren bien arteko harremanak?

Ez dakit gogoan duzuen, baina A. Zavalak berak erantzun zion galde horri hemen bertan, 2004ko azaroaren 7an eman zuen hitzaldi hartan:

Bitartean, Urepele ez nuen ezagutzen nik –esan zuen<sup>11</sup>–. Baina esango dizuet nola iritxi nintzan ona.

Orreagatik oiñez irten eta Lindux-ko kaskora igo giñan Joxe Mari Satrustegi ta biok. An guardia zibil batzuk zeuden, eta zer genbiltzan galdetu eta Elizondora joateko asmoan genbiltzala esan genien. Baiña mugarik pasatu gabe joateko agindu ziguten. Gero, mugaz alde onetako gendarmeeekin topo egin genuen, eta galdera berdiña aiek ere.

1967ko ekainean iritsi zen lehenengo aldiz hona Antonio Zavalak, 2004ko Xalbadorren egunean kontatu zuenez.

Badakizue Xalbador bigarren gelditu zela Donostiako Anoeta pilotalekuan egin zen urte hartako txapelketa nagusian –Antonioren iritziz txapelkun izan zitekeena–; eta *Auspoa* sailean argitara eman nahi zituen txapelketa hartako bertsoak, eta bai eman ere.

Hegoaldekoen bertsoak idatzi eta goitik behera begiratu zituen; baina iparraldekoen (Xalbador eta Mattinen) bertsoekin zalantzak bazituen nonbait; eta ondo kopiatuta ote zeuzkan erakustera etorri zen Xalbadorrengana, badaezpada ere, haren euskara ongi ezagutzen ez eta.

Halaxe bada, Xalbadorrenera etorri, Mujikaren magnetofonia martxan ipiñi eta bertso saio osoa entzun omen zuten. “Xalbadorrek ixil-ixilik entzun zituen bertso denak, aorik zabaldu gabe. Jaialdiaren azkenaldiko txistuak entzutean, Leoniri begiak malkoz busti zitzaizkion”, kontatu zuen hementxe, 2004an.

1967ko txapelketako azken saioko bertsoak argitaratu zituen Antoniok (Ikus *Auspoa* 67).

Hala ere, *Auspoa* sailean Zavalak argitara eman zuen Xalbadorren lehenengo liburua beranduago etorri zen, *Ezin bertzean* deitua (*Auspoa* 85), 1969an argitaratu baitzuen.

Holaxe hasi zen Xalbador eta Antonio Zavalaren arteko egiazko harremana eta adiskidantza, epaimahaiak sortzen

---

<sup>11</sup> “Odolaren mintzoa-ren aurkezpena, Urepele 2004.XI.07



duen tentsio guztietatik kanpora. Ordura arte, bata bertsolari eta bestea juje/juez izan ziren. Handik aurrera, ordea, lagun minak, Zavalak berak aitortu zuenez.

1969ko azaroaren 21ean, Xalbadorri berebiziko omenaldia egin zitzaion Donostiako Astoria antzokian, zuetako norbaitzuek gogoan izango duzuenek. Eta Antoniok, urtero egiten zen omenaldirako liburu bat egitea ederra izan zitekeela eta, egun hartarako Xalbadorren liburu bat egitea erabaki zuen, bilduta zeuzkan Urepelekoaren bertsoak ordenatu eta *Ezin bertzean* ateraz. Izena Joxe Mari Satrustegi zenak eman omen zion.

### **Odolaren mintzoa**

Beti zer pentsatu eta egingo, asmo berria hartu zuten Antoniok, Joakin Berasategik eta beste lagunak batzuek: Liburu haundiagoak egiteko asmoa, alegia, bertsolari onenen emaitzak jaso eta argitara emanek.

Zerrenda txiki bat egin zuten, eta sei liburu argitara eman zituzten gero, bata bestearen ondoren. Antoniok esan ohi zuenez, “sei liburu eta lau egille, eta sekretariotza neretzat gelditu zan”.

Sei horien artean, Xalbadorren *Odolaren mintzoa* zegoen, lau-bost aldiz argitara eman den bertso liburu bikaina, beti gustoz irakurtzen dena. “Eztek holako bertso-libururik egin sekula inoiz orain arte!”, esan zidan nire lagun Xegundo Etxeberriak. Irakurtzeko ohitura eta erraztasun haundirik ez badu ere, askotan irakurri omen du *Odolaren mintzoa*, eta beti zerbait berria esaten omen.

Izan ere, euskal bertsoa eta olerkia, bata besteari besotik helduta erakutsi zizkigun liburu horretan Xalbadorrek. “Bertsolarietan olerkariena, eta olerkarietan bertsolariena” zela esan zuen Joxe Mari Aranaldek bere liburuetako batean. Bat nator neu ere.

*Odolaren mintzoa* deitu liburua mamitu eta burutzea ez zen goiztik gauera egin ordea, ez. Gauza bat zen liburua

egiteko asmoa hartzea, baina gero etorri ziren lanak eta bu-  
ruhausteak, larriak eta presak. Eta bi urte inguru iraun zuen  
Antonio Zavala eta Xalbadorren arteko elkar-lanak, batek,  
arre! eta besteak, iso!, lanak eskatzen zuen arreta zainduz.

Zavala berak hemen eman zuen hitzaldi hartan (2004ko  
Xalbadorren egunean) esan zuenez, zer izen jarri asmatu ezi-  
nik ibili omen ziren luzaro. Baina halako batean, Xalbadorrek  
*Ama Euskal Herria* izenez idatzitako saioa irakurtzen hasi eta  
“Nere begiak liburuan iru bat aldiz azaltzen dan esaldia jo  
zuten pare-parean: *Odolaren mintzoa...*”

Delikatua baitut egungo sujeta,  
hasi aintzin egin dut zombait gogoeta.  
Gure arteko asko ele entzun eta  
euskaldun agertzea ez baita josteta.

Badakit askoz ere nukela hobe  
neheri ez agertu ene dolorea,  
**odolaren mintzoa** eduki gordea;  
nahiko nuke, bainan ezin dut ordea.

Holako liburua prestatzea ez da ahuntzaren gauerdiko ez-  
tula. Ordu asko, egunak eta hilabeteak behar izan ziren ezer  
itxurazkorik egingo bazan. Horixe gertatu zitzaien Xalbadorri  
eta Antonio Zavalari: uste baino lan haundiagoa, alegia. *Odola-  
ren mintzoa* dena idaztea zenbat kosta zitzaion Xalbadorrek ba-  
karrik jakingo zuen, zenbait aldiz esaldi berari buruan bueltak  
eta bueltak eman zizkion, hau kendu eta beste hura erantsi,  
txukundu eta orraztu, aldatu eta berritu. Gauean amets egin  
zuen hamaika aldiz, hasitako lana nola burutu ez zekiela.

Laguntzaile eta akuilari bereziak izan zituen A. Zavalak  
Urepeleko artzainarengana hurbiltzeko: Fernando Artola *Bor-  
dari* eta Joxe Mari Aranalde, alajaina. Biak hala biak Xalba-  
dorren lagun minak.

Antoniok askotan kontatu izan zuenez<sup>12</sup>, txango edo eskurtsio eder batera bezala etortzen ziren elkarrekin Urepelera, egunpasa, janari eta edariak hartuta.

Irukote ederra biltzen giñan arekikoa egiteko. Bordari eta Xalbador lagun miñak ziran. Ara iritxi, eta beste danok eskua ematen genion Ferranddori. Bordarik, berriz, besar-kada aundi bat. Joxe Mari Aranalde ere Xalbadorren lagun-laguna zan, egoaldera etortzen zanean askotan aren etxean lo egiten zuen-da.

Batzuetan irurok joaten giñan Urepelera. Lenengo Donostian Aranalde artzen nuen, eta gero, Ondarrabian, Bordari. Guadalupeko Andre Mariari kantatuz abiatzen giñan andik.

Bordari, taldeko Errege Magoa zan, eta ardo, gozoki, arrai eta abarrez kotxea betetzen zigun, danak Urepelera ekartzeko.

Aranalde apaiz egin zan, baiña enbajadore izateko jaioa zan ura. Ni, berriz, erderaz esaten dan bezala, *currante* (langile, alegia) bat izateko jaioa naiz eta orduan ere olaxe izaten nintzan. Sekretariorza lana tokatu zitzaidan.

### **1976ko omenaldia**

1976ko azaroan Xalbadorri omenaldia egitekotan baitziren Urepelen, egun hortarako Xalbadorren *Odolaren mintzoa* liburua egin behar zutela erabaki zuten Joakin Berasategirekin. Eta, arian-arian, liburua osatu samartu zuten Xalbadorrek eta Zavalak elkar-lanean.

–Orai zuen garaia heldu da, hasi lanean gogotik! –esan omen zion Xalbadorrek Joakin Berasategiri liburua eskuartean ikusi zuenean. Izan ere, Joakinek elkarrizketa batean kontatu zuenez, *Odolaren mintzoa* prestatzen ari zirela, Xalbadorrekin topo egin eta galdetu omen nion: –Zer moduz doa lan hori? –Eta Xalbadorrek: –Beno... -. Eta nik orduan, xalo-xalo: –Zuek, artistok, ez duzue denboraren neurririk izaten –esan nion. Handik gutxira, Lazkao Txikirekin topo egin eta

---

<sup>12</sup> 2005eko maiatzean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egindako elkarrizketa.

esan omen zion: –Aizu, Joxemiel, zure lagun horrek, Joakin delako horrek, alperra deitu dit! –.

Inprimategiko lehenengo frogak zuzentzeko garaia etorri zenean, lehenengo paperak arretaz begiratu eta zuzentzeko, batzuetan hiru lagun izan omen zirela esaten zuen Antoniok: Xalbador bera, Joxe Mari Aranalde eta Antonio Zavala. Bestetan, berriz, Xalbador eta Zavala. Eta azkenean, Zavala bakar-bakarrik.

Antonio Zavala ezagutu zuenak badaki lanik haundiena berak hartuko zuela orduan ere, ez baitzuen barkua inoiz noraezean utzi nahi izaten, eta *Auspoa* saileko liburu bakoi-tzaren lema bere eskuz ongi zuzentzea gustatzen zitzaion. Xalbadorren honekin ere berdin egin zuen.

Ala, omenaldi-eguna, azillaren 7<sup>a</sup> eldu zan. Bordari eta biok Urepelera joan giñan; baiña Xalbadorreneko nagusiari zera esan genion, guk libururik ez genuela; Joakin Berasategik gauerako ekarriko zuela, baiña ale batzuk bakarrik, besteak oraindik egin gabe zeudela-ta.

Liburu berriaren jaiotza eta haur-mina ez zen bada ahuntzaren gauerdiko eztula izango, liburu baten jaiotzak berekin baititu nekea, poza eta izua. Eta begira zenbateraino serio eta gogotik hartzen zituen eginkizunak Xalbadorrek, Zavalak kontatzen duenez: “Etxekoak zerbait esan, eta erantzunik bueltatzen etzuala ibili omen zela hilabate batzutan esan zidaten. Ala, Leoni bere andrearen aotik keja au entzun bear izan nuan egun batean: –Antonio, gizonik gabe utzi nauzu; bertze mundu batean bizi da Ferrando zuk lan horiek aginduz geroz.

### **Langintza haundia**

Aipatzen ari garen liburua egitea zela eta, 1976ko uda ika-ragarri uda mugitua izan zen A. Zavalarentzat eta, batez ere, hitza betetzea nahi izaten zuen Xalbadorrentzat. Joakin Berasategiri ere (Sendoa argitaletxea sortzeko zori betean zeukan garai hartan) lan asko egin beharra egokitu zitzaien, bai baitzekien eskuartean zerabilten perla ez zela azaren

barreneko hostoa. Antoniok bazekien ondo *Odolaren mintzoa* liburuia oso noizik behin bakarrik sortzen diren horietako bitxia zela, eta maitasun eta mimo haundiz plazaratu nahi zuen.

Horretarako eguna izendatuta zegoen: 1976ko azaroaren 7<sup>a</sup>, egun haundia. Haundia, bai; baina ederra bainoago zorigaiztoko gero, denok dakigunez.

Oraindik begien aurrean daukat nik nola, tranpaldotan exerita zegoen tokitik jaiki eta balantzaka-balantzaka aldegin zuen Xalbadorrek ezkutura. “Eniz ontsa, eniz ontsa!” esan zigun. Baina ezin izan genuen sinestu Xabador hil zela esan zutenean!-. Lehenera itzuliz, Zavalak dio:

Bezpera arratsean, afal denboran, liburuak Xalbadorreneko ateak jo zituen. Lau bat ale besterik ez ziran, gainerakoak astebete barru izanen zirala. Xalbadorrek hartu ahal izan zuen, beraz, eskuetan bere lanaren fruitua. Baina oso denbora guttiz.

Hola esan eta idatzi zuen Zavalak, penaz, *Odolaren mintzoa* argitalpen zuzendua eta gehitua eskaini zigunean, 2004ko udazkenean, hementxe Urepelen.

Ikaragarri maitea zuen Zavalak Uztapideren bertso modua, haren bat-batekotasuna, lehengo bertso gintza molde zaharrari jarraitzen ziona, jendearen aurreko bertso gintza. Baina Urepelekoaren bertso gintza eta idazkera oso bestelakoa ikusten zuen eta, nori berea emanez, ikaragarri interesatu zitzaion. Ez zen ohiko bertso gintza. Sakona zen, behin eta berriz pentsatuta egina, asko kostata, ikaragarri sufrituta egindako lana. Aberatsa, sakona, mami haundikoa.

Eta eskuartearen zuten liburuak zama hori dena eskaintzen zion Zavalari:

Arena, munduko olerkaririk geientsuenak erabiltzen dutena zan –dio–: Bertso eta sail bakoitza ausnarrean bein da berriro pasa eta landua, urrezko bitxi biurtu arte.

Batena, beraz, bertso gintza naturala, baserritarra, antziñako aozko kultura zaarreko tradiziozkoa; bestearena, be-

rriz, landua, eskolatua, bein eta berriz goitik beera begiratu eta zuzendua, geroztikako kultura idatziaren lan-moduak berez ikasia, betiko bertso eskolari uko egiten ez bazion ere...

### **Liburuaren argitalpenak**

Deiadarra taldeak zergatik aipatu behar zuen Antonio Zavalala, zergatik omendu behar zuen aurtengo Xalbadorren egun honetan?

Galdera horren erantzuna argi dagoela uste dugu. A. Zavalak argitara eman zituen Xalbadorren fruiturik onenak, eta animatu zuen aurrerantzean ere idazten saia zedin, askotan elkar-lana egin eta lagunduz. Pena zuen ordea. Gogoan al duzue 2004ko hitzaldi hartan nola esan zuen:

Xalbadorrek bere liburua eskuartean ikusi zuanean, onela esan zidan:

–Lan huntan hasiak garenez geroz, jarraituko dut. Baina hurrengo liburua prosaz egin nahi nuke.

Ni poztu nintzan ori entzuteaz. Eta liburuaren atarian ere olako zerbait idatzita dauka berak. Ura, izan ere, bertsolari eta olerkari izateaz gain, prosista ederra ere bazan, bere liburuaren aurreko orrialdeetan erakusten duanez. Jainkoak denbora eta osasuna eman izan balio, ai zer nolako liburuak utziko zizkigun!

Uztapide, Lasarte, Txomin Garmendia, Lertxundi eta beste hainbat animatu zituen bezalaxe animatu zuen Xalbador maitea ere Antonio Zavalak idazten jarrai zezan.

Beraz, merezi zuen gaur Urepelen ahotan eta omenetan har genezan herri hontako bertsolariarik olerkariena eta olerkariarik bertsolarienarekin batean.

Ez nuke nahi askoz gehiago luzatu berriketaldi hau. Baina amaitu aurrez *Odolaren mintzoa* liburuaren aurkezpenak eta argitalpenak aipatu eta zehaztu nahi ditut labur-labur, nahasmen txiki batzuk gertatu izan diralako hontaz hitz egitean.

*Odolaren mintzoa* liburuaren lehenengo argitalpena, lehenago esan bezala, Urepelen egin zen, 1976ko azaroaren 7an.

Baina, lehenengo argitalpen hartarako atera ziren lau mila liburuak berehalaxe saldu eta agortu ziren nonbait, Joakin Berasategiren langileen zalapartaz, eta presaka eta larri beste bi mila ale atera behar izan zituzten.

Hirugarren argitalpena, 1989an egin zen. Laugarren argitalpena eta aurkezpena, berriz, hementxe bertan egin zuen Antonio Zavalak, 2004ko azaroaren 7an, eta hau *Auspoa* sailko liburuen itxuran eta zerrendan (*Auspoa* 290) egin zuen.

Amaitzeko, Xalbadorrek bere liburuaren aurkezpenean eman zuen bertso bat gogora ekarri nahi dizuet, denoi ere ondo etorriko zaigu-eta, Xalbador eta A. Zavala beti gogoan izan ditzagun:

Harmairu zokoetan ez gorde nehola,  
zikint beldurrez edo nik dakita nola!  
Etzaio zikinduko dakarren eskola;  
kez beltzaturik ere ez izan axola,  
sukaldeko solasean guardian dagola.

## ■ **Xalbadorren hilobian bertsoak**

Xalbadorren hilobian urtero bezala lore eskaintza egin ondoren, Jean-Louis Lakak kanatatu zituen lau bertso:

Aizu, Xalbador, txintxoki gaude  
zure hobi bazterretan.  
Zure denboran lagun maiteak  
ukan dituzu benetan.  
Zure mezuak itsatsi dira  
Euskal Herriko jendetan,  
bai eta ere Kaliforniara  
joan ziren euskaldunetan,  
bai eta ere Kaliforniara  
joan ziren euskaldunetan.

Zuk zizelkatu euskaldun hitzak  
hartu ondoan oinarri,  
atzo eta gaur, xahar eta gazte  
zure pertsuen kantari,  
euskal hatsetik zabaldu nahiz  
Euskal Herri guziari.  
Zuk gain hartarik erran zaiguzu  
ea ongi giren ari,  
zuk gain hartarik erran zaiguzu  
ea ongi giren ari.

Lur huntan baliosa den norbait  
ez da egoiten debalde.  
Horrelakoak beti goizegi  
egiten hemendik alde.  
Zure betiko hiru adiskide  
orai zeruan hor daude:  
Mikel Atxaga, aita Zavala,  
Koxemari Aranalde,  
Migel Atxaga, aita Zavala,  
Koxemari Aranalde.



Zauden lekuan, Xalbador maite,  
otoitzerako gunea.  
Pentsatzen dugu lur hunen zaintzen  
zaudela erne-ernea.  
Lagunzkiguzu osagarrian,  
hau baita lehen bernea,  
indarberritu diton Leoni  
ta Mitxel zure semea,  
indarberritu diton Leoni  
ta Mitxel zure semea.

## ■ Bazkalondoko bertso batzuk

Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Xebastian Lizaso eta Amets Arzallusek egin zuten bazkalondo bertso lana urte honetan. Eta bertso bakar batzuk hautatu ditugu saio hartatik, egunaren lekuko.

Egaña eta Lizasoren txandan aurreko urtetik zetorren gaiari lotu zitzaizkion biok, broma eta txantxa beharrezko di-rela-eta bazkalondo alai batean.

Egaña Igaz Uxuei kontatu nion  
hau, hori edo ta zera...  
Gaya nintzala, aldatu nula  
itxuraz sexu joera.  
Zuk badakizu, txoro hutsak ta  
gu haize-orratzak gera.  
Beraz hori're alda dezaket  
urte batetik bestera  
urte batetik bestera.

Lizaso Eskertzen dizut zuk zeuk zedorrek  
egitea aipamena.  
Dixumulatzen alegintzeak  
horrek ematen dit pena.  
Aldiz aurretik ere baneukan  
horren susmo nabarmena.  
Beste gehienak bagenekien,  
zeuk jakin zendun azkena,  
zeuk jakin zendun azkena.

Egaña Nik neu zer naizen ederki dakit,  
ene Xebastian laztana;  
egin dezaket asmo tinko bat,  
eta alda dezaket plana.  
Telebistatik eskeini zuten  
Uxue ta bion lana,  
ta sinistu egin al zendun bada  
Telebistatik esana,  
Telebistatik esana?

Lizaso Ez det ukatzen nik Telebistak  
badadukala akatsik,  
baina nik hari ez nion hartu  
gezurra izateko antzik.  
Barka, Andoni, zurekin lehendik  
nik ez nedukan zalantzik.  
Esandakoa ez dut sinesten  
ikusitakoa baizik,  
ikusitakoa baizik.

Egaña Horren serio esan ezker  
badaukazu nahiko grazi;  
baina jendeak sines dezake,  
denontzako zer desgrazi!  
Zuk omen txiki bat egin nahia  
zenion Santo Tomasi.  
Ba, hori ere ahaztu ezazu,  
ez dezu ezer ikusi,  
ez dezu ezer ikusi.

Lizaso Herririk herri, plazarik plaza  
bertsozaleen bezero,  
eta zugandik hori, Andoni,  
ez nuen asko espero.  
Ta ez dudala ezer ikusi  
zeuk esan didazu gero,  
baina zurekin arriskuan naiz  
begiak itxi ezker,  
begiak itxi ezker.

Egaña Hori entzunda etzaigu falta  
algara ta irribarrik.  
Beste arren bat maite dezaken  
munduan ez al da arrik?  
Hori entzunda Iriondo ta  
Lizaso harritu samarrik,  
orain horrekin harritzen dira  
azpeitiarrak bakarrik,  
azpeitiarrak bakarrik.

Lizaso Garai bateko harridura da  
onartua izan beti;  
bidea zeure aukera bada  
neregatik lasai segi.  
Eta, Andoni, lagun bezala  
esango ditzuk bi egi:  
orokorrean ez nau harritzen  
zure kasoan gehiegi,  
zure kasoan gehiegi.

Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. Oraindik ere bertso-  
laritza matxista, gizezkoena dela esan eta uste duen asko  
omen dagola diote.

Maialen Garai batean emakumea  
ohi zan bertsoarako gai;  
gaur egunean bertsolari da,  
kantuan ari da lasai.  
Gauzak aldatu dirala uste  
baina nik duda badut, ai!  
Matxista direla gizonak ta  
emakumeak ere bai.

Amets Oraindik ere nahiko azaletik  
tratatzen dugu larrua,  
behar bezala ezta zabaldu  
gai horien esparrua.  
Baina, Maialen, ez genezake  
zigortu geure barrua.  
Molde horretan egin gaituen  
gizarteak du errua.



Haurren txokoa, neskato-mutikoentzat

Maialen Gizarteak bai, baina guk ere  
badugu ohitura txarririk;  
aldatu beharra aldatzeko  
ez degu aski indarrik.  
Adibidez, lehen entzun dan gaia,  
ez da besteren beharrik.  
Jendeak parre egiten du ta  
ez azpeitiarrek bakarrik.

Amets Ai Joxemari, ai Joxemari,  
mikrora hurbildu ahala  
asunto xelebren bat esan du,  
hala bota du, tanbala!  
Eta Ametsek pentsatu ohi du  
entzunez horiek hala,  
dinosaurioak oraindik ere  
hemen bizirik dirala.

Maialen Garai batean dinosaurioa  
bazegon pila itzela,  
gaur egunean dena ez da hain  
ezkorra eta ospela.  
Halare garbi esan nahi nuke  
pentsatzen dedan bezela:  
zer konpondua badela baina  
aurrerantza goazela.

Amets Neronek ere hala uste dut  
baikorra izatekotan;  
eta barkatu nere hitzekin  
inor utzi badut malkotan.  
Ni nere hitzak ongi aukeratzen  
alegintzen naiz bertsoetan.  
Zoritxarrean inkontzientziak  
salatzen gaitu askotan.

Gazteok nola daramazue bertso laritza?, galdetzen omen  
dik jendeak –Dinosaurioak salbo, jakina–. Hire erantzuna,  
nahi baduk behintzat.

Nahiz ta aspaldi samar pasa zen  
dinosaurioen bolara  
gazte gehiago etorri ziren  
eta atera plazara.  
Lurra joratu nahi zutenak  
joan ziren bertso eskolara.  
Haziak eman zuten landare,  
landareek fruitu, hara.  
Orain fruituei dagokiena  
bidea egitea da.  
Lara, lara....  
bidea egitea da.

Baina Hendaiatik begira nago  
ni honera neure gisan,  
iparraldeko panoramatik  
hain baikorra ezin izan.  
Lana nekeza dagoelako  
herrigintzan, kulturgintzan.  
Baina guk geure aleak jartzen  
gabiltza bertso laritzan,  
euskara bizi dezagun eta  
gu euskarak bizi gaitzan.  
Lara, lara...  
gu euskarak bizi gaitzan.

Ta zorionez oraindik zabal  
daude gure iturriak,  
ta zorionez lehengoak ere  
dauzkagu irakurriak.  
Ta egoera erakusten du  
Urepeleko herriak:  
Xalbador eta Mattinek a zer  
bide ikaragarriak!  
Ta Xenpelarrek zion bezala  
sortuko dira berriak.  
Lara, lara...  
sortuko dira berriak.

Maialen Lujanbio. Gaur Xalbadorrekin batean aipatu eta gogoratzen dugu Antonio Zavalala. Egizu, aurrekoan bezalaxe, magnetofonoa eskuetan hartu eta bertsoak entzun eta grabatzen hortxe dagoela.

Denei bezela garaia iritsi zen hiltzekoa,  
etzan eta lasaitasun luzera amiltzekoa.  
Nik bertso asko neukan bildua, idatzia, hitzekoa.  
Bertsolaritzak oraindik asko emango du biltzekoa.

Magnetofonia jarrita mendi puntatik horrela,  
bistan da hitzak airean niganaino datozela;  
eta aleka aleka egin liteke altxor itzela...  
Abiatu nun bide oparora bestek segi dezatela.

Sortzen den oro biltzera nahi nituzke derrigortu.  
Azken batean hizkuntzak bere iragana hor du.  
Kantuan ari dira oraindik, iturria ez da agortu.  
Ondare zaharra bildu ein behar da, ondare berria sortu.



Xebastian, hemendik hurbil, *Kinto Realá* deitu paraje hortan egin zuen soldaduzka zuen aita Joxe Lizaso *Ruso* zenak. Egik, hantxe, Sorogaingo pagopean eserita, patxaran hire bertsoak entzuten dagoela gaur.

Azken bertsoa lehen bota nizun  
oroimenak barrenean,  
gaur Sorogainen hor omen zaude  
Xalbador aldamenean.  
Zuk bezelako sinesmenikan  
ez izan arren fedean,  
sentimentuak elkartzen gaitu  
etorrian ta joanean,  
eta nun zauden beti jakin dut  
behar izan dudanean,  
eta nun zauden beti jakin dut  
behar izan dudanean.

Ezin ukatu, zu izan zinen  
nere bertsoen zimendu.  
Zure ondoan hasi nintzen da  
zure bidean mantendu.  
Nahiz heriotzak zure babesá  
albotikan zidan kendu,  
oraindik nere ispilu zera,  
hau nahi nuke nabarmendu.  
Okertzen banaiz, lehen bezelaxe  
begiradakin zuzendu,  
okertzen banaiz, lehen bezelaxe  
begiradakin zuzendu.

Maialen, gai xelebrea. Dotore jantzita, intzentsu usain artean, kristalezko bola eskuartean duzula hor zaude, etorkizuna iragartzen nahi duenari. Bere etorkizunaz galdezka etorri zaizu Amets.

Amets Zortzi urtekin bertsoan hasi,  
hamabikin erdi apaiz;  
hogei urte ta ilea galdu,  
ixpiluan aurrean gaitz.  
Bizitza hontan dana datorkit  
antizipatuta garaiz.  
Kezkaz nago ta esan zaidazu,  
ni noiz arte biziko naiz,  
kezkaz nago ta esan zaidazu,  
ni noiz arte biziko naiz?

Maialen Auskalo, ehun da gehiago urte  
bizi ahalko balitza,  
batzuentzako zer zoriona,  
edo igual, zer paliza!  
Xebastian ta Andoni erretzen  
beti bi tximinin gisa...  
Saio bakoitzak pare bat urte  
moztuko dizu bizitza,  
saio bakoitzak pare bat urte  
moztuko dizu bizitza.

Amets Baina badakit galdera nahiko  
zail, korapilatsu dana.  
Nere etxean beti izan dut  
alfer nagia fama.  
Ta bi urteko bizia galdu,  
hori txarra da, ai ama!  
Baldin bertsoa utzi ezker  
zertan egingo dut lana?  
baldin bertsoa utzi ezker  
zertan egingo dut lana?

Maialen    Hau langilea izango zala,  
              akaso bai bere fedez,  
              baina ekintzaz ez da mugitzen,  
              ez da mugitzen ez errez.  
              Eta bertsoak utzi ondoren  
              biziko zera alferrez.  
              Gaur arte lanik ez dezu egin  
              eta orduan ere ez,  
              gaur arte lanik ez dezu egin  
              eta orduan ere ez.

Amets      Ta nere kotizazioa dut  
              nik oso diru gutxiko,  
              hiruroita bost urte beteta  
              ezin ba bizi graziko.  
              Nik ze pentsio kobratuko dut  
              bizitza hondar guziko?  
              Bueno, gauza bat badaukat ona,  
              Sarkozy ez da biziko,  
              bueno, gauza bat badaukat ona,  
              Sarkozy ez da biziko.

Maialen    Zenbat biziko den jakin nahi du,  
              bizitza baitoa grabe;  
              bertsoan ere sufritzen ari,  
              ez ondo eta xuabe.  
              Dirurik eta lanposturikan  
              ezer ez omen du alde.  
              Gizarajoa, zu suizidatu  
              premian akaso zaude,  
              gizarajoa, zu suizidatu  
              premian akaso zaude.

## ■ Xalbadorren eguna 2009. Kronika

Euskaltzaindiaren webgunerako

Urriaren 10-11ko asteburu hontan egin da Xalbadorren eguna 2009ko, edo Urepeleko euskararen eguna. Sekulako jendetza bildu da larunbat eta igandez, euri langarrari eta haize hotzari aurpegia emanez.

Aurtengo ospakizuna larunbat arratsaldez hasi zen, lagun arteko afaria eta Gipuzkoako Goierriko gazte talde batek Xalbadorri buruz antolatutako poesia errezitala eta Xendarineko ahizpak eta Erramun Martikorenaren kantuak lagun. Bilera xumea bai, baina sentimentuz betea, Xalbadorren eta euskararen itzalean.

Bazen, edo izan omen zela esan zuten igandean egunsentira arte erretiratu nahi izan ez zuenik. Hala ere, igande goizean 9:30etarako jendea prest zegoen herriko plazan ohiko mendi-ibilaldia hasteko, Xalbadorren etxola eta Urepele inguruak bixitatu eta ezagutzeko irrika biziz. Badaezpada ere, perretxi-koak eta gaztainak biltzeko saskia eraman zuenik ere bazen tartean, ikusi genuenez. Ez dakigu otarrak betetzeko zortetik izan zutenik ala ez.

Urepelen ohitura denez, 10:30etan, Xalbador, Antonio Zavala eta Joxe Mari Aranalde gogoratuz eman zen mezaren ondoren, Xalbadorren hilobira bixita egin zen eta lore eskaintza, iparraldeko beste bertsolari zendu guztiak ere gogoan. Laka bertsolariak lau bertso eder kantatu zituen, hirugarren bertsoa hola amaituz, Xalbador goraldtu ostean:

Zure betiko hiru adiskide  
hor orai zeruan daude:  
Mikel Atxaga, aita Zavala,  
Koxemari Aranalde...

Xalbador eta Mattinen, eta Urepeleko argazki zaharren erakusketa egin zen pilotalekuan egunean zehar. Erakusketa polita benetan. Eta herri kirolak herriko plazan: sokatira, orga jokoa, lasto altxatzea, trontzariak...

Euripean hasi zen plazako ikuskizuna, baina jendearen halako ikusminaz ohartuta edo, eguraldiak onera jotzea erabaki zuen azkenerako, plazako saioa edertu eta alaituz.

Eguerdiko 13:30etan, lagun arteko bazkaria hasi zen ezkerparetan, Ondarroako arrantzale jubilatutako taldeak prestatuta, larunbat arratseko afaria bezalaxe. Tartean, berriz, Leoni Aireren (Xalbador zenaren alarguna) biloba Xendarineko ahizpek eta Laka bertsolariak Xalbadorren bertso ederrik kantatu zuten denen gozagarri.

Bazkalondo bertsolarien saioa 15:30etan hasi zen, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Xebastian Lizaso eta Amets Arzallus kantari zirela, gai librean nahiz JM Iriondok jarritako gaietarako erantzunez. Bertso onak entzuten ohitutako jendea izaki, gozatu ederra hartu zuten Urepeleko pilotalekuan bildu zirenek.

Aldi berean, "Haurren txokoa" egin zen plazan: herri kirolak haurrei egokituta, urteoro bezala Mutrikuko taldea zuzendari.

Nola bertso saioa hala haurren txokoa, arratsaldeko bos-tak aldean amaitu ziren, hegoaldeko jendeak egun argiz etxera abiatzeko modua izan zezan, urrun samar egiten baita Urepele, batez ere Bizkaia aldetik-eta joaten denarentzat. Hala ere, erromeriak gogotik jarraitu zuen lehenengo ezkerparetan eta gero plazan, Gasteizko trikitilari gazteak lagun, astelehenez jai zela behintzat-eta hegoaldean.

Deiadarra taldeak horrela egitea erabaki baitzuen Urepele urteoro, Xalbador eta Antonio Zavala izan da aurtengo Xalbadorren Egunaren lema berezia, hainbat elkarlan -besteak beste, *Odolaren mintzoa* harrigarria- goraldu eta omentzeko, Baxenafarroako mendiarte honetan.

Aurtengo egitaraua onez onean burutu ondoren, gure eskerrik zintzoena eman nahi diegu laguntasun oparoa eman diguten Euskaltzaindiari, Urepeleko Herriko etxeari, Ondarroako arrantzale jubilatutaldeari –hura marmitakoa eta arrainaren ederra!–, Mutriku eta Donazaharreko herri kirol taldeei, Goierriko gazte taldeari, zenbait komunikabideri –inola ere ez denei–, Koldo Mitxelena Kulturuneari eta antolaketan urteoro laguntzaile izaten diren guztiei. Eta, nola ez, Xalbadorren egunean Deiadarra taldearekin urtez urte biltzeko ohitura dutenei. Eskerrik asko eta hurrengo urtera arte.

Hurrengo urtera arte, bai, Deiadarra taldea dagoeneko hasi baita hurrengoaz pentsatzen, aipatu ditugun laguntzaileek huts egiten ez badute behintzat.



Antonio Zavala, Durango 1982

# Xalbadoren eguna 2010

## Xalbador eta Xanpun gogoa

---

Urte honetako kronika laburra idaztean, Deiadarra taldeak Xalbadorren eguna 2010 nola adierazi eta banatu zuen gogorazi nahi diogu egun honen jarraitzale den edonori, laburki.

Aldez aurretik emandako prentsaurrean banatu zuen egi-tasmoa hauxe da:

Txosten honen bidez jakinarazten dautzuegu Xalbadorren eguna 2010 urriaren 9an eta 10ean egingo dugula aurten, Xalbador eta Xanpun gogoan.

Huna xehetasun zonbait:

Antolatzaile, Euskaltzaindia eta Deiadarra taldea izanen dira aurten ere.

Elkartearen helburuak lehenean jarraitzen dute berriz: Gure nortasuna eta Xalbadorrek utzi daukun mezua bizirik atxikitzea nahi dugu iparraldeko euskaldunen artean.

Lehen ere askotan errepikatu dugunez, Deiadarra elkar-tea Xalbadorren *Ama Euskal Herria (Odolaren Mintzoa 205. orr.)* bertsuetan oinarrituta sortu zen, eta taldearen izena hortik dator:

Baditaike seme hok noizbait orroitzea,  
Ama, zu ganik izan dugula sortzea;  
guhaurek bilaturik zure ehortzea,  
jasan behar dugu gaztigu dorpea.

Hil hobi huntan noizbait norbait balabila,  
zure izaitearen herrestoen bila,  
lurpetik entzunen du deiadar bipila:  
Hemen dago ama bat bere haurrek hila!

Urriaren 9an eta 10ean Urepelera hurbil zaitezten deia Euskal Herriko bertszuzale, euskaltzale eta kulturzale guztiei egiten dautzuegu.

Orain arte Deiadarra taldeak antolatu dituen jaiak gogoratu nahi genituzte, labur labur:

Lehenengo urtean, 2004an alegia, Antonio Zavala eta Joxe Mari Aranalde gogoratu ziren. 2005ean, "Xalbador eta mendia" lema izan zen. 2006an, "Xalbador eta Mattin". 2007an, "Xalbador eta Diaspora". 2008an, "Xalbador eta antzinako Urepele". 2009an, Xalbador eta Antonio Zavala gogoratu eta omendu ziren. Aurten Xalbador eta Xanpun gogoratu eta omenduko dira.

## **Egitasmoa**

Urriak 9, larunbata:

19:00etan: Ilunabar literarioa, Bergarako Idazle eskola-ko lagunek antolatuta.

21:00etan: Lagun arteko afaria, kantariak eta trikitalariak alaiturik – Xendarineko ahizpak eta Ander eta Imanol Zabaleta anaiekin.

Urriak 10, igandea:

09:30etan: Xalbadorren etxolara mendi ibilaldia, artzain etxola eta Urepeleko herria ezagutuz.

10:30eta: Nahi dutenentzat meza, eta Xalbadorren hilibira bisitaldia.

12:30etan: herri kirolak, zoin gehiagoka Donazarre (Baxe Nafarroa) eta Mutrikuko (Gipuzkoa) ekipoak: Sokatira, sega, orga altxatzea, lasto altxatzea...

Ondoren, dantza saio ikusgarria Osintxuko (Bergara) *Musikara* taldearekin.

13:30etan: bazkaria, herri kantak, eta Xalbador eta Xanpunen bideoa erakustea.



15:30etan: Haurren txokoa, herri kirolak haurrei egokitu-ta.

15:30etan: Bertsu saioa, Juan Jose Eizmendi *Loidisaletxe II*, Xebastian Lizaso eta Uxue Alberdirekin. Gaiemaile, Joxemari Iriondo.

17:30etan: Erromeria, Ander eta Imanol Zabaleta trikitilariekin, aspertu arte.

Antolatzaileak:

Deiadarra elkarte eta Euzkaltzaindia.

Laguntzaileak:

Eskertzen ditugu gurekin elkarlanean saiatu direnak, hala nola:

Urepeleko Herriko etxea eta Sendoa argialetxea.

## ■ **Bazkalondoa bertso batzuk**

Xalbador eta bertsolari/bertsozale guztien ohorez egin ohi den Urepeleko bertso-festa dela gogoan izanda, bazkalondoko bertso saioen laburpen gisara, ondorengo hauek eskaintzen dizkitzugu.

Xebastian Lizaso, Uxue Alberdi eta Juan Joxe Eizmendi *Loidisaletxe II* ziren bazkalondoko bertso lanean. Eta ondorengo bertso hauek jaso genituen saio hartatik, bertsolarien lekukoa bizirik gera dadin kronika honetan.

Lizaso    Aspaldi hasitako eguna  
            oraindik ez da amaitu,  
            eta aurrera ere luzaro  
            zergatikan ez jarraitu?  
            Urtean behingoz, ta Urepelen  
            guztiak gera anaitu.  
            Ez da dudarik, zuek eta gu  
            bertsoak elkartzen gaitu,  
            ez da dudarik, zuek eta gu  
            bertsoak elkartzen gaitu.

Loidisaletxe Gaurko eguna ikusi eta  
nahi nuke nik imajina  
bildu gaituen motibo hori  
dela benetan haundina.  
Jendea nundik etorria den  
hori da gauza berdina.  
Holako jaiak Euskadi osoan  
dute justu eragina,  
bi maisu hauek Euskadi osoan  
zuten kriston eragina.

Lizaso Hegoaldetik mundu guztira  
bidaiak eginaz gabiltz,  
sarri askotan Euskal Herria  
ez degu ezagutzen berriz.  
Neure buruai galdetzen diot  
nik ez dakit zenbat aldiz:  
Urepel zenik jakingo al gendun  
Xalbador izan ez balitz,  
Urepel zenik jakingo al gendun  
Xalbador izan ez balitz?

Loidisaletzek, bakarka egindako saioan, eskolako kontuak  
aipatu zituen:

Ikasle ona nintzan ala ez  
hori da hori galdera.  
Bere garaian eduki nuen  
eskolarako aukera.  
Ta erdi parean gelditu nintzan  
ez batera, ez bestera.  
Nere ikaskuntza maila joan zen  
maixuaren arabera.

Nere moduko jakinduriak  
ematen du oso gutxi,  
eta nahi nuen hala ere nor  
nintzakean erakutsi.  
Matematikan hasi nintzen da  
*Ducados*-era iritsi;  
baina eskerrak nere bidean  
hortara ez nintzen itxi.

Poz bat badaukat, maila hortako  
ez naizela ni bakarrik,  
nahiz ta gaztetan izango nuen  
hortako hainbat okerrik.  
Askoz gehiago ikastea ere  
izango nuen alperrik.  
Orain artean ez det somatu  
jakintza gehion beharrik.

Uxue, idatzi dituzun, eta nik ezagutzen ditudan zure bi  
liburuetan, AULKIA aipatzen duzu: *Aulki bat elurretan* eta  
*Aulki jokoa*. Aulki kontu honek asko kezkatzen al zaitu ala?

Aulkian asko eseritzen naiz  
idazten jartzen naizenez.  
Bertsotan ere amaitu eta  
bertan hartzen dugu babes.  
Epailerikan ere aulkian  
dijoaztenez ta legez,  
gauza jakina, beste batzuek  
eraiki diguten legez.  
Lehen aulkiak gustatzen zaizkit  
ta bigarrenak baterez.

Txapelketetan ere aulki bat  
izaten dugu helburu,  
elkarren obrak lehian hasita  
ahoz aho, buruz buru.  
Zortzigarrego bueltan gero  
berrogei lagun inguru...  
Gaurkoan behintzat aulkia hortxe  
jarri digute seguru,  
ta berriz ere etorri behar  
merezi baldin badugu.

Elkarrizketa batean irakurri dugu, Xebastian Lizaso ez  
omen dela gehiago txapelketara joango, lasai eserita hobeto  
ikusten dela-eta zezen festa.

Arrazoi hori emango nuen  
nunbait nere agurrian.  
Ez du esan nahi nagoenikan  
txapelketa bildurrian.  
Baina berriro bueltatze hori  
ez det ikusten urrian.  
Hemen sufritzen jakin behar du  
bakoitzak bere neurrian,  
hemen sufritzen jakin behar du  
bakoitzak bere neurrian.

Aspaldi samar hasi nintzan ta  
urtetan hainbat luzatu,  
“Hi Xebastian, nahikoa dek”  
halako baten pentsatu.  
“Ez naiz joango” esango nuen  
neure mingaina dantzatu.  
Asmo bakarra dadukat orain:  
goza araziz gozatu,  
asmo bakarra dadukat orain:  
goza araziz gozatu.

Zerbait amesten dugun arte ilusioa ez dugu galdu, dio  
esaerak.

Lizaso Esperantzari eskerrak nago  
amets egiten ohitua;  
zein gogorra den ametsak egin  
eta ezin kunplitua.  
“Oraingoan bai, oraingoan bai!”  
sarri degu aditua.  
Ametsei buruz daukadan kezka  
ia nauka arritua,  
amets berria ote den edo  
betikoa berritua,  
amets berria ote den edo  
betikoa berritua.

Uxue Politik dira ametsak eta  
udazkeneko orbela,  
baiña erori egin litezke  
bata bestea bezela.  
Ta ametsetan geldi egotea  
jarrera ona eztela,  
jakin dezagun etorkizuna  
geure esku dagoela,  
eta ametsak betetzekotan  
lana egin behar dela,  
eta ametsak betetzekotan  
lana egin behar dela.

Loidisaletxe Izan liteke lagun onen bat  
edo eta lankidea,  
hoiek bultzatzen saia behar da  
aurrean degun aidea.  
Nundikan nora jokatu behar dan  
horretan dago aldea,  
ez aintzat hartu len pasatako  
kontuen aginpidea.  
Ilusioak zabalduko du  
guk jarraitzeko bidea,  
ilusioak zabalduko du  
guk jarraitzeko bidea.

Lizaso Herri zahar hau ez al da bizi  
amets baten babesean,  
ta amets hori noiz beteko zai  
oso denbora luzean?  
Amets pila bat galduak dira  
indartsuaren haizean.  
Berriro ere amets eginez  
gabiltz beti jolasean,  
baina zaila da asko egiten  
lehenak bete ezean,  
baina zaila da asko egiten  
lehenak bete ezean.

Manuel Sein Xanpun bertsolaria gai hartuta Xebastian  
Lizasok kantatu zituen hiru bertso:

Uka ezina bertsoarako  
Xanpunek zun jarioa;  
kantuan etzan makala eta  
hizketan oso iaioa.  
Egiarekin adiskide ta  
gezurran arerioa,  
egia esan, bikoitza gendun  
harek zuen balioa.  
Aldi berean zelako hura  
alaia ta serioa,  
aldi berean zelako hura  
alaia ta serioa.

Herririk herri hainbat urtean  
ibili zena kantari,  
ezin ukatu, ematen zuen  
arrazoi ona ugari.  
Eta arrazoibide beretik  
beti pixua nabari.  
Gogoan daukat behingoan nola  
neuk entzun nion berari,  
lehendabiziko gizona zela  
eta gero bertsolari,  
lehendabiziko gizona zela  
eta gero bertsolari.





## ■ 2010eko Xalbadorren eguna. Kronika

Euskaltzaindira bidalia

Aurrez aditzera emanda zegoenez, urriaren 9an eta 10ean gozoro egin da aurten ere Deiadarra taldeak, Euskaltzaindia eta Urepeleko Herriko Etxearen laguntasunez urtero antolatzen duen Xalbadorren Eguna, Xalbador bertsolari haundia zena- rekin batera Imanol Sein Xanpun (1928-2002) bertsolari la- purtarra goralduz.

Aurtengo festa, urtero bezala, larunbat arratsean hasi zen, herriko pilotalekuan, Bergarako Idazle eskolako gazteek an- tolatu zuten ilunabar literarioa, Xendarineko ahizpen kantu eta bertso zaharrak, eta Gasteizko Zabaleta anaien trikitixaz nahasketa ederra eginez.

Ehun eta hogeit bat lagun bildu ziren arratseko festa gi- roan, lagun arteko afari eta festan, eta apenas inor jo zuen logureak ordu txikiek goizaldea harrapatu zuten arte.

Hala ere, gustuko tokian ez baita aldaparik, igande goi- zeko 9:30etarako auto eta ibiltariz bete bete egin zen herriko plaza, Xalbadorren artzain etxola eta inguruetara mendi-ibi- laldia egiteko prest, nahiz eta eguna negarti eta euritsu agertu zen udazkeneko egunsenti ospelean.

Bestalde, azpimarragarria da herriko apaizak eta Emile Larre euskaltzainak eman zuten mezaren ondoren, Xalbador- ren hilobira egindako bisitaldia. Hantxe bildu ziren herritar eta Xalbador-Xanpunen maitale/miresle asko. Hantxe ziren Xanpunen alargun Maria Antonia eta seme-alabak, herriko auzapeza, Jean Louis Laka bertsolaria eta abarrekin nahas- tuta. Aranalde zenaren koinata Lourdes Ijurjok egin zuen lore eskaintza bertsolariaren hilobian, urtero egiten duen bezala. Aitagure bat esan, eta Lakaren hiru bertso entzun ondoren, Agur jaunak kantatuz agurtu genuen hango ospakizuna.

Eguerrian, herri kirolak izan ziren plazan, Donazaharre (Baxenafarroa) eta Mutrikuko (Gipuzkoa) taldeak nor baino noz sokatiran, fardo altxatzen, trontzan, txinga proban, lokotx biltzen eta abar, Joxe Mari Egaña zuzendari zela. Berezi azpimarratu eta eskertzekoa da J. M. Egañak eta bere taldeak urtero egiten duen ahalegina.

Jarraian, pilotalekuan Osintxuko *Musikara* taldearen dantzaldia ikusteko aukera izan zuen jendeak, taldearen lana gogotik txalotuz. Euskal dantzak eman zituzten, bai baina ez modu tradizionalen. Benito Lertxundiren zenbait kantu ezagun eta musika bereziz landutako koreografiak eraman zituzten osintxuarrek Urepeleko euskal festara.

13:30ean hasi zen lagun arteko bazkaria, pilotalekuan. Eta tartean, beti bezala, Jean L. Lakak eta Xendarineko ahizpek kantatu zituzten Xalbador eta Xanpunen bertsoak aipagarrienak bazkaldarren gozamenerako. Xalbador eta Xanpunen goralmenez egindako bideo-argazki bilduma ere gogoz hartu zuten bazkaldarrek, ezkerpareta ez bada ere ikusteko tokirik egokiena.

Uxue Alberdi, Juan Jose Eizmendi *Loidisaletxe II* eta Xebastian Lizasoren bertso saioak eguneko ospakizunaren ardatzari zegokion maila ongi bete zuen. Ordu eta laurdeneko saio batean nekez esan daiteke esan zuten baino askoz gehiago, erritmo bizi-biziko saioa egin baitzuten, izan ere.

Azkenik, bostetan bertso saioa amaitu zenean, berehala erromeria hasi zen, Ander eta Imanol Zabaleta anaiekin, herriko pilotalekuan, kanpoan euria gogotik ari zuen-eta.

Egia esan, eguraldiak ez du asko lagundu aurten; baina ahogozo ezin hobea utzi du asteburuak Urepelen bildu ziren Xalbador zaleen artean. Horrexegatik, eskerrak eman nahi dizkie Deiadarra taldeak behin eta berriz Euskaltzaindiari, Urepeleko Herriko Etxeari, Bethart familiari eta antolakizunak egiteko laguntasun berezia ematen saiatzen diren lagun eta komunikabide guztiei.



Aranaldetarrak, P. Baztarrika eta Xanpunen familia, Urepele 2010



Urepeleko Herriko Etxeak Bethart familiari esker onez

Hurrengo urtean (2011) Xalbadorren heriotzaren 35. urteurrena izango baita, berriro ere lanean hasteko animatuta gelditu da Deiadarra taldea, berriz ere laguntzaile onak izango diren ustez eta esperantzaz, jakina.

# Xalbadoren eguna 2011

## Xalbador eta Xabier Lete gogoan

---

Urte hontako Xalbadorren eguna, urriaren 8an eta 9an egin zen Urepelen, aldez aurretik Donostian eta Baionan emandako prentsaurrekoetan adierazi zutenez Deiadarra taldeko Itxaro Bethart, Joakin Berasategi eta Joxemari Iriondok, eta Euskaltzaindiaren izenean, Antoni Sagarnak, Andres Iñigok eta Jean Baptiste Coyosek;

Hurrengo azaroan beteko dira 35 urte Xalbador bertso-laria zendu zela; eta abenduaren 4an izango da Urepeleko artzainaren miresle Xabier Leteren heriotzako lehen urteurrena.

Aurtengo ospakizuna bien omenez izango da, eta egitarau hauxe antolatu du Deiadarra taldeak, Euskaltzaindiaren babesean eta Gipuzkoa eta Bizkaiko aldundien eta Urepeleko Herriko etxearen laguntasunez:

### **Egitasmoa**

Urriak 8, larunbata:

Larunbat arratsez hasiko da aurtengo ospakizuna, zazpietan Gipuzkoako gazte talde baten poesia errezitalaz. Gero, gaueko 21:00etan, Benito Lertxundiren kantaldia izanen da herriko pilotalekuan. Eta kontzertuaren amaieran, festa jendeak nahi lezakeen arte.

Urriak 9, igandea:

09:00etan: Xalbadorren garai bateko artzain etxolara mendi-ibilaldia, etxola inguruak eta Urepeleko herria ezagutzuz.

10:30etan: Meza, Xalbador eta Xabier Lete gogoratzuz.

11:00etan: Ez dok Amairu taldeari eta Xabier Leteri buruzko bideo erakusketa, eta Joxemari Iriondoren hitzaldia.

- 12:00etan: Herri kirolak plazan, Donazarre eta Mutri-  
kuko taldeak zoingehiagoka sokatiran, orga  
altxatzen, txinga proban, arpanetan eta abar.
- 13:00etan: Osintxuko (Bergara) dantzarien saio berezia.
- 14:00etan: Aldez aurretik izenak ematen dituztenentzat  
lagun arteko bazkaria, tartean Erramun Mar-  
tikorena eta Xendarineko ahizpak kantari di-  
rela.
- 15:30etan: Haurren txokoa.
- 15:30etan: bertsolariak: Maialen Lujanbio, Amets Arza-  
llus, Xebastian Lizaso eta Juan Joxe Eizmendi  
*Loidisaletxe II*. Gai-emaille, Joxemari Iriondo.
- 17:30etan: Erromeria, Gasteizko Ander eta Imanol Zaba-  
leta trikitixa lagun.

Lagun arteko bazkarian eskuhartu nahi dutenek urriaren  
1<sup>a</sup> aintzin beren izenak eman beharko dituzte, telefonoz nahiz  
posta elektronikoz. Horretarako: Telefonoa 0033624332995;  
e-amila: deidearra@yahoo.com

Euskaltzaindiak eta Deidarra taldeak asteburu eder bat  
opa dautzue Xalbador eta Xabier Leteren miresle guztioi.

2011ko irailak 13

Egitasmoaren arabera, Xalbador, Xabier Lete eta hildako  
bertsolari guztien alde emandako mezaren ondoren, *Ez dok  
amairu* eta Xabier Leteri buruz Joxemari Iriondok egindako  
hitzaldiaren laburpena, herriko eskolan, 11:30etan.

Egun on

Aurtengo Xalbadorren egunean *Ez dok amairu* eta Xabier Lete  
antzezle, idazle, kantautore eta olerkariari ezagunaz hitz egiteko  
eskatu didate Deidarra taldetik. Atsegin haundiz beteko dut ze-  
regin hori, guztiz maitea eta erdi senidea ere banuen-eta Xabier  
(haren emazte Lourdes Iriondo gure lehengusu txikia baitzen).

Aldez aurretik esan nahi nuke *Ez dok amairu* eta Xabierrri buruz hitz egitean oso labur eta gainazaletik ibiliko naizela, bestela gehiegi luza bainaiteke, eta ez nuke nahi zuek asperrarazterik inola ere. Argazki batzuk tartean emanaz, agian, bilera hau arindu genezake, baina horretarako ere bitartekoak falta. Hau da zoritxarra!

Dena dela, honatx bi gaiak ere gaingiroki, azal-azaletik be- giratuta.

### **Ez dok amairu**

1966an *Ez dok amairu* taldea sortu zenean, hantxe egokitu nintzen. Areago, zorte paregabea izan zen neretzat taldearen sorrera hura, euskal kantu berrien eskasia gogorra genuen-eta egunero-ko gure irratsaioak nahi bezala antolatzeko.

Loiolako Herri irratiko langile nintzen 1961eko abuztuaz ge- roz, nola-hala eta profesionaltasunez euskarari sarrera eman nahi zion irrati gazte bateko langile gazte, Urola bailaran.

1965eko maiatzaren 5ean, Lourdes Iriondo gure lehengusu txikiari bost kantu berri grabatzeko egokiera izan genuen; eta, besterik esan izan bada ere, Lourdes Iriondo izan zen taldearen legamia, taldearen hazia eta arnasa.

Gogoan dut, 1965eko urrian Zarautzen bildu ginela Lourdes, Joxanton Artze –Artzabal– eta neu; eta handik astebetera, gurean bildu ginen berriro. Azpeitian egindako bilera hartan, Donostian beste bilera bat egitekotan gelditu ginen, dantzatoki eta jaialdie- tan euskaraz kantatzen ari zirenak gonbidatuz: Benito Lertxun- di, Julian Lekuona, Mikel Laboa, Joxanton Villar, Joxe Angel eta Juan Migel Irigarai, Arantxa Gurmendi, Jose Luis Frantzesena *Schubert*, Manolo Urbieto, Donato Larrañaga, Joantxo Mingo, Yoloak, Oskarbi taldea eta abar.

Gipuzkoako kantari asko, ikusten duzuen bezala, Iparralde eta Bizkaia aldekoekin lotura gutxi genuen-eta artean. Nemesio Etxaniz apaiz buruzuriak hamaika aldiz amestutako kantagintza berriari eraso nahi genion hola.

Esango nuke 60-70 hamarraldietan gure herrian izan zen kultura mugimenduaren ezaugarriak serio eta sendoenetarikoa

izan zela *Ez dok amairu* taldearen sorrera. Gure garaiko belau-naldiek –belaunaldi helduek– nekez ahaztuko dute 1966 urtearen hasieran sortu zen talde mitikoak gure artera ekarri zuen poza eta ilusioa, frankismoaren garai petralean zerbaiten behar gorrian baitzegoen Euskal Herria.

### **Aurkezpena**

*Ez dok amairu* talde bezala kantari hasi aurretik, Hernanin egin zen lehenengo jaialdia, 1966ko urtarrilaren 9an. Migel Bikondoa, Joxe Antonio Villar, Julian Lekuona, Mikel Laboa, Kemen hirukoa, Bihurriak taldea eta Ballet Izartik osatu zuten jaialdiaren lehenengo zatia. Bigarren zatian *Pelotari* filmea (Larrukert-Baste-rretxea) proiektatu zen jaialdia osatzeko.

Donostiako *Jarrai* antzerki taldeak antolatu zituen jaialdi biak ez ziren egin, ordea, taldearen izenarekin, ez. *Ez dok amairu* izenarekin eman zen lehenengo jaialdia, taldearen aurkezpen ofiziala, alegia, Irungo Bellas Artes aretoan egin zen, 1966ko martxoaren 6 eguerdian.

Lehenengo, jaialdiaren hasieran, *Martintxo errementaria*<sup>13</sup> ipuina irakurri zuen Xabier Letek, off-ean, aretoko argiak piztu gabe. Eta gero, Joxemari Iriondoren aurkezpenaren ondoren, Lourdes Iriondok, Julian Lekuonak –Julian edo Juliantxo deitu izan genion taldean beti–, Joxe Antonio Villarrek, Donostiako Bihurriak eta Oleskariak zortzikoak kantatu zuten, eta Artze anaiek txalaparta jo. Jaialdiaren osagarri, *Pelotari* filmea (Baste-rretxea-Larrukert) eman zen azkenean.

Taldekilde asko estu eta larri bazegoen ere, berebiziko arrakasta izan zuen aurkezpeneko jaialdi hark, kroniketan irakur daitekeenez. Irungo aretoa gainezka bete zen; eta 9.050 pezeta bildu ziren sarreretatik. Hala ere, 150 pezeta bakarrik gelditu ziran kutxarako, aretoaren alokairua, SGAE-Menores zergak eta beste zenbait kastu ordainduta gero.

---

<sup>13</sup> *Martintxo errementaria* – Joxe Migel Barandiaran “Obras Completas”, Tomo I. Edit. La Gran Enciclopedia Vasca – Bilbao; eta R.M. Azkue: “Euskalerrriaren yakintza – Madrid Espasa-Calpe



*Ez dok amairu* taldearen hurrengo jaialdiak, hurrenez hurren, Zumarragan, Seguran –Xabier Letek lehenengo aldiz taldean kantatu zuen eguna–, Ordizian, Madrilen, Donibane Lohizunen, Erreterian, Orion, Ondarroan, Durangon, Bilbon, Eibarren, Ondarroan bigarren aldiz, Bermion, Andoainean, Bergaran, Lekeition, Donostian, Barakaldon, Bilbon bigarren aldiz, Bartzelonan eta abar eman ziren.

Jendeak ondo baino hobeto erantzun zuen gehienetan. Hala ere, antolaketa lanetan taldeak jarraipen zehatza egin beharra zeukala ikusi zen zenbait herritan gauzak seriotasunez egiteko.

*Ez dok amairu* taldearen arrakasta ukaezineko zerbait izan zen hasiera beretik. Seguru asko, 60ko hamarraldi aberats hartako gertakaririk arrakastatsuen zelako edo, ikastolen sorrarekin batera. Ez dago zenbait kronika irakurri besterik hori egiaztatzeko.

Migel A. Astiz kazetariak askotan aipatu zuen taldea Bilboko egunkari batean, baina, batez ere, Zeruko Argia eta Loiolako Herri irratia izan ziren talde honen laguntzailerik onenak, besteak ez zuten aintzat hartu-eta.

Hasieta hartan etsai eta kontrario gogorrak izan zituen *Ez dok amairuk*, batez ere erdal prentsa eta euskara bitxi bat bezala eta ez beste edozein hizkuntza bezala egunero erabiltzeko instrumentu izan zedin nahi zutenen artean.

### **Baga, biga, higa**

Bost urtean mila ixtilu eta eragozpen gainditu, eta Euskal Herriko pilotaleku, plaza eta aretoetan kantatuz entzuleen gose-egarriari erantzuten saiatu ondoren, formula eta bide berrien bila zebilen *Ez dok amairu*. 1970ean, ordura arte egindakoaz pittin bat aspertuta edo, euskal kantategi zaharreko abesti baten izen bitxia hartu eta *Baga, Biga, Higa* sentikaria/ikuskaria prestatu zuten.

Ordura arte inoiz ez zen halako esperimentaziorik eta antzekorik egin Euskal Herrian, eta lehenengo aurkezpenerako prestatu zuten orria nire karpetako paperen artean aurkitu dut

aurrerantzean zer egin nahi zuten argi asko esplikatuz jaialdira biltzen zirenei:

Egun ez duzu betiko eran egiten genuen jaialdirik idoroko. Egun, gisa berri batez azaltzen gaituzu. Orai arte, kantari baten atzetik bestea zetorrelarik zoan jaialdia. Hau, emanaldien egiteko era bat da; eta ez dugu baliosa ez denik esaten, ez gutxiagorik ere. Sakonkiago egin behar direlakoan gaude, eta guk jarraituko dugu egiten. Bainan egun, behar baten barrenean aurkitzen gera: atzokoan funtsatua eta oinarri biharkoarena.

Zenbait urtetan elkarrekin ibiliz gero, bestearen beharra senditzen dugu. Hau bizitzaren maila guztietan gertatzen da; eta areago, talde baten barrenean. Ez dugu artalde batetan amildu nahi; aitzitik, taldearen barrenean arituz eta haren bidez, norberaren burua aberasten joan dadin nahi genuke. Eta horrela, guztiona.

Gure egungo azalpena, elkarren arteko lanaren lehen adierazpena da; lehen urratsa besterik eman ez dugularik.

Pentsatzen dugu, egungo antze-lana ez dela hainbat xoil-xoilik batek egin dezakena, nola elkarrekilakoa. Hain zuzen, honek izan nahi du gure eginkizunaren ardatz eta funtsa: elkarren arteko egintzatan, aske sortutako lana; norberaren nortasunaren bila joan nahi duena. Biderik egokiena delakoan gaude.

Erdian txalaparta dadaukagu; antziñako lan-tresna, oraiko gizonen lanaren adiereazpena; taldearen beraren errorik sakenetarikoa. Erdian daukagula, beraz, kondairaren akelarrea –kanta zaharrak, tresna zaharrak, gure kantak, olerkiak, dantza-, gure izatea zehar osaturikako sentikaria agertu nahi genuke. Eta orok parte hartuz, kondaira zehar osatzen eta aberasten joatea.

Oharra: Euskarazko programa, dizka batekin batera agertu nahi dugu, eta horregatik ez dago oraindik inprimaturik. Bitartean, sentikaria ulertu ahal izateko, eskutan duzun hau egin dugu.

Sentikaria/ikuskariaren egitura eta hezurdura horretan, kantari edo partaide bakoitzak bere papera eta egitekoa zuen, esateko:

Jesus Arza.....	“Panpalox”
Joxan Arza .....	“Ziripot”
Julian Beraetxe .....	“Belagile bat”
Juan Migel Irigarai .....	“Belagile bat”
Jose Angel Irigarai .....	“Miel Otxin”
Lourdes Iriondo .....	“Mari-eder”
Kepa Garbizu.....	“Belagile bat”
Mikel Laboa .....	“Perenauxea”
Benito Lertxundi.....	“Erlandeko”
Xabier Lete .....	“Anaios”
Nekane Oiarbide .....	“Sorgin bat”
Jose-Mari Zabala .....	“Xagit”

Musika-tresnak:

Txalaparta, tobera .....	Arza anaiak
Soñua .....	Juan Migel Irigarai
Musu-kitarra.....	Jose Angel Irigarai
Gitarra-laguntzak, flauta .....	Jose-Mari Zabala
Txistua .....	Jose-Mari Irastorza (Argia taldea)

Gitararak, abotsak eta beste:

Argazkiak .....	Jose-Mari Zabala
Kartela .....	Jose Luis Zumeta eta Jose Mari Zabala
Antolaketak .....	Nekane Oiarbide
Ikuskari honen zuzendari .....	Joxan Arza
orokorra	
Taldearen zuzendari .....	Jose Angel Irigarai

Hainbat aldiz aipatu izan den *Baga, biga, higa* ikuskari/sentikariaren egitura honelatsu banatuta zegoen orohar, inoiz edo behin aldaketa txikiak egiten baziren ere:

1.zatia:

- Baztango mutil dantza, talde osoak.
- Xoxoak galdu du, Joxe A. Irigarai.
- Txalaparta, Artza anaiak.

- O, Pello Pello, Mikel Laboa – Jose M. Zabala.
- Txorietan buruzagi, talde osoa.
- Arranoak bortuetan, Mikel Laboa – J.M. Zabala.
- Txoria kaloian, Mikel Laboa.
- Tobera, Artza anaiak.
- Behin batez, Xabier Lete.
- Udaberria – poesia, Joxe A. Irigarai.
- Emakumea – poesia, Joxe A. Artza.
- Jarraian, J.A. Irigarai, Lourdes Iriondo, Artza eta abar, poesia osatuz.
- Zatozte denok... J.A. Artza.
- Partitzeko tenorea, Lourdes eta Xabier
- Poesia irakurtzea, Joxe A. Irigarai
- Katea, X. Lete, Juan Migel Irigarai, Lourdes Iriondo, B. Lertxundi
- Txori txikia, Benito Lertxundi, amaieran talde osoak lagunduta

## 2. Zatia:

- Tobera, Artza anaiak eta talde osoak:  
San Martin de la moja moja de San Martin
- Bertsoak eta tobera, Xabier Lete.
- Altzateko jaun, X. Lete.
- Txoriak txori, Mikel Laboa - Jose M. Zabala.
- Poesia irakurtzea, Joxean Artza.
- Haur bati, B. Lertxundi.
- Muxu-kitarra, J. A. Irigarai.
- Ia guriak egin du, X. Lete.
- Umeek ere jakin dute, B. Lertxundi.
- Tristura haundi bat, J.A. Irigarai eta Juan Migel Irigarai.
- Muxu-kitarra, J.A. Irigarai.
- Kontutxoak, Lourdes Iriondo, Juan Migel Irigarai, Lertxundi
- Etzait gustatzen katerik, J.A. Irigarai
- Gizona, lana, makina... denak batera. Lourdes, X. Lete, J.A. Irigarai, J.A. Artze, J.M. Artza.
- Baga, biga, higa, Mikel Laboa, J. M. Zabala eta korua, denak batera.

- Julian Beraetxe (argiak) eta Nekane Oiarbide ere eskenan sartzen dira eta ikusleak tauladura igotzen.
- Baztango Mutil dantza eta amaia.

### **Emanaldiak**

*Baga, biga, higa* ikuskaria/sentikariaren lehenengo emanaldia non egingo eta Portugaleten egin zuen *Ez dok amairu* taldeak, 1970eko abuztuaren 22an. Herri horretako Elai-Alai folklore talde ezagunak antolatu zuen jaialdia. Eta sekulako arrakasta izan zuten, sinestu ezin halakoa. Bi mila lagun inguru bildu ziren jaialdi hartan –horietako ehundik larogeita hemeretzi (%99) erdaldunak ziren, hau da, ez zekiten ikuskaria /sentikariaren hizkuntzarik –euskararik–. Harrakastaren berri jakin nahi duenak aski du egun haietako periodikoak begiratu eta irakurtzea.

Ondorengo herriak euskaldunagoak ziren, Portugaletekoaren ondoren Elorriora joan baitziren. Eta hirugarren emanaldia Urnietan egin zuten, Lourdes Iriondo eta Xabier Leteren atariko atean. Jende asko eta jai-giro bikaina izan zuten herri horietan ere.

Hurrengo emanaldia Tolosan egin zuten, 1971ko otsailaren 14an. Eta 1971ko otsailaren 23an, Iruñeko Gayarre antzokian, arratsaldeko zazpi t'erdietan. Hernandez deitu kazetariak Nekane Oiarbide eta Maite Alonsorekin egindako elkarrizketa argitara eman zuen *El Pensamiento Navarro* periodiku berak.

*Ez dok amairu* taldea 1972ko urtearen amaieran desegin zen. Eta batzuek, iraupen oso laburra izan zuen *Zazpiribai* ikuskaria antolatu eta eman zuten: Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Peio eta Pantxoa, Pantxika Erramuspe, Iñaki Urtizbe-rea, Ugutz Robles-Arangiz, Manex Pagola, Loli Ansa akordeoila-riak... Ez zuten hegoaldean kantatzerik izan, Francoren diktadurapean geunden-eta garai hartan

Mikel Laboa, Artze anaiak eta Jose Mari Zabalak, berriz, *Iki-limiliklik* taldea antolatu zuten.

### **Zergatik Xabier Lete gaur?**

Honaino, labur labur esanda, *Ez dok amairu*-ren historia. Inoiz zabalago nahi bazenute, gustura luzatuko nintzake istorio hoi-

riek kontatzen, taldeko jendearen argazki asko tartekatuz, hitzaldia hain aspergarri gerta ez dakizuen.

Aurtengo Xalbadorren egunean Xabier Lete antzezlarri –Oiarztzungo Lartaun taldean askotan parte hartu zuen, eta aparta zela esango nuke antzez-lanetan–, idazle, kantautore, olerkari –benetan bikaina da bi hizkuntzatan argitara emandako bere azkenengo olerki liburua: *Egunsentiaren esku izoztuak – Las ateridas manos del alba–* eta ohorezko euskaltzaina goraldtu eta oheratu nahi izan du Deiadarrk.

Xalbadorren egunaren eta Xabier Leteren omenaren berri eman zuenean Deiadarrak, –Zergatik Xabier Lete?, galdegin zuen kazetariren batek.

Erantzuna: Xalbador haundiak mireslerik izan badu, Xabier Lete baitzen Xalbadorren miresle haundietako bat. Gustukoa zuen Urepelekoaren bertsogintza, eta horren lekuko asko dago, bakar batzuek besterik aipatuko ez badut ere gaur hemen.

### **Xabier Letez**

Xabier Lete Bergararetxe Oiartzunen jaio zen, 1944ngo apirilaren 5ean. Eta 60ko hamarraldi hartako euskal kulturaren aldeko ekintza askotan parte hartu zuen, oso gaztetandik. Besteak beste, Euskal Herrian sortu zen kantagintza berrian partaide izan zen, *Ez dok amairu* taldeko partaide.

Dozenerdi bat disko haundi eta hiru-alu txiki grabatu eta plazaratu zituen, bere kanteekin. Bertsolari zaharrekin beste hamar-hamabi disko baditu grabatu eta zabalduak. Beraz, lotura osoa du Xabier Letek bertsolaritzarekin.

Letra idazle bikaina zen, eta beste kantari askorentzat idatzi zituen hitzak: Lourdes Iriondo, Mikel Laboa, Antton Valverde... Eta beste hizkuntzetan idatzi duten poeten letrak itzuli ere bai, hala nola Bertol Brecht, Jaques Brel, Goerge Brassens, Pio Baroja... Lizardi, Juan Mari Lekuona herritarra eta lagunaren letrak eta abarren poesiak askotan erabili zituen.

Kantagintzaren sailean, ehunka kantaldi eman zuen *Ez dok amairu* taldearekin, Lourdes Iriondorekin, Peio eta Pantxoarekin, Antton Valverderek, Benito Lertxundirekin, Mikel Laboarekin...

Azkenengo kontzertua, oso oker ez banago, Erreterian eman zuen, 1999ko irailaren 25ean, eta osorik diskoratuta dago.

Xabier Lete idazlea. Prosa eta poesian ere aberatsa da. Besteak beste, oraintxe gogoan ditudanak hauek dira: *Egunetik egunera orden gorpilean* (1969), *Bigarren poema liburua* (1974), *Urrats desbideratuak* (1981), *Zentzu antzaldatuak poemategia* (1992), *Biziaren ikurrak* (1992), *Egungoaren esku izoztuak – Las ateridas manos del alba* (2008...

Azkenengo honek Euskadi saria irabazi zuen. Baina lehenetik ere bazituen saritutako liburuak, aipatu dizuedan zerrenda horretan.

Inork bere artxiborako gogoan hartu nahi baditu, Xabier Lete egindako diskoen zerrenda luzea eta aberatsa da, bertsolarietara oso lotua. Hona hemen nik osatu dudana zerrenda:

- Bertso zaharrak (HG 1976. Xabier Lete, Julian Lekuona eta Antton Valverde)
- Txirritaren bertsoak (HG 1976)
- Berrehun urtez bertsoan: (7 CD. Elkar): Xenpelar, Bilintx, Elizanburu, Etxahun, Otaño, Txirrita, Basarri, Uztapide, Xalbador eta Lazkao txiki.
- Xenpelar – Bilintx (Elkar 2001)
- Elizanburu, Etxahun, Otaño (Elkar 2001)
- Basarri – Uztapide (Elkar 2001)
- Xalbador (Elkar 2001)
- Lazkao txiki (Elkar 2001)
- Txirrita 1 (Elkar 2001)
- Txirrita 2 (Elkar 2001)

Bertsoz osatutako disko horiez gainera, beste hauek ere egin zituen, inoiz bakarka eta beste batzuetan Lourdes Iriondorekin batera.

- Xabier Lete (disko txikia, HG 1968)
- Xabier Lete (disko txikia, HG 1968)
- Lourdes Iriondo – Xabier Lete (LP, HG 1969)
- Xabier Lete (LP, Artezi 1974)
- Kantatzera noazu (LP, Artezi 1976)
- Lourdes Iriondo – Xabier Lete (LP, HG 1976)

- Lore bat, zauri bat (LP, HG 1978)
- Eskeintea (CD, Elkar 1991)
- Hurbil iragana (CD, Elkar 1992)
- X. Lete zuzenean, 1999-IX-25ean Errenterian emandako kontzertua.

Kantu guzti hauez gainera, Xabierrek baditu gehiago ere, ez baitziren diskoratu inoiz Lourdesek eta biok Loiolako Herri irrastian grabatutako kantu batzuk.

Bistan da Xabier Leteren diskografia aberatsa dela, eta askotan lotu zuela bere langintza bertsolaritzarekin, eta Xalbadorrekin.

### **Nolatan hasi zen kantari**

Hauxe ere ondo bitxia dela esango nuke, halabeharrez hasi baitzen kantari, bere lehenengo asmoa *Ez dok amairu* taldeko kantariantzat letra egokiak egin eta eskaintzea bazen ere. Segurako parrokia aretoan izan zen, 1966ko martxoaren 26an. Herriko Luistarrek antolatatu zuten jaialdi hartantxe kantatu behar izan zuen, ustekabean.

Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi, Joxe Mari Telleria (Segurako txistularia), Lourdes Esnaola (Beasaingo akordeoilari txapeladuna), Juantxo Mingo eta Hiru Zaldibiarrak ziren kantatzen. Baina Benitok ez zuen izan joaterik gaixo zegoelako, eta norbaitek esan zion Xabierri: "Hartzak gitarra, Xabier, eta kantazak zerbait!". Eta bat batean, bertsolariek kantatzen duten bezalaxe, hiru-lau kanta eman zituen jaialdi hartan.

Kanta horietatik bat, 1965eko urtarrilaren 1ean Donostiako Anoetan Euskaltzaindiak antolatutako Bertsolarien Txapelketan Xalbadorrek "Orain zure emazte zenaren soñekoari bi bertso (Alfonso Irigoyen)" bota zizkion bi bertsoak aukeratu zituen. Besteak, berak egindako *Eta poeta* eta *Lore gorrien balada* kantatu zituen:

Zelai ertzeko lore gorriak  
 neguak zapuztu ditu.  
 Neskatxaren ezpain eriak  
 zeñek lastanduko ditu?  
 Gure herriko baratzak dira  
 lorerik gabe gelditu.



Udaberriko lili garbia,  
gure lurrian eldua,  
gaueko amets bat bezela  
egunsentian galdua,  
gizon dirudun baten etxean  
ain gazterik usteldua.

Loreak zeiniek jarri zituen  
elizako aldaretan,  
nagusiak ekarritako  
zillarrezko ontzietan?  
Orain larrosik ez dut ikusten  
Euskalerriko kaletan.

Xalbadorrek Donostiako finalean kantatu zituen bertsoak ederrak ziren/dira, eta holaxe iruditu nonbait Xabier Leteri ere. Segurako jaialdi hartan kantatu zituen lehenengoz, eta Loiolako Herri irratian grabatu gero:

Pentsa zazue, alargundu bat  
ez daike izan urusa.  
Dolamen hunek, oi, ez dezala  
ainitz gehiago luza.  
Orai urtea ziloan sartu  
andreñoaren gorputza.  
Haren arropa hantxet dilindan  
penaz ikusten dut hutsa.

Geroztik nihurtu ere nabila  
guzia beltzez jantzirik.  
Ez dut pentsatzen nigar eiteko  
ene begiak hesterik.  
Ez pentsa gero, andre gaizoa,  
baden munduan besterik  
zure arropa berriz soinean  
har dezaken emazterik.

Segurako jaialdiari buruz hauxe idatzi genuen hurrengo egunean irratirako hitzez hitz:

*Jendeak ondo erantzun zuen atzo Ez Doki Amairu taldeak Seguran eman zuen jaialdian. Aretoa nahiko eskas, baina giro ona. Ezer gehiago eranstekotan, zera esango genuke: Lourdes Iriondo, Arantxa Esnaola, Joxe Mari Telleria eta Hiru Zaldibiarrek, oso ondo, bikain aritu zirela! Xabier Lete, urduri, ikaragarri urduri, bere lehenengo kantaldia baitzuen. Mingo ere urduri, nerbioen mende. Hala ere, jendea gustura gelditu zen. Aupa, Ez dok amairu!*

Hau izango zen seguru asko, Xabier Letek Xalbador bertsolari haundiari publikoan egin zion lehenengo aitortpena. Handik aurrera askotan aukeratu zituen Urepelekoaren bertsoak.

Gaixo eta indarrrik gabe zegoela, 2001ean, ETBrako prestatu eta grabatu zuen *Ehun urtez bertsoan* antologia, bertsolaritza azkenengo egin nahi izan zion omenaldia zen, eta Xalbadorri egin ziona, besteak beste.

*Elkarlanean* diskoetxearekin egin zuen diskoaren azalean, Xalbadorren *Nigarra begian, Dohaina eta lana, Hogoi urtetan bezala, Mattin nigarrez ikusi dut, Ama Euskal Herria, Bakea, Primateari, Esperantzarik gabeko amodioa, Jainkoa eta ni* eta *Sorte-txeari* jarritako bertsoak jaso zituen.

Bitxia da diskoaren aurkezpenean esaten duena, Xalbadorri buruz:

Bertsolari baxenafartarra (Urepel, 1920 – 1976). Bertsolari lirikoa eta poetikoa, seriosasuna eta malenkonia adierazi izan zituen anitzetan: bere bizitza, familia, baserria, fedea eta naturari buruz kantatu zuen. Mattinekin batera Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko bertsolariak elkartu zituen. *Ezin bertzean* (Auspoa, 1969) eta *Odolaren mintzoa* (Auspoa-Sendoa, 1976) eman zituen argitara. Bere omenaldi egunean hil zen, bihotze-koak jota. Ohorezko euskaltzain izendatu zuten 1977an.

### **Xalbadorri miresmena**

Xalbadorri zion maitasuna eta miresmena, duela asko iparraldeko irrati batean<sup>14</sup> egindako elkarrizketa batean ere nabarmen

---

<sup>14</sup> Irulegi irratian

ageri da Xalbador hizpide zuela; eta han esandakoetatik zati hauxe gogoratu nahi dugu kronika honetan:

Bertsolarien artean, edo koblakarietan oso gutxi dira poetak. Baina Xalbador poeta zen, bere sormena oso poetikoa zelako. Batetik hori, eta bertzetik bere izate pertsonala niretzat oso misteriotsua zen.

Nik egin nuen kantua jendeak hartzen du halako himno bat bezala, edo halako goraipen bat bezala. Kanta horretan dago Xalbadorrekin iradokitzen zidana: bere izatean bazegoela halako bikoiztasun bat.

Alde batetik, izan zitekeen munduko pertsonarik goxoen, eta solasean argia. Ezagutu dutenek esan izan dute tratuan ere hala zela. Baina bertzetik, bazuela barne bat, barne-izate bat nahiko urratua eta nahiko bihurria. Eta gainera, berak esaten du bere bertsoetako batean, *Jainkoa eta ni* deitzen den bertso sailean, bera oso gaztetatik izan zela beti bekatorosa eta bizitu zuela bere bekatari eta gisa txarrekoa izatearen kontzientzia hori modu zoragarri batean. Eta horrek kulpagarri egiten zuela bere burua Jainkoaren aurrean, azkenik egun batean bakea egin zuen arte Jainkoarekin.

Horregatik, ni uste dut Xalbador gizon interesgarria zela oso zeren, barne atormentatu bat izanik, eta, beharbada, jendeak uste duena baino zailagoa, gero, batez ere bere kantatzeko manneran eta bere poetikan, oso gizon aberatsa eta interesgarria izan zelako...

### **Urepeleko artzaina**

Zer meritu gehiago beharko zukeen bada, aurreko urteko abenduan hil zen Xabier Lete kantari-bertsolari-poetak Xalbadarren eguna 2011 honetan bera ere omendu eta gogora genezan?

Ez pentsa, ordea, ahaztu dudarik *Urepeleko artzainari* eskaini zion kanta poema eder hura, askotan kantatu izan duguna hemen, gaur ere kantatuko dugun bezala:

Adiskide bat bazen  
orotan bihotz-bera,  
poesiaren hegoek  
sentimentuzko bertsoek  
antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari  
bakardadez josia,  
hitzen lihoa iruten  
bere barnean irauten  
oinazez ikasia,  
ikasia.

Nun hago, zer larretan  
Urepeleko artzaina,  
mendi hegaletan gora  
oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzana?

Hesia urraturik  
libratu huen kanta,  
lotura guztietatik  
gorputzaren mugetatik  
aske senditu nahirik.

Azken hatsa huela  
bertsorik sakonena,  
inoiz esan ezin diren  
estalitako egien  
oihurik bortitzena,  
bortitzena.


Nun hago, zer larretan  
Urepeleko artzaina,  
mendi hegaletan gora  
oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzan?

Nun hago, zer larretan?

Nola Xalbador hala Xabier sinesmen haundiko gizonak ziren. Biak hilak dira, Xalbador 1976ko azaroaren 7an, Xabier 2010eko abenduaren 4an. Beharbada biak elkarrekin egongo dira gaur Urepelen ospatzen ari garen festa honi begira gozatzen. Amets egin nahi genuke, gutxienez ere amets.

Horrela bada, har bezate gure besarkada eta esker ona.

Joxemari Iriondo



Xabier Lete Urepelen, Xalbadorren omenez

## ■ Bazkalondoko bertso batzuk

Xalbadorren eguna 2011ko bazkalondoko bertso saioa Maialen Lujanbio, Xebastian Lizaso, Juan Joxe Eizmendi *Loidisalletxe II* eta Amets Arzallusek egin zuten. Handik jasotako zati batzuk dakarzkizuegu ondoren gure kronikara, bertsoaz goza dezazuen.

Maialen .....

.....

Bihar-etziko bideak behar  
dira asma eta alta  
gaur Urepelen exenplurako  
hau ezagutzeko planta,  
hango ta hemengo batzen dituna  
ta euskara duenak taupa.  
Nik maite dudan Euskal Herriak  
holako itxura dauka,  
nik maite dudan Euskal Herriak  
holako itxura dauka.

Xebastian Amestu eta maite degunak  
badauka bere distira,  
bereahalaxe pasako gera  
gauetik egunsentira;  
hola mudantza ikusiko da  
hemendik epe gutxira.  
Aspaldi egin genuen ametsa  
ere betetzen ari da,  
bildurrik gabe hitz egiteko  
begietara begira,  
bildurrik gabe hitz egiteko  
begietara begira.

Arzallus Soberakina beti kalte.  
Soberakina zenbat ote den  
da galdera bihurria,  
denok zabalik daukagulako  
nahi baten iturria.  
Sobera al da gure hizkuntza,  
sobera al da herria?  
Sobera al da dugun dirua  
bizi honen oinarria?  
Munduko gauzik zailena hori,  
atzematea neurria.

Nik opariak jaso izan ditut  
beti begirada prestuz,  
gozatu izan dut besten opariz  
batzuk batere ez tolestuz.  
Soberakina kaltea dela  
zatoz hitz hoiek aurkeztuz...  
Ikas dezagun daukagun hori  
gozatzen gure bi eskuz.  
Baina askotan bizi ohi gera  
ez daukaguna amestuz.

Sobera da bat, falta bestea,  
eta zail da konprenitzen,  
bi horietan zein den onena  
gogoeta hortan nintzen.  
Soberakoak nahasi ohi gaitu  
baina faltak gaitu mintzen.  
Ta nik aukeran nahiago faltan  
nahiz horrek nauen izitzen.  
Falta den horrek bederen usu  
erakusten du bizitzen.

Loidisaletxe Umetan gizon, gizonetan ume  
Gaztetan haundi, hauditán txiki,  
horrek dirudi txistea,  
baina sarrítan entzun izan da  
horrelako albistea.  
Gora igo ta mingarria da  
berriro behera jaistea,  
nahiz eta hala gerta leikela  
asko kosta sinistea.  
Gizonera ez iriste hori,  
hori litzake tristea,  
hori litzake tristea.

Gauzak pentsatzen hasi ta hemen  
nola behar degun segi,  
erabakia hartu izan da  
gehienetan errezegi.  
Bakoitzak bere parean dana  
ondo betetzea beti.  
Nahi deguna ta gertatzen dana  
ulertzen ez da zailegi:  
umeak gizon gutxi dauzkagu,  
gizonak ume gehiegi,  
gizonak ume gehiegi.

Asko gaitu gu arinkeriak  
galtzeraino eramának,  
gero jasaten zail bihurtuak  
etorri zaizkigun zamak.  
Umetik eta haunditik zerbait  
edukiko degu danak,  
baina oraintxe ulertzen ditut  
esaldi hau egin zuanak:  
Ume jaió ta ume bihurtu  
gerala munduko danak,  
garela munduko danak.



Xebastian Solasak, laburrak eta finak  
Sarri askotan zelebrea da  
hitzaldi edo predikua.  
Askok daukate guk bezelaxe  
eskuerara mikruea.  
Eta askotan aurrean jende  
dena ezin kabitua,  
eta aprobetxatuz aurrean  
dagola nork aditua.  
Hitz gutxirekin asko esateak  
horrek dauka meritua,  
horrek dauka meritua.

Holakoetan hitz egitea  
oinarri edo zutabe,  
harriturikan gelditu ohi da  
entzuten dan ainbat jende.  
Hizlari edo bertsolaria  
danean hitzaren jabe,  
ez dago beti zertan egonik  
bi ta hiru ordubete,  
ez dago zertan jardun ta jardun  
baina ezer esan gabe,  
baina ezer esan gabe.

M. Lujanbio Ahal duenak, ahal duena  
Ni ere ados egon naiteke  
hain esaldi derrigorrez,  
hitz gutxietan asko dioten  
horren sententzi gogorrez.  
Beraz, ahal dunak ahal duena  
edukitzez eta obrez.  
Beraz ahal dunak ahal duena,  
baina konforme inor ez.

Ahal denarekin konformatuta  
bizitu liteke lasai,  
baina horrela konforme danik  
hain jende gutxi dago, ai!  
Gutxi duenak askotan nahi  
beiratu ta harrapagai;  
eta asko daukan harek berriz  
beti ere gehiago nahi.

Lau bertsolariek puntutan egindako saioa

- Arzallus Pasa dira esaldi filosofikoak,  
filosofikoak.
- Loidisaletxe Batzuek izan dira kategorikoak.
- Xebastian Neri grazia egin dit lanarekikoak.
- Maialen Beti dira errezago idatzitakoak.
- Arzallus Orain umore pixkat nahi du publikoak.  
orain umore pixkat nahi du publikoak.
- Loidisdaletxe Eta zuentzako da orain datorrena,  
orain datorrena.
- Xebastian Gure intentzioa hain da nabarmena.
- Maialen Inork ez du lo hartu, horixe ederrena.
- Arzallus Baina etzazula eska lortu ezin dena.
- Loidisaletxe Orain lortu nahi degu zuen gozamena,  
orain lortu nahi degu zuen gozamena.
- Xebastian Lehen ahozabalik zegoen jendea,  
zegoen jendea.
- Maialen Ixo, eztut eta nahi hori esatea.
- Amets Hor haur batek egin du siesta dexentea.
- Loidisaletxe Bere ahultasuna ederki bete.
- Xebastian Noiztikan dago modan bertsoak jatea,  
noiztikan dago modan bertsoak jatea?

- Maialen Luzetxo doa baina edukiz beteta,  
edukiz beteta.
- Arzallus Oraindik ezingo da hartu erretreta.
- Loidisaletxe Naiko lan baguenen, mekaun la puñeta!
- Xebastian Gauza politak ere joan dira tarteka.
- Maialen Ez dute lo hartuko hotzak daude-eta,  
ez dute lo hartuko hotzak daude-eta.
- Aarzallus Eskuak sakeletan, hotzik ezin kendu,  
hotzik ezin kendu.
- Loidisaletxe Alpertuak daudela ere ematen du.
- Xebastian Lasai, horrelakorik ez da nabarmendu.
- Maialen Ai, guk ere gure presa ekarri bagendu.
- Arzallus Hendaian udazkena, Urepelen negu,  
Hendaian udazkena, Urepelen negu.
- Loidisaletxe Hemengo kasoia ere nabarmena omen,  
nabarmena omen.
- Xebastian Ez dut ulertu eta zeuretzat okerren.
- Maialen Ezagun da mendian goizez nor egon den.
- Arzallus Edo eta gu gera hemen hozten lehenen.
- Loidisaletxe Izardi usairikan behintzat ez da hemen,  
izardi usairikan behintzat ez da hemen.
- Xebastian Jendea ez dago hotzak muxugorrituta,  
muxugorrituta.
- Maialen Eta botilak berriz dana urrituta.
- Arzallus Patxarana ere ondo iritsi zaigu-ta.
- Loidisaletxe Zurea egongo zen ezin kabituta.
- Xebastian Mutrikuarrak bazkaitan berotu gaitu ta,  
mutrikuarrak bazkaitan berotu gaitu ta

- Maialen Edari ta janari dotore askoak,  
dotore askoak.
- Arzallus Ta berotu zaizkigu sabel ta kaskoak.
- Loidisaletxe Argitu dira ondo gure bekozkoak.
- Xebastian Eta otorduan'e ai zer arriskoak.
- Maialen Ederrenak platerak portzelanazkoak,  
ederrenak platerak portzelanazkoak.
- Arzallus Ni ere ontzi hoiei nengon begiratzen,  
nengon begiratzen.
- Loidisaletxe Nork ekarri dituen jarrita pentsatzen.
- Xebastian Halare barrukoa oso goxoa zen.
- Maialen Etxera eramateko dute preparatzen.
- Arzallus Ez dira garbitu behar, ez dira puskatzen,  
ez dira garbitu behar, ez dira puskatzen.
- Loidisaletxe Beraz ez dute behar lababajilasik,  
lababajilasik.
- Xebastian Hoiek ez dute zuen etxekoen antzik.
- Maialen Dena ederra zegon, ez zen deus eskasik.
- Arzallus Beraz, dena perfektu atera da kasik.
- Loidisaletxe Ezer puskatu gabe egon geinzke pozik,  
ezer puskatu gabe egon geinzke pozik.
- Xebastian Garbitzen ez dutala inor'e ikusi,  
inor'e ikusi.
- Maialen Lanik egin gabe gaur ez gaude itsusi.
- Arzallus Garbitu nahi duenak, ba, lanari eutsi.
- Loidisaletxe Beraz borondatea orain erakutsi.
- Xebastian Ogiakin utzi det brilo eta guzi,  
ogiak in utzi det brilo eta guzi.

Maialen Gustora zaudetela ondo badakigu,  
ondo badakigu.  
Arzallus Ta gero kantu batzuk, bat, bi edo hiru.  
Loidisaletxe Baina ezingo gera betiko katigu.  
Xebastian Bestela zuentzako zigor ta kastigu.  
Maialen Bertsoen testiguak bukatu zaizkigu,  
bertsoen testiguak bukatu zaizkigu.

Azken agurra, bakoitzak nahi duen neurri eta doinuan.

Maialen Urepeleko herriak  
badauka aski entzute,  
ta holaxe jarrai dezan  
jo eta ke ehun dute.  
Langile denei gure esker ona  
eskeinitakoen truke,  
Xabier Letek ta Xalbadorrek  
gurekin segituko dute.

Xebast Lehenago ere egin da  
hemen hamaika holako.  
Behin behar eta gaur ere  
bildu da jendea franko.  
Hurrengoan ere ez da  
hemen jenderik faltako  
pozez botako duena  
komeni dan hainbat malko.  
Bagoaz; proposamena  
beti beste baterako,  
gaur bezin ondo edo hobeto  
dena delako aterako.  
Xalbador eta Leteri  
omenka segi beharko  
bertsolaritzak biekin  
zor asko dadukalako.

Loidi Gaur Urepelen elkartu gera  
sekulako koadrila,  
zuengandikan entzuna degu  
egundoko txalo pila.  
Ta orain neri antzematea  
ez da inorentzat zaila,  
zeinen gustora joango naizen  
Urepeldik Errezilla

Amets Oroimenetik sortu,  
hori da gakoa.  
Bien sormen indarra  
berdingabekoa.  
Baina herri oso bat  
du oinordekoa,  
hemen elkartu dena  
eta elkartzekoa.  
Nola herri oso bat  
den oinordekoa,  
adio Euskal Herria  
Urepelekoa.

## ■ Asteleheneko kronika

Astelehenez, 2011ko urriaren 10ean, Euskaltzaindiko webgunera bidalitako kronika laburra:

Modurik dotore eta jatorrenean, maitasun haundiz egin da aurreko asteburuan Xalbador eta Xabier Leteren omenezko Xalbadorren eguna 2011 Urepelen, Deiadarra taldeak antolatuta eta han bildu direnei euskal kutsuz betetako besta ederra eskainiz.

Bertan behera utzi behar izan zen larunbat arratserako programatuta zegoen Benito Lertxundiren kantaldia, kantariaren emazte eta taldeko den Olatz Zugastiren ezbeharra (erretina-askatzea) zela-eta.

Kepa Junkerak eta bere taldeak ederki bete zuen oriotarraren hutsartea; eta Urepelen bildu zen gazte eta zahar jendeak pozik hartu zuen Keparen emanaldi luzea. Bai dantzan egin ere gogotik aldian-aldian, goizeko ordu txikiak arte.

Igandean, urriak 9, hotz eta umel etorri zen eguna. Baina eguerdirako jaso zuen. Eta aurreko gaupasaren ondorioak ahaztu eta jende multzo haundia animatu eta igo zen Xalbadorren artzain etxola maitea bisitatzerara, han goitik Urepele inguruak ikusi eta gozatuz.

Bitartean, Emile Larre euskaltzainak eta herriko apaizak meza eman zuten herriko parrokian, bi omenduen eta hildako bertsolari eta euskaltzale guztien oroimenez. Azkenengo urte hauetan beti egin ohi denez, Xalbadorren hilobian lore eskaintza egin zen ondoren, eta Agur Jaunak kantatuz amaitu han goa.

Aurtengoa Xalbador eta Xabier Leteren oroitzarrez antolatutako eguna baitzen, Xabier Leteri zegokion bideoa eman zen herriko eskolako aretoan, eta *Ez dok amairu* taldearen sorreraz eta Xabier Leteri buruz hitz egin zuen Joxemari Iriondok, azkenean entzuleen galderei erantzunez.

Bitartean, herri kirolak eta festa giro ederra izan zen herriko plazan, aurten eguraldia ere lagun zela. Plazako bazter batean dagoen Xalbadorren irudian lore eskaintza egin zuen Xabier Lete zenaren arreba Arantzak.

Osintxuko (Bergara) dantzariak saio atsegina eskaini zuten bazkal aurretik pilotalekuan. Eta haren ondoren, lagun arteko bazkaria egin zen, Erramun Martikorena eta Xendarineko ahizpak kantari zirela –Xalbadorren zenbait bertso, eta Xabier Leteren *Urepeleko artzaina* kantak eman zituzten, bazkaldarrek lagunduz–. Arratsaldeko 16:00etan, Maialen Lujanbio, Xebastian Lizaso, Amets Artzallus eta Juan Joxe Eizmendi *Loidisaletxe II* bertsolarien saioaz gozatu zuen entzulegoak, gogoz txalotuz haien ateraldiak.

Bost eta erdiak aldean, trikitilariak hasi ziren, Urepeletik aldegin nahi ezik zegoen jendetzaren pozgarri.

Deiadarra taldeak, eta bereziki Bethart aita-alabek egiten duten lana eta ahalegina eskertu nahi izan zuen Urepeleko auzapezak, Euskal makila eta lore sorta eder bat emanaz.

Aldi berean, Euskaltzaindia, Gipuzkoa eta Bizkaiako Foru Aldundiek, Urepeleko herriak eta beste hainbatek ematen duten laguntasuna eskertu nahi izan zuen Deiadarrak aurtengo jaiak amaitu baino lehen.

Lan asko ematen du urteoro antolatzen den Xalbadorren egunak; baina euskararen eta bertsolaritzaren alde hainbat lan egin dutenak gogoratu eta euskaltzale guztiei Urepelen bildu eta egun eder bat eskaintzeko ahaleginean jarraituko du talde honek.

Joxemari Iriondo



# **Xalbadoren eguna 2012.**

## **Xalbador eta Joakin Berasategi gogoan**

---

Urriaren 11n aurkeztu zen urte honetako Xalbadorren eguneko programa, lehenengo Donostian eta ondoren Baionan Euskaltzaindiaren bulegoan.

Deiadarra taldeko kide Itxaro Bethart eta Joxemari Iriondok adierazi zutenez, aurtengo festa urriaren 27an eta 28an egin zen. Xalbador eta Joakin Berasategi goraiapatuko ziren, bereziki, Berasategi zena antolatzaile taldeko kide eta laguntzaile izan baitzen urteetan.

### **■ Egitasmoa**

Urriak 27, larunbata

18:00etan: Kantaldia Eider eta Gorka Zabaleta oiartzuarrekin, Urepeleko eskola etxean.

19:00etan: Hitzaldia "Kintoa eta Nafarroa" gaiaz, Antton Currutcharry irakaslea (Baigorri) hizlari dela.

20:30etan: Lagun arteko afaria, Eider eta Gorka Zabaleta (Oiartzun), Xendarineko ahizpak (Urepele) eta Mutriku trikitilariekin.

Urriak 28, igandea

09:00 etan: Xalbadorren Etxolara mendi-ibilaldia, etxola eta Urepele ezagutuz.

10:30etan: Meza, Xalbador eta Joakin Berasategi gogoratuz.

11:00etan: Gernikako bonbardaketaren hirurogeita hamabost urteurreneko bideo emanaldia, plazan.

11:30etatik aurrera, Donapaleuko (Baxenafarroa) joaldunak eta Baigorriko Indart anaia trikitilariak karrikan zehar ibiliko dira.

- 12:00etan: Larraineko (Zuberoa) dantzarien saioa.
- 13:00etan: Herri kirolak, zoin gehiagoka Donazaharre (Baxenafarroa) eta Mutrikuko (Gipuzkoa) kirol taldeak
- 14:00etan: Bideo emanaldia, Joakin Berasategi gogoraturaz. Bazkaria, Zabaleta anaia-arrebak eta Xendari-neko ahizpak kantari, eta Gasteizko Zabaleta anaiak trikitalari direla.
- 15:30etan: Haurren txokoa. Eta aldi berean, bertso saioa, Joxe L. Gorrotxategi, Aitor Sarriegi, Xebastian Lizaso eta Juan Joxe Loidisaletxe bertsoan direla. Gaiemaile, Joxemari Iriondo
- 17:30etan: Erromeria.

Oharra: Urepeleko Herriko Etxea, Bizkaiko Foru Aldundia eta Euskaltzaindiaren laguntasunez antolatu den jaialdi honetan, eta batez ere igande eguerdiko bazkarian parte hartu nahi baduzu, deitu 0033624332995 telefonora, edo idatzi deiadarra@yahoo.com mailera, urriaren 22az aurretik. Esker mila aunitz aldeztu aurretik.

## ■ Bazkalondoko bertso batzuk

Egitasmoari jarraituz urte honetako bertso saioa Jose Luis Gorrotxategi, Xebastian Lizaso, Juan Jose Eizmendi *Loidisaletxe II* eta Aitor Sarriegik egin zuten.

Saio laburra baina tinkoa, ikaragarri hotz egiten bazuen ere herriko pilotalekuan. Bertsolarietk entzuleei agur eginez botatako lehenengo bertsoak jasoko ditugu hemen, Xalbadorren etxolara joan eta frakak galduta ibili omen zen alemandar gazte baten estuasunak gogoan.

- Lizaso Denak agurtuz hasi gaitezen  
ohitura degun antzeko.  
Aukera degu Xalbador eta  
Joakin biak omentzeko.  
Abesti eta trikitia lehen,  
gu bertsoak eskaintzeko.  
Bertsoan hotsak balio beza  
gorputzen hotzak kentzeko,  
bertsoan hotsak balio beza  
gorputzen hotzak kentzeko.
- Loidisaletxe Hainbat artistan tartean geu're,  
hortxe gatoz ate joka,  
lau bertsolari, gaijartzaile bat  
eta entzule mordoska.  
Elkar pixka bat bero dezagun  
oraintxe degu epoka,  
guk zuek bertsoen bidez eta  
zuek berriz gu txaloka,  
guk zuek bertsoen bidez ta  
zuek berriz gu txaloka.
- Gorrotxategi Badago zeinek soinua jo ta  
zeinek gitarra, nork kanta...  
Horretarako Urepel degu  
benetan leku aparta.  
Akats bakarra somatzen det nik,  
hemen dagon gradu falta.  
Agur bero bat har ezazute  
beharra izango da-ta,  
agur bero bat har ezazute  
beharra izango da-ta.

Sarriegi Gure tokia bilatu degu  
gaur Urepeleko jaian;  
antzeko hotza eginagatik  
oholtzan bezala mahaian,  
orain lanean hasiko gara  
agindutako garaian,  
negu giroko bazkalondo hau  
pixka bat berotu nahian,  
negu giroko bazkalondo hau  
pixka bat berotu nahian.

Lizaso Ta Iriondok kargu hartu nahi  
etorri ta berehala.  
Ez da makala etxola zaharrak  
eskeintzen duen itzala.  
Gu etxolara ez joatea  
ez al da gauza normala?  
Ez al dakizu bertsolariak  
ardi galduak garala,  
ez al dakizu bertsolariak  
ardi galduak gerala?

Loidisaletxe Zuk esan dezun moduagatik,  
agian, zeu ere han zinan,  
eta nahiz ta gu etorri eta  
gora igotzeko grinan,  
etxola horta gora joan da  
presentau izan baginan,  
konjelatuak gera gindizken  
zuhaitzen baten eskinan,  
konjelatuak gera gindezken  
zuhaitzen baten eskinan.

Gorrotxategi Etxola ondoan egongo dira  
lizar, gaztaina ta pago;  
baina Iriondok esandakoa  
ez al dijoa haratago?  
Zerbait xeibre gertatu dala  
ere jakinean nago.  
Ardi galtzea ez degu ona,  
frakak galtzea txarrago,  
ardi galtzea ez degu ona,  
frakak galtzea txarrago.

Sarriegi Nahiz ta goizean besten artean  
etxolaraino ez heldu,  
ahal dela beintzat hobe da frakak  
dauden tokian mantendu.  
Etxolan norbait zebilen gisan  
antzera samar gaude gu.  
Frakak jantzita daramatzagu  
baina lotsa galtzen degu,  
frakak jantzita daramatzagu  
baina lotsa galtzen degu.

Lizaso Nahiz ta izatez alemana den  
gaurkoan gure gertuko,  
galtzak galduta etorri dela  
hemen gaude gu lekuko.  
Tenperatura hotzegia da,  
horri zertan egin uko?  
Galtzan azpian zerbait bazeukan  
orain ez du bilatuko,  
galtza azpian zerbait bazeukan  
orain ez du bilatuko.

Loidisaletxe Bitxikerin bat pasatutzen da  
hemen ere urtez urte,  
ta gaur ere par pranko egin da  
pasadizo horren truke.  
Gaur frakak behera jaiste horren  
normal danik ez det uste.  
Zer modibokin kendu dituen  
hori jakin nahiko nuke,  
zer modibokin kendu dituen  
hori jakin nahiko nuke.

Gorrotxategi Hoiek'e kaka frakak kenduta,  
etzaitzela harritu,  
bestela egin izan bazuen  
zuen nahikoa meritu.  
(farreari eman zion bertsolariak)  
Errespetotik kanpora gabiltz,  
behar degu errenditu.  
Halare gaitzerdi da guztia  
gantzontziloak baditu,  
halare gaitzerdi da guztia  
gantzontziloak baditu.

Sarriegi Beraz, bistara atera dira  
bere atributo denak.  
Dirudienez bada berekin  
ditu oraindik gehienak.  
Itxura nahiko eskasak ziren  
gure alemanarenak.  
Ta hoiek al dira Europa hortan  
guri agintzen daudenak,  
ta hoiek al dira Europa hortan  
guri agintzen daudenak?

Xalbador eta Joakin Berasategi

Esan dugunez, Xalbador eta Deiadarra taldeko kide Joakin Berasategi zena omentzeko asmoz antolatu zen urte honetako festa Urepelen. Hori gai hartuta saio hau egin zuten bertsolariek.

Lizaso Xalbador eta Joakin ziren  
biak aspaldi anaitu.  
Anaitasunan lotura ez da  
denborarekin amaitu.  
Elkarren lagun izanak biak,  
elkar ez dute gogaitu.  
Urte batzutan kultura lantzen,  
orain berriro jarraitu.  
Len heriotzak bereizi zitun,  
heriotzak batu ditu,  
len heriotzak bereizi zitun,  
heriotzak batu ditu.

Loidisaletxe Bazuten beren bizitzan hauek  
zenbait hola erakarri,  
laguntzeko ere behar zanian  
beti prest ziren elkarri.  
Hauen ekintzak gora ta gora  
egin dutelarik sarri,  
euskal kulturak len zuen maila  
goragoan dute jarri,  
izan baitziren gure kulturen  
beharrezko osagarri,  
izan baitziren gure kulturen  
beharrezko osagarri.

Gorrotxategi Ferrando hemen bizi zan eta  
Joakin berriz bizi zan han,  
beren denboran bertsolaritzan  
alde eginaz hainbat lan.  
Beren izenak ikusgarri ta  
edertasunez disdiran,  
haruntz-honuntza ugari eginaz  
beti bertsoaren jiran.  
Bertsolaritzak zenbat zor dien  
jakin aurretik hil ziran,  
bertsolaritzak zenbat zor dien  
jakin aurretik hil ziran.

Sarriegi Liburu asko ezagutu det  
gure etxeko apaletan;  
batzuek hautsak hartuak baina  
besteak gau-mahaian bertan.  
Beste garai bat ezagutu det  
nik liburu hoién bueltan.  
Transmisioan behar da bizi,  
nahi bada gaur-biharretan,  
ta katebegi garrantzitsua  
izan da Joakin horretan,  
ta katebegi garrantzitsua  
izan da Joakin horretan.



Lizaso Bizitza beti oinarrituaz  
bere nortasun sendoan,  
bata mendian ardiekin ta  
bestea berriz *Sendoan*.  
Azken batean euskararen alde  
eginak ziran hainbat lan.  
Ta ejemploa eduki leike  
mendian dagon etxolan.  
Lehenak sua piztu zuen ta  
besteak *Auspoa* eman,  
lehenak sua piztu zuen ta  
besteak *Auspoa* eman.

Loidisaletxe Beti gorako bidean ziran  
pixkana, urratsez urrats,  
bertsoan alde beren bizitzan  
egina zuten lana latz.  
Ta azkenean bihurtu ziren  
euskal kulturaren ardatz,  
eta gainera egin zituzten  
beren lorpen edo akats.  
Bat'e dirurik ez bazuten'e  
bihurtu ziren aberats,  
bet'e dirurik ez bazuten'e  
bihirtu ziren aberats.

Gorrotxategi Alperkeriak utzi alde bat  
eta lanera irtenda,  
beti lanean, etxerik etxe  
eta bertatikan denda.  
Eskutan eta begien bistan  
beti laneko zerrenda,  
milaka asko izango ziran,  
hori errez esaten da.  
Hitzak haizean jostailu dira,  
idatzia gelditzen da,  
hitzak haizean jostailu dira,  
idatzia gelditzen da.

Sarriegi Behin *Odolaren mintzoa* hartu,  
nahiz lodia zen tamaina,  
ta izan zuen bere hitzekin  
liluratzeko dohaina.  
Gauza gehiago ikusi ta entzun  
ditut ordutik oraina.  
Egia esan, ni jaio nintzen  
urtean joan zen baina  
bihotz txokoan daukat gordeta  
Urepeleko artzaina,  
bihotz txokoan daukat gordeta  
Urepeleko artzaina.

Gorrotxategi eta Lizaso egoera berezian aurkitu ziren, gaiaren arabera: Jose Luis bere bilobatxoarekin dabil pasian, aittonaren zeregina ondo betez. Xebastian, berriz, zakur txiki bat katetik hartuta pasiatzen. Elkarrekin topo egin dute.

Gorrotxategi    Kontua behartu dezu, Xebastian,  
                         ohitura dezun moduan,  
                         modako dago txakur xikia  
                         erabiltzea onduan.  
                         Etxeko dala esaten dezu,  
                         ez naiz asmo seguruan.  
                         Lagun bezela esan zaidazu  
                         nundikan ostu zenduan,  
                         nundikan ostu zenduan?

Lizaso        Opari gisa jaso nuen da  
                         ez nuen ostu beharrik,  
                         eta gainera ez du egiten  
                         zureak haina marmarrik.  
                         Sentimentutan ere badauka  
                         ia pertsonan indarrik.  
                         Ongi etorri maiz egiten dit,  
                         eta zui negar bakarrik,  
                         eta zui negar bakarrik.

Gorrotxategi    Bilobatxoak hain ditut maite,  
                         ni gustora haiek zaintzen;  
                         “Kaixo, aittona” esaten dute  
                         ta horrek nau liluratzen.  
                         Xebastianen martxa ez baita  
                         bertsoetan esplikatzen.  
                         Mundo gehiena goseak eta  
                         hori txakurrak gizentzen,  
                         hori txakurrak gizentzen.

Lizaso Barkatu, baina ez ote zera,  
laguna, neurritik pasa?  
Edo umeai hartuko diot  
ume berezian traza.  
Bi hilabete, "kaixo aittona!"  
esatea du jolasa...  
Bilobagandik aitonangana  
aldatu zaigu arraza,  
aldatu zaigu arraza.

Bertso asko ere kantatu zuten bertsolariek, baina azkenengo agurrak jasoko ditugu kronikaren osagarri.

Sarriegi Berandu samar lanean,  
baina hasi geranean  
egin degu azkenean.  
Gustora hartu degu gaur parte  
tokatzen zan omenean;  
ta berriz ere izango gera  
zuek nahi dezuenean,  
zuek nahi dezuenean.

Gorrotxategi Urepelen bildu gera  
lengo lagun zarren bila;  
gutxi batzuk ikusi uste  
eta egundoko pila.  
Orain bagoaz hemendik eta  
azkena izan ez dedila.  
Xalbadorren zenak zion bezela:  
Agur eta esker mila.

Loidisaletxe Lagun artean sentitu gera  
hitz egin eta igurtzi,  
ta horrek berak gauza berdinak  
ohi dizkigu erakutsi.  
Beste behingoaz ez gaitu hemen  
herriak gu gaizki utzi,  
eta sinesten degula esan  
eta benetan sinetsi.  
Eskerrik asko guztioi eta  
ohitura onari eutsi.

Lizaso Etorri gera asmoakin  
ordaintzeko gu zorrakin,  
etorri gera asmoakin  
ordaintzeko gu zorrakin.  
Gelditzen gera emandakoaz  
ta zuen txalo joakin.  
Agur ta erdi ta eskerrik asko,  
Xalbador eta Joakin,  
agur ta erdi ta eskerrik asko,  
Xalbador eta Joakin.

## ■ **Xalbadorren eguna 2012. Kronika**

Euskaltzaindiko webgunerako

Titulu bat ematekotan Xalbadorren eguna 2012 asteburuko kronika honi, ongi letorkioke horixe, egun hotza eta beroa izan baita.

Eguraldi zinez hotza; inguruko mendi gailurretan lehenengo elur lapatxa azaldu da. Baina Urepelera heldu direnek eman diote merezi zuen berotasuna asteburuari, eta horrek asko balio.

Deiadarrek antolatzen duen IX. edizioa, bereziki Xalbador eta Joakin Berasategi Deiadarrako taldekide eta laguntzaileari eskainita zegoen. Aurtengoa, larunbat arratsaldean hasi zen, Eider eta Gorka Zabaleta oiartzuar gazteen kantaldi batekin, herriko eskola etxean.

Ondoren, Antton Currutcharry irakasleak ondo baino hobeto laburbildu zuen Nafarroa-Baigorri-Kintoa historia, ordubeteko hitzaldian. Horren osagarri, Urepeleko alkate izan zen Marie Antoinette Etxabarren andereak azken urteetako Kintoa mendietako larreen erabileraz hitz egin zuen, jendeari argitasun asko emanez.

Lagun arteko afaritan berriro ere Zabaletatarrak eta Xendarineko ahizpak kantari, pilotalekuaren alde guztietatik sartzten zen haize hotzari hortzak erakutsiz, eta Mutrikuko trikitilariak.

Igande goizeko eguraldia bereziki hotza izan zen, Urepele inguruko mendiak zuri-zuri esnatu baitziren elurrez. Zerua oskarbi, ordea, eta Xalbador zenaren artzain etxolara joan nahi zutenak guztiz animaturik, aurtengo lehenengo elurra zapalduz.

10:30etan, meza izan zen Urepeleko elizan, Xalbador eta Joakin Berasategi bereziki gogoratuz, eta haiekin batean, Joxe Mari Aranalde, Antonio Zavala, Mikel Atxaga, Juanjo Zearreta

eta hildako bertsolari guztiak. Meza ostean urtero bezala Xalbadorren hilobian loreak jartzea eta *Agur Jaunak* kantatzea.

Bizkaiko Aldundiak egin eta Deiadarra taldeari espreski utzitako *Gernikako bonbardaketaren 75. urteurrena* bideoa eman zen pilotalekuan, holako ikuskizunetarako tokirik aproposena ez bada ere. Herriko plazan, berriz, Donapaleu eta Baigorriko trikitilariak, Larraineko (Zuberoa) dantzariak, eta Herri kirolak: Donazaharre eta Mutrikuko trontzalari, aizkolari, sokatiralari eta abar norgehiagoketa.

Bazkaldarrak pilotalekuan bildu zirenean, Joakin Berasategiren argazki bilduma ederra erakutsi zen. Ondoren, bazkaria, berriro ere Zabaletatarrak, Xendarineko ahizpak eta trikitilariak animatzaile zirela.

Joaldunak pilotalekuan buelta batzuk eman, eta aurrekoa dantzatu ondoren, bertsolarien txanda: Gorrotxategi, Loidisaletxe, Lizaso eta Sarriegi. Ikaragarri hotz egiten zuen eta saio laburra egin zuten, baina bertsozaleek gozatu zuten gogotik, ikusi genuenez.

Aldi berean, herriko eskolan, neska-mutikoentzat Haurren txokoa, gaztetxoak asper ez zitezen.

Urtero bezala, erromerian dantzan eginez agurtu zen ordubete gutxiago zuen urriaren azken asteburuko igande arratsaldea Urepelen.

Kronika labur hau amaitzeko, esker bereziak merezi dituztenak badirela esan behar dugu. Hala nola, Joakin Berasategiren familia, Urepeleko Herriko Etxea, Bizkaiko Foru Aldundia, Euskaltzaindia, Euskadi irratia, Joxe Mari Egañak animatzen duen Mutrikuko talde langilea (herri kirolak, plazan jendearentzat pintxoak eta urtero otorduak prestatu eta banatzen saiatzen direnak), kantariak, trikitilariak, joaldunak, dantzariak eta abar.

Datorren urtean bere hamargarren urteurrena beteko du Deiadarra taldeak Xalbadorren eguna antolatzen, eta milaka

esker eman nahi dizkie laguntzen duten guztiei, berriro ere laguntzen jarrai dezaten eskatuz, premia izango da-eta, oso zaila egiten baitzaio taldeari Xalbadorren eguna antolatzea urteoro. Behar bada, bertsolariek beren saioan aipatu bezala, festa hau antolatzeko garaia aurreratu beharko da, baina beti ere ondo merezi duten itzala eman ez egun honetan goraltzen direnei.

Joxemari Iriondo



J. Berasategiren alarguna, seme-alabak, errainak, bilobak, anai-arrebak eta ahaideak, Urepele 2012



# Xalbadoren eguna 2013.

## Xalbador eta Basarri gogoan

---

Aurtengo Xalbadorren egunaren kronika aurreratzera behar-tzen gaitu hamar urte hauetako laburpena egin beharrak, eguna ospatu baino lehen egitasmoa aipatuz.

2013koa, Xalbador eta Basarriren gorantzan egingo da, laster beteko baita Iñaki Eizmendi Manterola BASARRI ezagu-naren jaiotzako mendeurrena (Errezil, 1913-XI.27 – Zarautz, 1999-XI-03) –Antonio Mari Eizmendi *Loidisaletxe* beste erre-zildar bertsolari ezagunarena bezalaxe–.

Deiarraren 10 urteurrenerako hiru egun haundiko egi-tasmo betea antolatu nahi izan da, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaitzako Hezkuntza eta Hizkuntza politika sai-lari esker:

### ■ Egitasmoa

Urriak 11, ostirala:

21:00etan: Benito Lertxundiren kantaldia pilotalekuan.

Urriak 12, larunbata:

18:00etan: Hitzaldia nortasunaz, Patxi Baztarrika, eta dantzariak

19.30etan: “Xalbadorren itzalean hamar urte” Joxemari Iriondok idatzi kronika liburua-aren aurkezpe-na.

20:30etan: Lagun arteko afaria, musikaz alaiturik.

Urriak 13, igandea:

09:00etan: Mendi ibilaldia, Xalbadorren etxolarat.

10:30etan: Meza, Xalbador, Basarri, Loidisaletxe, Koxme Lizaso eta lagun guztien alde.

11:30etan: Herri kirolak plazan, Donzaharre eta Mutriku-ko taldeak zeingehiagoka urtero bezala.

13:30etan: Lagun arteko bazkaria, trikitixa eta kantuz alaituta.

16:00etan: Bertso saioa, Gorrotxategi, Lizaso, Loidisaletxe eta Arzallusekin.

17:30etan: Erromeria jendeak nahi lezakeen arte.

Urteoro bezala, Xalbador, Basarri eta bertsolari eta bertsolaritza maite duten guztiak gogoratzean, bertsozale eta euskaltzale guztiak gomiatu nahi ditu Deiadarrak Urepeleko festa ederraz goza dezaten.

Aldez aurretiko harremanetarako Deiadarra taldearen telefono eta helbidea hauexek dituzu:

Tel. 0033624332995

Idazteko: [deiadarra@yahoo.com](mailto:deiadarra@yahoo.com) maila.

Urriaren 5az aurretik ibili zaitezten eskatzen zaizu.

## ■ Urruñatik hasita

Xalbador eta Basarriren elkar-lotura egitean, gogora dezagun guziz elkar-maiteak zirela biok. Asko aldiz kantatu izan zuten elkarrekin Euskal Herriko mugaren alde bietako herri eta auzoetako bertso jaialdietan.

Bertsokera bi, bertsoarako bi estilo ezberdin ziren; baina batek bestea osatu eta edertzen zuen, bertsolaritzan askotan gertatu ohi denez.

Ordu arte elkarren ezaguera haundirik ez bazuten ere, 1949ko azaroaren 20an Urruñan egin zen lehiaketan elkar-tu ziren lehenengo aldiz, Juan Joxe Eizmendi *Errexil* (Basarri bezalaxe errezildarra), Zubikoa, Uztapide, Mattin, Etxahun, Felix Iriarte, Uhalde, Sarasola, Trounday, Caillaba, Xanpun eta Capdevillerekin batean.

Basarri hautatu zuten saio hartako garaile edo txapeldun, eta Xalbador izan zen bigarren.

1950eko urriaren 1ean egin zen Bidasoaz iparraldeko hurrengo txapelketa, Donibane Lohizunen. Sarasola, Mattin, Xanpun, Zubikoa, Errexil, Iriarte eta Basarri ziren norgehiagoka. Epaile, Louis Dassance, Pierres Lafitte eta Telesforo Monzon izan ziren. Gaiak ematen, Teodoro Hernandorena.

Basarri izan zen txapeldun berriro, eta Mattin bigarren.

1950eko apirilaren 16an beste txapelketa bat egin zen Donibane Garazin. Sarasola, Uztapide, Oihenart, Basarri, Troun-day, Errexil, Xalbador, Xanpun, Zubikoa, Caillaba, Uhalde, Mattin eta Alkat neurtu ziren.

Txapeldun, berriro ere, Basarri.

Hurrengo Baigorriin egin zen, 1951ko irailaren 23an. Etxahun, Mattin, Xanpun, Zubikoa, Basarri, Iriarte eta Xalbador bildu zirelarik elkarren lehian. Epaimahaian, Louis Dassance, Constantin, Monzon, Moulier eta Lafitte jauna. Gaiak eman eta jaialdiaren gidaritzaz Elissalde jaunak egin zuen.

Bertsolari egun edo txapelketa hura haundikiro hasteko, goizeko 10:30etan meza izan zuten lehenik; eta gero, lagun arteko bazkaria. Bertso saioa arratsaldeko 16:30etan hasi zen. Bertsozale asko bildu zela esaten du orduko kronikak.

Halabeharrez, Basarri eta Xalbador biak berdin uztea erabaki zuen epaimahaiak. Basarriri eman zioten "Jakes Legasse"n kopa ikusgarria, hiru urtetako sariketarako jarraian irabazi zituela-eta.

1952ko abenduaren 28an iparraldeko laugarren txapelketa egin zen Sarako trinketeetan. Basarri, Mitxelena, Joxe Lizaso, Uztapide, Lexoti, Lasarte, Errexil, Etxahun, Mattin eta Xanpun neurtu ziren, mugaz alde bietakoen norgehiagoka hartan, Louis Dassance, Constantin, Lorrebourg, Mitxel Labeguerie (hiruak midikuak), Etchemendy eta Lafitte juze zirela. Aurkezle eta gaiemaile, Joan Basurko *Oxobi* apaiz, abertzale, bertsozale eta idazle ezaguna izan zen.

Mattini eman zioten orduko txapela. Uztapide izendatu zuten bigarren, eta Basarriri eman zioten hirugarren saria.

Berehaldiko jendetza bildu zen trinketean bertsolarien saioa entzun eta bertsoaz gozatzeko. Urte haietan egindako lanari esker bertso gose eta ilusio haundia sortu zen iparraldeko herrietan, urte gutxiren buruan sekula egundo egin zen lanik haundiena egin zen-eta.

Handik urte gutxira, 1954ko irailaren 12an, beste sarike-ta bat antolatu zuten Hazparnen; eta mugaren alde bietako bertsolari ezagunenak bildu zituzten, hala nola, Basarri, Xalbador, Uztapide, Xanpun, Mattin, Joxe Lizaso, Lasarte, Zubikoa, Felix Iriarte eta Alkat. Txapela Basarrik irabazi zuen, eta bigarren saria Xalbadorri eman zioten.

## ■ Urruñatik Parisa

Aipamen berezia egin nahi genioke, 1958ko apirilaren 13an, Urruñan egin zen bertso jaialdi bikainari, gero Pariseko Euzko Etxean egin zen jaialdirako bertsolari onenak hautatzeko egin baitzen, urtebete lehenago hil zen Juan Basurko *Oxobi* olerkari irundarrari omen eginez.

Neurketa ez zen izan, ordea, egin eskuhartu nahi zuten bertsolari guztientzat. Halabeharrez, Basarri, Uztapide, Xalbador, Mattin, Aintziart eta Errexil hautatu zituzten egun hartarako, Hernandorena jauna antolatzaile eta gidari zela.

Uztapidek bere *Lengo egunak gogoan* (*Auspoa berdea* eta *Auspoa* 314) liburuan kontatzen duenez, Dassance, Lafitte eta Lartzabal izan ziren juje/ epaile. Xalbador, Mattin, Basarri eta Uztapide hautatu zituzten 1958ko maiatzean Parisa joateko.

Egun osoko jaia izan zen Urruñakoa.

Eguna hobeki borobiltzeko goizean meza nagusiarekin hasi ziren, Larzabal jaun apezak hitzaldi bikaina egin zuelarik, bertsolariak zeru goienetan jarriz. Tartean Hondarribiko abeslari talde batek kantatu zuen mezetan.

Bertso jaialdian, Teodoro Hernandorena jaunaren sarrera-ko hitzaldi sutsuaren ostean, honela kantatu zuen Basarrik:

Gure Baxurko maitagarria  
nola ez izan goguan?  
Oraintxe dala ogeitamar bat  
urte ezagutu nuan.  
Toki askotan ibili gera  
biok beti inguruan.  
Pentsamentu bat zun biotzean,  
pentsamentu bat buruan:  
bere euskara maitagarria  
nundikan jasoko zuan.  
Ura garbi agertutzen zan  
etxean eta auzuan,  
euskara zeukan ametsetan  
eta euskara pausuan,  
berdin etxean eta kalean,  
eta berdin basuan.  
Ta nere ustez pekatuaren  
arrastorikan etzuan.  
Iñor badago ni seguru naiz  
au daguela zeruan.<sup>15</sup>

Urruñako jaialdia halaxe egin eta gero, eguna etorri zenean, Parisa joan ziren bertsolariak, gauez Hendaian trenea hartuta. Uztapidek kontatzen du Xalbador ez omen zela ixildu bide guztian, hau eta hori esaten.

Paris aldeko bazterrak ikusteko asti gutxi izan zuten nonbait, baina Tour Eiffelera igo eta handik bazterrei begira egon ziren txundituta, eta argazkiak egin dorre haundiaren inguruan.

---

<sup>15</sup> Jokin Zaitegiren grabaketaren arabera, Olerti, 1959.

Euskal Etxeako bazkalosteko saioa etorri zen gero. Eta Basarrik irabazi zuen lehenengo saria. Beste hiruak, Uztapide–Xalbador–Mattin, berdin-berdin uztea erabaki zuen mahaiak.

Bertso saioa irratiz zuzenean zabaldu zutela kontatzen dute... Baina guk, Jokin Zaitegi zenak grabatu eta Euskaltzaindiaren artxibora bidali zuena entzun ahal izan dugu soilik, geroko berririk ezpadugu ere.

Teodoro Hernandorenak antolatu eta Pariseko Euzko Etxean egindako bertso saio hartatik puntutan egindako zatixka hauxe gogoratuko dugu, Uztapide hasita:

- Uzt Orain bertsuari  
eman puntu bana...
- Bas Orrela egingo degu  
komeni dan lana.
- Matt Nik ere segi behar  
lagunek errana.
- Xalb Bizi dadin pixka bat  
jana ta edana.
- Bas Guk zerbait esan da  
jende dana irriz.
- Mat Gu ere etorri gaituk  
leku hunta berriz.
- Xalb Nik ere ez dut arantiko  
ixtant bat ez biz.
- Uzt Bai ibilli baziña  
oraingo ontan neurriz.

Mat Xalbador ez al da ba  
neurritz ibilia?

Xalb Ez daukat errukiturik  
gaurko itzalia.

Uzt Atzo bazun edaririk  
ezin estalia.

Bas Jaunari esker urruti  
daukat familia.

Xalb Zuek ere or zintan  
Xalbador bezala.

Uzt Ez det uste zu bezela  
ni jarri nintzala.

Bas Gauerako pentsatu  
xelebretu zala.

Mat Muxurtzen bai gu sarri  
nola edo ala.

Uzt Ori zerbait baldin bada  
gu ere lagunak.

Bas Noiznai ez dira izaten  
olako egunak.

Mat Serioz ibiltzeko  
ez'ka etorri hunat.

Xalb Ni txarra naizela baino  
hauek ere ez onak.

Bas Moko beraka zio  
or dagon txoria.

Mat Hori eremateko da  
jaun hau etorria.

Xalb Horren kolorea zer da,  
beltz ala oria?

Uzt Ez egiz tiroak emanda  
orrela eroria.

- Mat Xalbadorrek ez al daki tiroa botatzen?
- Xalb Uxoeri behintzat eztut bertzerik bilatzen.
- Uzt Nora tira bear zaion ez du begiratzen.
- Bas Punteri ona daukanik ez dut pentsatzen.
- Xalb Zuek tiratzen duzue nahiko astiro.
- Uzt Nik ondo jotzia nai ta eman eiten tiro.
- Bas Parisera ez omen dator au berriro.
- Mat Holako lagun artean ezta beti giro.
- Uzt Beraz, lagunarte ontan eztago atsegin?
- Bas Olakoakin obe da batere ez itz egin.
- Mat Untsa mintza baino errexo baita emen hutsegin.
- Xalb Kanta dezagun laster eta gero aldegin.
- Bas Radiatua ote da gaurko saioa?
- Mat Nork estimatu behar dik hunen balioa?
- Xalb Toki huntan bero bada zabaldu leihoa.
- Uzt Au kanpotik entzuteko ez da serioa.



- Mat Denek ongi al gaituzte  
hemen konprenditzen?
- Uzt Egiten bagaituzte ere  
ez gera arritzen.
- Xalb Gure aldak eta lanak  
ezta errez biltzen.
- Bas Bertsolariak nagusi  
dira gaur Parisen.

## ■ Zumarragan

Bazterrak astindu eta miatzea baita kronikariaren eginkizuna, Pariseko hartatik salto batez Urola garaiko bertsozaleek Zumarragako Itzalon aretoan Xalbadorri egin zioten gorai-pamenaren laburpenera egingo dugu, orduko grabazioa ere gordeta dugu-eta, zorionez.

1967ko abenduak 10, igande neguko goiz hotza. Baina jaialdi ondorengo bazkalondo-giroa beroa eta bizia izaki, ondorengo bertso esanguratsu hauek jaso genituen; eta egoki iruditu guri Basarri eta Xalbadorren arteko maitasun/miresmena pittin bat azpimarratzeko.

- Basarri Negu beltzean txori alaia  
gertatu leike ain itun,  
mendi, basoak elurrez zuri,  
lurmenik ezpaitu iñun.  
Ikusi det nik Xalbador onek  
gaur zer malko bota ditun.  
Egin zaizkitzun guzti guztiak  
ondo merezi zenitun.

Xalbador Nik gizon onen artian sekula  
ez det pasa une txarrik;  
lagun jatorrak banituen gaur,  
hor ez nindagon bakarrik.  
Bainan ene bihotzak eztu  
urtzeko askoin beharrik.  
Maite nazue, lagunak, bainan  
ez egin hortaz nigarrik.

Basarri berriro Berriro ere, Xalbador maite,  
gu ain lagunak izanik,  
eztet pentsatzen egun batean  
ni diskuidatu nintzanik.  
Zeru erdira garamazkizu  
zure bertsoak entzunik.  
Berriro emen sortuko ote da  
zu bezelako gizonik?

Xalbador, azkenik Ni egun oroigarri huntaz naiz  
pozez ta lotsez lehertu,  
bainan geroko ene bidea  
hunek asko du edertu.  
Orai kezka bat etorri zeraut,  
hau ez dezaket baztertu:  
nik ez baitakit zuen bihotza  
ala Jainkoa eskertu.

## ■ Donostian

1969ko irailaren 21ean, bertsolari eta bertsozaleek Donostia-ko Astorian omendu zuten berriro Xalbador. Egun hartarako idatzi eta argitaratu zituen Basarrik ondorengo bertso hauek:

Piztu da biotzetan  
maitasun sugarra.  
Zein txori kantaria  
dan urepeldarra!  
Egalari degu gaur  
gure lagun zarra,  
Donosti argitzera  
datorren izarra.

Nork daki orren gisa  
kanpoaren berri?  
Baztar onaren bila  
ez du gutxi korri.  
Baso, mendi, erreka,  
ardi, abelgorri...  
Danak esaten zerbait  
gure Xalbadorri.

Egun santu batean  
bertsolari jaio.  
Doai arrigarri bat  
nabarmentzen zaio.  
Mingain utsak ezpaitu  
gehiegi balio,  
Xalbadorri biotzak  
itz egiten dio.

Kantu ta txistu gozoz  
gaiñetan nagusi,  
izadiarekin bat  
egiñik an bizi.  
Sasi ta larrak ere  
eztitan igurtzi.  
Bertsoa zuk biurtu  
diguzu poesi.

Gipuzkoa zurekin  
aspalditxo zordun;  
eztakit gaur zor ori  
ordainduko degun.  
Ondo konturatzeko  
ordua bagendun  
artzai bertsolariak  
zenbat balio dun.

*La Voz de España*, 1969-IX-21  
*Zeruko Argia*, 1969-10-19

## ■ Odolaren mintzoa

*Odolaren mintzoa* 1976ko azaroan lehenengo aldiz argitaratu zenean, honako kronika hau idatzi zuen Basarrik liburuaren aipamena eginez:

### **Xalbador: Odolaren mintzoa**

Xalbador zanaren emaitza bikaiña dan *Odolaren mintzoa* ez da nolanaiko liburua. Zorigaitzez –onetan ez gaitezela engaiña– euskaldun gutxik eskertuko dute merezi duan neurrian.

Zergatik au? Ulertzeko gai ez diralako. Zatirik mardulenak bearbada illun geldituko zaizkielako. Baiña euskerarenganako maitasunak euskalki danetako lanak irakurtzera eramán gaituanok, artan saiatu geranok, gozamen neurrigabe bat izan degu Xalbadarren liburua ausnartuz.

Xalbador bertsolari aundia ez ezik prosista aundia ere bada. Itz neurturako zuan trebetasun bera agertzen digu itz lauz ere.

Mailla aundikoak ziran dudarik gabe gure olerkari Lizardi eta Orixe, baiña aiek ere prosaz ez ote ziran olerkiz bezin trebe? Eta mailla apalago batean, Uztapide bera ez ote zaigu prosista zoragarria agertu? Erri maillan ez ote da idazle bikaina?



Sarriegi, Gorrotxategi, Loidisaletxe eta Lizaso, Urepele 2012

Eskola-garaiko goraberak maixuki agertzen dizkigu Xalbadorrek. Jaiotzatik izan zan euskaltzale purrukatu. Izan ere, eskolarako bidea artu zuan arte prantsesez itz bat entzun gabea zan. Ari an bezela, berdin gertatu zitzaigun emen guri. Eskolara bitarte ez genduala gaztelerarik entzun.

Bereak eta bi ikusi zituan Joxe Migel Barandiaran ospe-tsua ere eragozpen au gainditu eziñik. Ikus Martin Ugalderei egin zizkion aitormenak.

Urepelgo eskola aundian maixu erdelduna zuten. Eta onela dio Xalbadorrek: “Eskola Aundian aldiz errient (maixu) erdalduna ginuen, euskararen kontrakoa gainerat, bertze aunitzen gisa. Aurra elgarrekin mintzo auteman orduko gaztigatzen (kastigatzen) gintuen...”.

Erriko erretorea euskaltzalea zan alare. Gaitzerdi. Garra-tza, gogorra zan erretorea, baiña euskalduna ta euskaltzalea zalarik, arengana trankil joaten zan Xalbador. Begiz ikusi ezin zuana maixua zan, euskararen eta Euskalerrriaren etsai purrukatua zalako.

“Eskola ere egin balaukute, ikasi bearrak erraz ikasiko nituen nik ere...”. Bere ikamikoak eta joan-etorriak izan zituan erretore jaunarekin, garratza eta gogorra zalako. Euske-ra zan, ordea, zauri danak arintzen eta eztitzen zituana, bien artean.

Ondoren datorren Xalbadorren zati onek ere merezi du arretaz irakurtzea: “Gauza gutti ikasirik gelditu nintzan, bainan etzaut behin ere damutu. Gaur ere nahiago dut erdaldun jakintsu bat baiña euskaldun ezjakin bat naizen. Irakurtzen doi doia ikasi nuen, bainan horri esker ikasten ahal dut munduko berri.”

Eta ondoren datozen lerroak irakurriaz, auxe datorkio bati burura: beroiek idazten ari zan denboran Xalbadorrek ikusten zuala, alegia, munduan aldi laburrerako zegoala. Un-kigarriak dira ondorengo itz auk: “Orain goitik (onezkero) ez daut eskolak eginen faltarik gehiena. Hobeko nuke eskola gehiago baino dakidanaren baliatzeko denbora.”

Maiz izango gera Xalbadorren liburua aitatu bearrean. Gaur auxe adierazi nai genduan: itz neurtuz bezin egokia zala Xalbador itz lauz edo prosaz.

Goiz-Argi, 1977.04.23

## ■ Xalbadorren heriotza

1976ko azaroaren zazpigarren beltz hartako albistea berandu samar jakin zuen nonbait Basarrik, norbaitek telefonoz deituta. Xalbador hil zela jakitean “mingotz batek purrukatu eta ezereztuta utzi” zuen; handik egun gutxira idatzi zuen ondorengo kronika hau lekuko:

### **Au biotz-miña!**

Berri txar, mingotz batek purrukatu ta ezereztuta utzi nau. Xalbador, Urepelgo bertsolari ta olerkari poeta goena il da. Zein errez esaten dan, il da!

Igandean eta bere sorterri Urepelen il ere. Bere omen egunean ain zuzen, eta bere bertso liburua plazaratzen zan egun berean.

Xalbador eri zebillen biotzetik. Eta biotzeko gaitzarentzat naigabe ta penak txarrak badira, ala berean geiegizko pozaldiak.

Igandeko pozaldia menperatzeko indarrrik etzuan izan bertsolari aundiaren biotzak. Lertu egin zitzaion, gaiñezka egin zion.

Ainbat bertsozale jator aurrekaldean, ainbat adiskide min, ainbat besarkada nunaitik, ainbat erregalo...

Eta zenbat, espirituz an izan arren gorputzez emendik aldatu eziñik gelditu giñanak? Ni neu egun guztian Xalbador gogoan nuala nintzan. Lagun artean ere uraxe aitatu nuan maiteki.

Nork esan bear zuan Xalbadorren lurreko azken eguna izan bear zuala?

Nork esan bere omen eguna bukatu baiño len gorputz izango zala?

Oraindik ez det ezer sustraitik jakiterik izan, baiña aleginduko naiz. Donostin bizi dan lagun batek deitu zidan telefonoz auxe esateko: "Xalbador bertsolaria gaur arratsaldeko seirak aldean il omen da".

Igande gabeko amarrak ingurua zan albiste beltz au jaso nuanean.

Zer egiten nuan ez nekian. Beste biderik ez nuan ikusten, eta otoitzari ekin nion.

Jantzi zaite luto beltzez, Euskalerra maite ori!

Bertsolari eta poeta bikain bat galdu dezu. Ez erdipurdikoa, oso bikaiña baizik. Euskal literaturak benetako galera du Xalbador ezkutatzearekin.

Aurrez-aurre kantatzeko bertsolari aparta bazan ere, are ta neurri beteagoa ematen zuan Xalbadorrek bertso jartzaile bezela.

Azkenaldi ontan ark irabazten zituan bertso jartzaile arteko sariketa guztiak.

Gaitz zitalak igandean eramán ezpaligu, urte mordoxka bateko osasuna galditu balitzaio, emendik aurrera egingo zituan Xalbadorrek lanik mamitsuenak.

Begiratu batera gizon triste ta bakartia zirudian; lagun gutxi izaten dituzten oietakoa. Parrea ta irria etzitian zenbaitek bezin urrean. Au ez da norberegain egoten. Gerenez dakarkigu norbere moldea.

Gozoa, atsegiña ta alaitasunaren aldekoa zan Xalbador. Ipui ta gertakizunak kontatzen asten zanean etzuan azkenik.

Xalbador, Mattin, Uztaipide ta ni Parisa kantatzera joan giñan orduko batzuk gogoan ditut.

Gau osoa trenean igaro genduan. Endaiatik asi ta Parisa bitarte, asko ixildu gabeak ziran Xalbador eta Mattin, batek bat kontatu ta besteak bestea.



Supritzea zer zan ondo ere ondo zekiana zan Urepelgo bertsolaria. Ain espiritu piñekoa zalarik, edozer bidegabeke-rik erruz naigabetzen zuan.

“Or konpon” esaten du ajolakabe batek. Xalbadorrek su-  
pritu egiten zuan. Asko gaiñera.

Oso oker ezpanago, Ernaniko Ereñozu baillaran ikusi nuan azkenekoz. Gaizki zebillen ordurako. Bazkalondoan aritu giñan kanta ta kanta gaiñontzekuok. “Ni ez naiz kanta-  
tzeko gauza, Basarri”, esan zidan; “zuek egin bearko dituzue nere parteak”.

Txikikeri ta arinkeririk etzuan gogozko. Gizon osoa zan beetik asi ta goraiño.

Aren euskerarik bear bezela konprenditzen etzutenek bo-  
lara batean etzuten aintzat artu. Gogoratuko zerate zer lo-  
tsagarrikeri gertatu zan beingo batean Donostin, ezjakiñek  
Xalbador ain garratz artu zuten artan, txistuka ekin zioten  
egun artan.

Urepelgo bertsolari aundiak miraria egin zuan ordea. Mi-  
nutu bi aurrerago berari txistuka ari ziranak, zoroen gisan  
bera txalotzen asi ziran. Orditik asi zan konturatzen gure  
jendea Xalbadorren aunditasunez.

Txistu jotzen duzute baina  
maite zaituztet oraindik.

Xalbadorrek aotik ahora kantatutako bertso askotxo dira eriotzik ezagutuko ez dutenak. Euskera bizi dan artean ez beintzat.

Areago, berriz, bear zan denbora arturik paperean idatzi zituanak. Orain, Xalbadorren liburua eskuratu ta astiro-as-  
tiro, tantaka-tantaka aren bertsoak ausnartzen asten gera-  
nean konturako gera zer mailletako gizona galdu degun.

Munduak etzion gozamen geiegirik eskeiñi. Zuk, Jaun alguztiduna, emaiozu azkenik izango ez duan zorion betea. Zeurea zan, zeuk eraman dezu.

*Goiz-Argi, 1976-XI.13*



Basarri, Azpeitian 1974

## ■ Beste omenaldiak

Herri askotan egin ziren Xalbadorren hileta eta omenaldiak, 1976ko azaro/abenduan. Gipuzkoako Goierriko bertsozaleek Segurako parrokian antolatu zuten meza eta bertso bilera da horietako bat, 1976ko azaroaren 24an.

Basarri, Lasarte, Lazkao Txiki, Lazkano, Mattin eta Gorrotxategi ziren bertsoetan. Aurkezpenak egin eta gaiak emateko aukera izan nuen.

Jaialdi hartan jaso nituen Basarriren bat-bateko hiru bertso hauek Xalbadorren gorantz:

Bere omen egunez  
azkena etorri,  
ori gertatu zaio  
lagun Xalbadorri.  
Pozikan komeni ez  
biotz aundi ari!  
Begi ondoak malkoz,  
biotzak lerzori;  
luto beltzez jantzi da  
gure Euskaljerri.

Urepeleko izar  
disdiratzailea,  
bertsolari, poeta  
aundi ta trebea.  
Sentipenak agertzen  
berdiñik gabea,  
gure euskera zarraren  
egizko abea.  
Zeinek bete bear du  
zure utsunea?

Euskal baratzak zuen  
lore indartsuena  
kolpez agortu zaigu,  
au naigabe pena!  
Baiña, Jauna, zu zera  
Jaunik altsuena.  
Badakit nik Xalbador  
maite zenduena.  
Emaiozu betiko  
pake ta atsedena!

## ■ Urruñan

Azkenik gogora ditzagun ondorengo ale bakar hauek ere hamar urteko kronika burutzeko.

*Euskararen eguna* zuten Urruñan, 1964ko otsailaren 2an. Eta lagun arteko bazkalondo hartan giro bikaina eta bertso asko izan zen. Guk Basarri, Mattin eta Xalbadorrek bota zituzten hauek jaso nahi izan ditugu kronika burutzeko. Mattinen semea eta familiari buruz jardun zuten hasieran:

Bas    Mattin maitia, eman biarrak  
         dauzkat goraintziak milla.  
         Lapurditikan ez iñora irten  
         gizon obiaren billa.  
         Zortzi-bederatzi urte dauzka,  
         ille gorrizko mutilla.  
         Ezta errez baiña aita dan baiño  
         obia izan dedilla.

- Xal Bai, azkenean agertu zauku  
gure Mattin maite hura.  
Bazkal denbora guzian naukan  
gizon horren arrangura.  
Basarrik zerbait orai erran du,  
iduri zaio osta hura...  
Bi zentimetro gehiagorekin  
badu aitaren altura.
- Bas Gazte maitia, nik abixu au  
nai dut zuri bialtzia.  
Ez da premizko Xalbador orren  
esana ontzat artzia.  
Ez da komeni zentimetrotan  
ainbesteraíño aldatzia.  
Bertsotarako prezisuen  
buru ona edukitzia.
- Xal Ni lorietan begira nago  
Mattinen familiari.  
Mattin den baino lagun hoberik  
ez da aurkitzen nunahi.  
Emaztia ere hainekua du,  
hoi zer ari den badaki;  
eta semeak ekar dezala  
burrasok bezanbat argi.
- Matt Ni Xalbadorrek altxatu nai nau  
merezi bainan gorago;  
hunek egitan maite gaitula,  
gaurko kasua hola dago.  
Semea nola aterako den  
beti ni begira nago,  
eta ezin irakats diot  
dakidan baino gehiago.

- Xal Zer nahi duzu, lagun maitea,  
gaur semeak ikastetik?  
Gaurkoan nehork ez du sofritzen  
erakuslerik gabetik.  
Bai eta hire seme maiteak  
planta guziak baditik.  
Hire aitak ere etzakin bainan  
ikasi huen hargatik.
- Bas Bein biar eta mintzatuko naiz  
trankilki eta ondradu;  
olakuetan Basarri onek  
guztizko tenple ona du.  
Bertsolaria jaiotzatican  
derrior sortu biar du.  
Erakustia alperrik dezu  
berezkorikan ezpadu.
- Matt Gure Jinkoak eman nitian  
mutil koskor au semetzat;  
eta galde bat hortaz banikek  
orain, Xalbador, iretzat:  
Nahi bezala kunpli balite  
egin ditudan amentsak,  
nahi nikek nik artu baleza  
hire alaba andretzat.
- Xal Ni ere gogo bereko eta  
ez duk gaizki eroria.  
Hi lore bat haiz, Mattin, ainitzek  
ustez-eta elorria.  
Bai, aments ori kunpli baladi  
bizia laikek kanbia.  
Hi eta nitzat gerta laitekek  
hemen zeruko loria.

# Aurkibidea

---

<b>Atarikoa</b> .....	7
Lehengoen jarraitzaile.....	7
Nahiko sari.....	8
Aurrera begira .....	10
Hala ere .....	11
<b>XALBADOR ETA BERE INGURUA</b> .....	15
<b>Nor zen Xalbador</b> .....	17
Sortetxea .....	17
Sorterria .....	18
Eskola .....	19
Bertsozaletasuna.....	21
Bertsotan plazan .....	22
Gizona fedetsua.....	23
Guk ezagutu ginuen Xalbador .....	24
Gozatu eta sufritu .....	26
Bertsolari kezkatia.....	27
Bertsoari doinua neurrira .....	29
<b>Anoetako istiluaz</b> .....	31
Ezusteko galanta .....	32
Gure jarrera .....	33
<b>Txapelketak, sariketak</b> .....	35
100.000 pezetako saria.....	35
<b>Omenaldiak</b> .....	39
Eta herio gaiztoa.....	40
Hileta hunkigarri hura!.....	42
Hilerrian eta inguruan.....	48
<b>Bizpahiru iritzi Xalbadorri buruz</b> .....	49
Basarri .....	49
Joxe Mari Aranalde.....	51
Xabier Lete .....	53
<b>Xalbador bertsoan</b> .....	55
Xalbador bakarka .....	56
Xalbador ofiziotan.....	60
Uztaritze, 1964 .....	63
Donostia, 1965 .....	64
<b>Xalbador bertso jartzailea</b> .....	69
Maisu haundia .....	69

Xenpelar saria, solasean.....	70
Ene ama zenari. 1976ko Xenpelar saria.....	75
Sortetxeari. Xenpelar saria, 1972.....	77
Mendian galdu direnei. Xenpelar saria, 1973.....	79
Ortzirale saindu batetako gogoetak eta otoi-tza. Xenpelar saria, 1975 .....	81
Pilota, euskal jokoa. Gipuzkoako Pilota Elkartearen saria, 1975 .....	83
<b>XALBADORREN ITZALEAN. HAMAR URTE</b> .....	85
<b>Xalbadorren eguna 2004</b> .....	87
Egitasmoa .....	88
Aurkezpen hitzaldia.....	89
Odolaren mintzoa. Aurkezpena.....	92
Bazkalondoko bertso batzuk.....	108
<b>Xalbadoren eguna 2005. Xalbador eta mendia</b> .....	117
Pertsulariak.....	118
<b>Xalbadoren eguna 2006. Xalbador eta Mattin</b> .....	137
Egitasmoa .....	137
<i>Mattin eta Xalbador</i> . Aurkezpena .....	138
Bazkalondoko bertso batzuk.....	147
<b>Xalbadoren eguna 2007. Xalbador eta diaspora</b> .....	155
Egitasmoa .....	155
Bazkalondoko bertso batzuk.....	157
Bertsopaper lehiaketa.....	162
Helduen mailan sarituak .....	165
Xalbadorren eguna 2007. Kronika .....	175
<b>Xalbadoren eguna 2008. Xalbador eta lehengo Urepele</b> .....	179
Xalbador eta lehengo Urepele .....	179
Egitasmoa .....	180
Bazkalondoko bertso batzuk.....	181
<b>Xalbadoren eguna 2009. Xalbador eta Antonio Zavala...</b>	191
Egitasmoa .....	191
Xalbadorren hilobian bertsoak.....	202
Bazkalondoko bertso batzuk.....	203
Xalbadorren eguna 2009. Kronika .....	214
<b>Xalbadoren eguna 2010. Xalbador eta Xanpun gogoa ....</b>	217
Egitasmoa .....	216
Bazkalondoko bertso batzuk.....	219
2010eko Xalbadorren Eguna. Kronika .....	227
<b>Xalbadoren eguna 2011. Xalbador eta Xabier Lete gogoan</b> .....	231



Egitasmoa .....	231
Bazkalondoko bertso batzuk.....	248
Asteleheneko kronika .....	257
<b>Xalbadoren eguna 2012. Xalbador eta</b>	
<b>Joakin Berasategi gogoan</b> .....	259
Egitasmoa .....	260
Bazkalondoko bertso batzuk.....	260
Xalbadorren eguna 2012. Kronika .....	272
<b>Xalbadoren eguna 2013. Xalbador eta Basarri gogoan...</b>	275
Egitasmoa .....	275
Urruñatik hasita.....	276
Urruñatik Parisa.....	278
Zumarragan .....	283
Donostian.....	284
Odolaren mintzoa .....	286
Xalbadorren heriotza .....	289
Beste omenaldiak .....	293
Urruñan .....	294

- 315 Kruz Azkarate  
*Ondorengoak jakin dezaten*
- 316 Patxi Iraola  
*Naizen apurra*
- 317 Txomin Garmendia  
*2008ko nere egunkaria*
- 318 Gillermo eta J. Inazio Albizu  
*Biotzetik senti dedana*
- 319 Joxemari Iriondo  
*Basarri II. Jarritako bertso asko*
- 320 Julian Albistur  
*Dozenaka sortuak*
- 321 Xabier Unanue  
*Santa Ageda koplak Zestoan*
- 322 Askoren artean  
*Roman Maiz, Okelar bertsolaria*
- 323 Inaziomari Atxukarro  
*Irriparrezko printzak*
- 324 Antonio Zavala  
*Bilboko gabon-kantak (1755-1832)*
- 325 Xanti Zabala, Lexo  
*Udaberriz*
- 326 Joxemari Iriondo  
*Xalbadorren itzalean. Hamar urte*



Xalbador hil zenetik urteroko bertso jaialdia-  
ren antolatzaile ezberdinak izan dira hogeita ha-  
mazapi urte honetan. Lehenengo hogeita bost  
urtetan Eskualtzaleen Biltzarrak, eta Joxe Mari  
Aranalde zenak hartu zuten bere gain antolaketa-  
ren zama, adiskide eta bertsozale askoren lagun-  
tasunez beti.

Xalbadorren miresle eta maitalerik sutsuenak  
Urepelen bildu eta bertso jaialdi ederraz gozatuz.  
Gutxienez ere egun bateko bertso festa eta Xalba-  
dorren maitasuna gogoratzea zuten helburu.

Hogeita bost urtean udazkeneroko zereginaz  
nekatu eta antolaketa-lanak eskuz aldatu nahi  
zituela adierazi zuen Aranalde. Eta holaxe sortu  
zen Deiadarra taldeari eman zion lekukoa, 2004-  
ko urrian, aurrerantz ere ahal zuen arte lagun-  
tzen jarraituko zuela hitzemanaz.

Hola sortu zen lantaldea, Bethart familia, Joxe  
Mari Aranalde bera, Antonio Zavala, Joakin Bera-  
sategi, Joxemari Iriondo eta Urepele eta inguruko  
beste lagun batzuk elkartuta, errazago baita hola-  
ko eginkizunei taldean eustea bakarka baino.

Joxemari Iriondo

# Xalbadorren itzalean

## Hamar urte



Joxemari Iriondok (Urrestilla-Azpeitia, 1938), berrogeita sei urtez irratian eta telebistan lana egin ondoren, honako li-  
buruok argitaratu ditu *Auspoa* sailean:  
*Nere aldiko kronika* – Joxe Lizaso (Aus-  
poa 275), *Ostiraleko kronika* – Inozentzio  
Olea (Auspoa 278–279), *Segi, Mugartegi*  
(Auspoa 282) *Basarri I. Bat-batean* (Aus-  
poa 296), *Mattin eta Xalbador* (Auspoa  
301, A. Zavalarekin elkar-lanean), *Xan-  
pun bertsularia* (Auspoa 302), *Basarri II.*  
*Jarritako bertsoak* (Auspoa 319).

Horiez gainera, *Lengo egunak gogoan*  
– Uztapide (Auspoa 314, berredizioa), *On-  
dorengoak jakin dezaten* – Kruz Azkara-  
te (Auspoa 315), *2908ko nere egunkaria*  
– Txomin Garmendia (Auspoa 317), *Bio-  
tzetik senti dedana* – Gillermo eta Jose  
Inazio Albizu (Auspoa 318), *Irriparrezko*  
*printzak* – Inazio M. Atxukarro (Auspoa  
323) eta abarretan parte hartu du trans-  
kripzio, zuzenketa eta edizio lanetan.

*Xalbadorren itzalean* – *hamar urteko*  
*kronika* (Auspoa 326) hau, Deiadarra tal-  
dearen hamar urteurreneko laburpena  
idatzi du beste guztion zerrenda osatze-  
ko, irakurleak pozik hartuko duen itxa-  
ropenez.

Deiadarra, 2013ko urriak 11

DEIADARRA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

DEIADARRA



AUSPOA



Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz

